


Xabier Amuriza

OINARRIAK

ikaslegin izenaz argitaratuak



3. maila
Kazetaritza saila

OINARRIZKO EUSKARAZKO ARGITALPENAK

1. maila:

HITZ EGIN! IKASLEAREN LIBURUA
HITZ EGIN! IRAKASLEAREN LIBURUA
HITZ EGIN! ARIKETA IDATZIAK
ERREKALDE KALEKO BURRUKA
AIREPORTUKO ESPIOIA
KOTXE-LAPURRAK
OINAK
IKASLE ISRAELEN
OIER, XABIER ETA AMAIAREN BIHURRIKERIAK
SAN BRAULIOKO EROA

2. maila:

HITZ EGIN! IKASLEAREN LIBURUA
HITZ EGIN! IRAKASLEAREN LIBURUA
HITZ EGIN! ARIKETA IDATZIAK
FRANTSES BI DONOSTIAN
ZORITXARREKO ZORIONA
NIRE IZEBEA MAITEA
HARRIAK
HAIZEAK ERAMAN EZ DITUEN HITZAK

3. maila:

HITZ EGIN! IKASLEAREN LIBURUA
HITZ EGIN! IRAKASLEAREN LIBURUA
HITZ EGIN! ARIKETA IDATZIAK
ITSASOA ETA NI
GIDALIBURUA MAILAZ MAILA
IPUIN BELTZAK
HERRI AHANTZIA
OINARRIAK

OINARRIAK

ikaslegin izenaz argitaratuak

EUSKALTZAINDIAREN
OINARRIZKO
EUSKARARAKO
BATZORDEA



Liburuxkaren egile: XABIER AMURIZA
Irudiaren egile: JOSE LUIS IRIONDO
Prestatzaile: OINARRIZKO EUSKARARAKO
BATZORDEA
Argitarazle: EUSKALTZAINDIA
IBERDUEROKO
EUSKAL KULTUR MINTEGIAREN LAGUNTZAZ

1987
© Euskaltzaindia
1. argitalpena, 1987

I.S.B.N.: 84-7086-185-9
Legezko Gordailu: S.S. 489/87
Inprimatzaile: Itxaropena, S.A. - Araba Kalea, 45 - Zarautz

HITZAURREA

ETA ORAIN «OINARRIAK»

Euskaltzaindiaren Oinarrizko Euskararako Batzordeak, beste hainbat liburuez gain Xabier Amuritzaren artikulu mailakatuez osoturiko hiru liburu eman ditu argitara. Hauxe duzu hirugarrena.

Lehena OINAK izan zen. Lehen Mailako ikasleak ibilbidea egiten ikasteko OINAK. Ikaslea, euskara irakurtzeari beldurra kendu, eta tapa-tapa, hizkuntza berriaren eremuan barna, hitzak, aditzak, atzizkiak... josten hasiko da.

Gero HARRIAK, bigarren mailan. Ibilbidea sendotu. Oinen behean harrizko bide tinkoa ziurtatu, trabarik gabe aurrera egiteko.

Eta orain, OINARRIAK. Oinak sendo, harriak irmo, oinarrieci ekiteko prest gaude. Liburu honek aukera eman nahi dizu, zeureganatu berria duzun euskararen oinarriak sakontzeko.

Lehen mailakoan, idazleak bere luma aberats eta arinaren hegoak baldartu behar zituen; hots, 1. Mailako edukietara makurtu. Bigarrenean ere berdin; mugak apur bat luze zabaltxoagoak, baina oraindik ere esparru zehatzak.

Hirugarrenerako ez zaitugu berri, irakurle. Hizkuntzaren baitan urratsak emanaz iritsi zara honaino. Egiturak eta hizkuntz-ohiturak zeureganatuak dituzu dagoeneko. Ez duzula oraindik hizkuntza menperatzen? Eta nork menperatzen du bada? Mailen eremuak zabalduz, mugak hautsiz, ikasiaren ikasiz, aurrerantz egin nahiean gabiltza denok.

Xabier Amuritzak ez du liburu honen helburu pedagogikoa inondik inora ahaztu. Tamalez gure herri honetan, nahiz eta euskaldun bakoitzak akademikotzat hartu geure burua, denok gara ikasle. Ia denok, gure hizkuntzan irakurle berri; bai eta sasi-akademikorik gehienak ere. Euskal idazleak ulergarri idazten ahalegindu beharko du, beraz, urte askotan. Irakurleari ulermen-nekeak eskatu gabe, idazleak berak hartu behar ditu neke-lan horiek, ulergarri idazteko.

Amuritzak dugu maisu lanbide honetan. Luma aberats eta jakintsua, baina behar denean, makurtzen, jaisten, apaltzen, irakurleari egokitzen ba dakiena. Berarekin estu-estu lanean, Jesus Naberan jardun da liburu honetan. Biori esker, izango du euskaldun irakurle berri orok tresna baliagarri eta egoki hau eskutan.

Bestalde, Oinarrizko Euskararen arloan, eta liburuen argitalpenetan bereziki, ezinbestekoa genuen eta Iberduerok eskaini digun laguntzari esker ona. Euskaltzaindiak ezin du aipatu gabe utzi.

O.E.B.

1

BEATLE BATEN NOSTALGIAK

Gizon famatuak asko izan dira munduan. Mundua ugari-tuz doan bezala, aurrerantzean ere ez dira gutxi izango. Musika sailean gizon famatuak ugari izan dira. Baina fama bukatzen denean non gelditzen da gizona?

Musikoen artean kantariak ez dira azken. Eta kantarien artean nork ez du entzun «The Beatles» famatuen berri?. Horietako bat Paul McCartney izan zen. Garai batetan ospearean gailurrean zeuden. Baina hegemonia bukatu zitzaien.

Eta gizonak zertan dira? Paul hau ez dugu esango gizona ez denik. Baina bai gizon berezia ere. Begira zer egin duen.

Paulek ezin du, antza, jendeak kalean ez ezagutzerik jasan. Ezin dio Beatle izateari utzi. Badirudi eritasun handi batek harrapatu duela. Paroxismoraino doan eritasuna. Londresko bere kuartel generalean grabazio estudio bat egin arazi du, lehenago Beatleek zeukaten berdin-berdina. Nostalgiazko lan hori, ba dakizu zenbat kostatu zaion? Milioi erdi libera bakarrik. Berrogeita hamar milioi pezeta.

2

KANTARIA IKUSTEKO DISKOA

Musikarik gustatzen zaizu? Bai segur asko. Eta kantaria bera ikusterik gustatzen zaizu? Hori ere bai segur asko, kantazalea baldin bazara. Ba, Amerikan, Estatu Batuetan, era

batera diskoa entzuteko eta kantaria ikusteko sistema bat atera dute. Horrela ez da abotsa bakarrik. Bakoitzak berak nahi duen idoloa ikusi ahal du diskagailuan. Belarriak doinuaz gozaten diren bitartean, begiek kantariaren aurpegia ikusten dute. Edo ikusi ahal dute behintzat. Disko irudiduna. Horra Ipar Amerikar teknologiaren azken asmakizuna.

Honantz heldu zaigun lehen alea Elvis Presleyren disko bat da. Elvis hau pop musikako figurarik handiena zen eta duela bi urte hil zen. Kantariek ere hil beharra dute, nahiz eta hilezkortasuna kantatu. Disko honek rocklari famatuaren eksitu batzu dakartza, baita elkarrizketa bat ere 1956ean grabatua. Orduan Elvis Presley gazteriaren idolo nagusia zen.

Hemen ez da oraindik horrelako diskorik egiten. Esaten ari garena Amerikatik inportatua da. Estatu Batuetan bertan ere ez da gehiegi fabrikatzen horrelakorik. Ez omen da zaila, baina bai garestia. Hori nahiko zailtasun da beste gabe ere.

Zertan datza sistema hori? Ba, ez da argazki bat besterik, plastiko transparantez estalia. Fabrikazioko gauza berri bakarra zera da, alegia, argazki hori diskoari berari itsasten, ezartzen zaiola. Amerikar horiek, oraindik, gazta ere diskoan sartuko digute. On egin.

3 NEKAZARIAK TELEBISTAN

Espainiako nekazarien populazioan, ehuneko laurogeiek ez dakite «consenso» hitzak zer esan nahi duen. Irrati difusio-ko eta telebistako institutu ofizialak estudio bat egin du eta horixe atera du. Estudio honek populazio ruraltzat hau jartzen du: hamar mila lagunetik beherako herrietan bizi direnak. Espainiako populazio osoaren ehuneko hogeita hamazortzi dira horiek.

Inkestatuen artean ehuneko laurogeita hamarrek telebista ikusten dutela, diote. Hala ere ehuneko hirurogeita batek ez daki «autonomia» hitzak zer esan nahi duen. Eta ehuneko hirurogeita hiruk ez du ulertzen Europako Elkarte Ekonomikoaren edo Merkatu Batuan sartzea zer den. Pentsa ezazu kon-

tzeptu horrek hamabost urte daramatzala komunikabideetan. Hamabost urte ia egunero erabiliz.

Zer esan nahi du horrek? Nekazariak tentelak direla? Bost axola diela? Ez bata ez bestea. Atera litekeen bakarra da, nekazariak erruki gabe esplotaturik daudela. Politikak marginaturik, bazterturik dauzkala. Botuak behar direnean bakarrik gogoratzen dira nekazarietaz.

4 GIZATERIA AZKENETAN

Nondik dator gizona? Nora doa? Arima bezain galdera zaharrak dira hauek. Gehienek gainera uste dute erantzunik gabeko galderak direla. Baina ez Arthur Koestlerrek. Gizona nondik datorren ez omen daki. Baina bai nora doan: espeziearen azkenera.

Giza mota espezie hau hiltzera destinaturik dagoela dio. Zenbat denboran? Hamar, ehun edo mila urteren buruan. Hori gutxiena omen da. Denbora kosmikoarekin konparaturik, diferentzia horiek ia hutsak dira. Honela gizonak dinosaurioak baino gutxiago iraungo du lurtean.

Nondik ateratzen du autoreak hain ondorio apokaliptiko hau? Hemendik: atomo aroa eta giza zerebroen insufizientzia bat egitetik. Nahasketa hori leherkorra (esplosiboa) da. Koestler ez uste ekologo fantasiatsu edo txoriburu ameslari bat denik. Gehiago oraindik, kontzientzia adultoaren aroa atomo aroaren sarreran hasten dela uste du. Zer dioen eta zergatik dioen jakitea, ez zaizu gaizki etorriko.

5 ATOMO AROA ETA ZEREBROA

Giza espeziea laster amaituko omen da, Koestlerren ustez.

Andromeda badakizu zer den? Izar pila bat, konstelazio bat. Ba, Andromedaz handiko lekuren batetan dauden beste

bizidun eboluzionatuak, dudarik ere ez, atomoa maneiitzen dutela. Eboluzio zientifikoaren logika barruan dago hori, argi baitago fisika bakarra dagoela izadi edo unibertso osorako.

Koestler segur dago «gizon berdeen» esistentziaz. Hauek beren zerebroa hezita daukate eta atomoa ere bai segur asko. Baina hau ez omen da gure kasua. Denak daude ados giza zerebroa ordenadore bikaina dela. Koestlerrek ere onartzen du hori. Baina baita ere, esaten du tresna hori hondaturik, gai-xorik eta beraz ezaski edo insufiziente dagoela. IV. mendean arrisku gutxikoena zena XXI. ean mortala izan liteke. Gizon honek dioena egia bada, denbora hobeto aprobeztatu behar da.

6 LOGABETASUNA BOTIKATZAT

Nork pentsatuko zuen gautxoriek arrazoia edukiko zutela? Lorik eza edo loa guztiz kentzea depresioaren tratamendu ona omen da. Erbia Shultek jaso zuen. Honek hiru eri edo gaixo klase deskribatu zituen eta denak asko hobetu omen ziren gau osoa itzarririk eta aktibo pasatu ondoren.

«Tubingen» klinikan hogeitahiru eri depresibo endogeno hartu zituzten, beste hamaika depresibo neurotiko eta hogeitahiru osasun oneko. Gau guztian eta biharamunean itzarririk eduki zituzten.

Depresibo endogenoek ongi eraman zuten prozedimendua eta denak hobetu ziren. Neurotikoen erantzuna bariatua izan zen. Sujektu normalek ez zuten alderik igarri edo gaizkiago sentitu ziren. Beste ikertzaile askok ere egin dituzte aprobak. Logabetasunak ekartzen dituen aldakuntzetan zer mekanismo dabilen ez dakite oraindik. Bakoitzak esplikazio desberdinak ematen ditu eta segur asko mekanismo bat baino gehiago dago. Zerbait badago eta zerbait inportantea noski. Bilatzen segi beharko.

7 TENTSIOAK IKASMENA URRITZEN

Kontrol mentala eta ikasmena (ikasteko ahalmena) oso loturik omen daude. Badira zenbait teknika eta eskola, oinarritzat maila mentalik sakonenen kontrol eta erabilera kontzientea dutenak. Teknika hauek asko zabaltzen ari dira eta aplikazio handiak espero dira. Aplikazioetariko bat «bioinformazioa» deritzana da. Honen oinarria hau da: gure gorputzeko organu desberdinen sintonia harrapatuz gero, kontrolatu ahal ditugu.

Neal Millerrek demostratu zuen, batek bihotzaren erritmoa mendera ahal duela, logabetasuna (insomnioa), hipertentsioa, antsietatea, kalanbre muskularrak etabar konbatitu. Hitz batez posible dela tentsioak kentzea, oreka psikofisikoa errekuperatzea eta gure buruari eta gorputzari deskantsu sakona ematea.

Armoni eta bakezko egoera atsegin honetan, gure subkontzientea estimulu gehiago eta irudi positibo gehiago hartzeko moduan dago. Efikazia, kontzentrazioa, erlaxapena eta ikasteko ahalmena gehitu egiten da. Sujetoari bere onda zerebralak kontrolatzen irakasten zaio eta lasaiago dago. Teknika hauek ez omen dira hain konplikatuak. Noiz aterako ote dira plazara?

8 KAKARRALDOAREN IDEIAK

—Zergatik zara hain famatua, aita? —galdetu zion behin Edward Einsteinek bere aitari.

Eta aitak honela erantzun zion:

—Ipuin bat kontatuko dizut. Ba ziren behin kakarraldo batzu «bola» baten gainean zebiltzanak. Berek ez zekiten. Ni naiz ohartu den lehen kakarraldoa.

Paul Valery poeta frantses handia harriturik zegoen Einsteinen pentsamenduaz. Behin Parisen topo egin zuen fisikoarekin eta hots egin zion:

—Baina, nola moldatzen zara zure ideiak ordenatzeko?

—Begira —erantzun zion Einsteinek—. Ez zait ordenatzetik batere kostatzen. Ideiak bakanak dira.

Einsteinek zentzu pixka bat duten guztiak harritu ditu. Haren teoriarik famatuena erlatibitatea da. Zientzia azpikoz gora jarri zuen. Zientifikoak Einsteinen zerebroa ikertzen (inbestigatzen) ari dira, ea zertan den besteengandik desberdina. Oraindik ez dute ezer desberdinik aurkitu.

9 TENTSIOAREN MISTERIOA ARGITURIK

Bi medikuk, Meyer frantsesak eta Garay espainolak, egundoko kolpea eman diete laborategiei; hipertentsioaren kontrako botikak egiten dituzten laborategiei. Hipertentsioa tentsio altua edukitzea da. Parisko Necker ospitalean tentsio arterial altuaren mekanismoa aurkitu dute. Hain zuzen, botiken multinazionalak «metablokeatzaile hipertentsoreak» merkatura botatzen ari zirenean.

Orain jakin denez, tentsio altuaren mekanismoa ez dago zeluletan bertan edo zelulen inguruko plasman edo saldan. Non, ba? Zelulen mintzean. Zer esan nahi du horrek? Oraingo medikamentuek agur egin behar dutela.

Era berean jakin ahal izan da tentsio altua gatz gehiegi kontsumitzeak dakarrela, batez ere. Sodioa gaizki metabolizatzeke joerak ere egiten du hori. Joera heredagarria gehienetan.

Aurkikunde hau Espainiari bereziki loturik dago. Alde batetik hemendik ihes eginiko zerebro baten lana delako eta bestetik hemen leku gutxitan bezala gatzaz abusatzen delako.

10 ARRAULTZEAN ARNASA

Hegaztien arraultzea janari sistema osoa da. Enbrioia hazten denean, arraultze barruan dauka behar duen guztia: jana-riak, mineralak, energi iturriak eta ura. Baina arraultzeari derriorreko gauza bat falta zaio: oxigenoa.

Nola hartzen du oxigenoa txitak edo txorikumeak arraultze barruan? Arraultzeak atmosferatik arnasa hartzen du. Arraultzeak arnasa hartu? Bai, jauna. Arraultzeak milaka eta milaka poro edo zuloxo ditu oskolean. Hortik haizea hartzen du eta txorikumearen arnas hondakina botatzen. Eta hori txorikumeak bat ere ahaleginik egin gabe. Nola? Arraultzeaz kanpoan oxigenoa, barruan baino kontzentratuago dagoelako. Eta gasen molekulek kontzentrazio gutxiago dagoen lekura jotzen dute. Jende gutxiago dagoen lekua gustatzea bezala.

Bueltako arnasari ere, hau da, oxigeno erreari (karbonozko bioxidoari) berdin gertatzen zaio. Barruan baino bioxido gutxiago dago kanpoan eta orduan kanpora irten behar. Sarriten hori gasak berez egiten du, gasen berezko propietatez. Horra nola hartzen duen oxigenoa arraultze barruko enbrioia.

11 BIRJINTASUNA ZAINTZEKO ALUA JOSI

Somalia Afrikako herri bat da. Ohitura hestuak dituzte, oraindik. Somaliar emakumeek ez dute inoiz, besteek bezala, belorik eraman. Baina errespetu zorrotzeko legepean bizi dira. Tradizioz emakumeen birjintasuna infibulazioz zaintzen da.

Zer da hori? Infibulazioa aluaren ezpainak jostea da. Eta zer da alua? Inork entzun nahi ez duen hitz bat. Norbaitek «alua» esaten badizu, ez uste piropo bat esan dizunik.

Baina alua beste gauza bat ere bada. Alua emakumeen sexuaren ahoa edo kanpoaldea da. Somaliako neskatxoei zortzi urtetatik hamabira bitartean operazio bat egiten diete. Alua josten diete. Oso operazio mingarria omen da.

Gero neska baten ezkon gaua ez omen da bat ere gozoa izaten. Baina hori bai. Birjintasuna kandadupean. Eta gainera giltzarik gabe. Somaliar asko ohitura hori gaizki ikusten hasita daude. Baina tradizioak zutik dirau. Defentsorerik zorrotzenak emakume adintsuak dira hain zuzen:

—«Gu josi eta orain libre?».

Urrundik barregarria dirudi. Baina bai tristea ere holako zapalkuntzak dauden mundua.

12 GOMAZKO KAMINOAK ERRUSIAN

Kaminoak estaltzeko asfalto erabiltzen da. Baina aspaldianik gauza jakina da nolako okerrak dituen. Denbora ez hain luzean lisu eta labain gelditzen da; erraz desegiten da; udan beroak bigundu egiten du; eta neguan izotz kapa gogorra egiten zaio. Orain arte ez da asfaltoaren konpetidorerik agertu.

Errusian Volgogradoko inginiaria espezialistek beste soluzio bat proposatu dute. Problema honen eragozpen guztiak gainditzekoa omen da. Teknologia berria lehengo teknologian oinarritzen da. Goma zaharra (neumatiko gastatuak eta gomagintzako hondakinak) xehetu eta betunez nahastu. Pas-ta hori kamino azalean zabaldu eta zapalgailuekin gogortu.

Entseiuek demostratu dutenez, gomazko kamino hauek asfaltozkoak baino gehiago irauten dute; gurpilek hobeki itsasten dira eta izotzik ez da finkatzen: berehalaxe arrakalatzten da izotza eta gurpilek desegiten dute. Aprobak aurrera doaz eta baliteke laster gomazko kaminoak ikustea.

13 DROGAZALEAK KOMENTUAN SENDATU

Tham Karbok Tailandiako monasterio bat da. Ez da beste edozein monasterio budista bezala. Monasterio honek drogaren kontra lan egiten du. Drogazaleak sendatzeko da, drogazaleak desintoxikatzeko. Eta ez uste alferrik lan egiten duenik. Erresultatu harrigarriak lortzen dira monasterio horretan.

Drogazale askok beren bizioa uztea lortzen dute. Drogaren domeinutik askatzea lortzen dute. Abbot Sorajassapa da zuzendaria. Honek likidu bat prestatu du ehun belar desberdinen ura nahasita. Formula hori isilean dauka. Oraindik ez da agertu. Likidu hori okarazlea da, hau da, oka egin erazten du.

Desintoxikazio kolektibo hori ez da, ikusteko batere polita. Ez da batere ikuskizun gozoa. Drogazaleak iladan jarri, likidu okarazlea edan eta hesteak bota beharrean hasten dira. Baina sendatzeko efektu ikusgarriak ditu. Bizioa uzten duten drogazale asko budismora konbertitzen omen dira eskerronez. Nahi baduzu, ba dakizu zer egin. Ehun belar desberdin bilatu edo Tailandiara joan.

14 EHUN URTE EZKONDU ZIRELA

Ehun urte bizitzera heltzea marka ederra bada, pentsa zer den ezkontzako ehungarren urtea ospatzea. Eta ez senarrak edo emazteak bakarrik. Biak heldu dira ezkondu eta ehun urtera. Mongolian gertatu da hori; Bajan-Ugli-Aimant izeneko hirian.

Gizonak ehun eta hamazortzi urte ditu eta andreak ehun eta hamasei. Ezkontzako ehungarren urtean alabarik gazteenak laurogeita hamabi urte zituen. Honek ere ez darama martxa txarra. «Zergatik hainbeste urte bizi ziren» galdetu eta erantzun zuten:

—Mendiko klima eta lana.

Oraindik ez omen dira elkarrekin aspertu.

Honelako kasuak Kaukason, Ecuadorko Vilacabamba harranean, Moldaviako mendietan eta Bulgarian gertatu dira. Geriatrak edo zaharren medikuak harriturik daude. Oraindik ez dute lortu longebitate horren arrazoirik jakiterik. Hori ikusita, ez dago ezkontzeko presarik.

15

BIZKARREKO MINA PLAGA BERRIA

Gure zibilizazioan, Mendebaldeko hirietako zibilizazioan, ehundik hirurogeita hamabost (%75) gaitz ez dago argi definitzerik. Baina sintoma berdin bat dute, bizkarreko mina.

Egokera txarrak, zapata desegokiak, ibilkera txarrak, bizkarrezurra, pelbisa eta hankak harrapatzen dituen lana... horiek dira arrazoi nagusiak.

Ba dira lasaigarriak eta analgesikoak. Baina ez dira hain efektiboak. Gainera mukosa gastrikoa hondatzen dute. Jendeak bizkarreko mina du eta sarritan ez daki zergatik. Ez da erreuma ere. Baina min du. Zer gertatzen da?

Gu bi hankaren gainean ibiltzekoak gara. Bipedoak edo hankabikoak gara. Gorago esan ditugun horiek, ordea, lau hankako animalien kondizioetarako dira.

Soluziorik onena ez omen da botikak hartzea. Horiek ez direla efektiboak esan dugu. Soluzioa ariketa fisikoetan dago. Gorputzari eragin, gorputza mugitu. Gimnasia eta abar, horra hor bizkarreko mina kentzeko modurik onena.

16

ASUINA OTSOAREN MEDIKAMENTUA

Otsoa bildurgarria da, baina batzutan bera ere gaizki ibiltzen da. Otsoek ez dute sarraskirik (haragi ustela) hainbeste maite. Baina gosea lagun txarra da eta, datorrenean, zerbait

egin behar. Otsoak sarraskia jaten du. Baina ustelegi badago, urdailak eta organismoak laster igertzen dio. Urdailak alar-ma jotzen duenean, otsoa berehalaxe hasten da erremedio bila.

Zer egin? haragi ustel hura oka egin behar da, bota egin behar da hesteetara pasatu aurretik. Orduan otsoak asuin pila bat iresten du. Asuin berdeak mukosa gastrikoa jotzen duenean, okagalea etortzen zaio. Horra nola oka egiten duen otsoak jan berri duen haragi ustela. Asuin berdea okarazlea da.

Ez duzu inoiz txakurrik ikusi belar bila eta belarrak jaten? Txakur gaixoa triste ibiltzen da orduan. Zerbait jan du ta kalte egiten dio. Horregatik belar okarazleak bilatzen eta jaten ditu. Zertarako? Barruan daukana botatzeko.

17

GAURKO HESS EZ DA BENETAKO HESS

Rudolf Hess, Hitlerren lugartenientea. Bigarren gerra mundialeko buruzagia. Gaur munduko presorik famatuena. Berrogeita batean Hessek Eskozian lurrartu zuen jaugailu (paraxuta) batetan. Zer nahi zuen? Ingelesak alemanekin bapateko bakea firmatzea. Detenitu eta preso eduki zuten Eskozian gerrako preso bezala. Handik bost urtera Nürnbergeko juizio famatuan. Hess betiko kateara kondenatu zuten. Berlinen, Spandau izeneko gartzelan, bera bakarrik dago. Hogeita hamazazpi urte daramatza preso.

Baina Rudolf Hess hau, benetako Hess da? Orduan ere bazen dudarik. Hugh Tomas medikuari Hessen mediku izatea gertatu zaio. Honek liburu bat atera du eta dio:

«Segur nago hau ez dela Hess benetakoa eta ea fartsa zakar hau bukatzen den».

Hess benetakoa hiru bider zauritua izan zen lehen gerra mundialean. Behin bala batek ezkerreko birika zulatu zion, bularretik sartu eta bizkarretik irten. Gaurko Hessek ez du inolako zauri arrastorik. Pentsatzen jarritz gero, nola joango

zen, ba, benetako Hess Eskoziara jausgailu indefentso batetan?

18 ZEREBROAN IRRATIA

Zerebroak alderdi desberdinak ditu. Puntu bakoitzak bere espezialitatea du. Horrela sexualitatea, maitasuna, agresibitatea, etabar... Bakoitzak bere puntua edo zentrua du. Puntu horiei eragiteko edo estimulatzeko modu bat elektrikoa da. Gauzak ez dira erraz esplikatzekoak, baina begira nolako aprobak egin dituzten.

Tximino baten zerebroan elektrodo bat sartzen da, agresibitatearen puntuan hain zuzen. Tximinoak horrela irratiz bidaltzen zaion estimulua hartu ahal du. Trapuzko panpina bat sartzen da bere territorioan. Tximinoa inbasio harekin haserretu egiten da eta atakatzen hasten da. Segundu batzu geroago, agresibitatearen baregarri den estimulua bidaltzen zaio irratiz. Eta gure tximinoa mantso-mantso gelditzen da panpinari begira.

Esperientziarik harrigarriena zezen suhar batekin egin zuten. Elektrodoak sartu zizkioten zerebroan. Zezena bizien zetorreanean, irratitxo baten bidez detenitzen zuten behin eta berriro. Eta minutu batzutan mantso-mantso egoten zen ikertzaileen artean.

19 TUPA-KATARI, INDIOEN MUGIMENDUA

—Ni ez naiz bolibiarra. Ni Tuhantinsuyokoa naiz. Ni ez naiz bolibiarra eta ez nator Bolibiatik. Ni indioa naiz. Ni «indioa» deitzen naute eta hala tokatzen zait, hori desprezioz esaten badute ere. Ni ez naiz Amerika deritzon kontinente horretakoa. Amerikak bostehun urte baizik ez ditu. Nire

kontinenteak, ordea, hogeita mila urte ditu. Lotsa ematen dit Constantino Lima izena edukitzeak. Hizkuntza hau ere (gaztelania) derrigorrean eta bortxaz hitz egiten dut.

Constantino Lima, Tupa-Katari indioen mugimenduko ordezkari gisa Parisera etorri da. Hego Amerikan berrogeita hamabost milioi indio dira. Bolibian bakarrik bost milioi eta inolako eskubiderik gabe. Berriro Tupa-Katari hizketan:

—Ezkerreko jende askok Europan galdetzen du ea zer izango litzatekeen indiook aginpidea hartuko bagenu. Bengantza uste dute. Asasinoak garella uste dute. Indioa ez da fidatzen ez eskuinaz ez ezkerrez. Gu bakezaleak gara. Ez gara arrazistak. Baina ez gara europarrak bezalakoak. Gu ez gara ez eskuina ez ezkerria. Gu beste gauza bat gara. Baina zuek ez duzue ulertzen. Ez duzue ulertu nahi.

20 HEGAN ETA LO

Txori batzuk udazkenean Hegoaldera joaten dira. Eta udaberrian berriro beren jaioterrira etortzen dira. Beren habiak egitera etortzen dira. Hala dira antzarak, pasuko usoak, kukua bera, zikoinak eta abar.

Txori hauei txori migratzaileak esaten zaie.

Baina hauen joanetorriak ez dira berriketak. Beren joanaldi luzeetan oso lo gutxi egiten dute edo bat ere ez. Zikoinekin zenbait aproba egin dira. Tresna oso fin batzu paparrean ipini eta hauxe eman zuten: zikoinek, hegan doazela, hamar edo hamabost minutu bakarrik lo egiten dute. Eta ez denek batera, txandaka baizik.

Lo egiten duten hegaztiak taldearen erdian jartzen dira eta beste zikoinen hotzetatik gidatzen dira. Horregatik nekez ikusiko duzu, pasuko txoriak isilik joaten. Berriketa etengabe doaz. Baina ez da berriketa hutsa. Beren arrazoia dute. Eta arrazoi bat lo doazenak eramatea.

21 EUNUKOAK EMAKUMEEN ZAINZAILA

Eunukoa gizonezko irendua edo kastratua da. Zezena irendu eta idi egiten den bezala, gizonezkoak ere irentzen zituzten. Zertarako? Ekialdean emakumeak zaintzeko ziren batez ere. Afrikako zenbait herritan gerrako prisioneroak irentzen zituzten. Esan dugun Ekialdean ere zigor gisa batez ere egiten zuten hori, horrela indarra gutxitzen baita. Zibilizazio batzutan eunukoek eginkizun handiak izaten zituzten. Hauek mantsoagoak, anbizio gutxiagoak eta beraz segu-ruagoak ziren. Idiak bezala.

Erromako inperioaren azken aldean, eunuko edo ireindu hauek jauregiko jauntxoak ziren. Enperadoreen inguruan beraiek ziren hari askoren eragileak. Alexandro Severo enperadorearen garaian, eginkizun bakarra eta bitxia zuten: emakumeak bainatu. Enperadorearen gortean emakume talde edo «haren» amaigabea zegoen. Hauek garbi eta forman eduki behar ziren. Nor egokiagorik horretarako eunukoak baino?

Hauek Jesukristoren ondoko hirugarren mendeko kon-
tuak dira. Gero eunukoek, gero eta eragin handiagoa zuten gortean. Laugarren mendean Erromako jauntxoak ziren. Horregatik erori zen erromatarren inperioa? Gaurko inpe-
rioek nahiago dute buruak irentzea.

22 MENDE ERDI HAURDUN

Holandatik berri harrigarria datorkigu. Laurogeita hiru urtetako emakume bat haurdun zegoen. Urte horiekin haur-
dun? Hala noski. Emakume hura ohitura hartaz ahazturik ze-
goen. Duela berrogeita hamar urte gelditu zen haurdun. Nola liteke hori?.

Andrea kexaz zebilen aspaldian. Min handiak zituen. Me-
dikuak interbentzio kirurgikoa agindu zuen. Tumore bat zela
uste zuen. Operazioa egiten hasi eta lau hilabetetako haurra
aurkitu zioten, karezko kapa batez bildua. Fetoa momifika-
turik zegoen eta batere usteldu gabe. Ederki kontserbaturik
zegoen.

Emakumea orduan oroitu zen berrogeita hamar urte lehe-
nago haurdun gelditu zela. Baina hemorragia bat izan zuen.
Eta abortoa izan zela pentsatu zuen. Baina, dirudienez, ez
zen abortoa izan eta fetoa barruan gelditu zen. Eta lau hilabe-
teko haurra berrogeita hamar urterekin jaio da. Hilda jaio
bada ere, ez da nobedade txikia izan.

23 FILMATU ETA HIL

Hor Amerikan edozer gertatzen da eta hau ere sinetsi
beharko. Filmagile harrigarri bat agertu da. Protagonistak
benetan hiltzen dira. Ikusleak, torturak, zatiketak eta herio-
tzak benetan ikusten ditu. Zer negozio klase da hau, ordea?

Gizon batek neskak kontratatzen ditu ordain ederra agin-
durik. Gehienetan lesbianen eta horrelakoen argumentoak
hartzen dira. Neskak edo emakumeak kontratatu, dolar pila
bat bidean pagatu eta basamortura filmea egitera. Han ekipo
batek hartzen ditu artista gaixoak eta gehiago haien berririk
ez da jakiten.

Nola bistaratu da haria? Kontratatzailea mozkor-mozkor
eginik zegoen, eta puta bati zerbait esaten deskuidatu zen.
Haren bidez jende berria nahi zuen, kontratu berriak nahi zi-
tuen. Izan zuen deskuidu bakarra hitz gehiegi egitea. Emaku-
mea harriturik gelditu zen halako munstrokeriaz. Hark poli-
ziari eta hortik hasi zen kontratista bitxi hura harrapatzeko
prozesu luzea.

Gizona bera harrapatu zuten. Baina atzetik zeukan kon-
painia oraindik misteriopean dago. Kontratatzailea bera ere
libre dabil. Tribunalek ez omen dute arreta handirik jartzen.
Ea epaileren bat tartean dabilen.

24 EMAKUMEAK GOGOR SUITZAN

Suitzan feministen komandoak errespetua sartzen ari dira. Honelako komando batek Ginebrako «sexu dendetan» salmentak erdira jaitsi erazi ditu, asalto gogor batzu jo ondoren. Kristalak hautsi, sua eman eta horrelako ekintzak egin dituzte.

Suitzako beste hiri batzutan ere ez dira lo ibili. «Strep-tease» delako lokalak asaltatzen dituzte, baita emakume biluzien argazkiak argitaratzen dituzten aldizkariak ere. Aldizkari horietako erredaktoresei ilea mozten diete. Erredaktoreak berriz biluzik fotografiatzen dituzte eta argazkiak gero egunkarietara bidali.

Biluzidun aldizkarien tirada 1977an bi milioi eta erdi baten, 78an ia milioi eta erdira jaitsi da eta berrogeitazazpi kazetarik lan klase hori utzi dute. Denbora horretan «strep-tease»ko hogeita zazpi sala itxi dira. Suitzako agintariek ekintza hauei nahiko bide zabala uzten dietela dirudi, oraindik ez baita honelako emakumerik bat ere detentua izan.

25 DIKTADORE EHIZTARIA

Gerra irabazi eta ehizan hasi. Ehizaketa bat utzi eta beste bat hasi. Hori egin zuen Francok hil arte. Ehiztari porrokatua zen. Ehiza garaian, neguan gehienez ere hamar egun gelditzen zitzaizkion lanerako. Haren eginkizun nagusia ehiza zen. Hortik atera zer izango zen udaberrian, udan eta arrantza garaian. Testigu guztiek diote ehiza baino arrantza gehiago gustazen zitzaiola.

Francoren ehizaketak ustelkeria eta korrupzio guztien bilguneak ziren. Alde batetik kotoetako lurdunak industrialez, inportatzailez edo estraperlistaz inguraturik etortzen ziren. Beste aldetik, Francok ministroak, subsekretarioak, eta funtzionari handiak eramaten zituen. Eta tirotik tirora hantxe irabiatzen zuten berrogei urtetako salda.

Diktadorea bere lanari zorrozki emana zela uste genuen. Orain jakiten hasi gara, diktaduraren garairik gehiena ehizan eta arrantzan eman zuela.

26 UR TERMALAK ENERGIATZAT

Asko ez, baina munduan ba dira iturri edo putzu termalak. Reykjavik Islandiako hiriburuan (kapitalean) ez dute problemarik. Horretarako hainbeste iturri dute inguruan. Ehundik berrehun metrotara bitartean, lurpean, ura laurogeitik ehun eta berrogei gradutara dabil.

Tuberiak jarri eta ura eraman. Beste arazorik ez dago. Berogailu (kalefakzioa) eginda dago. Etxeko radiadoretan laurogei gradutan dator. Erabili eta gero, oraindik bero dago. Orduan beste gauza batzutarako balio du, arropak garbitzeko eta abar. Berogailu klase hau erregaia baino lau bider merkeagoa da eta elektrika baino zazpi bider merkeagoa. Eta gainera enplegu erraza du. Tuberiak jarri bakarrik.

Igerileku egokituak ere eginda daude. Eta irekiak gainera. Termometroak ia zeroan eta jendea ur berotan bainatzen aire librean. Islandiarrak milaka urtetan burrukatu ziren suaren eta izotzaren kontra. Ez da alferreko burruka izan.

27 KASTITATEKO ASEGURUA

Neurri zorrotzak daude Iranen emakumeentzat. Emakume guztiek beren agiria edo zertifikatua eraman behar dute. Zeren agiria? Leialtasunaren agiria. Emakume ezkonduak garbitasunaren agiria eta ezkongabeek birjintasunarena.

Lege berri hau beste kolpe bat da sexualitatearen errepre-sioan. Jomeini ez dabil txantxetan. Eta emakumeak oso diskriminaturik daude berriro ere. Ziurtapenak egiteko eta txartel fidagarria emateko arduradun bereziak daude. Nor-tzu dira arduradun horiek? Herriko edo auzoko aiatola edo

apaizak. Hauek, senargaiak hala nahi badu, andregaien infibulazioa ere agindu dezakete ezkontzako egunerarte.

Zer da infibulazioa? Ez da gauza gozoa izango. Maginaren edo emakumearen sexuko kanpoaldearen ezpainak jostea da hori. Horrela ez dago engainurik sartzerik. Hitz batez, kandedua eta aurrera. Jomeiniren erligioan mojak ere izango dira. Hauei ere berdin egin behar ote zaie?

28

BELARGINTZA KONDENATURIK

Belargintza belarren bilaketa eta sailketa da. Hitz batez, belarren zientzia, baina helburu medizinalez. Belargintzak oraindik isilpean eta legeen mehatxupearan ibili beharra du. Sail honi sorginkeria eta magia asko ezarri zaio eta horregatik oso pertsegitua izan da beti; higienarako hain ongarri den alderdi bat blokeaturik.

Hona, ordea, orain Munduko Osasun Erakundeak lan izugarri bati heldu diola: hoge mila landare medizinalen hautaketa egin. Ba dute pixka batetarako lana.

Osasun Ministeritzak agirian ibiltzeko eskubidea eman arte, belargintzara jo nahi duenak sokapean ibili behar. Honela, adibidez, ilarrak jan eta aurrera. Ilarrek, izan ere, giza fekunditatea erregulatzen duen sustantzia bat dute, m-xilohidrokinioia izenekoa. Izena ez da batere gozoa, baina bera oso ona omen da.

29

BIHOTZA EGUZKIAREN ERRITMOAN

Duela berrogeitamar urte Tchijeuski errusiar jakintsuak eritasunen tasak eta eguzkiaren aktibitatea konparatu zituen. Eta korrelazio handiak aurkitu zituen. Gaurko bi ikerlarik, batak Indian eta besteak Eskozian, bihotzeko istripuen tasak lurreko kanpo magnetikoaren bariazioekin konparatu

dituzte. Honela Gandhi eta Osmania ospitaletan hauxe aurkitu dute: eguzki partikulen jarioak gradu handia harrapatzen duenean, istripu kardiobaskularrengatik datozen internatuak gehitu egiten direla.

Horretan urterik zorrotzera 1968 izan zen. 1970, ordea, urte lasaia izan zen. Greziako aintzinako bustin lanen aktibitate geomagnetikoa aztertutik, M. Waltonek atera du Jesukristoren aurreko 600. urtetik 400. era kanpo geomagnetikoa biziagoa izan zela Atenasen. Eta gero asko jaitsi zela. Historiaren berri laurden duenak ba daki garai huraxe izan zela hain zuzen Atenasko urre aroaren sorrera: Drakonen eta Solonen legeak, Tales eta Pitagoras, Euripides eta Eskilo, Akropolis.... Beste era batera esanda, eguzkia agitatean, gogoak eta bihotzak ere bizitu egiten direla.

30

GOMAZKO SEGAMAKINAK

Nekazariatzat berri ona. Garestia ez bada. Zerbaitegatik esan zuen norbaitek gauza ona eta merkea nekez gertatzen dela. Segamakina batzu jiragarriak dira, hau da, bueltaka jirutzen direnak. Horiek urtean hamaika istripu sorrerazten dute.

Orain, ordea, metalezko orri arriskutsu horien orde, marka ingeles batek kautxozko orriak asmatu ditu. Kautxoa edo goma elastikoa. Segamakina honek altzairuzko nukleo txiki bat du oskol baten barruan sartua. Gomazko orriak metalezkoak bezain ondo ebakitzen du. Baina zauliki doblatzen da eskurik, hankarik, haitzik edo horrelako oztoporik aurkitzean.

Bi horri klase daude. Bata segamakina handientzat eta bestea baratze, lorazaintza eta abarrerako. Gomazko motorrak egitea bakarrik falta da. Laster buruak ere gomazkoak egingo dituzte eta orduan ez dugu kaskarrekorik hartuko. Baina nekazarien burukomina kentzekorik asmatzen ez da erraz izango, nahiz eta ingeles horiek fanfarroi samarrak izan.

31 SOLDATA TXAPELPEAN

Ba zen gizon bat, soldata kobratzean, apur bat beti gordezen zuena. Emaztea zorrotza zen eta kontuak argi eskatzen zituen. Gizonak esaten zion:

—Tori, andrea, ene soldata. Ez duzu esango ondo ez da goenik.

—Ondo bai, baina dena ere bai?

—Den dena. Besterik aurkitzen baduzu, ni baino abilagoa zara.

Emazteak soineko guztiak arakutzen zizkion. Baina gizona lasai zegoen. Txapelpean gordetzen zuen bere ziza. Emazteak behin esan zion:

—Ekar txapel hori garbitzeko, zikina baitago.

—Txapel hau zikina? Erotu zara, andrea?

—Txapela ekartzeko esan dizut, ikusteak ere nazka ematen baitu.

—Sekula ez duzu txapelik garbitu eta orain...

Eztabaidan ari ziren, baina azkenean emazteak kendu zion eta han agertu zen bekatua.

—Zer da hau? —galdetu zuen emazteak.

—Zeure ipurdiaren prezioa. Sar ezazu hantxe.

Gizonak ez omen zuen sekula gehiago txapelik jantzi.

32 ESKU KONPUTAGAILUA

Azken urte hauetan hainbat tresna elektronikoko plazaratu bada, zeresanik gehien eman duena itzultzaile elektronikoa izan da. Kalkulagailu baten antza du eta nahi den hizkuntzako hiztegi konputatua darama barruan. Bi amerikar konpainiak salgai jarri dute tresna hori eta beste batzu ere asmo horretan dabilta.

Japoniako beste enpresa bat ere horrelako tresna bat egitekotan dabil. Baina honena itzultzailea baino gehiago izango omen da. Makina hau funtsean amerikar konpainiarena bezalakoa da, baina esku ordenagailu berri honek zenbait berezitasun izango omen ditu. Bat miniinprimagailu bat edukitzea, itzultzailea idazmakina bihurtuko duena.

Bestalde, beirazko pantailatxo bat eramango du, baita ahotsaren sintetizagailu bat ere, makina barruko informazioa irakurtzeko nahiz entzuteko. Makina honek kirol, arte, historia nahiz beste edozein sailtako informazio programatua emango du. Berdin helbide edo telefono gida, etxe kontaduria, errezipu eta abar. Laster ikasi beharrik ez da izango, makinak nola erabili jakinez gero.

33 BEROTIK HASERRERA

Robert Baron amerikar doktore baten esanak sinestekotan, laster «harremanak hoztu» esaera hori baztertu egin beharko da. Ikerketa luzeak egin eta gero, jakintsu honek ondorio nobedosoak atera ditu.

Zenbat eta tenperatura apalagoa, etxean edo senarematzen artean haserrerik sortzeko posibilitate gutxiago omen dago. Baina hori ere ez hotzak hiltzeraino. Armoniarik onena hogeitaz gradutako giroan omen dago. Beste hiru gradu ezarritik gero, pertsonak askoz suminkorrago bilakatzen dira eta hitz oker batek nahaste handia ekar lezake.

Baron doktoreak hainbat esperimentu egin ditu. Lagun mordo bat, bakoitza gela banatan, hogeitaz gradutan sartu zuen. Besteak hogeita bederatzi gradutako geletan. Bakoitzak aurretik estudiatu eta jarritako eskala bana zuen, han ere aldarte eta barne giroa apuntatzeko. Horretarako seinaleak eta metodoa zehazki erabakirik zegoen. Eta zer ondorio eman zuten? Esperimentu guztietan notarik onenak lehenengoak atera zituzten, hogeitabat gradutako tenperaturatan zeudenek.

34 GORPUTZAREN ERLAXAPENA

Gorputza pentsamenduak darabil. Ez du pentsamendu kontzientea izan beharrik. Zuk eskua, hankak nahiz edozer mugitzean, gorputza pentsamenduaren aginduak betetzen ari da. Nahi duzu gorputza lasaitu? Nahi duzu atsedean handia hartu? Nahi duzu osasuna indartu? Hona hemen errezeta merkea eta ona.

Etzan zaituz behean luze, hilda bezala. Hankak berrogeiren bat zentimetro zabaltu eta behatzak alboetarantz erortzen utzi. Utz solte eta berez jarriko zaizkizu horrela. Utz besoak ere solte gorputzaren bi aldeetara, ahurrak gorantz eta hatzamarra pixka bat bildurik. Hitz batez, oinetatik hasi eta apurka apurka gorantz, muskulurik muskulu, bururaino heldu arte. Orduan astiro astiro, mezuak bidali barruko organoetara ere (gibel, giltzurrun, bihotz eta abar).

Erlaxapen hau hipertentsioaren kontra oso ona da. Berrogeitasei gaixorekin aprobak egin ondoren, erlaxapen hau ohizko drogak eta botikak baino askoz hobea zela ikusi zuten.

35 HERRI PREHISTORIKO BAT BIZIRIK

Ba da irla handi bat Ginea Berri deritzona. Australiako goiko aldean dago, gaur Indonesiaren mende. Irla handi honek mendi eta oihan izugarriak ditu. Honelako batean bizi da herri bat: Danien herria.

Beltzak dira. Herri hau oraindik neolitikoan bizi da, hau da, duela hogeita mila urtetako zibilizazioan. Harria bakarrik ezagutzen dute. Ez dute metalerik ezagutzen. Inolako ontziarik egiten ere ez dakite. Soinekotzat gizonezkoek zakil azal bat bakarrik erabiltzen dute.

Herri honen bizitza superbibentzia hutsa da. Herri osoa batera bizi da. Familiak apenas du garrantzia sozialik. Orain

erdi geldi edo sedentario bizi dira. Gelditze hori patatak ekarri zuen. Danien iraultza nagusia patata izan zen. Orduan ehiztaritza utzi eta nekazaritzara pasatu ziren.

Soinekotzat zakil azala aipatu dugu. Adar bat bezala da, barrutik hutsa. Fruitu batzuren azala da, su ondoan guztiz lehortua. Zakilaren azal edo defentsa hori oso luzea da, nabarmena gure begientzat. Zergatik erabiltzen dute hain luzea? Badirudi gizontasunaren eta errespetuaren sinboloa dela. Baita izpiritu txarren kontra ere.

Harritzekoa da herri honetan inolako arte agerpenik ez egotea. Ibai zubiak egiten, ordea, artista handiak dira. Lehenago kanibalismoa oso zabaldurik zegoen.

36 BUREZURREN SALEROSIA

Aintzina, herri primitiboetan, burezurra benetako kultura zen. Hilaren arima hantxe zegoela uste zuten. Eta benetako indar magikoa zuen. Herri batzutan beren etsaien burezurak ebaki eta edalontzi sakratuak egiten zituzten. Handik edaten zuten urak eta ardoak etsai hilaren indar guztia zuen.

Gaur ere burezurak erakarpen magiko handia du. Areago oraindik, badira burezurren salerosleak ere, badira burezurren bildumak egiten dituztenak ere. Richelieu kardenalaren burezurra, adibidez, atzera eta aurrera erabili zuten bere garaian. Pertsona ospetsuen burezurrek arrakasta handia ukan dute beti.

Kanposantua aintzina pasealekua zen. Parisko Erruga-been kanposantu famatuan bi milioi gorpu zeuden. Eta bertan kinkiladendak eta mihiadendak zeuden emakume dotoreentzat. Idazle publikoak ere hantxe egoten ziren hezur pilen gainean eserita. Eta hotz egiten zuenean, dama lotsagabe samarrak eskeletoak erreta berotzen ziren.

Euskal Herrian burezurak tradizio handia izan du. Ez da denbora askorik kalabazekin burezurak egin eta begi ba-koitzean kandela biztu bana jarririk, gauez sustoak emateko erabiltzen genituela.

Finlandiako saunak Ipar herri guztiak harrapatu zituen hamar urteren barruan. Suedia, Norvegia eta Dinamarka. Finlandian ordea, benetako ohitura da, ia erligio bat. Finlandiar bakoitzak bere etxe-sauna partikularra du. Astean bi aldiz familia bakoitzak berè saunaldia egingo du. Saunaldi hauek rito zahar baten arabera egiten dira. Bero lehorrezko bainuak hartu eta gero bost minututara ur zurrut batzu harri gorien gainean.

Bost edo hamar minutu geroago, beren burua urki adarrez flagelatzen dute. Adar horiek San Juan gaez bilduak izaten dira. Azkenez dutxa hotza edo laku izoztuan zati bat apurtu eta hantxe bainatu. Finlandiako saunak hain tradizio handia du non emakumeek oraintsu arte saunan bertan erditzeko ohitura baitzuten.

Saunaren ondorioak hauek dira. Temperatura igotean, izerdia erruz botatzen da. Izerdiarekin toxinak eta beste zinkeriak doaz. Azido urikoa ere eliminatzen da. Berotik hotzera kolpera pasatzeak oreka fisiologikoa dakar. Eta zer esanik ere ez, pisua galtzeko sistema bikaina dela. Baina kontuz. Janari dieta egokia behar da. Bestela disparteak egin litezke.

Bitaminak sailetan banaturik daude: A, B, C eta abar. B sailaren barruan B1 eta B2 behintzat ba daude. B1 bitaminari TIANINA ere esaten zaio. Baina hemen izena gutxiena da. B1 bitamina honen eskasiak nekea, moteltasuna eta pisu galtzea dakar. Bitamina oso garrantzizkoa da. Janariak, landareek batez ere, badute, baina kopuru txikian. Ba dira asko dutenak ere: legamia lehorra, laboreen ernamuina, ilarrak, indabak eta intxaurreak.

Beste zenbait janarik, ordea, oso gutxi dute edo bat ere ez: arroz zuriak, azukreak, olioak eta koipeak, hirin finegiz egi-

niko ogi zuriak, normalean egiten den bezala, eta abar. Esneak bitamina hori asko ematen du, ez berez asko daukalako, asko edaten delako baizik. Gibela eta beste abere-erriak ere aberatsak dira horretan.

Bitamina honen eskasia besteena baino agudoago igartzen du gorputzak. Ondorio argiak dira: haurren hazkundera atzeratu, nagusiengan nekea, moteltasuna eta apertorik eza. Honen berehalaxe argaltzea dakar. Eskasia gogorak «Beriberi» izeneko gaixoa dakar. Argi ibili bitamina honekin.

Euli beltzak esaten zaien horiek ez omen dira txantxeta-koak. Abereak eta piztiak ere hiltzerainoko atakeak jotzen dituzte. Eta alferrik aberea intsektizidaz zuritzea. Zer egin euli bildugarri hauekin? Merkeena eta seguruen euliak gordetzen diren ibaietara intsektizidak botatzea da. Honela Kanadako Athabasca ibaian euli beltzak ehun eta hirurogeita hamar kilometrotan galdu dituzte. Baina beste intsektuak ere hiltzen dira eta hori ez da soluzioa.

Ez diete kainoirik jarriko, baina bai X eta Laser izpiak. Izpi hauekin zer egingo dute? Euli beltzak noiz eta non ugaltzen diren detektatu. Hori da Kanadan Albertako ikerlariak iragarri dutena. Euli beltzen organismoak kobrea, magnesioa, eta burdina daramatza. X izpiek elementu horiek detektatzen dituzte eta horrela eulien habiak eta hegazbideak aurkitzeko asmoa dute. Laser izpiek gorputz txiki txikiak ere urrutira detektatzen dituzte, nahi den informazio guztia emanik. Informazio honen arabera intsektizida bota eta euli beltzek laster gorriak ikusi beharko dituzte.

Errotari batek hiru seme zituen. Haurrak oraindik elkarrekin zeudela, aita-amak hil ziren. Etxeko ondasunak, errota,

mandoa eta katua ziren. Ondasunak banatzeko hiru anaiek zotz egin zuten. Bati errota, besteari mandoa eta besteari katua tokatu zitzairen. Katuduna triste zegoen. Katuak galdetu zion:

—Zer duzu horren triste egoteko?

—Ai! Nola biziko naiz ni zurekin?

—Ez zara nirekin triste egongo. Egin zapata pare bat niretzat.

Oihan baten erdian jauregi eder bat zegoen eta jaun bat bizi zen bertan. Jaun hark iratxo fama zuen. Katua joan zitzaion eta:

—Iratxoa zarela entzun dut. Egia da iratxoak nahi duten irudian jartzen direla?

—Hala da, bai —esan zuen jaunak.

—Ezetz jarri.

—Ezetz?

Eta iratxoa lehoi bezala jarri zen. Katua bildurtu zen eta esan zion:

—Ezetz jarri sagu irudian.

Iratxoak sagu irudia hartzean, katuak gainera saltatu eta ito egin zuen. Gero bere nagusiari deiturik, elkarrekin jauregian bizi izan ziren.

41 ALARMA ETENGABEA SOINEAN

Amerikar horiek zerbait asmatzen ari dira beti eta orain asmatu dutena bati baino gehiagori ederki etorriko zaio. Alarma sistema bat, noiznahi aseguratzen duena. Sistema pertsonala, hau da, soinean eramatekoa. Lepotik zintzilik, esate baterako. Laurogeita lau gramo bakarrik ditu eta kutxatila batean sartua. Horrela dutxan bertan ere berdin balio dizu.

Zer sistema edo zer arraio da hau? Botoi bati sakatu eta martxan jartzen den irrati emisore bat du, transistoredun hartzailea eta alarma seinalea. Sistema, beraz, alarma jotzekoa nahiz hartzekoa da. Lepotik zintzarri bat bezala.

Nork erabil lezake tresna hori? Ez dago esan beharrik. Zerbaiten edo norbaiten bildur den edonork. Bakoitzak berak daki bere buruaren berri. Jende adintsuei, gaixoei eta abarri ere ez lieke kalterik egingo.

Sistema berri honen eragozpen bakarra prezioa da. Hain merkatu zabala eduki eta nola liteke hain tresna garestia ateratzea? Hogeitahamarren bat mila pezeta esportaziorako eta ia beste hainbeste azken eroslearentzat. Lehengo zintzarriekin jarraitu beharko.

42

AHURREKO MARRAK ETA IZERDIA

Gizonaren ahurrak edo esku barruak marra batzu ditu. Ijitoek zoriona edo zoritxarra irakurtzen dute bertan. «M» baten forma du. Hortik batzuk atera zuten heriotza esan nahi duela, latinez eta latinetik hizkuntzez (gaztelania eta abar) heriotza «M»-z hasten delako: mors, muerte eta abar. Baina euskaraz eta munduko hizkuntzarik gehienetan ez da letra horrekin hasten eta guk ere «M» hori ahurrean daramagu.

Ahurreko marra horiei izerdia erraz ateratzen zaie. Edo errazago behintzat. Ohartzen bazara esku barrua sarritan bustiko zaizu, izerdia dariolako. Zergatik da hori? Gure aintzinako asabek, lehen gizakiek, zuhaitzik zuhaitz ibiltzen ziren. Ahurreko marra eta horiei darien izerdia zuhaitz adarrei hobeki oratzeko zen. Gaurko tximinoengan ere horrela da hori. Tximinoek ere marra horiek dituzte ahurretan eta adarrik adar dabilzanean izerdiz bustitzen zaizkie. Horrela ez dute beti eskuei ttua egiten ibili beharrik. Gizonak esku lanetan ari garenean, eskuei ttua egin behar izaten diegu. Orain ez zaigu berez behar aina izerdi ateratzen.

Matxango arren eta matxangokumeen artean harreman afektiboak sortzen direla ikusten dute zoologoek. Giza familia baten antzeko harremanak. Animalien artean arrek ez dute umeen ardurarik hartzen. Matxangoen artean bai, ordea. Emea kumea egin berri dagoenean eta amak jaio berria zaintzen duen denboran, beste ume zaharragoen ardura, arrak hartzen du. Amaren lanak arrak egiten ditu: umeak garbitu, laztandu, erabili, jolastu eta abar.

Areago oraindik, aitabitxitasuna ere badago. Horrela, bigarren mailako arrari ere berea ez den umea laztantzen uzten diote emeek eta ar jaunek. Kumeek ere aitabitxi irabazteko ahaleginak egiten dituzte. Eta horrela aita-semeak izan ez arren, harreman afektibo sendoak sortzen dira.

Antropologoek ustez, honek tesi handi bat hankazgora botatzen du. Tesi horren arabera, aitatasuna eta aitaren portarea aurreratu hori gizonen aurkikundea zen, guk asmatua zen. Horrela, primateak eta gizonak barrera batez separatu nahi zituzten. Barrera horren arrazoiatariko bat aitatasun horixe zen. Hona, ordea matxangoek aitatasuna oso desarrolaturik dutela.

Amerikako Yaleko Unibertsitateko Moore soziologoa sinetsirik dago gure bizitzako aldirik sortzaileena eta aktiboena bi urtetatik bost urtetara dela. Tarte horretako haurrak, doktore honen ustez, azaina harrigarriak egiteko kapaz dira. Esperientzia jakingarriak egin ditu bere laborategian. Hara doazen haurrak ordu erdi bakarrik daude bertan. Nahi duena dator eta nahi duena irten ere, aspertzen bada. Gurasorik ez da han inoiz sartuko, ez eta informaziorik hartuko ere. Berdin haurren irakasleak ere. Horrela haurra kanpoko presio guztietatik libre dago.

Idazmakina hitzegileak kolore desberdinetako teklak, bozinatxo bat, erakusle gorri bat, pantailatxo bat eta abar ditu. Haurrak tekla bat jotzen duenean letra hura pantailan agertzen da eta abots batek esaten du. Haurra zenbat eta txikiago, pozago hasten da jolasean. Bi urtetako haurtxo batek aseriskoaren tekla hirurogeitabost bider jarraian jo zuen. Lan horretan aspertzen dela ikusten bada, beste pantaila bat agertzen zaio. Bertan letra bat ikusten eta entzuten du. Haurra zalantzan gelditzen da. Baina bai letra haren tekla laster bilatzen hasi ere. Azartatzen duenean tekla jaitsi eta letra hura inprimatzen du. Eta hala gero beste batzu. Hau hasiera da. Hortik aurrera gero eta jolas zailagoak jartzen zaizkio. Harrigarria omen da haurrek zenbat ikasten duten.

Entzun edo irakurri duzu LSD siglarik? Ez da alderdi politiko bat, droga famatu bat baizik. Begira zer izen luzea eta deabruzkoa duen: Lysergsaurediathylamid. Laburtu eta LSD. Hauxe da ezagutzen den molekularik indartsuena eta neumatikoena.

Droga azidoa da hau. Duela berrogei urte asmatu zuen Albert Hofmann-ek. Ez zekien orduan nolako propietate izugarriak zituen. Bost urte geroago esperientzia batzu egin zituen Hofmannek. Konturatu gabe, azido horren dosi infinitesimal bat irentsi zuen eta horixe izan zen historiako lehen esperientzia sikodelikoa.

Hasieran azido garbia zen, garantiakoa. Baina laborategi klandestinoetan laster sortu ziren azido adulteratuak. Hala ere droga horren dekadentzian beste arrazoi bat dago batez ere. Droga azidoek kontzientzia bizkortu, biztu egiten dute. Norbere burua argiago ikusten da eta bizikiago sentitzen. Horrela barruko kontradikzioak eta mugak ere nabarmenago ageri dira. Drogazaleak hori ez du nahi. Droga azidoa baino nahiago du droga opiozkoa. Droga opiozkoak kontzientzia moteldu eta difuminatu egiten du. Errealitatea lanbrotu egiten du eta horixe da gehienek bilatzen dutena.

46**FRANCOREN LEHEN
ELKARRIZKETA ATZERRITARREI**

1936ko uztailearen 28an gaude. Kazetari ingeles batek Francori elkarrizketa bat egitea lortzen du. Atzerriko prentsari emaniko lehenengoa. «New Chronicle» aldizkarian argitaratzen da izen gabe. Begira nolako gauzak esaten zituen gure gizontxoak:

—Zure kolpeak bere objetiboetan huts egin duenez gero, noiz arte jarraitu behar duzu hilketa hau?

—Ez dago konponbiderik ez treguarik. Abantzea Madrileraino preparamen jarraituko dut. Aurrera egingo dut, hiriburu neureganatuko dut. Espainia marxismotik salbatuko dut, kostatzen dena kostatzen dela.

—Horrek Espainia erdia hilko duzula esan nahi du?

—Berriz diot, kostatzen dena kostatzen dela.

—Zer egingo zenuke irabaztera iritsiko bazina?

—Diktadura militarra jarriko nuke. Gero plebizitu nazional, bat herriak zer nahi duen jakiteko. Espainolak politikaz eta politikoez asperturik daude.

—Eta otsaileko hauteskundeek ez zuten, bada, herriaren gogorik erreprezentatzen?

—Hauteskundeek ez dute inoiz herriaren gogorik erreprezentatzen.

Eta kazetari ingelesak komentatzen du:

«Izugarri txikia da. Diktadore izan nahi duen beste enanu bat. Bistan dago bere gizonak adoratzeko dutela».

47**TXAKURREN TAMAINUKO
ZALDIAK**

Zaldia badakigu zer den. Zaldia bezain abere dotorerik eta maitagarririk gutxi da. Jesukristo baino bi mila urte lehenago

hezia izan zen. Herri eta zibilizazio guztiek esplotatu dute zaldiaren azkartasuna, indarra eta talentua. Posibilitate guztiak bukatu zeudela uste genuenean, hona zer nobedade datorkigun.

Argentinan zaldi txiki-txiki bat agertu da. Metro erdira heltzen ez den eta bederatzitik hogeitamar kilotara bitarteko fenomeno bitxia. Txakurra bezalakoa. Ez da berez agertu. Atera egin dute. Julio Fallabellak Parisen erakutsi du. Fallabellatarrak zaldi hezleak dira aspalditik. Hiru belaunalditan zehar beren saldoetako zaldirik txikienak gurutzatuz atera dute kasta berri hau. Kontuan hartu gizonaren hiru belaunaldi, zaldiaren hogeitau edo gehiago direla.

Datu hauen arabera, animalia guztiak miniaturagarri dira. Fenomenu hau irla batzutan berez gertatzen da, janari klase gutxi dagoelako. Honela Ouessant-en munduko ardirik txikienak daude; berrogei zentimetro bakarrik.

48**ENBOR IBILTARIA**

Ameriketara izaniko aulestiar artzain batek haxe kontatzen zuen bueltan:

—Hura, jaunak, beste mundu bat da. Neuri gertatua ez balitz, burutik nagoela esango nuke. Baina hura ez daukat ahazterik memoria jubilatzen zaidanean ere. Eguerdia beroa zen. Eguzkiak ber-bertan jotzen zuen. Hiru mila ardiak errekaldera jaitsi nituenean, ez zeukaten gaixoez ibiltzeko gogo handirik. Nik ere itzalpe batetara jo nuen neure bazkaritxoan egin asmoz. Ogia eta gazta amaitu nituenean, ganibeta eserita nengoen enborrean sartu nuen. Lo kuluxka bat egin eta itzarri nintzenez, beste leku batetara nengoen, askoz behe-rago eta eguzki-eguzkitan. Zer gertatu zen? Suge handi baten bizkarrean eseri nintzela.

Pasadizu hau entzutean, beste gizon batek gaineratu zuen:

—Egia da hori. Horrelakoxe sugeak daude han. Neuk ikusia da beste hau ere. Suge bat tantai handi batetara gora kiribildu zen arranoari arraultzeak jatera. Urteak joan ziren,

tantaia ihartu eta erori zen eta sugea han gelditu zen zutik eta luze eta han egongo da orain ere norbaitek ganibeta sartu ez badio.

49

ARALAR GUZTIA GOILARAKADA BATEAN

Eguzkia bezalako izar erdiko batek «erregai» nuklear pila bat gastatzen duenean, handitu eta puztu egiten da. «Digante gorria» bilakatzen da. Gero guztiz konprimatzen da eta «nano zuria» bilakatzen da. Izarra masa gehiagokoa bada, leher egiten du. Materia pila handi bat espaziora jaurtikitzen du. Honelako izarrari «superberria» deritzo.

Baina oraindik izar masatsuagoa bada, haren konprimakuntzak ez du azkenik. Gero eta txikiago eta trinkoago egiten ari da etengabe. Hain grabitate indartsua du non ez baita handik ezer kanporatzerik. Bere argirik ere ez. Dena irensten duen zulo bat bezala da espazioan, «zulo beltza» esaten zaiona. Zer honen dentsitatea iruditu ezinekoea da. Goilarakadatxo batetan 70.000 milioi tonelada ditu. Ba dakizu zer den hori? Tituluan Aralar guztia esan dugu, baina hamar Aralar ere badira goilarakada batetan. Bildurgarria.

Nola lokalizatzen dituzte zulo beltz horiek? Ez dira ikusten, baina bai igartzen. Inguruko izarren atmosfera aspiratzen dute, vanpiro kosmikoak bezala. Horrelako zulo beltzik den inguruan, gure fisikako legeek pot egin dute. Denbora desintegratzen da eta arrimatzen zaion edozer betiko desagertzen da. Benetan desagertu ala beste unibertso batetan sartu, espaziotik eta denboratik kanpora?

50

MEDUSA ELEKTRIKOAK

Energia nondik atera? Hona hemen bide berri bat. Uhinetatiko energia. Kalifornian egin dute entseia.

Ehun metrotako diametrodun ganga bat da. Plater hegala-riaren antzekoa. Ganga (bóveda) horrek hamar metrotako zuloa du kupulan. Kupula honetan, hamar segundurik hamar segundu, uhinek konporta joko bat egiten dute.

Horrela arranpa indartsua sortzen da eta honek turbina bati eragiten dio. Turbina hori gangaren bihotzean dago.

Zenbat produzitzen du? Megawatio bat edo bi. Honela bostheun edo mila gangek zentrale nuklear handi baten energia emango lukete. Eta prezio berdinean abantailekin eta arriskurik gabe. Zer abantaila? Itsasoko ura gezatu edo desgazitu eta horrela etxerako eta erregaketarako moduan ipini. Itsasertza erosiotik zaindu, portu artifizialak egin erazi...

Leku handia behar dela? Itsasoan lekua sobera dago.

51

MUSSOLINIREN ALABA HITLERREKIN

Izan zuen Edda Cianok Hitlerrekin harremanik? Egia haurren ahotik bezala, argitasun historikoa ere batzutan nobelisten lumatik etortzen da. Jacques Robert-ek «Emakumea itzalean» izeneko bere azken liburuan dio, Mussoliniren alaba kutuna Hitlerrekin nahasirik zegoela. Baiezpen hau hone-la dator gutxi gora behera nobelako heroia-aren ahoan:

Ciano kondesa Berlina zetorren bakoitzean, Hitlerrek batelean eramaten zuen eta bakarrik ibiltzen ziren. Hitler arraunlari, eta Eddak batelaren brankatik kontemplantzen zuen ikuskizun irreal hura. Jar bere lekuan, Hitlerrek Europa konkistaturik zuen eta ia munduko jabe zen. Tarteka arraunak utzi eta nenufare bat eskaintzen zion Eddari maite-minaren emozioz.

Hitlerren alderdi hau ezezaguna zaie biografoei. Puntu honetaz zerbait galdetzen bazaio, nobelistak muzin egiten du. Bada hor arrazoi bat. Berak ba daki zerbait, Edda Cianok berari aitortu zion hau gerra ondorengo urteetan. Eta hogeita hamar urte geroago nobela batetan irristatu zaio.

52 MAHATSA MEDIKAMENTUTZAT

Mahatsa janari preziatua da. Hori esan beharrik ez dago. Are gutxiago mahatsetik datorren ur hori. Baina medikamentutzat zer? Hori da gaurko berria. Mahatsa oso ona da medikamentu gisa ere.

Idorrieriaren kontra oso egokia da mahatsa, bigungarria baita. Batez ere azal eta guzti jaten bada eta haziak botata. Haziak mastekatzen badira, idorgarri gertatzen dira eta beste mahatsaren ondorio aringarriak neutraltzen ditu. Horrez gainera mahatsa diuretikoak da, garnuaren sekrezioa eragiten baitu, bere potasa-gatzei eskerrak, batez ere. Gibela libratzen du eta bilis bideen drenaia errazten du. Odola alkalizatzen du eta artrismoaren kontra oso ona da.

Zuzpergarri gisa ere lagun handia da mahatsa, azukre naturalak, bitaminak eta gatz mineralak ugari baititu. Hezueri, hemorroide, arterioesklerosis, ekzema, anemia, bularrekoa eta honelako gaitzentzat ere oso ona omen da. Defentsa organikoak indartzen ditu, negu gogorrari eusteko bizitasuna gehituz.

Guzti hau egia bada edo egia den jakiteko, ezin gelditu kilo bat mahats jan gabe.

53 GORPUZKERA KLIMAREN MENDE

Zergatik dira menditar txinoek hain sendoak eta tropikoe-tako txinoak hain txikiak? Zergatik iparrekoak hegokoak baino sendoagoak izaten dira? Astiro astiro, gizona bere ingurura eta batez ere klimara egokituz joan da. Lurra bada ama, airea edo klima da gure aita.

Giza aberea, ordea, homotermikoa edo tenperatura berdinekoa da. Poloetatik Ekuadorreraino. Nola ulertu klimaren eragin hori, tenperatura berdina bada? Gertatzen dena hau da. Gizonak klima desberdinetara egokitzeko ahalegin fisiologiko eta psikologiko harrigarria egin du. Horretarako bere

gorputza aldatzea nahiago izan du, tenperatura berdinari eusteagatik.

Zergatik Afrikan hain gorputz desberdinekoak batera bizi dira? Adibidez, Sudango digante argalak (1,90 m. batez beste) eta Zaireko pigmeoak (1,44 m. batez beste). Gorpuzkera luzea, Tropikako Sabanetan eta estepetan bakarrik dago. Hemen aire lehorra eta bentilatua dago gehienez. Erraz transpiratuz, erraz eliminatzen da.

Transpirazio hori ez da, ordea, batere erraza oihan tropikaletan. Orduan zer soluzio? Gorputza ahalik gehien txikitu, horrela bero gutxiago produzitzen baita. Naturaren tranpa xebleak.

54 XINGU IBAIKO INDIOAK

Kolonikuntza garaian Brasilen lau milioi indio ziren. 1950ean 150.000 gelditzen ziren. 1976an zifra bildurgarriagoak ditugu: ehun mila indio bakarrik gelditzen dira. Xingu Brasilgo ibai handi eta eder bat da. Bi mila kilometrotako luzera du. Ibai honen inguruan indioen tribu asko bizi dira. Baina zoritxarrez, denen artean ere ez dira asko. Galtzear daude, genozidio gupidagabearen ondoren.

Indio hauen artean, bikote batek ezkontzea pentsatzen duenean, eta neska-mutilak tribu desberdinetakoak badira, gizon berriak neskaren etxean bizi behar du luzaro. Horrela bere emaztearen etxeko hizkera ikasi behar du. Seme-alabek bi hizkuntzak ikastera beharturik daude.

Kultura honetan gauza harrigarri bat dago. Xingutarrek seme-alabei askatasun osoa uzten diete. Haien ustez, denbora eta nagusien exenplua dira haurren zuzentzaileak. Horregatik ez dute inoiz haurrik erreprimitzen, okerrik handienak eginik ere. Bizitzak irakatsiko die. Pubertaroan erreklusioaldi bat eragiten zaie. Ez dute gurasoen beste inor ikusten. Zertarako? Nagusien eginbeharrak asumitzeko eta «Huka-huka» burrukan entrenatzeko.

Xingutarren ospakizunik handienak «Kuarup» eta «Jabari» direlakoak dira. Kuarupa zuhaitz bat da. Honen enborrez

totem bat egiten dute, hilak errepresentatzen dituena. Kuarupa, beraz, hilen jaia da. Enborra plaza erdian jartzen dute eta tribua kanta eta dantza ari da, enborrari «bizia eman arte».

Baina begira zer gertatzen den. Kondairak dioenez, eguzkia jaiotzean, enborrak giza tankera hartzen zuen. Transformazio hori aurreko gauean harreman sexualik izan ez zutenek bakarrik ikusi ahal zuten. Behin indio batek ez zuen baldintza hori bete. Geroztik enborrak zur huts izango ziren. Ez ziren gehiago biztuko. Honela aurrerantzean kuarupetik jaia bakarrik gelditu zen.

Jabari jai txikiagoa da. Lehiaketa bezala da. Bertan punta gabeko gezi batez etsaia jo behar da. Jai hau tribu arteko etsaigoak leuntzera doa. Xingutarrak galtzear daude. Laster ez dute etsaigorik ez enborrik izango.

55 INDIOEN SIKOANALISIA

Guatemalako mendietan baziren lau indio herri. Bat «kexek» ziren. Hauen artean medikuntza eta erlijioa oso loturik daude. Beste herri primitiboetan ere antzera da hori. Begira, hemen sendagileak nola diren. Sendagileei «errezatzaileak» ere esaten zaie. Gizonen eta jainkoen arteko bitartekoak dira, hala eskatzeko edo errezatzeko, nola sendatzeko ere.

Baina hemengo nobedadea zera da, alegia, sendagileen ahalmena ametsetik datorrela. Ez da odolez, herentziaz edo ikasiz datorrena. Jende adintsuengan bakarrik gertatzen da. Zer gertatzen da? Gorputzaren edo sentimenduen krisi sarkon bat. Hori gertatzen zaionak «errezatzaile» bilakatu beharra du, Jainkoaren agindutzat jotzen baita.

Sendagile bakoitzak bere santua edo Jainkoa du. Honek ametsik amets, prozedimendu, belar mota, otoitz, tratamendu eta abar adierazten dio. Sendadurak ere «amets egin» behar ditu erabili ahal izateko. Ametsez gainera, dantzak ere

balio du jainkoekin komunikatzeko, dantzen erritmoz erraza baita trantzean sartzea.

Herri horretan sarritan gertatzen den gaitza «arima galtzea» da. Horixe da gaitzik txarrena. Izpirituren batek arima kentzen dio eta ez du berriro bera izaterik arima errekuperatu arte. Etxeko edo diruzko problema handiren batek gerta arazten du gaitz hori. Erotasuna esango genuke guk. Okerrena ez da arima galtzea, «arima gabe» hiltzea baizik, orduan betiko galdua baita.

Zer egiten du sendagileak? Lehenbizi eria masaiaz lasaitzen du. Gero eriarengan duen prestigioa bide, aitortza edo konfesioa bezalako bat hasten da. Eriak bere problemak kontatzen eta kontatzen ditu, sendagileak erotasunaren gaitza jo arte. Gaitzaren arrazoia argi ikusitakoan, eria edo «posesua» lasaiturik eta kontsolaturik gelditzen da. Azkenez sendagileak eria gorpuzta berotzen eta hozten du, zenbait belarren ura emanez. Orduan eria hiltzen bada ere, arima eta guzti hiltzen da eta ez zaio hiltzerik axola.

Tratamendu hauetan argi dago teknika modernoek kidetasuna. Indioek zenbat mende ote daramate sikoanalisia praktikatu?

56 BEHATZ IZORRATUA

Ez zekien noiz, ez zekien nola. Baina baserritar batek oin batetako behatz lodia gaizki somatzen zuen. Ahalegin guztiak eginik ere, gero eta minberago zuen. Ez zegoen beste erremediorik. Medikuairengana joan behar. Joan zen eta medikuak esan zion:

—Erantzi abarka.

Medikuak begiratzen zion, tiratzen zion pixka bat eta:

—Ai, geldi!

—Non, hementxe?

—Ez dakit non, baina hor nonbait. Min izugarria.

Medikuak begiz ez zion ezer apartekorik ikusten. Ez zegoen handiturik, ez zeukan itxura txarrik, ezin zion antzeman eta esan zion:

—Erantzi beste hankako abarka.

—Beste hankakoa? Zertarako, ordea, hori sano baitago?

—Zer alde dagoen ikusteko.

Gizonak ez zuen inola ere beste abarkarik erantzi nahi. Azkenean, derrigorrean, erantzi beharra izan zuen eta han azaldu zen bekatua, hanka zikin-zikina hatsitua. Medikuak esan zion:

—Ba dago, bai, aldea.

57

BIDE ERTZEAN HILAK

1770ean Nicolas Cugnot ingeniari frantsesak «Fardier» izeneko makina xeble bat asmatzen zuen. Bapozeko ibilgailu bat hiru gurpilekoa. Hainbat burugogor ari zen orduan abere gabeko ibilgailuak lortu nahirik. Makinatxoa, «automobila» edo «automugitzailea» asmatu zuten eta aurretik bandera gorridun gizon bat behar zuela erabaki zuten.

Bandera gorriduna ahaztu zen nahiz eta urte haietan katastrofe dezente gertatu. Bapozeko ibilgailu bat irauli, lehertu eta bost lagun hil ziren. 1903an Paris Madril karrera suspenditu behar izan zuten. Istripu gehiegi zegoen bidean. Automobilek abiadura erogarria lortu zuten: orduan 105 kilometro. Harrigarria zen hori. Hirurogeita hamabost urte bakarrik dira abiadura horretaz harriturik zeudela.

Geroztik trafiko istripuak mortalitatearen arrazoi nagusietarik bat dira. Hiroshimako lehen bonba atomikoak 140.000 lagun hil zituen. Mundua izuz dardaratu zen. Automobil istripuetan urtero 250.000 lagun hiltzen dira. Araba osoa bezala. Hau, ordea, heriotza «normala» da. Badira heriotza «naturalak» ere. Baina hiltzea beti hiltze.

58

KONTUZ, KOTXE LAPURRAK!

Giltzak deskonexioak eta zer ez da asmatzen —edo asmatu nahi— kotxerik inork ez ohosteko. Lapurrak ere aurrera doaz, ordea eta deskoidatzen bazara zure kotxea hori doaz zeure muturretan zehar beste matrikula batez. Baina horixe da, hain zuzen, laster ezin izango dena: matrikula aldatu.

Holandar fabrikatzaile batek sistema bitxia asma berri du. Kotxearen kristaletan matrikula markatzen da. Zenbakiak kristalean itsatsirik gelditzen dira. Kotxea «perraturik» gelditzen da. Zenbakiak borraezinak dira eta ez dago matrikula borrarzerik. Horrela kotxe lapurrak, matrikula aldatuz gainera, kristal guztiak aldatu behar ditu. Lan hori alde batetik ez da hain erraza eta bestetik merkea ere ez.

Identifikatzeko sistema hau norberak, kotxe jabeak berak egin dezake. Eta denbora gutxitan egin ere. Egiteko ez da hain zaila. Minutu batzutan egitekoa da. Egina desegiten, ordea, istiluak omen daude. Jakinean zaudete, lapurrok, garaia datorrenerako prest egon zaitzeten.

59

PETROLIO ZIKINA

Nazio Batuen txostenetan agertzen denez, urtean bi milioi tonelada hidrokarbuo botatzen dira itsasora. Hauetatik 700 mila tonelada itsasoan hara eta hona dabilzan petroliuntzietan datoz. 900 mila tonelada birfindegietatik, petrokimietatik eta olio erabilietatik. Eta 150 mila tonelada itsas ertzeko petrolio instalazioetatik. Hauetan, garbitzat jotzen den putzu batetan ehunetik tonelada erdik ihes egiten du.

Nazio Batuen zifrei erantzunik, Estatu Batuetako Zientzi Akademia Nazionalak urtean sei milioi tonelada ematen ditu. Datu hauetaz aparte, Mediterraneoako itsasoak urtean milioi erdi tonelada hidrokarbuo hartzen du.

Hidrokarbuoak lurrintsuak edo saturatuak izan daitezke. Lehenengoak, benzenoa, toluenoa eta xilenoa gogorak eta

pozointsuak dira. Edozein organismo bizi hiltzen dute. Bigarrenak narkotikoen lana egiten dute, baita itsas organismoen egitura zelularrak aldatu ere.

Istripurik gertatzean, tonelada bat petrolio aski da dozenaka kilometro kutsatzeko. Gaur egun badira Mediterraneoan zehar milioi bat toneladako petroluntzi munstroak. Hauetariko bakar baten istripu osoa aski da Mediterraneo guztia hondatzeko.

60 EDANAGO ETA MERKEAGO

Duela hainbat urte, Errealak eta Bilbok partidua zeukaten Donostian. Euskaldunek euskaldunen kontra amorru gehiago dutelako edo ez dakigu zergatik, partidu horiek ez dira uso zeremoniak izaten. Hala joan ziren Bizkaitik ere gernikar batzu, tartean Patxiko Garratza zeramatela. Pentsa nolako jendetza izango zen. Partidu ondoren Patxikori galdetu zioten:

—Zer moduzko partidua iruditu zaizu?

—Ez dakit. Jendeak sartu nau eta jendeak atera nau.

Irungo lagun batek Irunera gonbidatu zituen. Behin Donostiara helduz gero eguna biribiltzea tokatzen zela eta laster ziren Irunen gure gernikarrak. Irundarrak eskatu zuen lehen erronda. Eta ez edozer eskatu ere. Martel kopa bana. Hura nobedadea bizkaitarrentzat. Gernikan hiru hogerleko zena Irunen bi hogerleko kostatzen zen. Garai haietan ez zen diru makala ez eta alde makala ere. Patxiko animatu zen eta beste erronda bat eskatu zuen. Koadrilako bat martxa hartaz bildurtzen hasi zen:

—Berriro ere Martela? Hori garestia da gero!

Eta Patxikok:

—Zer garesti eta zer merkesti. Kopa bakoitzeko hogerlekoa irabazten ari gara!

61 NATURISMOA ALA NEGOZIOA?

Málaga udazaleentzat berriro ere nobedadea izango da. Naturistetxe berri bat egiteko asmoa dute. Urtean ehun eta berrogeitamar mila naturista pasatuko direla kalkulatu da.

Klub naturista honek Europako handiena eta onena izateko asmoa du. Kapitalik erdia espainola eta beste erdia frantsesa omen da. European hogeiren bat milioi omen dira naturismoa praktikatzen dutenak eta ez da jenderik faltako.

«Organo sexualak mitifikatu egin dira —diote—. Ezarri dигuten tabu bat da hori. Garbitu behar dena gizonen mentalitate da, eta ez kanpoko itxura».

Batzutan naturismoa eta nudismoa nahasi egiten dira. Baina ez dira gauza bera. Naturismoa naturarekin armonian bizitzeko modu bat da. Malagan egingo duten hori ez dakigu zer izango den. Naturismoaren atxakian negozio usain handia dago hor. Negozioa ere naturala omen baita.

62 KONTRARIOAK LAGUN

Untxia piztia originala da. Lagunkoia edo soziablea da. Baina ez untxiak untxietara bakarrik. Azeria eta azkonarra ere onartzen ditu bere zuloan. Hori da harrigarria. Azeriari untxikumeak gustatzen zaizkio. Nola liteke orduan untxiak azeria onartzea?

Ipurtatsa eta ogigaztaea beste bi piztia dira. Hauek dira untxien etsai nagusiak. Baina bi piztiok, ogigaztaea batez ere, ez dira sekula sartuko azeri usainik den zulora. Untxiak horrela defentsa bikaina du. Eta azeriak? Zer abantaila du azeriak klan horretatik? Noizean behin, untxikume bat jan, oraindik amak lurpean dauzkanean.

Azeriak ez du untxirik zuloan atakatzen. Piztia zuhurra da eta badaki nekez harrapa ditzakeela, tuneltxoak baitaude. Arriskurik txikienean untxia han ezkututzen da eta azeriak ez dauka alferreko lanik egiteko gogorik. Lur azalean etsai gu-

pidagabeak direnak lurpean ederki konpontzen dira. Gizonak ere lurpean bakez-bakez konpontzen dira.

63 MISTERIO AKUSTIKOAK

Areto, antzoki, pilotaleku nahiz edozein aterpetan efektu akustikoeak hamaika buruko min ematen dute. Abots biziarekin edo giza abotsarekin batez ere komediak gertatzen dira. Ba liteke bat batean kantariaren abotsak eta honen oihartzunak bat egitea, hau da, oihartzunak abotsari jarraitzea. Orduan abotsa aldatu egiten da. Zer egin? Dekoratuak aldatu eta hainbat asmazio izaten da abotsa naturalago gerta dadin.

Hona ordea Errusiako arkitektoek X-XII mendetan problema hau konpondurik zutela. Adibidez, Kiev-ko Santa Sofiako katedraleko hormetan lurrezko murko batzu daude. Mende luzeetan antzeman ezinik egon dira murko horiek zertarako ote diren. Eta horra sonoritatea gutxitzeko zirela. Murko horiei eskerrak, hitzak ez ziren apurtzen hormen kontra jotzean eta horrela elizako edozein lekutatik ondo entzuten ziren. Pentsatzea ere murko batzuk horretarako balio dutela...

Mosku ondoko antzoki baten egileek ere soluzio polita aurkitu zuten. Orkestaren eta eskenaurrearen azpian ohol batzu eta sabaian zurezko kutxatila batzu jarri zituzten eta musikak ezin hobeki jotzen zuen. Bai dela kapritxosoa hotsa edo soinua.

64 TXERRIKIA ETA GRIPEA

Txerrikiak edo txerri okelak etsai asko ditu. Txerrikiak gauza txar batzu ditu. Eta orain beste bat aurkitu dute: gripearen birusa. Hori da Londresko institutu batetan atera dutena. Birus hori txerriaren biriketetan pilatzen da eta ia txerrikizko enbutidu guztietan dago. Txerrikiak jatean, beraz, birus hauek ere jaten dira.

Nora doaz gero birus hauek? «Beren lekura» doaz, hau da, gizonaren biriketara. Hori da birus horrek maite duen lekua. Han gelditu eta inaktibo egoten da, aukera ona etorri arte. Noiz da aukera on hori? Bitaminak gutxitzen direnean: marfundiak edo katarro, eta eguzkirik eza, neguan gertatzen denez. Orduan birus horiek itzartzen eta mugitzen dira. Orduan organismoa makalago dago eta atakutzen hasten dira. Griperik gogorrenak orduan izaten dira.

Lehen Mundu Gerra bukatzean gripe izurriek gerrak berak baino jende gehiago hil zuten, Alemanian batez ere. Gerra ondoko gosetearen alemanek Amerikatik ekarritako txerrikiak jaten zuten batez ere. Reckeweg doktoreak ere antzeko obserbazioak egin ditu. Azaroaren azkenetan, Kanadako txerri kontserbak Alemaniara heltzen zirenean edo urtarrilean etxeko txerri hiltzeak hasten zirenean, gripe izurriak ugariagoak ziren. Bestalde izurri horiek oso bakanak dira Islam herrietan. Hauek txerrikiak debekaturik dute eta.

65 BAKTERIA SALBATZAILEAK

Llia Metschnikoff errusiar biologoa zen. Odessan jaioa 1845ean. Honek aurkitu zuen zahartzea ez dela desgastez edo ahipenez gertatzen, zelulen intoxikazioz baizik. Bulgarian jendea oso zahar egiten zela ikusi zuen. Zergatik? Bulgariarrek jogurta edo esne azidoa oso maite zuten. Esne honek hain zuzen, bakteriatu bat zuen, bakteriatu txarren kontrakoa. «Basilus Bulgaricus» edo bulgariar baziloa izena jarri zioten.

Baina bazilu hau ez zen giza hestean hazten, hark uste zuen bezala. Eta bakteriatu txar horiek giza hestean daude batez ere. Geroko ikerlariak hestean egoteko bakteriatuak lortu zituzten. Metschnikoff biologoa ez zen esne azidoaren beste gauza on batez ohartu. Honek bitamina asko eta inportanteak ditu: B taldeko bederatzi eta K bitamina, odola koagulatze oso inportantea.

Haragiz eta arraultzez bakarrik elikatzen denak hain bakteriatu inportante hauek eliminatzen ditu zer janik ez dutelako, bazilu honen janaria esnegaiak eta berdurak baitira. Beraz,

esne gaiek eta berdurek ez dute bizitzarik berez luzatzen, baina bai kontserbatu. Hauek sortzen duten bakteria salbatzailerak ez die beste bakteria txar batzuri lekuri uzten. Horregatik esnegaiak eta berdurak oso onak dira osasunerako.

66

HEGAZKINAK ETA PORTAHEGAZKINAK

Datozen urteetan gerra-hegazkin berriak erosteko planak dira gure penintsula bedeinkatua. Amerikarrak dira eredu guztiak. Ehunetik gora gerra-hegazkin. Zenbat kostatuko dira? Ehun eta hirurogei mila milioi (160.000 milioi). Ez dira zazpi erreal. Nor atakatu behar ote dugu? Norengandik defenditu behar dugu? Ez dakigu. Dakiguna da hegazkin horien kostua Euskal Herriko langile guztiek urtebetean ko-bratzen duten aina dela.

Kanariar irletan ere aire-itsas base handia egitea iragarrita dago. Laurehun bat Hektarea izango ditu eta hamabost mila milioi kostatuko. Hau ere ez da belarrondoko makala. Projektu honek kontrako erreakzio gogorrak sorrerazi ditu Kanarietan, gero eta militarizazio gehiago ikusten baitute inguruan.

Portahegazkin bat ere bada Ferrolen egiten ari direna. Eredu amerikarra eta «Almirante Carrero-Blanco» izena. Estatu presupostuetan 1.800 milioi horretarako destinaturik daude, 77tik 2.453 milioi horretan gastaturik daudela esanez. Zertarako? Prestigioak apenas balio baitu beste ezertarako.

67

BIZIDUNEN ADINA ATERA LITEKE

Orain arte adina ateratzeko metodoak bizigabeentzat bakarrik balio zuten. Baina aminoazidoak aztertzeke teknika berri bat bide dela, organismo bizidunak eta gizonenak ere datatzekoak dira. Aminoazidoa zeluletako sustantzia bat da.

Chirali-Bada-Mislinor Napoleonen garaian jaio zen eta 177 urte ditu. Kaukasoan bizi da bere lorategitxoan landuz. Han bertan, Azerbadjanen, beste agure batek 145 urte ditu eta te orria lantzen maisua omen da. Hauek ez dute ez batak ez besteak erretzen. Ekuadorgo Jose Davidek (147 urte) eta Miguel Carpiok (128 urte), egunero litro erdi ron edaten dute eta hiru pakete erretzen. Zenbat urte ote dute benetan hauek? Orain jakin liteke.

Orain arte karbonoaren metodoak fosilak datatzeko balio zuen. Baina duela 70.000 tik duela 6.000 urtetara bakarrik. Orain aminoazidoen metodoa 500.000 urtetara heltzen da. Beraz, aro historikoak eta prehistorikoak harrapatzen ditu. Gorago aipaturiko agureez gainera, izozpean dauden aintzi-nako pertsonen eta animalien urteak atera ahal izango dira.

68

DENBORA BAINO LEHEN ZAHARTU

Ipar Amerikan ia bi milioi lagun daude denbora baino lehen zahartuak. Kasu bat aipatzeko, Ethel Stonek berrogei-tamairu urte ditu. Bere seme-alaben izenak ahaztu zaizkio. Hogeitazehar, hilean behin gutxienez, egiten zuen bazkari errezeta ere ahaztu zaio. Pixkanaka sumintzen eta tris-tatzen ari da. Eta erortzen ere bai. Alaba zaharrak goizero jazten laguntzen zion eta hori ere ahaztu zaio.

Honelako gauzak ez dira hain berriak, berez. Berria eta bildurgarria beste zera da, alegia, hau berrogeitamairu urtez gertatzea eta, batez ere, milaka eta milaka kasu gertatzea. Kaliforniako Jarvick doktorearen ustez, goiz zahartze hau datorren mendeko gaitzik gogorrena izango omen da.

Gaitz hori buruko nerbioen pilaketa eta, beraz, nahasketa omen da. 1906an Alzheimer neurologo alemanak azaldu zuen gaitz hori eta horregatik Alzheimerren sindromea esaten zaio. Gaitzaren sustraiak eta trataerak oraindik misterioak dira. Jarvick-en eta lagunaren ustez, goiz zahartuentzat onena inguru maitakorra eta iharduna da. Neurri drastikorik hartu ezik, berrogei urte barru lau milioi Estatu Batuetan gazterik zahartuko eta erotuko omen dira.

Zahar gaztea munduan gauza ederra bada, gazte zahartua gauza tristea benetan. Gaitz bildurgarria eta ugaritzen ari dena. Heredagarria da hori? Hona, bide batez, zer kontaktu behar dugun.

Ginea Berriko tribu batetan, eritasun misterioso bat agertu zen eta triskantzak egiten zituen. Eritasun neurologikoa noski edo garbi esanda, erotasuna. Eritasun honi «Alzheimer»-ren gaitzaren edo goiz zahartzearen antza hartu zioten. Ginearren artean gaitz hari «kuru» deitzen diote. Ikertzen hasi ziren eta hara tribu hartan etxeko hilen burezurra jateko ohitura zela. Barrua behar da horretarako, baina barru guztiak ez dira berdinak.

Orduan «kuru» eritasunez hildakoen burmuina txinpantzei eta beste zenbait animalari sartu eta haiengan ere berehalaxe agertu zen gaitza. Txinpantzeak erotzen ziren. Alzheimerren gaitzez hildakoen burmuina ere txinpantzei sartu zieten. Seitatik biri zerebroa nahastu zitzairen. Txinpantzeak erotu ziren.

70 GABON ZUHAITZA NOIZDANIK

Gabon zuhaitzak -izeia, pinua, mihura etab.- gaur kutsu kristaua du, baina belenak eta jaiotzak baino askoz lehenagoa da. Gabon zuhaitza ohitura paganoa da, Europa zaharreko tradizio indartsu bat. Belenen edo jaiotzen tradizioa -ezagutzen dena behintzat- hamairugarren mendetik gorakoa da. Zuhaitzaren tradizioa zaharragoa da.

Europako tradizio zaharrean argiaren zuhaitza da. Argiaren berrikundea esan nahi zuen. Abenduan, eguna luzatzen hasten zenean, argiaren erritua egiten zuten. Eta zuhaitza zen sinbolo nagusia.

Katalunian enborraren tradizioa oso zaharra da gabonetan. Enborraren barruan gozokiak eta gauzak sartu eta enborra erre edo su ondoan jarri. Haurrek jo eta gauzak emateko

eskatzen diote. Enborraren zeremonia honek beste rito asko du inguruan: haurrak basora enbor bila joan, gero haren hautsa soroetan zabaldu, enborraren ilentia eta gabonetako txingarra hurren urterako gorde... Guzti hau, dudarik gabe, esan dugun aintzinako tradizioaren jarraipena da.

71

GORA TXERRIA

Txerria tenteia dela? Zientzigizon batzuk beste etxe-abeak baino gehiago dela diote. Txakurren habilidade berak ikasteko kapaz dira eta gehienetan denbora laburragoan. Laster ikasten dute ehizaki bat ekartzen, gurdari tiratzen, dantzatzen, baita gudulekuan lehergailuak usnaz aurkitzen ere. Estatu Batuetan gizon batek txerriei irakatsi zien marihuana soro bat zaintzen. Baita txerride bik poliziari ausiki (frente) egin ere, errenditu aurretik.

Txerria zikina dela? Berak dira, ordea, garbienetarikoak. Lurra eta basa maite dute, bai. Txerri muturrak lurra arakatzeko joera/grina du. Frantziako Perigod aldean, munduko trufarik onenak hartzen dira; kiloa hogeitamar mila pezetatant saltzen da. Hontto bikain horiek aurkitzeko, nekazariak aspaldidanik txerriak erabiltzen dituzte. Hauen muturrak sei metrotako distantziaz metro laurden sakon dauden trufak detektatzen ditu. Kontuz, beraz, nori zer esaten zaion. Txerria ez da edonor.

72

HAURREN SEXUALITATEA

—Zer uste duzu haurren sexualitateaz?

—Haurren sexualitatea? Hori da galdera tentela.

Haurren sexualitateaz galdetzean, askok horrelaxe erantzuten du. Beste askok galdera hori egiten duenari errezeluz begiratzen diote, ea anormalen bat ote den. Mende erdi baino gehiago da haurren lehen teoria sexualak egin zirela. Hala

ere askok, ez daki ezer horretaz. Eta beharbada jakin nahi ere ez.

Nagusiak gehiengan ez dira lehen-sentipen sexualez oroitzen. Sentipenak eta asepenak ere bai. Sei edo zazpi urterekin, adibidez. Beharbada amnesia xelege haxe izango da gai honi halako bekoskoa jartzearen arrazoia. Behin Freudi galdetu zioten ea zein zen bere aurkikunderik handiena. Eta erantzun zuen:

—Hurtzainek betidanik dakitena aurkitzea, alegia, hurrek jaiotzean sexua dutela.

Haurren sexu-sena edo libidoa iturriko ura bezala da. Irtezen uzten ez bazaio, beste nonbaitetik agertuko da. Adierazpen sexuala erreprimaturik gelditzen da, baina hari eusten zion karga afektiboak bere fakturak pasatzen ditu: logabetsuna, ohean pixa egitea, indarrrik eza edo astenia, apetitu galtzea eta abar.

73

TABAKOAREN ISPILUA

Erretzeak eta errekerak erretzailearen izaera eta nortasuna adierazten ditu. Gai hau zehazkien aztertu duena Eysenck doktorea izan da. Honen ustez, zigarroak edo zigarrotxoak erretzea, izaera extrobertituarri loturik dago. Erretzen ez duenak edo pipazaleak, ordea introbertituak dira.

Erretzaileak erretzen ez dutenak baino animatuagoak dira. Dantzara maizago joaten dira eta ezkontzan nahaste gehiago izaten dute. Eraginagoak eta beroagoak dira, arau etikoak eta legalak errazkiago hausten dituzte eta bizibidea maizago aldatzen dute. Erretzen ez dutenak, ordea, diziplinatuagoak dira eta beren eginkizun sozialen, etikoen eta erlijiosoen betetzeaileagoak.

Nola zigarroari ke hobia atera eta gustu hobia hartu? Lehenbizi astiro eta tiratu gabe biztu behar da. Gero ere astiro erre, gehiegi ez berotzeko. Bigarren araua: zigarroan hauts pixka bat, behintzat, beti eduki. Azkenez itzali gabe erre eta itzaltzen denean, hoztu aurretik biztu. Orain zigarro bat erretzea bakarrik falta zaizu.

Baina erretzaileen artean ere ba da alderik. Hemen batez ere zigarroaz edo ari gara eta ez zigarrotxoaz, nahizta diagnostikoak bietarako balio.

Zigarroa ahoan barrura sartzen duenak izaera latza, eszeptikoa eta ausarta du. Zigarroa horzkatzen edo erdi jaten duena gizon axolagabea da. Zigarroa azkeneraino erretzen duena senar iraunkorra, lagun leiala eta ispiritu euskorrekia izango da. Erdi erreta botatzen duena, ordea, buru arina da, asperturik dago edo koketia da.

Zigarroa sarritan itzaltzen zaion gizona memorigabea da, matematikak ikasia edo buru matematikoa duena eta ez hain bihozbera.

Azkenez esan behar da, herentziak eta inguruak zerikusia handia dutela tabakoaren zaletasunean. Hori demostraturik dago.

Gizonezkoekin egin zuen Eysenck doktoreak estudio hau. Horregatik ez da emakume erretzailerik aipatzen. Balio du emakumeentzat ere?

74

TXAKURRA ETA GIZONA AINTZINA

Jordango haranean gaude. Ba da han Ein Mallaha izeneko herri bat eta bertan aurkikunde bitxia egin dute eskabazio batzutan. Gizon baten eta txakur baten eskeletoak elkarren ondoan aurkitu dituzte. Eta ez elkarren ondoan bakarrik. Giza eskeletoak esku bat, txakur eskeletoaren gainean dauka.

Eskeleto hauek duela 12.000 urtetakoak dira. Beraz txakur eta gizon arteko kidetasun hori ez da atzokoa. Hor agertu den txakurra aintzinako otso hezi bat da. Gizona abeltzantzara dedikatzen hasi gabe oraindik. Ahuntz, ardi, etab. gizonarengandik urrutitatu zeuden oraindik. Txakurra, ordea, gizonarekin lagun zen.

Nola daude eskeletoak elkarren ondoan? Elkar jan zutelako? Ala benetan elkarren lagunak zirelako? Bigarren hau se-

gur asko. Txakurra aurretik hil zen, gizonaren esku bat gainean baitu. Ez da ipuin arrosatua. Jerusalemgo Zoologi Etxekoek egin duten aurkikundea da.

75 AFRIKA ERDIBITZEN

Duela berrehun milioi urte (ez da atzo goizeko kontua) Afrika eta Amerika bat ziren. Kontinente handi bat zen dena. Gero Iparretik Hegora lur azala erdibituz joan zen. Lur zerrenda izugarria hondoratuz joan zen eta horrela superkontinente hura bi zati egin zen. Bi zatiak pixkanaka elkarrengandik urruntzean, Atlantiar Ozeanoa sortu zen.

Gaur egun Ekialdeko Afrikan bada Rift izeneko haran bat. Gorago aipatu dugun antzeko prozesu titanikoa gertatzen ari da bertan. Goi aldean, Iparraldean, lur azaleko bi plaka, Arabia eta Afrika, berezirik edo apartaturik daude ia. Itsaso Gorria erdian dela. Afrika eta Arabia urtean bi zentimetro elkarrengandik urruntzen dira.

Hegoalderantz, Rift haranean, lur azala orain batean dago, itxirik dago. Baina zabaltzen ari da. Bi alderdiak urtean milimetro bat apartatzen dira. Prozesu honek jarraitzekotan, milioi batzu urteren buruan, Afrika erdibiturik geldituko da, bien artean ozeano berri bat dela. Guretzat milioi bat urte asko da, baina denborarentzat ezer gutxi, eternitate osoa baitu aurretik.

76 HISTORIA 1.000 ORRIALDETAN

Gure lurraren historia egunez egun, urtez urte hartu eta liburu bat egin dezagun. Liburu horrek 1.000 orrialde izango ditu. Lurra eguzki sistemaren barruan duela 4.500 milioi urte formatu zen. Beraz liburuaren orrialde bakoitzak 4,5 milioi urte ditu.

Gizonaren asabarik zaharrena -lehen hominidoa- azkena baino hiru orrialde lehenago sortzen da: duela hamabi milioi urte. Oraindik hau ez da gizona. «Homo» adarra azken aurreko orrialdearen azkenean agertzen da. Eta lehen harrizko tresnak, azken orrialdearen erdian agertzen dira.

Historian ezagutzen ditugun azken hamar mila urteok azken orrialdeko azken iladak dira. 998. orrialdean (duela hamabi milioi urte) Himalaya, Andeak etab. sortu ziren. Lur gainaren lehertze honek eta geroko hozteak lur azala arras aldatu zuen. Hori gabe gizonaren eboluziorik ez zen izango. Liburu honetan noiz jaio zen Jesukristo? Azken orrialdeko azken iladako azken hitzean.

Aintzinako kontuak direla esaten ditugunak ez dira, beraz, hain aintzinakoak. Galeperkumeak bezala, oraindik arraultze eskola soinean daramagu.

77 DEABRUZKO DEABRUTEGIA

Almonacid eta Puebla de Almenara, elkarren ondoko bi herri dira. Aintzina, oso aintzina, nekazari bat goldaketan ari zela, San Blasen irudia agertu zen bi herrien mugan. Bi herrietako bizilagunek, handik bakoitzaren herrirako bidea neurtu zuten. Pueblara laburrago izanik, Pueblarrak galera handi batetan ipini eta beren elizarantz eramaten hasi ziren; baina ezin, hain astuna izaki. Almonacidtarrek, ordea, astotxo baten gainean aisa eraman zuten. Geroztik San Blas dute zaindari.

Herri jai hauetako zerik herrikoiena «deabruak» dira. Nornahi izan liteke deabru, herriko nahiz erbesteko. Zertarako dira deabruak? Kondairak dioenez, Deabruen Kofradia Ama Birjinak berak sortua omen da, prozesioan daramatela era batera birjina eta haurdun dagoela inork ez igartzeko. Deabruak jendea josta erazten eta despistatzen dute, Ama Birjina oharkabea doala.

Jaiak otsailaren bian, Kandelario egunean hasten dira. Deabruak Ama Birjinaren irudia lagun, kalerik kale ibiltzen

dira harrapaka eta iheska eta beren zintzarriak ifernalki joka. San Blas egunean ere adin guztietako deabruak egundoko eskandalua eta zintzarri hotsa erabiltzen dute.

78 MARIHUANAREN GERRILEROAK

Kalifornian marihuanaren kultiboa debekaturik dago, ilegala da. Baina lurrak aberasten ari dira. Bertako agintariak ezikusi egiten dute. Ezikusi eta guzti ere, ordea, ez uste marihuana lantzaileen bizimodua hain erraza denik. Gerrilan bezala, fusila eskuan dutela, lan egiten dute.

Poliziak marihuanaren kontrako txoke indar bat jarririk du: marihuana alorrak begiztatzeko argazki tresna infragorridun abioiak, salatzaileei 25etik 50 dolarrerako sariak... Baina lurrean bertako interbentzioa hain garestia baita, ez du merezi esplotazio handiren baten kasuan edo izan ezik. Eskarmentu gisa. Eskarmentu posible honen zain, marihuana lantzaileak ernai daude. Batzuk behe samar datorren edozein abioiri tiratzen diote, suaren kontrakoei ere bai. Baita ibilzale begiluzeei ere. Bat baino gehiago hilik erori da.

Amerikako Mendebalde edo Oeste berria. Erresistentzia kolektiboak «gerrilazko baratze» hau antolatu du.

«Hasieran sakabanaturik genbiltzan —dio batek—, baina orain alarma sarea egina dugu. Bakoitzak zenbat landu ere arauturik dugu (25 landare buruko) abioiek ez ikusteko. Gogorra da baina uzta bakoitzeko 25.000 dolar ere bada zerbait»

79 LEHENBIZI IGERI GERO OINEZ

Amateur Igeriketako Federakunde Internazionalak emaniko datuen arabera, urtero milioi laurdenetik hirurehun milara lagun itotzen dira. Gehienak gaztetxoak edo igeri ez dakitenez gazteak dira. Arazo honi irtenbide egokia bilatu nahirik, sobietar zientzizigonek esperimentu bitxi bat egin dute: haur jaioberriei edo hilabete gutxitako haurtxoei igeri iraka-

tsi. Eskola hori pasatzen duen haurrak ez du uraren bildurrik. Uretan aisa eta lasai ibiltzen da.

Igor Charkovskik honelako azalpena eta konparazioa jarri du:

«Behin —dio— arraintxo bat kristalezko ontzitik aquarium batetara pasatzean, ezinean edo nekez bezala ari zela ohartu nintzen. Zergatik? Ur handitan galdurik bezala aurkitzen zen. Orduan pentsatu nuen ez ote zen hobe ontzia bera akuariumean sartu, arraintxoa ontzi txikitik handira pasatzeko.

Haurrengan ere berdin gertatzen da. Naturak berak ezarri du haurrengan igeri sena. Haur jaioberria uretan sartzen baduzu, sen hori berehalaxe martxan jartzen da eta haurtxoa igelaren antzera mugitzen da».

Medikuntzan ere bada metodo bat Leguechenko-Sokolov izenekoa. Traumaturik jaiotzen diren haurrak uretan sartzen dituzte minutu batzutan, konortea itzultzeko.

Animaliekin ere aprobak egin dira. Oilo batek bere txitak uretara eramaten zituen. Untxiak, katuak eta beste animalia «lurrekoek» igeri egiten zuten. Bakoitzari, jakina, bere engainua jarri behar. Honela untzikumeak ugabereari eman eta amordeak eta untzikumeek orduak egiten zituzten uretan.

Argi dago haurrak jaiotze batera igeri ikas dezakeela, baita uretan murgildu ere. Gainera jaioberri hauek agudoago hazten dira. Pare bat hilabeteko haurrari igeri irakasten bazaio, ondorio onak datoz. Haurra lehenago hasten da oinez eta hizketan. Eta gutxiago gaisotzen da.

Moskun haurtxoen igeriketa asko zabaldu da. Badira 56 etxe eta horietan 15.000 haurtxo igeri ikasten ari dira. Etxeko bainontzian ere aisa irakasten zaio haurrari igeri.

80 ILARGIA ETA HAURREN SEXUA

Ilargiaren eragina gauza konprobatua da. Ernaldira gutxi gora behera hamar ilargi hil izaten da eta emakumeen hilero-

koa ere ilargiaren hil bat da justuan. Gizonezkoengan ere ilargiak eragin handia du, bai umorean, bai sendimenduetan.

Herri batzuetako sineskera batek honela dio:

—Lehen haurra ilgoran jaiotzen bada, bigarren haurra sexu berekoa izango da. Lehen haurra ilbeheran jaiotzen bada, bigarren haurra sexu desberdinekoa izango da.

Robert Jourdan astrologoak prebisio metodo hau ematen du:

Lehen haurra: ilargi berria amaren jaiotza egunetik bederatzi egunen barruan gertatzen bada, lehen haurra neska izango da. Bederatzi egun horien barruan ilargi berririk gertatzen ez bada, lehen haurra mutila izango da.

Bigarren haurra: lehen haurra jaiotze eta bederatzi egunetan ilargi berria gertatzen bada, hurrengo haurrak sexu desberdina izango du. Bederatzi egun horien barruan ilargi berririk ez bada, hurrengo haurra sexu berekoa izango da.

Lege hauek ez dute aplikaziorik, bien bitartean abortorik izan bada.

Planetek pertsonengan halako eragina baldin badute, naturako beste elementuetan ere edukiko dutela pentsatu behar. Goiak eta beheak elkarrekin loturik dabilta.

Planeta astitsuen ondorioak iraunkorragoak dira, astiroa-go pasatzen baitira. Horien eraginak belaunaldi osoak markatzen ditu, zeinu berean denbora asko egiten baitute. Honek Jupiterrek ia urtebete. Saturnok bi urte eta erdi. Uranok zazpi urte. Neptunok ia hamalau urte eta Plutonek hogeitik gora.

Beren joan-etorrian planeta hauetarik bi edo gehiago zeinu berean biltzea izan liteke. Orduan ondorio gogorragoak dira munduan. 1990eko urtarrilaren 31an hiru planeta bilduko dira, Capricornio zeinuan: Saturno, Urano eta Neptuno. Jupiter, ordea, aurrez egongo da orduan. Kantzer zeinuan. Astrologoek diotenez, pilaketa honek ondorio handiak ekarriko ditu. Perturbazio geologiko gogorrak izango omen dira: lurrikarak, itsasikarak eta horrelakoak. Prekauzioak hartu beharko.

«Neonazien ihardunak ez du arriskurik gure sistema Estatalerako», hori diote Alemaniako polizia eta Defentsako Sailean. Gehiago oraindik, erreklutamendu txartelak inoiz Estatu postaz banatzen dira. Talde paramilitar neonazi baten, Hesseko hainbat herritan, honako testu hau zabaldu zuen batere eragozpenik gabe.

«Sar zu ere gure erakundean, Europa askatu nahi baduzu».

Hamalau urtetako mutilak neonazien taldeetara erakaritzen dituzte. Talde horiek polizia bera baino hobeki armaturik eta ikasirik daude. Gero praktikak datoz. Bankuak asaltatu edo nazien «zerrenda beltzetan» dauden erakundeak edo pertsonak jo. Helburu nagusia izua sartzea dela irakasten da. Kanean gaez inor ez ibiltzeko moduko izua.

Nondik ateratzen dute dirua etab.? Esan dugun bezala, bankuak asaltatuz. Baina hori gutxi da. Batez ere industrial handiak dira dirua jartzen dutenak. «Esku gogorraren» eta Führer berri baten ametsa duten industrialak. Dirurik gehiena armatan eta muniziotan urtzen dute. 1978an neonazien 992 ekintza edo «krimen» erregistratu zituen polizia. Zenbat gehiago erregistratu gabeak?

Bigarren Mundu Gerran, Berlingo gudua azkena eta gogorrena izan zen. Alemanek ia galdutzat ematen zuten. Baina eusten ari ziren, sobietarrak atzeratzeko eta aliatuak lehenbizi Berlinen sartzeko. Ez zuten sobietarrik sartzerik nahi. Eisehowerrek, aliatuen aldetik, ez zuen Berlinen sartu nahi. Ez zion helburu horri garrantzia militarrik ematen.

Hitler erdi bakarrik gelditu zen Berlinen. Goering, kargu guztiak kendu eta arrestatu zuten. Himmler ere aldeginatu zen, Mendebaldearekin negoziaketa bilatuz. Denak aldenitu ziren Goebbels eta Bormann izan ezik. Emakume bat baka-

rrik zegoen zintzo Hitlerrekin. Apirilak 28tik 29rako gauean hiria sutan eta ketan zegoela, Hitler eta beronen maitea ezkondu ziren, bunker baten barruan. Eva Braun orain Eva Hitler zen.

Baina erresistentzia guztiz desegiten ari zen. Hitlerrek ezkondu eta arratsalde berean zianuro kapsula bat hartu zuen. Ondoren Goebbelsek edo Bormannek hobarizko tiroa eman zion. Eva Hitler euskal bertso zaharrak dioen bezala gelditu zen:

«Goizean goizik ezkondu nintzen, ezkondu nintzen goizean. Etxekoandre zabala nintzen eguerdi erdian. Baita alar-gun gazte gelditu ilunabarra zenean».

Baina hark ez zuen kanta hori ikasi eta bere burua hil egin zuen.

83

AFRIKA MOTOREZ

Bidaia bat Afrikan zehar motorez. Salan Santos da plan horren eragilea. Mutil hau bakarrik ibilia da Afrikako oihanetan eta desertuetan zehar. Eta motorez ibili ere, hamazortzi mila kilometro inguru. Orain taldean egin nahi dute ibilaldia. Guztiz hamaika mila kilometro. Pare bat hilabete egingo omen dute maiatzean hasi eta ekainerarte.

Marokkotik hasi eta Algerian zehar Nigeria eta abar, Afrikako erdialde guztia pasatzeko asmoa dute. Zer egin behar dute ibilaldi horretan? Abentura bat. Abentura bat besterik gabe ere gauza sana da. Horrelako ibilaldiak askorentzat zoroenak dira. Beste batzu ez dira uste horretakoak. Afrikako oihanetan zehar ibili, animalia eta piztia guztiak ikusi, beste natura bat ezagutu, tropikoa irentsi.

Baina, batez ere, tribuak ezagutzea da onena. Hainbeste tribu beltz, kolorez berdinak baina kulturaz hain desberdinak: Hidjiak, Faliak, Pigmeoak... Egunero jende eta zibilizazio berriak. Ez da gauza ederra?

84

URREZKO JANTZI MIRAGARRIA

Duela urte batzu, Kazajiako hiritik hurbil, Issiskiko hilibian jantzi miragarri bat aurkitu zuten: «urrezko jantzia» edo lau mila bitxidun jantzia. Orain ikertzaileek beste sorpresa bat hartu dute. Hil-jantzi honen beste apaindura bat aurkitu dute. Apaindura horretan mito zaharrak agiri dira Unibertsioaren egileari buruz.

Ba da txano koniko bat hiru lerro bertikal dituen. Txanoaren ertzak mendi katea adierazten du, zuhaitz eta guzti, zirkulu bat eginez. Mendi maldetan tigreak eta ahuntzak agiri dira eta goietan txoriak eta tigre hegodunak. Mendi katea horrek unibertsoa inguratzen zuen lehen gizonen burua. Kazajiako Zientzi Akademiako zientzizonek «urrezko jantzi» horren sinboloetan, Indo-Irandar herrietako mitoen analogia ikusten dute.

Apaindura harrigarri honetaz gainera, ba da beste sorpresarik ere. Sak-en buruzagiaren hilibian zilarrezko ontzi bat ere aurkitu zuten eta inkripzio enigmatiko bat bertan. Duela bi mila eta bostehun urtetakoa da. Baina alfabeto ezezaguna. Oraindik ezin izan dute dezifratu. Beste zibilizazio galdu bat gehiago.

85

MILIOIAK MILIOIEN BUELTAN

Estatu Batuetako partzuergo hauek: Dow Chemical, Monsanto, Diamond, Shamrock, Thompson, Hayward Chemical eta Hercules Incorporated delakoek gobernuari auzia sartu diote. Zein auzi? Begira.

Partzuergo hauek Vietnamgo gerran «laranja» desostogarrria egiten zuten. Zer zen «laranja» desostogarrri hori? Gai bat, kimikaz prestatua, laranja kolorekoa, zuhaitzak eta landaretza desostotzen eta gero ihartzen zuena. Laranja hori oso toxikoa da. Baina armadako buruek ez diete soldaduei ezer

esaten. Norena da errua? Partzuergoek Estatuarena dela diote, beronen axolagabekeriagatik.

Toxiko horrekin soldadu asko gaizki gelditu ziren. Soldadu hauek beren udaletan auzia sartzen ari dira. Udalak halaber auzia sartzen ari dira, gobernuak diru berezi bat jartzeko eskatuz. Zenbat diru? Lau mila eta berrehun milioi dolar. Pentza zenbat pezeta.

Diru horrekin, jakina, amerikarrak bakarrik indemnitzatuko dituzte.

Vietnamdarrak ere asko hil ziren eta gaizki gelditu, toxiko hori bide zela. Horiek Amerikari bost axola diote.

86 SU GAINETIK ERRE GABE

Tokyo ondoko Takao mendian suaren martxa izaten da urtero, hain zuzen martxoaren bigarren igandean. Yamabushi izeneko monje batzuk egiten dute. Hogei mila lagun inguru joaten dira zeremonia handi hau ikustera. Monje hauen jakinduria Budismoa bera baino zaharragoa omen da.

Zelaian su txingarra zabaltzen dute eta monjeak banaka eta astiro pasatzen dira suaren gainetik. Ortozik. Nola liteke hori?

Harrigarri ba dirudi ere, urtero milaka lagunek ikusten du hori. Esplikazio hau ematen dute.

Gure gorputzeko zelula atomiko bakoitzak elektroiti positiboak eta negatiboak ditu. Bakoitzak bere baitan jainkozko kontzientzia du, kontzientzia sikikoa esaten zaiona.

Oitoitzez, kontzentrazioz eta abar, barruko kontzientzia hori jaso egiten da. Zelulen bibrazioen frekuentzia azeleratu eta bizkortu egiten da. Suak ere horixe egiten du. Hotzak, ordea, bibrazioak gutxitu. Beraz, suak egiten duena norbere kontzentrazioz eginez gero, ez dago txokerik. Eta suak ez du erretzen.

Egia da hori? Suaren gainean eta erre gabe ibiltzen direla egia da behintzat.

87 ERRINOZEROEN ALDERDIA

Kanadako Parlamentu hauteskundeetan kanpaina berezi bat izan zen. «Errinozeroen alderdiak» hirurogeita hiru mila boto jaso zituen. Errinozeroa edo errinozerontea badakizu zer animalia klase den. Kanadan, beraz, badira hainbat errinozero eta hainbat errinozerozale.

Alderdi honen programa kuriozkoa zen. Kandidatu batek bere mitinetan zera esaten zuen, alegia, armada berrerratu behar zela eta horretarako soldadu guztiak general mailara jaso. Beste kandidatu bat zortzi urtetako neskatxoa zen, eguneroko kolegiara dabilena. Errinozerokumeak erakartzeko aproposa. Errinozeroen alderdi honek badu teknika bat energia nuklearra ahotik sartzeko. Hortzeskubilak energia nuklearrez eragitea esaten zuen. Ez dakigu teknika hori ahotik sartzeko ala ateratzeko den.

Honelako kanpaina bat Kanadan zehar egiteko eta hainbeste boto lortzeko, presupostu gogorra jo behar. Nola aterara?

Botila hutsak bilduz. Botila hutsez finantzatu omen zuten kanpaina. Ez dakigu egia ala propaganda zen, baina horretan ari ziren. Zer egingo ote zuten botila beteekin hasi balira?

88 MEZADUN ETA LAPIKODUN APAIZAK

Hemeritzagarren mendearen lehen erdian nahasmendu handiak izan ziren penintsulan. Independentzi gerrak astinaldi gogorrek ekarri zituen maila guztietan. Eta erligioan ez gutxien. Garai horretako pintore nagusia eta jeniala Goya da. Akelarreak, inkisizioak, erregeak. ohiturak, jende marginatuak, kondenatuak, elizkizunak eta zer ez zuen pintatu Goya handiak.

Apaizen bolada ez zen berriketa izan. Mezatik lapikora zen orduko ibilera 1826.ean apezpiku zintzo batek erakunde sozialak sortzea debekatu zien apaizei. Zergatik? Apaizek

nahi zutena jolas eta jokoleku bat omen zelako. Tabernetan eta kasinoetan gehien ikusten zirenak, apaiz alferrak omen ziren. Handik kanpora, elizaren eta elizkizunen orde, negozio pribatuetan omen zeukaten begia. Zorrilla idazlea Mexikora iritsi zen eta hura ere Espainiako antzera zegoela kontatzen du beraren memorieta:

«Kanonigoak zaldi handien gainean eta morroiz inguratuturik, lurrak eta landarediak ikusten».

Burrukarik latzenak, hamarrenak edo ditximak kobratzea zen. Nekazariak eutsi eta apaizek kendu. Zaurituak eta hilak ere izaten ziren. Apaizak eta fraileak Madrilgo gorte inguruan biltzen ziren, ekin eta ekin, entxufe bila. Fernando VII.ak debekatu zuen han biltzea, baina alferrik. Lapiko eta guzti mezara

89 KISSINGERREN EBANJELIOA

Kissingerrek liburu bat idatzia du «Ene oroitzapenak» izenekoa. Asko disimulatuturik ere, bakoitzak duena azaldu behar eta hor ageri da Estatu Batuetako idazkari ohiaren ebanjelioa. Kissingerren lehen kapitulua inguruko goi jende guztia denigratzea eta arbuizatzea da. Nixon bera ere ederki hornitzen du arbuioz. Esanak esan ondoren, «benetan erotzat» jotzen du bere presidentea. Eta hain jende ezteus eta ziztrinaren ondoan, berak «politika handia» egin behar. Salbatzen den bakarra Richard Helms da, CIAko zuzendaria. Hau bai bazela «profesionala eta odol hotzekoa».

Inguruko guztiak jorratu ondoren, ebanjelio politikoa dator. Lehen arau nagusia «munduari osoan begiratzea da ez zatika». Aurreko gobernuek banaka tratatu omen zituzten arazoak eta hortik frakasoak. Sentimentalismoak aparte utzirik, mundua bakartzat jo behar da. Trumanek egin zuen bezala: bonba atomikoa Hiroshiman bota eta Tokyon ez ezik, Moskun batez ere, zartada eman.

Intelektualak, unibertsitariak eta kazetariak gupida gabe tratatzen ditu. Bera ere unibertsitaria izana da, baina atal hori laster bukatzen da liburuan. Gogoan gelditzen zaion ba-

karra Estatuko Idazkaritza da. Azkenerako ba dirudi garratasun pixka bat ere ba dariola. «Goi eginkizunek burua hustutzen dute eta ez dute betetasunik ematen». Baina hori ere laster ahazten zaio eta bere oroitzapenen bigarren liburua idazteko prest dago.

90 INGELES BARREGARRIAK

Ingalaterran, kontserbadoreak eta liberalak txakurra eta katua bezala ibiltzea ia ingelesen tankera jenetikoa da. Disraeli eta Gladstone alderdi bakoitzeko buruak ziren eta hauek ere, txakurra eta katua bezala ibili behar.

Behin, Disraeliri galdegin zioten ea zer alde ikusten zuen «zoritxarra» eta «kalamitatea» hitzen artean. Honela erantzun zuen:

«Gladstone jauna Thames ibaira eroriko balitz, zoritxarra litzateke. Norbaitek salbatuko balu, kalamitatea.»

Churchill ere famatua zen ateraldietan. Gobernu laboristak Churchilli batere atsegin ez zitzaion gizon bati, kargu bat eman zion eta Churchillek komentatu:

—Hauxe da izendapenik harrigarriena, Kaligulak bere zaldia kontsul izendatu zuenetik.

Oraintsu greba handiak izan dira Ingalaterran. «Punch» astekariak mediku baten karikatura zekarren. Operazio mahaian etzanda eri bat dago eta medikuak honela esaten dio:

«Sentitzen dut baina operazioa atzeratu egin beharko dugu. Enterradoreak greban deklaratu berri dira».

Anestesia baino animu hobea izango zen hori.

91 SUIZIDIOEN ARRAZIOAK

Suizidioak zer esan asko eman du munduan. Euskal Herrian ere bai. Euskaldun askok bere burua hil du. Ez dira gu-

txi hasi eta biderdian gelditu direnak ere. Eta zenbat pentsamendu hori noizbait buruan erabiliak?

Gai honetaz bada zenbait topiko eta gezur. Farberow doktoreak «Egiak eta gezurrak» izeneko kuadru bat egin zuen eta hona zer dioskun.

Esaten dena: suizidioaz mintzo dena ez da suizidatzen. Hori gezurra da eta egia beste hau: beren burua hil duten hamarretarik zortzik, asmoak aurretik iragarri zituzten. Beraz, amenazuak eta intentuak benetan hartu behar dira.

Esaten dena: suizidek hiltzeko asmoa dute. Hori gezurra da eta egia beste hau: suizidarik gehienak hil ala bizi erabaki ezinik egon dira. Inork ez du bere bururik hiltzen, sentitzen duena jakin erazi gabe.

Esaten dena: pasatu zaio bolada eta ez dago arriskurik. Hori gezurra da eta egia beste hau: suizidiorik gehienak delako «hobekuntza» horretatik hiru hilabetetara gertatzen dira, laguna indar berriekin aurkitzen denean.

Beste puntu bat, suizidioa ez dago aberastasunari edo pobretasunari loturik. Horretan oso demokrata da eta gizarte maila guztiak harrapatzen ditu.

Eta azkenez, Farberowk dioenez, ehundaka kasuren estudioak ematen du bere burua hil zutenak oso dohakabeak zirela eta ez burutik gaixo zeudenak.

92 UR-ZALDIAK ZUTIK

Frantziako Rhodano ibaiaren deltan mila eta seirehun inguru zaldi bizi dira, libre eta gizonaren eskutik urrun. Delta hori edo Camargue aldea oso gogorra da, ordea. Han bizitzeko abildadeak egin behar dira. Zingira lurra da, beraz oso urtsua. Haize ezin hotzagoak jotzen du, uholdeak noiznahi dira, gatz kapa izugarriak egiten dira. Hitz batez, han ez da inor bizi ur-zaldi hauexek izan ezik.

Nola bizi dira zaldi hauek? Derrigorren eraginez eta egokitzen jakin dutelako. Bestela hil beharra zuten. Zingiran zehar lasai ibiltzen dira eta urpeko belarra jaten dakite. Ez

dago hori egiten dakien beste zaldi motarik, ez beste ugaztunik.

Zaldi hauen jatorria misteriotsua da. Gauza bat dago argi. Harri Aroko artistek haitzetan pintatu zituztenen antzeko zaldiok ez ziren beren gogoz eta atseginez etorri hain bizileku gogorrera. Aintzina, oso aintzina, Iparreko izozteak beherrantz hasi zirenean, bizidun guztiak, gizonek eta animaliek, hanka jokoa egin behar izan zuten Hegorantz. Espezie guztietariko batzuk bakarrik lortu zuten irautea eta hemen datoz gure ur-zaldiak. Pirinioek eta Alpeek bideak hitxirik eta itsasora ezin saltaturik, Rhodano inguruan gelditu ziren egokitu behar zena egokituz. Horretarako zaldiek aparteko gaitasuna dute. Hori egin zuten Camargueko zaldiek eta han bizi dira inor kompetentziarik egitera joango zaien bildurrik gabe.

93 GITARRAJOLE MODERNOAK

Telebistak gehienetan harrkada bat merezi badu ere, gauza harrigarri batzuk noiz behinka ikusentzuten ditugu. Musikazaleak ez ziren gutxi gozatu hiru gitarrajole haiekin. Larry Coryell, John McLaughlin eta Paco de Lucia genituen artistak.

Paco de Luciani bildur izugarria sartzen omen zaio ekinaldi bakoitzaren aurrean. Jotzen hasitakoan, bildur hori energia bihurtzen omen zaio eta mesedegarri bilakatzen. Dena behar beste bikote harrigarri horri eusteko.

John McLaughlin eta Larry Coryell gaur egungo gitarrajolerik gorenatarikoak ditugu. Bata ingelesa eta bestea Iparmerikarra, halako astinaldia eman diote gitarra modernoari. Lehenengoak hogeitahamasei urte ditu eta bigarrenak hogeitahamabost. Oraindik ba dute pixka batetarako. Coryell jazz inguruan ibili da batez ere. Besteak, ordea, rockzaleen artean arrakasta gehiago ukan du. Baina artistek berek ez dute marra banatzailearik jartzen estilotik estilora, teknika batetik bestera. Gitarrajoleak omen dira, beste gabe.

Paco de Lucia hirukotean sartzea ez da nolana hiko kolpea musika sailean. Jazza eta rocka elkarrekin pasatzekoak dira.

Baina flamencoa? Garbizaleek ez zuten aitaren gutxi egingo. Hirukotea izanik, nor zen aitaren egitea. Pentsatzen jarritz gero, Trinitatea bera ere aitaren egiteko modukoa da.

94 ELEFANTEA GIZONAREN LAGUNIK ONENA

Tailandiako haurrek lehenen ikasten dutena zera da, alegia, gizonaren lagunik onena elefantea dela. Hamaika lan eta zerbitzu eder egiten du elefanteak. Hain abere maitea eta mitologian hain sartua izanik. Hona haurrek berehalaxe entzun behar duten kondaira gozoa.

Shuddonado printzea eta Maya Devi printzesa elkarrekin samurki maiteminduak ziren. Baina Mayak ez zuen garbitasunik galdu nahi, jainkoengandik hurbilago egoteko. Printzeak publikuan bakarrik ikusten zuen bere maitea, bestela grinei ezin eusteko bildurrez.

Gau batez Mayak amets hau egin zuen. Lau errege logelan sartu zitzaizkion eta gelari lau ertzetatik heldurik, Himmalaya mendi batetara zeramaten. Gailurrean zuhaitz eder eta hostotsu bat zegoen. Orduan lau erregina etorri eta urrezko hormadun jauregira eraman zuten. Han elefante gazte bat, elurra bezain zuria, printzesaren gelan sartu zen. Sei marfilezko betagin zituen eta tronpa puntan loto bat (lore bat) zekarren, belaunikaturik printzesari eskaini ziona. Gero hurbildu eta betaginetariko bat saiets aldetik sartu zion, minik egin gabe.

Hamar hilabete geroago, Maya bere jauregirantz zihoala, bikuondo artez baten oinetan gelditu zen. Zuhaitza makurtu, eta bere magal berdean bildu zuen. Gerotxoago hura haurtxo bat ondoan zela, urrezko alfonbra gainean. Elefante zuriak betagina sarturiko saihets alde beretik jaio zen haurtxoa, batiere zauririk egin gabe. Haur honen erreinua arimena izango zen eta ez ezpataz, maitasunez baizik.

95 EINSTEINEN TRAGEDIA

Historia guztiko zientzi gizonik handienetarikoa Albert Einstein izan da eta Aro Modernoan zer esanik ere ez. Einstein famatu zuena erlatibitatearen teoria izan zen batez ere. Teoria honek zientzia errotik irauli zuen. Eta zientzia fisikoa ez ezik, baita giza zientziak eta filosofia ere.

Emaztea hiltzean ere Einsteinek ez zuen lanik utzi, bere bulegoan sarturik, pasiluaz beste aldean emaztea agonian bazegoen ere. Bere lankideekin eztabaida zientifikoa bukatutakoan bakarrik inguratu zen gorpua ikustera.

Einsteinek aurkikunderik handienak egin eta gero, bere bizitzako azkenaldia, alferrik bila eman zuen. Bere liburuxka, lapitza eta kalkulu erregelak harturik, erlatibitatea eta elektromagnetismoa lotzeko formula matematikoen bila eman zuen denbora. Unibertsoaren teoria osoa nahi zuen. Baina alferrik saiatu zen eta horretan hamar zintz burua alferrik apurtzen emateko. 1955ean hil zen gizona 76 urtekin.

Einsteinen zerebroak buruhauste asko eman du. Princetongo unibertsitateko laborategian gorde zuten. Hemen, hil zen biharamunetik aurrera, zientifiko talde bat Einsteinen zerebroa estudiatzen ari da. Oraindik ezin izan da argitu, buru hark zer eduki zuen besteek ez zutenik. Einstein, bizi zela ere, oñartzen zen zientifikoak bera hiltzeko zain zeudela, zerebroa estudiatzen hasteko. Hori animua gizonarentzat.

96 SHA ETA HASSAN

Hassan II eta Sha erosta edo lamentazio berdinetan ari zaizkigu: Mendebaldeak hondatu da. Hassan IIri galdera asko egin diote. Persiako Shari babesa eman dionetik: zer egiten du Shak? Zer moduz dago? Nola erreakzionatzen du? Ba du aginpidera itzultzeko asmorik?

«Ez —dio Hassanek—. Hark ba daki dena bukatu dela. Ahal balu ere, ez zaio komeni. Nekaturik dago, gaixorik, akabaturik». Hassan Sharen lagunkide sentitzen da. Bera ere bildur da Shari gertatua gertatuko ote zaion.

«Monarkia —dio— batasunaren zigilua da. Hori gabe Iran gainbehera joango da».

Sha eta Hassan, beren elkarrizketa ugarietan, nazio egoez mintzo direnean, ados daude lamentatzen, nola Mendebaldeak apatiaz ikusten duen mundu guztian ari den desestabilizazio politikoa.

Eta biok hots egiten dute: «Mendebaldearenak egin du, ez baitu errusoen kontra defenditu nahi».

Ikusten denez, larri eta urduri daude gizonok, erruki handirik merezi ez badute ere.

97 GARIAREN ZABALKUNDE XELEBREA

Nekazaritzan, artzaintzan eta edozein sailetan aldakuntza eta hobekuntza berriek mitoren edo ipuinen bat sorrerazi dute beti. Euskal Herrian dudarik gabe, gariaren ezagutzak nekazaritzaren eta bizitza osoaren iraultza ekarri zuen. Begira beste zenbaiten artean nolako kondaira polita sortu zuten Ataun aldean.

Ataungo Muskiako haitzuloan Basajaunak bizi ziren. Goi lurrak lantzen zituzten eta bai gari pila ederrik hartu ere. Ataundarrak behe aldean ahal bezala bizi ziren, gariaren inbidiaz. Baina nola garia Basajaunengandik lortu?

Behin, San Martin Txiki mendira igon zen eta disimulan basajaunengana hurbildu. Gari ale pila ederra zen haitzulo aurrean. San Martin Txikik apustu bat egin zien: zeinek urrutiago saltatu gari pilaren gainetik. Basajaunek ederki saltatu zuten. San Martin Txiki, ordea, gari pilaren erdi erdian erori zen. Jokoa galdu zuen baina abarka zirrituak gari alez bete zitzaizkion. Basajaunak irabazi ondoren harro eta adar jozaille zeuden.

San Martin Txiki apal apal abiatu zen beherantz, basajaun bat ohartu arte gari hazia zeramala abarketan. Haizkora bat jaurtiki zioten, baina hura jo beharrean Olasagastiko gaztainondoan sarturik gelditu zen. Geroztik Ataunen eta inguru guztian garia zabaldu zen eta hala kendu zituzten mendeetako goseak.

98 BONBILA JALEA

Munduan ba dira era batera eritasun xebreak eta tris-teak. Lurra jateko bizioa zegoela ba genekien. Baina bonbilak eta bizar labanak jateko? Hona hemen Kubako Habanan estudiaturiko kasu bat. Mutila hamasei urterarte normal zertorren. Egun batean kantatzen, zentzugabekeriak esaten eta asko ibiltzeko gogoia edukitzen hasi zen. Honela hasi eta egun gutxitara, amari ura eskatu zion, edan zuen eta basua bera jaten hasi zen.

Hiru edo lau hilabete horrela jarraitu ondoren, gauzak apurtzeari eman zion. Indizioz eta abarrez tratatu ondoren, bolada pasa erazi zioten, baina ez kristalak jateko gogorik. Gerotxoago bizar labanak jaten hasi zen. Lagunek horrelakorik ez egiteko esaten ziotenez gero, ezkutatu egiten zen bonbilak, fluoreszenteak, basuak eta bizar labanak jateko. Eta bestela gaizki sentitzen zen.

Beste mutil batek ere, sikiatrikoan sartu zuten biharamu-nean, gaez jaiki, erizainaren gelara joan eta bonbila jan zion, neska harrituta utzirik.

Hona hemen medikuak egin zion entrebista, kurioa.

Medikua: Nola jan zenuen lehenengo bonbila?

Mutila: Ohean nengoan. Bonbilaren filamentuak begien kaltegarri izan zitezkeela pentsatu nuen eta jaiki eta jan egin nuen.

Med.: Bonbila hura ez zegoen, ba, zure arrebaren gelan?

Mut.: Bai baina haren izpiak begietara zetozkidan.

Med.: Ez duzu uste itzaltzea hobe izango zela?

Mut.: Hori esan nion, baina etxea ilunean gelditzen zela esan zuten.

Med.: Jandakoan zer sentitu zenuen?
 Mut.: Satisfazio ederra
 Med.: Zergatik?
 Mut.: Enbarazutik kendu nuelako
 Med.: Eta beste bonbila bat jarriko balizute?
 Mut.: Ba, jan egin behar. Ez dago beste erremediorik.
 Med.: Eta jatean ez dizu minik ematen?
 Mut.: Ez. Hori eta gehiago menderatzeko kapaz naiz ni. Berak ni izorratu aurretik, neuk bera jan eta kito

99

KANPOSANTUAN DENAK AIREAN

Errezilgo tabernan zeuden eta solasa zen ea kanposantua bildurgarria zen gaeuz ala ez. Batzuk baietz, besteek ezetz eta horrela. Honetan heldu zen gizon bat eta solasaren berri jakin zuenean esan zuen: «Kuartilu bat ardogatik oraintxe joan eta handiko horma ukitu baietz». Jaso zioten desafioa.

Biharamunean bat ehorzteko (enterratzeko) zuloa eginik zegoen eta lagunek pentsatu zuten bertan pare bat sartzea maindire zuriz jantzirik. Heldu zen gizona eta zuloaren parean zihoala, maindiredunak atera zitzaizkion. Gizonak, nola edo hala, berriro zuloratu zituen mamuak. Apuztua zen bezala, handiko horma ukitu eta berriz tabernara.

—Kuartilu bat irabazi dizuet gaur ere-hots egin zuen.

Lagun artean ehortzailea (enterradorea) erreparatu zuen eta gure errezildarrak esan zion:

—Hor zaude? Zuretzat ere ba dago han lana. Han dabil-tza denak airean.

100

OLAK ETA OLAGIZONAK

Oraindik ba dira Euskal Herrian «olak» edo «ola zaharrak» esaten zaien etxeak. Aintzina burdina lantzen zen lan-tegiak. Burdina urtu, burdinazko piezak egin etab. Ez zen ez, berriketako lana.

Olagizonek aste guztian lan egiten zuten, gau eta egun. Nola zitekeen hori? Atsedendaldi laburrak eta neketsuak egi-ten zituzten. Burdinaren prozesuak hala eskatzen zuen. For-jaldi bat bukatu eta berria hastean, pare bat ordu inguruko tarte zegoen, burdina ondo urtu arte. Tarte horixe aprobe-txatzen zuten jateko eta lo egiteko. Hagoa edo burdina salda berria atera behar zenean, urtzaileak txistu zorrotz bat jotzen zuen eta gora, mutilak.

Janak eta otorduak olan bertan egiten zituzten olajaunaren kontura. Soldata horixe zen: jana eta pare bana erreal edo horrela egunean. Eguneroko jana indabak edo babak eta idi zezina izaten zen, ogia olagizonek txandaka astean behin norbere etxean egiten zutelarik.

Oletako lana ez zela berriketa esan dugu. Olagizonak go-gorrek eta latzak ziren. Ba da esaera bat dioena: «Olatik berri onik ez». Hortik atera zer lan klase izango zen hura.

101

MAPUTXEAK HONDAMENDI LEGALEAN

Azken urteotan, Txileko egoera tristeak zeresan handiak sortu ditu. Giza eskubideak diktadura militarren burdun-tzian erretzen ari dira. Bada, orde, munduan apenas ezagut-zen den beste alderdi bat Txilen.

Ehuneko bost maputxe arrazakoak dira. Indio hauek Txileko hegoaldean bizi dira. Bio-Biotik Llanquihueraino. Beren hizkuntza berezia dute, beren arte, musika eta erlijio adierazpena dute. Hitz batez beren kultura berezia eta men-detsua dute.

Kultura hau Allenderen garaian pixka bat bizten ari zen. Pinochetek berriro ezpata lepoan jarri dio. Lege-dekretu bat sinatu zuen maputxeak hondamendi legalean jartzen zituena. Erabaki garratza, baina gutxi zabaldu zena, ez baita maputxe herriaren ezagutzarik.

1536an heldu ziren hara espainiar konkistatzaileak. Mapu-txeek erresistentzia latza jartzen dute. Era batera historiako

gerrarik luzeenetarikoa eta gutxien ezagunetarikoa dugu hau. 1641ean Kolonizatzaileek paktu bat sinatu behar izan zuten maputheen erresistentziarik ezin hautsiz. Geroztik kolonizazioak beste taktika batzu erabili zituen salerosketa, ebangelizazioa, alkohola. Indioek eusten ba zekiten baina atakutzen ez zekiten eta horrexek galdu zituen.

Pixkanaka gaurko egoera larrira heldu dira. «Maputxe» hitzak «lurreko gizona» esan nahi du. Pinocheten erregimenak «lurpeko gizonak» deklaratu ditu.

102 OÑATIKO ARAOZTAR LEHOINABARRA

Amerikako konkistaldian ba da izen bat, euskalduna bera, kolonikuntzari eta Espainiako Erregeari berari ere, ia buelta osoa eman ziona. 1560an Pedro de Ursuak (Nafarra berau) espedizio bat antolatu zuen Perun zehar, El Dorado edo urrezko lurraldearen bila. Espainolen artean ba zen taldetxo bat, Lope de Agirre buru zuena. Agirre hau oñatiarra zen, Araozko mendi artekoa. Gizon ausarta eta agitadore aparta. Zeozergatik sartu zuten espedizio honetan, hiritik urruntzeko. Baina ia bertan armatu zuen deskalabru osoa.

Espedizioa aurrera zihoala, Lope de Agirre errebelatu zen eta bere alde ez zeuden guztiak garbitu zituen. Hori orduan ez zen hain harrigarri. Baina handiena zera egin zuen, alegia, Espainiako erregeari gerra deklaratu. Lope de Agirrek izugarriak egin zituen eta kolonikuntza guztia hankaz gora jarri zuen. Honela definitu zuen bere burua: «Jainkoaren sumina, Askatasunaren Printzea eta Tierra firmeko eta Txileko jaina».

Espainolek Lope de Agirrereren setioa eratu zuten. Beheraldia hasi zitzaionean, desertoreak ugari ziren, asko hil zituen, baina askok ihes egin zioten. Ia bakarrik aurkitu zen eta bere alaba ere hil zuen: «Ezein lotsagabek zure edertasunik goza ez dezan eta Lope de Agirre traidorearen alaba zarela entzun beharrik izan ez dezazun».

103 TRAFIKO SEINALEEN ANTZEKO HIZKUNTZA

Hizkuntza bat idazteko eta irakurtzeko modu bakarra letrak direla uste genuen. Mendebaldean ez dugu besterik imajinatzen, euskara ere barruan dela. Eta letra ordez sinboloz edo irudiz eginez gero? Esate baterako, trafiko seinaleen antzera. Seinale batek «debekaturik aparkatzea» esan nahi du, beste batek «debekaturik eskuinera hartzea» edo «izotza» edo «behe irristakorra» edo «kontuz, eskolak» edo «abiadura mugatua» eta horrela beste hainbeste.

Ba da horrela eginiko hizkuntzarik? Bai bat eta bi baino gehiago. Eta bat txinera. Hizkuntza mota hau naturatik hurbilago dago. Honela, adibidez, «gizona», «emakumea» etab. adierazteko, idatzi baino gehiago errepresentatu egiten dira. Errazago ala zailago da hori? Ez dakigu. Desberdina bai. Txinoen idazkera kosmos oso bat da, haurrentzat askoz naturalagoa. Erraz ikasten dute.

Eta ba da beste gauza bat ere. Euskaraz joan den mendeko autoreak nekez irakurtzen ditugu berek idatzi zuten moduan. Gaztelaniaz ere «Cantar del Mio Cid» irakurtzea oso zaila da orduan idazten zen moduan. Txinoek, ordea, eragozpen handirik gabe irakurtzen dizute duela hiru mila urtetako edozer. Horregatik han hizkuntza historian askoz sartuago dago.

104 HIRI IGERILARIAK

Gure lurra hirutatik bi itsasoa denez gero, Hugo Burgos eta Kionori Kutoutake arkitektoek ur gainean eraikitzeko hirien maketak egin dituzte. Hiri edo herri igerilariak. Gernika, Altsasu edo Azeitia bezalako herriak itsasoko uren gainean. Handigorik entzun behar dugu.

Hiri igerilari hauek flotatzen ari izango lirateke. Beraz itsasuntzi bat bezala hara eta hona ibil litezke. Prekauzio guztiak, jakina, ekaitzen eta itsasaldi txarren aurka. Alde hone-

tatik arrisku guztiak gairiditurik leudeke. Hiri bakoitzak hamabost mila bizilagun inguru edukiko luke.

Zer egitura lukeen? Hiri zati handi bat murgildurik legoke, urpean iceberg bat bezala. Behe estruktura edo urpeko soto horretan leudeke fabrikak, administrazioak, jolastokiak eta lanerako lekuak. Goi aldean, ur gainean, bizilekuak eta eguzki indarra biltzeko behar diren instalazioak.

Hiri igerilari hauek itsasoko energiak baliatuko liriateke eta batez ere hiri hauetan biziko liriateke, itsasoko ondasunak esplotatuz. Proiektua bukatua da. Teknikaz egingarri da, litekeena da. Gako nagusia zera da: itsasoen banaketa. Norenak ozeanoak? Nola jarri mugak itsasoan?

105 URANIOA ZERUTIK

Frantziako Kanpo Harremanetako Ministeritzan, afrikar eta malgatxe arazoan zuzendari den Georgy jaunak lasai asko aitortu du Frantziar Konpainiek uranioa Namibiatik ezkutu ki ateratzen dutela.

—Eskandaluzko munduan bizi gara —dio— eta gu gara bertako lapurrak.

Lasaitasun berdinez agertu zuen, Gobernuak ez duela zereginek konpainia pribatuei uranio kontrabandoa utz erazteko.

—Konpainia horietan, nahiko parte edukirik ere —dio berriro— gobernuak ez dauka gauza handirik egiterik. Petrolio konpainiak, adibidez, berak dira botere handi eta estatuak ez dauka zereginek.

Negozio handiek horrelaxe funtzionatzen dute. Frantziako Gobernua eta beste gobernu asko berriz pozik hala delako eta hala izan dadin. Monopolio inperialistek Namibiatik baliakizunak martxa honetan esplotatzen jarraitzen badute, denbora laburrean agortuko direla kalkulaturik dago.

Namibiako lapurretaz Gobernuak zerikusirik ez duela sinetz erazi nahi dute Mendebaldean. Ofizialki beraz uranioa zerutik dator.

Aintzinako mana hura bezala, goitik behera eta Frantzia haundira. Baina «Union des Transports Aeriens» konpainiak zera dio: «Frantziako agintarien baiezkoko formala» dutela. Sar zaitez koadrila horretan.

106 MENDEXAKO SATORRAREN SENTENTZIA

Bizkaian, Lekeitio gainean, ba da herritxo ezin politago bat Mendexa deritzona. Duela urte asko, hango zaharren memoria akumulatuak kontatzen du, sator izugarri bat ari zela lurpetik triskantza negargarriak egiten. Goizero jaikitzean, mendexarrek lur multzoz beterik aurkitzen zituzten so-roak. Eta nolako multzoak. Gari metak bezalakoak. Batzar nagusi batetan, herritar guztiek herriko erreminta guztiekin sator hura harrapatzea pentsatu zuten.

Ez gutxi kostata baina harrapatu zuten. Txahala bezalakoa zen hura. Juizio publikoa egin zioten herriko plazan eta heriotzara kondenatu. Baina batek esan zuen:

«Heriotz hutsak ez du horren kalterik ordaintzen. Zerbait gehiago behar da».

Batzuk zati zati egitea esaten zuten, beste batzuk buztanetik bururantz larrua pixkanaka kentzea: norbaitek eliz dorrean zintzilik edukitzea, etabar. Denak burua apurtzeaz zeudela, alkatea jaiki zen eta esan zuen:

Jaunak, pentsatu dut zer egin. Sator honek bizi bizirik enterratzea merezi du.

Herritarrek ontzat hartu zuten eta sator madarikatua bizi bizirik enterratu zuten.

107 LANDAREAK ADIMENDUN

Landareek ere bihotza dutela? Landareek ere sentimendua dutela? Hitz egiten dakitela? Ez da erraz sinestekoa baina begira nolako esperientzia egin duten. Ba da tresna bat

galbanometroa edo horrelako izen borobila duena. Hauen elektrodoak landarearen hostoei konektatu eta elkarrizketa hasten da. Tresna honek hostoan kaptatzen duena zarata edo hots bihurtzen du. Landarea erlaxaturik dagoenean hots gutxiago. Landarea haserre denean, ordea, hura eskandalua entzuten dena.

Lehen aproban publikoari laguntza eskatu zitzaion, ahalik erlaxatuen egoteko eta landarearenganako pentsamendu onez. Orduan landarea bera ere lasai zegoen. Zarata mantsoa eta leuna entzuten zen.

Gero landarerik gustatzen ez zitzaion bat eta landareenganako instinto agresiboa zuen beste bat hurbildu ziren. Landareak biziki erreakzionatu zuen, eszitazio zorrotza agertu zuen eta altabozetan txistu etengabeak eta sakonak entzun ziren, benetako lamentuak ziruditenak. Ez dago esan beharrik esperientzia honek ikusentzule guztiak harriturik utzi zituela.

108 ZINTZARRIAK ETA ZINTZARRIALDIAK

Ba dakizu zintzarri zer den? Euskal Herrian zehar anitz izen ditu animalien lepoan zintzilik ibiltzen den kanpaitxo horrek: zintzarria, arrana, joarea, bulunba, dunba... Zintzarrriaren egitekoa bistakoa da: abereak ezagutzeko, bilatzeko, etab. Aintzina gerran ere zintzarriak erabiltzen zituzten. Etsaiak elkarrengana hurbiltzean, «zintzarriak muturik» etortzen ziren.

Zintzarrigintza industri bat zen Euskal Herrian. Animaliei jartzeko ez ezik, gauza askotarako balio zuten. Dantza batzutan han dira zintzarriak. Zintzarri dantza. Batez ere «toberak» esaten zitzaion hartan zintzarria nagusi zen. Zer ziren toberak? Gizon edo emakume alargunen bat bigarrenez ezkontzen zenean, herriko gazteek egiten zuten burla edo adar

jotze sesioa. Zintzarriz jantzi eta etxe aurrean edo leihopean egundoko zintzarri hotsa ateratzen zuten. Beste kasu batzutan ere ba zen ohitura hori. Tobera jotzea sarritan oso krudela gertatzen zen.

Beste gauza xeble bat ere gertatzen zen. Nekazarien edo artzainen arteko auzietan (behia falta, ardia ohostu etab.) testiguak zintzarrien hotsera deklaratu behar zuten eta hala animalia identifikatu. Esate baterako, juezak zintzarria jo eta galdetzen zuen:

—Hau da behi haren zintzarri hotsa?

Eta testiguak baietz edo ezetz. Horrelako judizioak benetako toberak edo zentzerradak gertatzen ziren.

109 EDERKI KOSTATAKO EZKONTZA

Hego Afrikako Lesothoko erreinuan ezkontzaren oinarria ganadua zen. Eta ezkondu aurretik zer? Hala mutili hala neskei inimiziazio bat eragiten zaie pubertarotik hogeitaz urterarte. Gaur gutxienak dira rito hauetara makurtzen direnak. Baina hortik pasatzen direnek frailerik gogorrenak ere labur uzten dituzte.

Mutilak zirkuntzidatu eta erreklusio zorrotzean edukitzen dituzte mendi aldeetan. Jendearengandik guztiz aparte eta urruti. Neskak ere giltzapean edukitzen dituzte nahizta herriatik hurbil. Iniziatzeko bigarren fasea agiria izaten da. Orduan neskatoek kanta kantatzen dituzte eta mutilen portaeraren parodia edo imitazio barregarri bat antzetzten dute. Bakoitzari bere «eskoletan» hala mutili nola neskei, tabuak erakusten dizkiete. Tabua zorrotza da. Zer da tabua? Misterio hauek iniziatu gabei agertzeko debeku gogorra. Eta esaera eta sineskera da tabu hori hausten duena zorotasunak jotzen duela. Lesothoko ezkontza ere ez da kostagabea.

110 ARTA GARAUA ZELAKOAN

Gizon batek baserri bat zeukan. Aparte eta bakarrik bizi zen. Etxaldea ere malkar samarra eta pobrea zen. Artoa ereiten zuen baina apenas hartzen zuen ezer, lehorterik bazen batez ere. Hartzen zuen apurra, berriz, oiloek jaten zioten.

—Zer arraio egin dezaket hemen arto pixka bat hartzeko?

Gauza horri buruan bueltak eta bueltak emanaz, azkenean bere burua arto garaua zela sinestera heldu zen. Aspaldiko arto zorionekoa soinean zeraman. Baina orduan oiloek bildur ikaragarria sartzen zioten. Oilorik ikusten zuen bakoitzean ez zegoen hura sosegatzerik. Eta zoroetxean sartu zuten.

Tratamendu batzu ezarri zizkioten eta zentzatu zen gaixoa.

«Pentsatzea ere arta garaua naizela!»

Medikuak zoroetxeko oilategi ondotik eraman zuen disimulan. Oilo bat ikustea nahiko izan zen berriro gizona ihesi hasteko. Medikuak esan zion:

—Ez duzu, ba, oraintxe esan ez zarela arto garaua?

Eta gizonak:

—Nik bai, baina oiloei nork esan die?

111 GURUTZEA ETA ZUHAITZA

Ba dira erligioetan tradizio zaharrak, misteriosoak; beren sorrera mendeetan atzerantz galtzen da. Erligio guztietan daude horrelakoak eta «kabalak» esaten zaie. Erligioek batzutan kabala hauek gaitzetsi eta beste batzutan onetsi egiten dituzte. Kabala horietako bat «jakituriaren zuhaitza» da.

Tradizio judu-kristauen arabera, Adanen seme Setek zuhaitz honen haziak lortu zituen. Erein, hazi eta zuhaitz berririk horrekin egin zen Jesukristo hil zuten gurutzea. Zuhaitz

tankera duten gurutzeek han hilketak edo masakreak izan dira adieraz dezakete. Horietako bat da Durangoko gurutzea, XV. mendean egina, han sorturiko eta eliz agintarietako sutan eta odoletan itoriko herejiaren «espiazio» edo ordain bezala.

Baina ba du jakituriaren zuhaitzarekin ere zerikusia. Gurutzeratuaren buru gainean jakituria eta zientzia guztiak bilduzen dira, oinetan kalabera izugarri bat delarik. Beste horrelako gurutze bat Nafarroako Puente La Reinan (Garesen) dago, zuhaitz baten urkulua bezalako. Galiziako Morrazon ere bada horrelako bat. Inguru hura gainera sorgin lekua da. Hauek beren akelarreak egiten zituzten, baita ondorengoak utzi ere, herriak oraindik ere «soliñas» deituak.

112 BEGIEN ITXI-IREKIAK

Jende askok ezin du era batera txiklela maxkatu eta ibili. Nola litekeen hori? Ohartzen ez garen gauza harrigarri asko daramagu soinean. Beste inbestigazio batzuk eman dute gizonik gehienok ez garela, era batera, begiak kliskatzeko eta pentsatzeko kapaz. Zer da kliskatu? Begiei klisk-klask eragin, begiak itxi-ireki. Betazalekin minutuan hainbeste aldiz egiten dugun operazio hori. Estudio zehatzek agertu dute problema aritmetikoetan murgildurik daudenek edo itzarrik ametsari ematen diotenek gutxi kliskatzen dutela. Nora ezik, frustraturik edo hunkiturik gaudenean, ordea, eroak bezala begiak kliskatzen ditugu. Pentsamendu bat bukatzean ere kliskatzen dugu eta irakurkeran gure esaldien azkenak kliskadaka puntuatzen ditugu.

Ikasle batzurekin esperientzia bat egin zen. Zenbaki bat hartu eta atzerantz kontatu. Kontatzen ari zirenean, beste edozein unetan baino askoz gutxiago kliskatzen zuten. Inbestigatzaileek uste dute, kontatzeko erabiltzen dugun memori zatia zer bisualak afektatu egiten duela eta beraz begien itxi-irekiak eten egin dezakeela. Eta horrela beste ihardun mental askotan ere.

113 HIRU «AI» PEZETA BATEAN

Etxe batetan, ugazaba eta neskamea bizi ziren. Ugazaba arraro samarra zen eta aldiak ematen zionean edozer agintzen zuen. Neskamea oso-osokoa zen eta kokolatxoia ere bai. Behin ugazabak esan zion:

—Neskato! Hori dituzu hiru pezeta eta ekarri pezeta baten «igeri», pezeta baten «ez igeri» eta beste hainbesteren «ai».

Ba doa neskamea eta pezeta batez kortxo bat erosi zuen, bigarren pezetaz berun zati bat eta hirugarrenez orratz bat. Etxera heltzean azpil bat urez bete zuen eta ugazabari esan zion han zituela bere eroskiak. Kortxoa azpilera bota eta esan zuen:

—Hor duzu uretan pezeta baten «igeri»

Gero berun zatia bota eta:

—Hor duzu beste pezeta baten «ez igeri».

—Hirugarrena non duzu ba?

—Egon pixka bat. Neskameak bularreko zapitik orratza atera eta izterretik zast sartu zion ugazabari.

—Ai, ai, ai, —orroa egin zuen ugazabak. Eta neskameak irribarrez erantzun:

—Pezeta batean erosteko «ai» gehiegi ez da?

114 ERREGE TRIPANDIARI GALTZAK LEHERTU

Prusiako Federiko Gilermo I historian izan den erregerik bitxienetarikoa dugu. Inperio gogorra eta zorrotza antolatu zuen. Baina bera? Hura zen piztiatzarra hura! Ia bi metro eta erdi zituen. Gizona baino gizenagoa eta tripandi nabarmena, hidropikoa baitzen. Biolentoa, krudela, maltzurra, sabelkoa, edalea eta zekena. Hori duk titulu sorta.

Behin zazpi metrotako pastel bat egin erazi zuen, seirehun arraultzez, hiru tonelada esnez, eta tonelada bat gurinez. Gau hartan bertan bere omenezko dantzaldi batetarako jazten ari zela, galtzak lehertu zituen. Eta nola bakarrak baitzitu eta haren neurrikorik ez baitzen inperio guztian, tren bat bidali zuen Berlinera galtza bila.

Halako batetan, eta ez bere semeek nahi bezain azkar, hil zorrian zegoen erregea bere berrogeita hamabi urterekin. Berak antolatu zuen bere buruaren ehorzketa eta hiletak. Katabut bat ohe ondora ekar erazi zuen. Haritzezko katabut izugarria, hura sartzeko ganbara bezalakoa behar baitzen. Hil ondoko diskurtsuak debekatu zituen eta hamabi kainoikada agindu. Hala joan zen beste mundura Prusiako inperio handiko erregea. Goian bego, eta kontuz, eror ez dadin.

115 HURA ZEN ZEKORRA HURA!

Bizkaiko Oiztik Bizkargira bitartean bada auzune bat Munniketa deritzona eta aintzina erromeria famatuak egiten zirena. Hemengo etxe batetan txahal handi bat jaio zen, jaiotzean bertan bere ama leher erazi zuen. Ugazabak esan zion:

—Ama hil duzu, arraio horrek? Handia izan nahi baduzu, izan beharko duzu, ba.

Gizonak txahala, gehiago ezinean, gobernatzen zuen eguneroko. Hain handia egin baitzen, ez zuen inongo harakinek nahi. Gizonak Gernikako feriara eramatea pentsatu zuen. Baina ikuilutik ateratzeko ate berria egin behar. Eta bitartean zekorra gehiago hazi zen. Noizbait abiatu zen Gernikarantz aberea sokatik zeramala. Ginerratzat aldean errebuelta hestu samarrak ditu kaminoak eta maniobrak eragin behar txahalari.

Zugaztietako geltokian hura treneratzeko miseriak ikusi zituzten. Abiatu zen tren baina tunelean ezin abererik pasatu. Oinez eramane zuten Gernikara eta feria desalojatu behar izan zuten. Eta azkenean handiena, ijito batek erosi.

Ez gara burruka armatuaz ari; ez gara «Euskadi ta Askatasuna»z ari, «Electromagnetic Therapeutic Apparatus» delakoaz baizik. Elektronikako kanadar espezialista batek, David Graham-ek, asma berri duen aparatu batez.

Aparatu honen sekretua ez da, beste orain arteko askorena bezala, gizona erlaxapenean, lasaipenean jartzea. Erlax egoerak alfa onden produkzioa bultzatzen du eta onda horiek dira adimena darabiltenak. Aparatu berriak, honetaz gainera, zerebroko ahalmen ezkutuak edo motelduak bizkortzen ditu, azeleratzen ditu. Adimen koizientea %25era jaso dezake.

Tratamendu honen toki berezia traumatismo intelektuallak, buru barruko istripuak edo anomaliak zuzentzea da. Ehundaka aproba egin eta gehienetan erresultatu ona eman omen du. Ehundaka haur ere —batzu gainera ustez erremedio gabeko oker zerebralak zituztenak tratatu ondoren, hutsak edo frakasuak %15,3 izan omen dira.

Astean bizpahiru ordutako tratamendua izaten da. Ondorioz memoria argitzen da, burua argitzen eta intuizioa zorrotzen. Hitz batez, zerebroa bizkortu. Drogen antzeko eragina, baina drogen ondorio txarrik gabe. Zerebro barrua oraindik misterio hutsa bada ere, ba goaz zerbait aurreratuz.

117 TUNGUSKAKO METEORITO MISTERIOTSUA

Lurrean ez gaude inoiz ez inon segur. Goitik euria eta elurra ez ezik, izar zatiak eror litezke. Eta erortzen dira. Horrelakoak dira meteoritoak edo «izar galduak» esaten zaienak. Hauek, batzutan, lurrera erortzen dira eta egundoko eztanda egiten. Honelako bat Siberiako herritxo batetan erori zen

duela larogei urte, 1902ko ekainaren 30ean. Erori eta leher egin zuen, egundoko zartada lurrari eta inguruari emanaz.

Zer eta nolakoa zen? Zer tamainutakoa zen? Ikerketan ari dira eta lehen aldiz oraintxe aurkitu dute argitasun pixka bat emateko giltza. Ukraniko Zientzi Akademiako talde batek eztanda misterioitsu haren lekuan, lurrekoa ez den diamante eta grafito multzo bat aurkitu du. Geokimikoen ustez, multzo hori izar zati haren izaera argitzeko bidea izan liteke. Ez zen, ez, nolana hikoia izan. Tunguska ibai aldeko Vanavara ingurua ederki astindu zuen. Toki hartan agiri den karbono solidoak hori adierazten du. Karbono-14 hori ez da lurrekoa, espaziotik etorria baizik eta inguru hartan nahiko kopuru handitan aurkitu dute.

Zenbat pisatzen zuen meteorito edo zena zelako hark? Karbono pusken hedadura eta eztandaren indarra kontutan harturik, zientzizigonek bost milioi tonelada jotzen diote. Hura izango zen harrizarra. Horrelakoxe aleen txingorrada besterik ez dugu behar.

118 LANGIILEAK ALA OILOAK

Oiloek arraultze gehiago egiten dute argiarekin. Gizonei lan gehiago egin erazteko ere antzeko zerbait asmatu dute. Kolonbiar industria batetan, esperimendu gisa, gerentziak argiaren bizitasuna jaso zuen tailerretan. Eta zer gertatu zen? Produkzioa gehitu zela. Orain arte oiloak bezala.

Baina gerotxoago argiaren bizitasuna moteldu zuten eta zer gertatu zen? Produkzioa gutxitu? Bai zera! berriro ere gora. Horretan, behintzat, ez gara oiloak. Geroagoko inbestigazioak agertu zuen produkzioa gora zihoala argi aldatze bakoitzean, berdin gehiago nahiz gutxiago aldatu. Eta konklusio hau atera zen: langileek, gerentzia beren osunagatik arduratzen zela sentitzen zuten eta hortik laneko efikazia gehitze hori.

Horrela baldin bada, ez dakigu oiloa izatea hobe ez den.

119 OTXANDIOKO ARTZAINAREN ZORIONA

Bizkaiko Otxandion ba zen artzain bat sekula trenik ikusi gabea. Otxandio oso altu dago, ia Urkiola parean Gasteizerantz. Negu batetan artzainak bere artaldea Durangaldera jaiste pentsatu zuen. San Antoniori bide batez suerte ona eskaturik, han zihoan gure gizona Urkiolan behera Mañarin zehar, Izurtzatik Durangora.

Egunak joan egunak etorri, ez zen neguko hotzaz eta bustiaz beste berririk gertatzen. Trenbide inguruan zerabilen artaldea. Handik zer gurdi klase ibil ote zitekeen antzeman ezin zegoela, hara non agertzen den tren. Artaldea ere trenik ikusi gabea izaki, tren ketsuak dozena bat ardi aurrean eraman zituen. Artzaina bere artaldearekin Otxandiora itzuli zen agudo, ardi hilak penaz bildu eta negarrez ehortzi ondoren. Otxandion hori kontatu zuenean, esan zioten:

—Baduk hori ere zoritxarra, trenak hainbeste ardi eraman beharra.

—Zoritxarra? —ihardesten zuen artzain gaixoak—. Ez hainbestekoa. Pentsa zer izango zen aurrez etorri beharrean alboz etorri balitz.

120 APAIZA AHARI TRUKEAN

Oraindik bizi den eta luzaro bizitzeko asmoa duen apaiz batek ahari bat zeukan. Ahari topekaria gainera. Behin artzain batekin gertatu zen eta beti bezala, aharien konturik edo solasik ezin falta. Hitzak hitza ekarriz, ahari trukea pentsatzera heldu ziren. Biak zeuden trukerako prest, baina kondizioetan ezin adostu. Artzainak ehun pezeta gehiago eskatzen zuen bere aharia astunagoa zelako.

—Nire aharia gazteagoa da ordea— tematzen zuen apaizak.

Alferrik. Bakoitzak bereari eusten zion. Tabernara sartu ziren eta tabernandrea zebilen mostradorean hara eta hona. Halako batetan alaba ere agertu zen eta apaizak galdetu zion artzainari:

—Aizu! Bat beharrean zein eramango zenuke mendira? Ama ala alaba?

—Galdetzea ere! —erantzun zuen artzainak—. Alaba, noski.

—Ah bai? —errepikatu zuen apaizak— Ba, ama astunagoa da.

121 NAPOLIKO «VIRUS» HILTZAILEA

Giulio Tarrok, birulogiako laborategiko buruzagia, hila-betetik gora darama Napoliko birus madarikatua identifikatu duela sinets erazi nahiez. Baina Napolin, kale zoko guztietan. Ama Birjinaren irudiak lorez eta argiz dauden Napoli horretan, azalpen arrazionalak ez dute zeregin handirik.

Napolik izurri (epidemia) klase guztiak —eta batzu izugarriak— jasan ditu bere historian zehar. Hiriko zaindari San Genaroren odol erlikia bera ere bakteriatu batek jota dago. Bakteria ezaguna, baina biologoen artean bakarrik. Bakteria hori beroak gorritu egiten du. Napolitarrek, ordea, nahiago dute mirarietan sinetsi.

De Arcangelis pediatria italiarrak idazten du: «Iparraldeak darama hemen ama-umeen babeserako kredituen zati nagusia. Hegoaldea da jaiotze berririk gehien hiltzen dena. Diti ordez hauts esnea ematen da aurrerapena delakoan». Pediatria honentzat hori aberrazioa da. Bakunen aurretik, haurren immunizazioko lehen maila ditia, amaren esnea dela dio.

122 BURBUILA MISTERIOSA

Einsteinen mundu berria ulertzen zaila bada, esplikatzeko ez da batere errazagoa. Sir James Jeans Cambrigeeko unibertsitateko irakaslea da eta zientzi liburu askoren egilea. Honen Einsteinen aurkikundearen matematikarik gabeko adierazteko, begira zer sinpleki dioskun:

«Pentsa ezazu xaboi burbuila bat azala ximurturik duena. Horixe da agertu zaigun unibertso berriaren errepresentaziorik onena. Unibertsoa ez da burbuilaren barrua, azala baizik».

«Baina burbuila azalak —segitzen du Jeansek— xaboi burbuilaren azal horrek, bi dimentsio bakarrik ditu eta unibertsoko burbuilak lau: hiru espaziozkoak eta bat denborazkoa. Eta burbuila jaio erazi duen sustantzia (xaboi aparra) ez da espazio hutsa; denbora hutsez beteada».

Ulertu duzu ezer? Lehen bezala gelditu bazara, pentsa ezazu hauek ez direla fantasiak. Gutxi ulertzekoa bada ere, zientzia da mundua egingo edo desegingo duena.

123 KARRERAKO ASTOAK

Gernikako Onaindiarrak famatuak dira Euskal Herrian. Bat batez ere, ezagutu den pelotaririk onenetarikoa zen. Anaietariko bat Zeferino Onaindia dugu, lutxa librean famatua izana hau ere. Gaur honen entzutea Gernikaldean bere pasadizu eta ateraldiengatik da, batez ere. Ez dago gernikaririk orain kontatuko duguna ez dakienik.

Gernika ondoko auzo batetan jaiak ziren eta asto karrera. Gure animaliak ba zetozen, ohi duten eskandalua bidean armatuz. Onaindia taberna batetan zegoen lagunekin kontu kontari. Taberna berean zen Gernikako mediku bat eta horrelako jende eskolatua ere. Astoek taberna ertzetik pasatu behar zuten. Eta han agertu ziren putza eta hautsa zeriela. Taberna parera heltzean, medikuak eupada egiten dio Onaindiari:

—Zeferino! Hemen datoz zure lagunak.

Zeferinok tabernako atera hurbildu eta abere belarriandiak erreparatzean, hots egiten du:

—Bai zera! Horiek karrerakoak dira.

124 TXINPANTZEAK ESKOLARA

Ez uste gezurra denik. Kokok, Stanford-ko adimendu testean, erresultatu normalak atera ditu bere adineko gizakien artean.

Urte batzutatik honantz hogeiren bat tximino amerikar, gehienak txinpantzeak, gizonen hizkera ikasten ari dira. Beren jestu azkarrez, fikziorik ausartenak adierazten dituzte. Zientziak oraindik apenas neur lezakeen iraultza honen luzezabalik. Duela mende bat baino gehiago plazaratu zen darwinismoarekin konparatzekoa da, beharbada.

Kokok eta bere eskola lagunek problema funtsezko bat dakarte: hizkuntzaren nozioa, hizkerari buruzko ustea birrindu digute.

Etologoak, portaeraren espezialistak, giza hizkuntzaren zenbait berezitasun zehazteko ahaleginetan ari dira oraindik. Hala, adibidez, bere gogoetaz gogoeta egiteko, edo bere kontzientziaren kontzientzia edukitzeko ahalmena. Animalia filosofo bakarra izatea, beraz, gizonari utzi beharko ote genioke? Problema hori oraindik ez zaie tximinoei planteiatu. Orduan ikusiko dugu.

125 BIZIA LUZATZERIK EZ DAGO

Giza biziaren luzetasuna ez da askorik aldatu milurte askotan zehar. Laurogeita hamarretik ehun urtetara da lehengo eta oraingo goia ere. Gehitu edo luzatu dena bizi globala da, batz bestekoa. Hitz batez, bidean ez hiltzeko edo bidean

urrutiago heltzeko, itxaropen gehiago dago gaur. Horrela, eritasunak ebitatuz eta osasuna eta medikuntza indartuz, heriotzaren kausa nagusi guztiak aldendurik ere, biziaren topea ehun urteren bueltan egongo litzateke.

Zer gertatzen da? Zelulak hiltzen dira. Eta berriak sortzen dira. Gure oraingo gorputza ez da duela urte batzutakoa. Zelula batzu hil eta beste batzu jaio. Baina zelula hilak ez dira desagertzen. Hantxe daude. Zelulen erlauntzi bat balitz bezala. Urteak joan ahala, erlauntzi horretan zelula edo erle hilak gehituz doaz, hil eta bertan gelditzen baitira. Une bat heltzen da erlauntzi zelular horretan zelula hilen proportzioa handia dela. Orduan erlauntzia makalagoa da, zaurikorragoa da eta derrigor hil behar. Zelulen beren bizi luzetasuna aldatu ezik edo zelula hilak eliminatzea lortu ezik, biziak bere lehengo topean iraugo du.

Ba dira zuhaitzak oso zahar egiten direnak. Mendeak eta mendeak. Berez hauek gazteak dira. Hauen zelulek hogeita hamar urtetako bizia dute. Zer gertatzen da? Zelula hilak ez direla bizitzeko beharrezko. Baina hauexen prozesuak ere bere topea du. Nola eliminatu zelula hilak? Hor dago koska.

126 ZOROERRIKO SANOA

Ba zen herri bat emakumeak erditzeko (umea egiteko) aberen askan biltzen zirena. Landareak gaur buruz gora eta bihar buruz behera sartzen zituzten. Horma batetan sartu beharreko iltzeak bestean sartzen zituzten eta gero horma urreratu. Gurpil guztiak kuadratuak ziren, bestela eboluzioa azkarregi omen baitzihuan eta stabilitaterik ez. Ibaia mendira jaso nahi zuten. Zuzenetara ez zuela nahi eta zeharka bide luzeak egiten ari ziren.

Egunsenti eta ilunabar bakoitzean eguzkia sortzen eta sartzen zen mendira komisio bat bidaltzen zuten, sorreran edo sarreran bertan argiontzi hura harrapatzeko eta herrira ekartzeko. Komisio haiek ez ziren sekula gehiago itzultzen. Baina jaiotzak ugariak baitziren, populazioa gorantz zihuan. Oiloei adin nagusia heltzean, poltsatxo bat jartzen zieten

isaspean arraultzerik ez alferrik galtzeko. Behin, egurra ama-komun ekartzeko akordura heldu ziren. Baina mendi hura urruntxo zegoela eta pentsatu zuten, ez ote zen hobe etxeak bertara eramatea. Eginkizun hartan pasatu zitzairen mende erdi.

Kanpotarrek herri hari «zoroerria» esaten zioten, noizbait «sanoa» edo zuhurra esaten zaion haur bat jaio arte.

Herri hartan haur bat jaio zen mendeetako tradizioak azpiko-koz gora jartzen zituena. Ibaiak mendira altxatu nahi izatea erokeria zela esan zuen. Zaldientzat abarkak baino perrak hobeak zirela proposatu zuen. Espaloiak balkoietatik pasa eraztea atrasua zela esan zuen. Gurpil biribiletara itzultzearen abantailak kantatu zituen eta honelako zenbait gauza, herritarrei erokeria frontalak iruditu zitzaizkienak.

Herria bildu zen mutil harekin zer egin erabakitzeko. Medikuri onenak ekarri eta errekonozimendu guztiak egin zizkioten. Tratamendu klase guztiak ezarri zizkioten, kanpo-koak, barrukoak eta erdikoak. Baina mutilak galtzak hanka banatan sartzen segitzen zuen. Mutila bera ere konplexuz betetzen hasi zen, ez baitzuen inon bere buruaren erreferentziak aurkitzen.

Herriko haurrek «Pello Zoro» esaten zioten. Internatu bat berarentzat bakarrik eraiki zuten. Han eduki zuten gaisoa janari, mediku eta atentziorik onenekin, arik eta, alferrik zela ikusirik, mutila atzerriko benefizentziari entregatu arte.

127 URDAILA SAKELEAN

Montpellierko hiru medikuk elikadura sistema berri bat asmatu dute. Sistema oso bitxia eta posibilitate handiak emanen dituen. Operazio askotako eragozpenik handiena hain zuzen elikadura da. Ez sentitzen den gosegatik, organismoak janaririk asimilatzen ez duelako baizik. Odol transfusioak, gazur edo sueroa eta abar horretarako dira.

Teknika berri honek digestio sistematik aparte jokatzen du. Zain sakon bat hautatzen da, bihotzaren eskuineko bela-

rritxora odola daramana. Zain horri sonda bat ezartzen zaio eta sonda hori zakutxo bati loturik doa. Zakutxo horretan dago janari likidua.

Zakutxoa bularrean eraman liteke, txalekoaren edo beste edozein soinekoren sakelean. Sistema honek bere kontura egiten du lana, odolaren zain barruko jarioa edo martxa probetxatuz. Ez dago, beraz, zaintzen egon beharrik. Eria ez da nekatzen eta nahi badu noranahi ibil liteke. Gehiago oraindik, tratamendu hau etxean ere egin liteke. Ez hiltzeko sistemarik ez bada ere, bizitza luzatzeko teknikak aurrera doaz.

128 ITSUENTZAKO EGUNKARIAK

Gaztelania gizalegetsuan «ciego» esan beharrean «invidente» esaten dute. Euskaraz ez dugu uste, «itsua» esatea hain iraingarri denik. Hala ere hitz kuriosoagorik nahi duenak «bistagabea», «ezikustuna» edo horrelako zerbait asma lezake, itsua esanda ederki ulertzen duguna endregatzeko.

Alemaniko errepublika federalean hirurogeita hamar mila itsu omen daude. Ez dira dozenerdi. Prentsagileak itsuetaz ere oroitu dira, ez jakin itsuen arduraz ala negozioen hazkuraz. Laster egunkari lokalak argitaratzeko omen dira itsuentzat.

Nola? Alemaniako Iparraldean prentsetxe bat instalatuko dute. Handik leku bakoitzera magnetofoi zintak grabaturik bidaliko dituzte. Eta egunkaria entzun. Egunean zortzi milioi aletako produkzioa botatzekotan dabilta. Egunkari klase honek apenas balioko duen atzea garbitzeko.

129 KILOMETROTAKO MAKINAK

Materiaren barne izatearen ikerketa eta ezagutza aurrera doa. Baina bide edo teknika esperimental bakarrez. Materia partikula baten kontra jo erazi. Orduan puskatu edo desintegratu egiten da eta hondakinak liberatzen dira. Hondakin ho-

rietatik ateratzen da partikulen eta haiengan dabilzan indarren berria.

Esperimentu hauek egiteko, partikula energetikoen iturri bat behar da. Berezko iturri bat izpi kosmikoak dira. Baina iturri hau sakabanatua da eta gainera ez dago kontrolatzaileraren esku. Partikulen azeleragailu bat behar da. Hori da Ernets Lawrence-k egin zuena. Laborategiko kristal bat zen, zenbait zentimetrotako diametroz.

Oraingo azeleragailuak Lawrencearen umeak edo ondo-ngoak dira. Baina tamainuz eta konplexitatez arras handituak. Handienek kilometro karratu asko dute. Donostia osoa baino makina handiagoak. Ez da azeleragailu bat laborategian, anitz laborategi azeleragailu baten inguruan baizik. Horrelako instalapena ehundaka milioi dolar kostatzen da. Haren barne-funtzionamenduan mila lagun inguru dabilta eta dozenaka hatz konputagailu. Abarka pare bat erostea bezala.

130 ZIRIARI EZTENA

Bizkaiko Markinaldeko herri batetako mutil bati, soldadu joan beharra etorri zitzaion. Etorri eta joan. Marinara tokatu zitzaion. Erdaraz eta munduan ibiltzen gehiegi ohitugabe bazegoen ere, Ferroleraino behintzat heldu zen edo eraman zuen trenak. Han zebilen gure mutila, atzera eta aurrera besteek egiten zutena eginez.

Kapitanak kokolo antza edo hartu zion eta ohizko ariketak eragiteko, koartelkada osoa biltzen zuenean, beti zeukan mutilari ziriren bat sartzeko zerbait. Behin itsasoko esplikazio batzu eman ondoren, galdetu zion gure bizkaitarrari:

—Aizu. Igeri egiten ba dakizu?

—Eta mutilak erantzun:

—Hain barku gutxi dago, ba?

Mutil honen herri inguruko beste lagun batzu bazkaltzen ari ziren jatetxe batetan. Ez zeuden batere gustora jatekoare-

kin. Bazkari eskasa esaten zaion horietako bat. Kontua eka-
rri ziotenean, batek esan zuen:

—Eskerrak merke egin digutena.

Eta beste batek erantzun:

—Merke? Balio ez eta kobratu, hauxe garestiena.

131 EZKONTZAREN OINARRIA GANADUA

Ohiturak dira ohiturak eta nonnahi loturak. Hego Afrikan
ba da erreinu bat Lesotho izena duena. Milioi eta erdi inguru
dira eta goi lautadetan bizi dira. Lesothon ezkontza ganadu
truke egiten da. Andregaiak hogeiren bat abelburu ordaindu
behar ditu dote gisa. Mutilak ere berdin, neskaren familiari
ezkontzak balio legala eduki dezan eta —hau berria— gizo-
nak umeen aita izateko eskubidea har dezan. Lesothoarren
esaten dute:

«Seme-alabak ganaduarenak dira».

Ganadu ordainketa atzeratzeak zalantzak sorrerazten
ditu, ea gizona umeen aitatasuna erreklamatzeko moduan
ezkondu ote den. Buruzagiak poligamoak ziren. Molapo Le-
ribekoak laurogeita hamasei emazte omen zituen. Norbaitek
egon beharko zuen bat ere gabe.

Anaiordeek ez zuten burruka gutxi egiten, aitaren hurren-
gotasuna harrapatzeko. Bakoitzak bere amaren aldeko fami-
liatik etor zekiokoen laguntza politikoa probetxatzen zuen.
Familiarik hurbilenen arteko ezkontza, aliantza indartsuak
biribiltzeko modua zen.

132 «IRRATBEGIA» BAI BEGIA

Hamarkada batzu dira irratastronomia abiatu zela. Hala
ere astronomia optikoari ez dio zorrik. Hor goian dauden iza-
rrek eta mundu deskomunalak ikusi egin daitezke. Hori da

astronomia optikoaren edo teleskopioen lana. Baina baita
entzun ere. Hori da irratastronomiaren zeregina.

Antenak zerurantz jarri eta informazio harrigarriak biltzen
ari dira izadiko bizitzari buruz. Adibidez, obserbazio irrata-
stronomikoek eztanda izugarriak deskubritzeko modua eman
zuten. Eztanda horiek eguzkiak milaka milioi urtetan bota-
tzen duen energia baino dozenaka milioi bider indartsuagoak
dira. Errepasa itzazu arretaz zenbaki deskomunal hauek eta
pentsa nolako eztrandak.

Hona ordea, hurrengo harrigarria. Zuk, mahaitik paper-
txo bat jasotzean energia gehiago gastatzen duzu irratesko-
pio guztiek batera beren esistentzia guztian unibersotik ha-
tzeman dutena baino. Zer esan nahi du horrek? Tresna ho-
riek sinets ezinako sentsibilitatea dutela. Denetan gorena
«RATAN» sobietar irrateskopio izugarria da.

133 BASAJAUN ETA BASANDERE

Euskaldunen mitologian edo sorgingoan Basajauna eta
Basanderea bikote oso errotua izan da. Basajauna batez ere.
Euskal Herrian basoak edo oihanak garrantzia handia izan
du. Baserritarren (eta zer esanik ere ez artzainen) bi elemen-
tu nagusietarik bat basoa izan da. Bestea lur landua edo so-
roak. Horregatik ez da harrizkoa basoak bere pertsonaia
berezia edukitzea: basajauna.

Basajauna giza tankerakoa da, baina oso altua eta gorpu-
tza biloz (ilez) jantzia. Oso zango azkarrak ditu, oreinei ere
korrika irabazteraino. Gizonentzat izaki bildurgarria da,
kontuz ibiltzekoa. Horregatik ahalegin guztiak egin behar
dira hura ez haserrerazteko.

Animaliei, ordea, inoiz ez die minik egingo, babestu eta
zaindu baizik. Inoiz artalde galduak bideratu eta lekuratu
ditu, zintzarriduna sorbalda harturik.

Basandereak ez du horren tradizio itzaltsurik. Batzutan
azti edo sorgin igarletzat jotzen zuten eta beste batzutan leho-
rreko ondina (sirena) ezin ederragotzat. Basanderea busti-
lehorren eta trumoi-tximisten andere eta jabea dugu.

134 GURE ASABEN HEZURRAK

Tximino-gizona ala australopitekoa? Antropologoak hori ari dira, jo ta ke, gizonaren asabak zeintzu diren atera nahiez. Richard Leakey antropologoak «australopiteko sendoa» delakoaren fosil berriak aurkitu dituela dio. Fosil horiek hankaz gora botatzen omen dute gizonaren jatorri direktotzat Afargo «tximino-gizona» jotzen duen teoria.

Keniako museo nazionaleko zuzendari den Leakeyrentzat Afar hori ez litzateke giza enborraren ahaide edo pariente hurbil bat besterik, «australopitekoa» nahiko aurrekoa izanik. Johansonek eta Tim Whitek, (Chevelandgo eta Berkeleyko antropologoek) Afargo «tximino-gizona» lehenagokotzat daukate. «Australopiteko sendoa» baino askoz lehenago omen zebilen basorik baso. Leakeyk orain aldrebes dio.

Eta guk zer esan behar dugu? Ez bururik apurtu izen arraro horiekin. Aurkitu dituzten hezur edo eskeleto batzuri ezarritako izenak besterik ez dira. Gizona tximinotik datorrela argi dago. Baina noiz, nondik eta nola? Nora goazen ere askorik ez dakigu eta non gauden jakitea ez da gutxi. Gainera nondik nora gutxiena da beharbada. Arazoa mugitzea da.

135 ILE UGARIAREN SEKRETUA

Ileak hamaika buruko min ematen du. Ba dira diotenak urte gutxiren buruan, gizona burusoil izango dela. Zer da burusoila? Burua soilik duena, ilerik gabe duena. Ilerik ez erortzeko, ilea leun, garbi eta bigun edukitzeko, ba da hamaika salda eta krema. Xanpurik gehienak kimika hutsa dira. Hona, ordea, ba dela zerbait askoz sinpleagorik eta efikazagorik.

Ileak behar duena, bitamina klase bat da. Bitamina horrek B 5 edo azido pantotenikoa du izena. Sustantzia hori Williams doktoreak aurkitu zuen. Zeintzu dira sustantzia hori ugari dutenak? Hona hemen ezagunenak eta inportanteenak: arroza, bildots gibela, soia hirina, garagardoaren lega-

mia, arraultze zuringoa eta behi giltzurruna. Janari hauekiko dieta onak ile ederra eta ugaria emango dizu.

Burusoil bazaude, buruhauste bat gutxiago duzu, ez omen baitu ilea bizteko balio. Gizon batek esan zuen, ilea ere, artoa bezala, jorratu egin behar dela. Nola jorratu ilea? Hori da zorrien lana. Gizon horren ustez, zorriak aldentzea ilearen hondamena izan zen.

136 ARGIA ERE PASATU

Aintzina, autoak hasi berri zirela, Markinaldeko batek erosi zuen bat. Orain museoetan erakusten diren horietakoa. Autoak hainbat urte egin zuen joaten eta etortzen eta ez gutxi bide bazterretan geldi ere. Noizbait zahartu behar eta benetan zahartu zen. Jabeak, ordea, ez zuen abandonatu nahi eta auto hura famatu bilakatu zen Markinaldean.

—Zer abiadura hartzen du horrek?

—Oraindik ez diogu toperik aurkitu.

Eta begira zer kontatzen zuen gizonak:

«Behin zer tope zuen jakin nahirik, Larruskaingo kaminoan aprobatazea pentsatu genuen. Kamino errebueltatsua baina gidari onak. Goizaldeko orduak ziren. Sartu ginen autoan, abiatu ginen Larruskainerantz eta azeleradorea oraindik erdian neramala, kolpera dena ilun gelditu zen. Frenatu eta berriro argi. Hiru edo lau aproba egin genituen eta beti berdin egiten zigun. Zer gertatzen zen? Argia atzean uzten genuela. Eta autoaren toperik jakin gabe gelditu ginen».

137 ZENTZERRADAK PENINTSULAN ZEHAR

Euskal Herrian toberak, asto-lasterrak, galarrosak eta abar... esaten zaiena penintsula guztian ere oso zabaldu izan da. Galizian, bigarrenez ezkontzen direnen etxe inguruan ba-

serri tresnak zuhaitzetatik esekitzen zituzten eta lastozko panpinaz ezkontza moduko bat egin. Asturiasen gizonaren etxe ondotik lastozko panpina bat eta emakumearenetik beste bat ateratzen zuten. Larre batetan bildu, pulpitu bat jaso, gizon xelebrea batek sermoia egin eta panpinak erretzen zituzten, ezkontza heriotza dela adieraziz.

Leonen, paliopcean erabiltzen zituzten ezkongaien irudiak, lapiko zaharrez eta intsentzarioz inguraturik. Zamoran, ezkontra aurreko egunetan, gazteek zintzarri eta adar hoska ekiten zioten eta egunean bertan gurdi barregarri bat prestatzen zuten. Ezkonberriek elizatik irten eta bertan ibili behar edo bestela goiz-goiz eta ezkutuan ezkondu behar.

Sevillan, ba zen bizargin bat zentzerrada guztietan parte hartu zuena. Gero bera bigarrenez, ezkontzea gertatu zen eta kristorena armatu zioten, goardia zibilak sartzeraino. Hortik poema famatua eta gero musikara pasatua: «El barbero de Sevilla».

Leridan, mutila beste herri batetako ba zen, sarrera ordaindu behar zuen eta janedanean gastatu. Ordaindu nahi ez ba zuen, zentzerrada armatzen zioten. Llobregaten, antzerki osoa egiten zuten, barregarria noski. Eta denetan zintzarri, ezkila, lapiko eta horrelako tresna zaratatsuak.

138 ERRETZAILEEN KALAMITATEAK

Brezhnev soviatar buruzagia pleuresiak jo zuenean, medikuak tabakoa arras debekatu zion. Hor hasi ziren gizonaren kalamitateak. Erretzaile porrokatuak ez du zigarrorik erretzen, baina bai kea harrapatzeko aukerarik txikiak probatzen.

Behin Ipar Amerikako senatore talde baten bisita zeukan. Eta Brezhnev erretzailerik handienaren ondoan eseri zen haren kea aspiratzeko. Beharbada munduko gauzarik grabenak tratatu zituzten: arma nuklearrak, gerrak, munduaren

azkena eta abar. (Beno, munduaren azkena bada, «eta abar» hori sobra dago). Horra, orde, soviatar buruzagiaren ardura nagusia: besteen zigarrorik harrapa zezakeen ke hondarra. Gizona animalia xelebrea izaki.

Ho-Chi-Minhek egunean hiru «chester» pakete erretzen zituen. Maok egunean «Lucky» pakete bi. Fidel Castrok ere ahoan puru eder bat ez badu, ez daki bizarrekin zer egin.

Aitona bat esperantza gabe zegoen. Etxekoek esan egin behar zitzaiola pentsatu zuten eta bide batez apaiza zela horretarako egokiena. Berri tristea entzunez batera, gizonak apaizari galdetu zion:

—izango dut astirik zigarrorixoa bat erretzeko?

139 MASOIEN INTERNAZIONALA

Gaur egun zazpi milioi inguru masoi daude munduan. Beren arteko ezaugarriak eta kontraseinak dituzte. Logia edo masoitalde handiek beren atzerri politika dute, kantziler handi baten ardurapean. Zer da masoneria? Erligio bat? Politika bat? Biotatik zerbait. Batez ere elkarte sekretu bat da, elkarte ezkutu eta misterioso bat.

Tradiziorik zaharrenak hain zuzen sekretuaren esistentzia du oinarriztat. Hamabigarren mendetik aurrera masoi iniziatuak zin egiten zuen ez zuela inoiz berari agerturiko sekreturik hautsiko. Ba zekien, bestela zigor gogorak etorriko zitzaizkiola.

Gaur masoi bizitza gai nagusi baten inguruan dabil: «hitz galdua». Masoneriaren benetako sekretua hain zuzen horixe da: sekretu bat behar dela, iniziatuaren bizitzak ez omen baitu zentzurik bilaketa etengabea izan ezik. Masoi liburuen bildumarik handiena Vatikanon dago. Hitlerrek ardura handia zuen masoneriaz eta esan zuen:

—Jende horren arriskurik handiena bere sektaren sekretua da eta horixe da, hain zuzen, nik horiengandik jaso dudana.

140 LAZKAO TXIKI ARNEDON

Lazkao Txiki iturri agortezina da ateraldietan. Behin bere lagun batzurekin ehizara joan zen. Ez Lazkaomendira noski, Ebroz beheko eper leku zabaletara baizik. Egitekoak eginda edo egiteko utzita, ba zetozen bueltan Euskal Herrirantz.

Arnedoko gasolindegian gelditu ziren. Ez zetozen baraurik eta kotxeak ere behar zuen zerbait. Honetan beste kotxe bat heldu zen eta gizon edo mutil bizartsu eta iletsu bat agertu, hura ere gasolina hartzera. Hura ez omen zen ilea eta bizarra bakarrik, iletza eta bizartza baizik. Lazkao Txiki begira begira zegoen, aurpegia non ote zuen.

Gizona hurbiltzen zaio eta galdetzen dio:

—Oiga, ¿me falta mucho para León?

Eta Lazkao Txikik:

—No, hombre no! Solamente el rabo.

141 EZ NON GAUDEN EZ NORANTZ GOAZEN

Izadia, unibertsoa, zabaltzen ari da. Hori ba dakigu. Baina ez dakigu unibertsoan non gauden ez norantz goazen. Unibertsoa zabaltzen ari ba da, hedatzen ari bada, noizbait multzo txiki batetan bildurik egon behar zuen. Orduan eztanda bat, esplosio izugarri bat gertatu zen eta horrela sortu zen unibertsoa. Noiz gertatu zen hori? Zientifikoak ados daude, duela hamabost mila milioi urte gertatu zela hori. Esate baterako atzo goizean.

Baina zabalkunde edo espantsio honek beti iraungo du ala kontrakzioen bat etorriko da? Horretarako unibertsoaren dentsitatea eta geometria jakin behar dugu. Ulertzeko moduan esanda, unibertsoa nolakoa den jakin behar dugu. Bai, hemen datoz komediak.

Gaur hartzen ditugun izarren argiak oso aintzinakoak dira. Esaterako, mila milioi urtetako argira dagoen galaxiatik da-

torkiguna, handik duela mila milioi urte irten zen (argiak segunduan hirurehun mila kilometro egiten ditu).

Eta bien bitartean zer gertatu da han? Nork daki izar hura orain non dagoen, aldendu den, lehertu den, harantz joan den ala honantz datorren ala zer egin duen? Ezin dugu jakin. Ez dugu antzik ere non eta norantz goazen.

142 MOZART MASOIEN MUSIKARIA

Ba duzu Mozarten entzuterik? Musikari bat da, musiko geniala, guztiz berezia, argia; freskoa eta etengabeko inspirazioa dariona. Gazterik hil zen, hogeita hamalau urtekin. Bost urterekin haur prodigiotzat zegoen Europa guztian. Zer egingo ote zuen zahartzarora heldu balitz? Egin zuenarekin ere askorentzat musikaririk kutunena eta genialena da.

Eta hona orain Mozart francmasoien musikagile kutuna dela. Mozartek ba du masoneriarako apropos eginiko musikarik. «Hileta oda» masoien errituari ederki dagokio. Mozart bera ere Vienako logian inizatua izan zen. «Flauta enkantatua» izeneko obra famatua ere masoien inimiziazko erritualean zuzenki inspiraturik egin zuen. Hil baino aste batzu aurrerago, logia baten kontsakrapenerako, Mozartek kanta bat konposatu zuen, anaia maitasunaren eresia.

Zer esan behar dugu? Mozart ez dela hain bikaina ala masoiak ez direla esan diguten bezain txarrak? Musikazalea ba zara entzun ezazu Mozarten edozer eta orduan hitz egingo dugu.

143 GEREAKO OTARGIN APEZA

Bizkaiko Markinaldean, Oiz mendiaren oinetan baina oso goian, ba da herritxo bat Gereea izenekoa, inguruan Geria esaten dutena. Elizaldetik urrun otargin bat bizi zen, mutiko bat laguntzaile zuela. Bera zen auzoko apezordea, ez baitzen hara inongo elizgizonik heltzen. Meza liburu bata zuen ta

otarginak huraxe irakurtzen zien igandero auzolagun guztiei. Gero hogeita hamairu paternoster errezatu eta huraxe zen Gereako meza.

Otarginak egunean otarre bat egiten zuen, Sei eginda-koan, seinalea biharamuna igandea zela. Aste batez, ordea, mutikoak otarre bat saldu zuen eta ugazabari esatea ahaztu. Larunbata heltzean bost otarre bakarrik zituela eta seigarrena hastera zihoala, elizako ezkilatxo titlin-tilin hasi zen. Igandea ote dugu, bada?

Badaezpada, bere liburua hartu eta elizara harrapaladan abiatu zen. Errekondoan zakur handi bat zaunkaka atera zitzaion. Beste defentsarik ez eta liburua bera braust! jaurtiki zion. Eta ez zitzaion, bada, liburua erre kara erori eta bertan hondoratu? Otarginak esku hutsik joan behar izan zuen elizara.

Gereako otargina elizara heldu zenerako, auzo guztia bildurik zen han. Eta gizonak lagunei esan zien:

—Gizonak: igandea da gaur? Gaur ez dago mezarik. Bidean honantz nentorrela, parte txarreko zakurtzar bat irten zait eta haren burura joan da gure liburu santua. Dena dela, Ziortzan entzuniko sermoi bat egingo dizuet, nire mezak baino gehiago balio duena.

Zahar eta gazte barrura sartu eta elizatxo ardi bete zute-nean, gure otargina kulpitora igon zen. Han «Gurutze santuaren» astiro eta solemnitateraz eginik, sermoia hasi zuen:

—Enakusu, banakusu.

«Enakusu» esan eta kulpitu ostean ezkututzen zuen bere burua..

«Banakusu» esan eta berriro agertu. Eta horrelaxe, enakusu eta banakusu, agertu eta ezkutatu, ordu erdiko sermoia bota zuen, gero eta ez tarri beroagoz eta azkenerako izerditan beraturik. Geriarrei gaur ere igartzen zaie sermoi haren eragina.

144 AITENTZAT DEBEKATURIK

Hor, Ipar Amerikan, edozer gertatzen da eta Kanadako Quebec-en begira autoritateek zer neurri hartu behar izan duten: aitentzat debekaturik beren semeren batek jokatzeko duen hockey partiduetara joatea.

Urte honetan zehar, zenbait zelaitako administrazioak sei partiduko suspentitu behar izan ditu. Zelai izoztuan ari zireneko jokalariek batzuren aitzak berotu zireneko eta egundoko burrukak eta eskandaluak armatu zituzten.

Arau berriaren bidez, ekipo bakoitzari bost aitaren paseak bakarrik emango zaizkio. Honela batetik bost eta bestetik beste bost, hamar zeren sosegatzea ez dela hain zaila izango uste dute. Esaera zaharrak «nolako aita halako seme» ba dio, hemen bestera esan beharko da:

«Semea nolako aita halako».

Beste hau gertaera triste da. Estatu Batuetako Montanan hamaika urteko neskatxo batek eskuineko bi hatzamar mutilatu ditu, liburu batetan irakurri baitzuen:

«masturbazioa da biziorik doilorrena».

Halako lotsa eta bildurra sartu zitzaion eta horra zer erre-medio jarri zuen.

145 MAHATSA EUSKAL HERRIAN

Mahastiak erromatarren garaian zabaldu zireneko Euskal Herrian. Mahatsa erromatarrek ekarri zuten Ebroko haranean gora. Mahastiak aspaldion asko gutxitu dira, Bizkaian eta Gipuzkoan behintzat. Kostaldean ba dira mahasti txikiak baina ez askorik.

Gaurko mahats lurra Hego Araba, Arabako Errioxa eta inguruak eta Nafarroan Lizarra, Nafarroako Erdi Ekialdea, Lumbier-Liedena aldea eta Tudelako Errioxa dira. Lehenen-

go garaietan zortzirehun metrotarainoko goieran lantzen zuten mahatsa. Gero zazpirehun metrotatik gorako mahastiak kenduz joan ziren, ez baitute goiera horretan askorik ematen.

Mila zortzirehun eta laurogeita hamaseian filoxera izeneko izurria sartu zen penintsulan Gironatik gora. Izurri hark 1901ean atea jo zuen Euskal Herrian. Eskale madarikatua Lejazarran hasi eta denean zabaldu zen. Mahasti guztiak berritu behar izan zituzten Ameriketatik ekarritako mendu berriez.

Arabako Errioxako lurak aproposak dira mahatserako. Horko ardoak onenatarikoak dira, bai kalitatez, bai indarrez eta bai mahatsa hazteko egokitasunez ere. Bizkaiko Bakio aldean eta Gipuzkoako Zarautz, Getaria eta Zumaia aldean txakolina egiten da, orain gutxitu ba da ere.

146 NEUTROI BONBA NORANAHI HELTZEKOA

Bonba atomikoen eta energia nuklearraren sekretua neutroiak dira. Elementu hain txiki bezain gerakaitz horiek atomoa erdibitu egiten dute, egundoko energia sorreraziz. Eta orain dator komedia. Zer izango ote litzateke neutroi hutsezko bonba bat eginez gero?

Horrelako bonbatxo bat etsaien bonba atomikoak dauden inguruan botaz gero, arsenal edo armategi guztia dagoen lekuan bertan lehertzea ekarriko luke.

Neutroizko bonba hau zer pentsatu asko ematen ari da aspaldion. Honen efikazia militarra begien bistakoa da.

Neutroien kalte fisikoak neurtzeko modukoak omen dira. Gizona, ordea, hil egiten dute instalaziorik ukitu gabe. Gurdi blindatuek ez dute defentsarik partikula hauen kontra. Atea jotzen badizute eta neutroiak direla esan, entrega zaitez beste gabe.

147 APOAK ETA IGELAK AZKENETAN

Europako kontseiluak agiri garrantzitsu bat atera berri du: «Anfibioak eta narrastiak gaizki Europan». Ez gara gu bakarrik gaizki gabiltzanak. Eta piztietxo hauen urritasuna aztertzen da. Panorama txarra datorkie gaixoei.

Automobilen zirkulapena jo behar dugu errudun nagusitzat. Trafikoa gehitzeak apoen eta igelen populazio osoen azkena ekarri du. Animalia hauek ohitura oso txar bat dute gaurko mundurako. Kilometro askotako migrazioak edo joanetorriak egiten dituzte. Martxoan eta apirilean beren erreproduzio tokietara itzultzen dira. Haien traiektuan zirkulapen handiko kaminorik gertatzen bada, gehienen sententzia eginda dago. Anfibioak kirikinoen antzekoak dira. Ez dute iheserako erreflexurik. Arriskurik somatzen dutenean, gelditu egiten dira. Kotxe bat badator eta zapaltzen ez ba du, ihes egin beharren geldi geldi jartzen da. Horrela segur da batek ez bada hurrengoak harrapatzea. Asuntu honek bere garrantzia dauka, animalia hauek oso ongariak baitzaizkio naturari.

148 ZERGATIK ZUTITU ZEN GIZONA

Gizona tximinotik datorrela ba dakigu. Baina tximinoak lau-hankan ibiltzen dira. Gizona noiz eta zergatik zutitu zen? Zergatik hasi zen bi-hankan ibiltzen? Orain arte arrazoi hauek jartzen ziren: tresnen erabilera, ehizatu beharra, klima aldakuntzak.

Ohioko unibertsitateko Owen Lovejoy irakasleak, ordea, tesi bat egin du. Datorren udan argitaratuko da eta begira zer nobedade dakarren. Owenen ustez, sexua da gizona zutierazi zuena. Eta, zutitu eta gero, garatu zen zerebroa. Hominido eme baten fosil bat aztertu du. Etiopian aurkitua izan zen eta hiru milioi urte ditu. Ez da, beraz, atzokoa. Baina hona he-

men hominido eme hau zutik ibili zela. Zerebroa, ordea, ez da gaurko txinpantzeena baino handiagoa. Beraz, txinpantzearen antzeko hominidoak zutik, bi-hankan ibil zitezkeen duela milioi eta erdi urte, tresnak erabiltzen ikasi aurretik.

Zerk eragin zuen, orduan, hominido haiek zutik ibiltzen hastea?

Ugalkuntzaren harreman sexualen eta, beraz, lanaren tankera aldatzeak ekarri zuen hori. Hori da Owenek dioena.

Gizonak zutik ibiltzen ikasi zuen, lau hankan ibiltzen ikasi zuen. Beno, gizonak ez, hominidoak baizik. Zutik ibiltzen hasi eta gero etorri ziren zerebroko eboluzioak. Gaurko txinpantzeen mota lau-hankan estankaturik gelditu bada, tximinokumeek denbora luzean ama behar dutelako da. Tximinok denbora gehiegi behar zuten beren kumeak aurrera atezten.

Hominidoak zergatik gainditu zuen eragozpen hau? Umeak maizago egiten ikasi zuelako, nahizta ama berak, jaiotzeri bat, oinez ikasten ari zen bat eta gaztexo bat aldi berean zaindu behar. Horrela amak arraren arreta eta laguntza eten-gabea behar zuen. Horrela bikote monogamora heldu ziren.

Arrak burua apurtu behar zuen halako familia mantentzeko. Hainbeste ehizatu behar, piezak urrundik ekarri behar, nahizta bera trote haietarako txikia izan. Zerebroa erabili beharra zuen ehiza lekuak, ezkutalekuak eta abar gogoan edukitzeko. Guzti horrek, gero eta tresna konplikatuagoak erabiltzera eramanean zuen.

Baina ordurako gure gizontxoak zutik zebilen. Hori da Owenek Lovejoy irakaslearen tesia.

149 IPAZTERREKO SERMOIA

Ba da Bizkaian Ipazter izeneko herri bat, Lekeitiotik Gernikarantz lau kilometrotara. Inguruko jendeak Ipistar esaten du. Herri honetan zurrutari bapo ematen zioten, antza, eta garizumako misioetarako, hura zen erretorearen ardura nagusia.

Probintziako komenturik handienara sermoilaririk gogorrena eskatu zuen. Honek astebetean herriko mozkor guztiak eskarmentatzea garantizatu zuen, egunean kapoi baten truke. Erretoreak eguneko oilo bat ere ez zela gutxi, baina azkenean ontzat jo zuen tratua. Herri guztia bildu zen elizan eta honela hasi zen gure sermoilaria:

—Hau ez da Ipistar, baizik Aplastar.

Kulpitua jo eta berriro ere berdin. Elizan ez zen habeen kirinkadaz besterik entzuten.

—Herri honetan ez dago gizonik, tabernan zorrik ez duenik!.

Kulpitua jo eta berriro ere berdin.

Orduan, gizon abots erdi garrastu batek korupetik hots egin zuen:

—Herri honetara ez da etorriko apezik ez frailerik, gure tabernako zorrak pagatuko dituenik.

Eta hartan bukatu ziren urte hartako Ipazterreko misioak Jainkoaren aintzarako eta kapoien suertetarako.

150 GURE ILARGIAREN MISTERIOAK

Orain arte dakigunetik, eguzki sisteman hogeita hamairu ilargi daude. Lurrak bat du, Martek eta Neptunok bina, Uranok bost, Saturnok hamar, Jupiterrek hamairu edo gehiago eta horrela. Guk, beraz, ilargi bat dugu. Nola sortu ziren ilargi hauek?

Lehenago gure ilargia lurraren zati bat zela uste zuten. Gure planeta apurtu eta zati handi bat dispartaturik aldendu zen, Ozeano Barean zulo handi bat utzirik. Baina ilargiko haitz arrastoek —Apollo untziek ekarrita— hipotesi hori hankaz gora bota dute. Haitz hauen konposizio kimikoa eta lurrarena desberdinegiak dira.

Beste hipotesi bat hau da. Ilargiak masa kosmikozko blokeak, izango ziren. Espazioan zehar zebiltzan eta planeta baten ingurutik pasatzean, honek harrapaturik geldituko ziren, bere grabitatearen mende eta beraz, bere orbitan. Teoria hau

baliozkoa zen, Jupiterren lau ilargi bakarrik ezagutzen ziren bitartean. Denak planetaren errotazioaren norabidean jiraka ari ziren, alegia, Jupiterren norabide berean.

Hona, ordea, gero beste lau ilargi aurkitu zituztela Jupiterren inguruan. Eta hauek kontrako norabideetan zebiltzan eta dabilta. Beraz aurreko hipotesiak ez du balio. Argitasun bat sortu eta beste bat itzali. Gure ilargia hor dabil bueltaka baina oraindik ez dakigu nola jarri zen horrela.

151 ANIMALIAK TORTURATU

Animaliak dira gure aurrerapenaren martiriak. Guk jaten, edaten eta erretzen dugun guztia haiengan espermentatzen da. Frantzia bakarrik ehundaka mila katu, txakur, ugaztun txiki eta tximino hiltzen dira torturarik sineskaitzenen mende, kontsumo bedekatuaren izenean.

«Txakur lapurra» Parisen ofizio bat da. Eta ez hain gaizki ordaindua. Laborategiek txakur bakoitzeko 250 franko eta katu bakoitzeko 100 ordaintzen dute. Bibisekzioa (bizirik ebakitzea) egunero hamabost mila piztiari egiten zaie Frantziako inbestigazio etxeetan bakarrik. Edertasun produktuen industrian bakarrik, urtean hirurehun milioi animalia hiltzen dira munduan, egundoko torturak jasan ondoren.

Egunero torturatzen dituzten animalietarik batzuk suerte handia dute. Hiru hilabetetan laborategietan kristorenak ikusi ondoren, asteetan zehar hiltzorian egon beharrik, gazeduko ganbaran dute azkena. Han hauts xaboi bihurtuko dira.

152 TXULETA JOKOA

Jatea atsegina segurua ba da, hobe omen da gosez baino asez hiltzea. Bizkaitar batek, galdu nahiz irabazi berdintsu izaten den ordu horietarikoa batetan, hamaika txuleta jan baietz apustu egin zuen. Eta ez nolanhikoak, kilokoak baizik.

Biharamunean herri eta erbestean zabaldu zen jokoaren berri. Berehalaxe fronteak alde eta kontra banatu ziren. Egia esan, gehienak kontra, inork ez baitzuen joko haren alde so-sik botatzen. Batek bakarrik jokatu zuen alde.

Apustugileak bere teman zirauen eta eguna eta eguerdia izendatu zuten Berrizko txuletetxerik famatuenean. Espektazio izugarria zegoen. Txuleta jalearen aldeko bakarrak harrategi guztia berak jan behar balu baino larriago zegoen.

—Jango ez dituzu? Hamaika, hamaika dira gero!

—Jango ditut, bada? Txahala gizentzea baino errazago da hori.

Eguna eta eguerdia heldu ziren eta jantokia bete begiluze bildu zitzaion txuleta jaleari. Alde jokatu zuena han zen inguruan eta disimuloz galdetu zion:

—Zer moduz, nolako barrua ekarri duzu?

—Lasai. Hau irabazia dugu. Etxetik irten aurretik aproba egin dut eta erraz jan ditut.

153 GIZURDEEN INTELIGENTZIA

Gizurdea edo izurdea itsasoko animalia bat da, erdaraz delfina deritzana. Izurdeak itsasoko urdea esan nahi du, basurdeak basoko urdea bezala. Eta urdea txerria da. Gizurdea abere harrigarria da. Zerebro handia du eta berehalaxe ikasten du irakasten zaion zenbait gauza. Ahoz ere erreperitorio aberatsa du gizurdeak. Inteligentea da?

Gizurdeen eboluzioa duela berrogeita hamar milioi urte gertatu zen. Lehorretik itsasoratu ziren, lehorreko ugaztunen ondorengo bezala. Nola dute horrelako zerebroa eta horrelako inteligentzia? Ez dago animaliarik horien mailako inteligentzia duenik. Beharbada gizonaren antza ere ba du.

Oraindik, ordea, ezin erantzun. Gaurko teknologiaz apenas dagoen animalia horiek urpean obserbatzerik. Gizur-

deak ozeanoetan bizi dira eta bide luzeak egiten dituzte. Ur gaineko portaera pixka bat ezagutzen dugu. Baina urpekoa da behar dena eta hor motz gaude. Beharbada laster gizona ez ezik gizurdea ere «abere arrazionala» dela esan beharko dugu.

154 BILBORA HAGINAK ATERATZEA

Arratiar batek bi hagineta mina zuen. Hagin bakoitza ateratzea erreal bina kostako zitzaiola jakin ondoren, Bilbora abiatu zen, herri handietan aukera hobeak daudela eta. Parte Zaharrean atzera eta aurrera zebilela, gozotegi bat erreparatu zuen. Eskuekin bi haginei eta sudurraekin eska-parateari eutsiz, opila bezalako pastel eder bati begira zegoen. Bilbotar batek tentatu zuen:

—Zer, gose?

—Hauek jateko ez da gose handirik behar. Ordu erdian eskaparate guztia garbituko nuke.

—Ezetz egin hori?

Azkenean, ezetz eta baietz, apustua egin zuten.

Arratiarrak, galtzekotan, hagin bat eman behar zuen. Gizona jaten hasi zen eta bete bete egin zenean «gehiago ezin dut» esan zuen. Orduan bilbotarrak:

—Hagin bat zor didazu.

Eta besteak:

—Bai gizona. Zorra zor! Ekarri alikateak eta atera.

Arratiarrak, min egiten zioten haginatariko bat erakutsi zion. Bilbotarrak, nola edo hala, atera zion haginazarra eta joan zen. Arratiarrak pentsatu zuen:

—Pastelez bete eta bi erreal aurreztu. Beste honelakoxe apustu bat norekin egin ba neuka!

155 TARZAN DELAKOAN

Johnny Weismuller, Tarzanen papera egin duten aktoreetarik bat dugu. Askoren ustez, bera da benetako interpretea eta besteak imitazioak. Filmegintzan sartu aurretik atleta igerilari handia izan zen, bost medaila olinpiko eta guzti.

Gure gizonak hirurogeita hamabost urte ditu eta horra orain benetan sinestu duela pantailan egiten zuena. Goizaldero Hollywoodko ospitaleko pasiluetan zehar abiatzen da Tarzanen oihuak eginez. Elefante tribuak gainera etorriko zaizkiola uste du. Edo gizon zibilizatuek kristorenak egingo dizkiotela.

Oraintsu ospitaleko zuzendariak zoroetxera eramateko baimena eskatu zuen. Weismuller handia laster dugu mundua beste eratarik ikusten dutenen artean. Hark gehiago estimatuko luke oihanera bidaliko balute, baina ez. Okerrena orain doan lekuan ez dela gauza handirik izango, zeren han gutxien denak Napoleondik gora dela usteko baitu. Batek euritakoa zela uste zuen eta euria hasten zuen bakoitzean ez zen lan gozoa hura barruan edukitzea.

156 GIZA LARRUZKO OINETAKOAK

Zientzia aurrera doa eta hona giza larruzko oinetakoak datozela. Ez da norbaiti larrua kendu eta harekin zapatak egitea, gizonaren azalaren antzeko ehuna egitea baizik. Sintesi kimikoz giza larruaren antz-antzeko ehuna, hori da egin dutena. Ehun horrek ba du bere izena: sorbotohanao.

Gai berri honek gure azalaren tankera bera omen du: erresistentzia, solidutasuna, zaulitasuna, inpermeabilitatea, garbitzeko erraza. Aurkikunde honen aplikazioak podologian edo oinen zientzian sartzeko pentsatzen ari dira. Zer gauza hoberik norbere azalaren antzeko oinetakoa baino?

Elektronikak beste tresnatxo bat salgai jarri du Estatu Batuetan. Atsegin eta plazer txiki mordo emateko kapaz dena. Pultsuaren gainean eta odolaren erritmoaren gainean jarrita-

ko tresnatxo bat. Tresna honek hainbeste gauzatarako balio du: kilometroak kalkulatzeko, eztabaida gogor baten ondoren barruko maila psikologikoa nola gelditu den neurtzeko, janedana dosifikatzeko, sexu grina erregulatzeko eta abar. Aurrrerapen horiei zerbait gertatuko zaie Amerikatik hona heldu aurretik.

157 EDUKAZIO EDERRA

Zeanuriko erretore edo parroku jauna errezu liburuarekin zihonan, hortz artean salmoak eta latinak marmartuz. Ibili eta ibili, Undurragan gora bikuondo baten azpian geldialditxoak eta paternosterra bota zuen. Sargori egiten zuen. Biku gainean zarraparra bat entzun zuen. Burua jaso eta mutil bat erreparatu zuen bertan. Eta galdetu zion:

—Zer? Nola daude bikuak?

—Kaka baino beroago —erantzun zuen mutilak.

Parroku jauna haserre bizitan jarri zen «erantzun lotsagabe» harekin eta mutilaren etxera joan zen berehala. Aitari deitu eta esan zion:

—Ea seme lotsagabe horri errespetu pixka bat sartzen diozuen. Ba du adina zentzua estimatzen hasteko.

—Zer gertatu da, bada?

—Zer gertatu den? Ez dit, bada, esan bikuak kaka baino beroago zeudela?

—Ez naiz harritzen, jauna. Beti esan dut nik mutil horrek mokordoak baino edukazio gutxiago dakarrela.

158 ITSASOA ASKOZ HARAGO ZEGOEN

Duela hogeita mila urte inguru, gure lehengo euskaldunek aldakuntza handiak ikusi zituzten itsasoan. Izozte handia

gertatu zen. Ur pila handiak, itsasoari kunduak, izozturik zeuden eta Europa, Asia eta Ipar Amerikako goialde guztia estaltzen zuten. Orduko euskaldunen bizileku asko gaur itsaspean daude. Estudioak egin dira eta orduko itsasertza edo kosta gaur baino kilometro mordo bat harago zegoen.

Errenteriako Haizbitarteko koba, gaur itsasotik zazpi kilometrotara dagoena, orduan hamazazpira zegoen. Debako Ermita gaur itsasotik hiru kilometrotara eta orduan hamaseira. Santimamiñe gaur seira eta orduan hamazortzira zegoen.

Aldakuntza horiek, jakina, ez ziren kolpera gertatu. Hiru mila urtetan zehar gertatu ziren eta belaunaldi bakoitza ez zen oihartzen ere. Gaur ere izozte handi bat gertatuko balitz, itsasoak ihes egingo luke. Poloetako izotzak urtuko balira, ordea, itsasoa asko igongo litzateke eta hiri osoak irentsiko litzuke.

159 AITA-ALABAK, ZEIN BAINO ZEIN HOBEAK

Ez da denbora askorik Euskal Herrian ezkongaiak apezaren aurrean esamina zorrotza egin behar zutela ezkonduko ba ziren. Batzu zabalagoak, beste batzu estuagoak, baina trantze horrek hamaika gazteri buruko mina ematen zion. Ohitura horrek hamaika pasadizu ere sortu du.

Hala bada, neska batek ezkondu behar zuen eta apezarengana azaldu zen bere dotrinaren berri ematera.

Apezak berde aurkitu zuen, antza, eta ezkontza atzeratu zion. Eta gainera etxera joan zen gurasoekin hitz egitera.

Neskaren aita atera zitzaion eta apezak:

—Nolako kristauak daude zuenean? Ba dakizu zuen alabak dotrina izpirik ere ez dakiela?

—Ez dakit, bada, jauna. Gu ahalegintzen gara, baina ahazkorra da eta zer egingo diozu, bada?

—Ahazkorra izatea da gauza bat eta zenbat Jainko dauden ere ez jakitea, beste bat.

—Zer ba? —galdetu zuen harriturik aitak—. Nobedadea dago ala?

—Ez da nobedade gutxi. Jesukristo hil zenik ere ez zekien zuen alaba horrek.

—Arraioa! Gurean, gaixorik zegoenik ere, entzun gabe geunden.

160 SINESGARRITASUNA HANKAZ GORA

Harrisburgeko istripu nuklearraren biktima nagusia sinesgarritasun (kredibilitate) zientifikoa izan da. Agintari nuklearrak ia ezinezkotzat jotzen zuten horrelako gertaera. Gertatu zen eta han zebiltzan errektore gori baten barruko hidrogeno globo bat nola hustu ez zekitela. Areago oraindik, nola gertatu zen ere antzeman ezinik zeuden.

Harvardgo profesore nuklear batek honela esan zuen:

«Bi eritzi medikuren antzekoa da hau ere: zirujau batek operazioa beharrezkoa dela esango dizu, beste batek berriz arriskugarria eta erdi alferrekoa dela.

Duela urte batzu anatema bezala zen zientifikoei kontra egitea. Beren sailean berek bakarrik agintzen zuten: jainkumeak ziren.

Baina indar nuklearra bezain teknologia konplikatu batean —dio Harvardgo irakasleak— dudazko hipotesiak egin behar dira eta segun nondik begiratzen diozun, konklusio desberdinak atera ditzakezu».

Hitz batez esanda, ez dagoela ezer definitiboki sinesterik eta sinesten zutenak kolokatzen hasiak daudela. Eta hori zientziak berak eskaturik.

161 LURRIKAREN KONTRA EZTITUA

Seismoek edo lurrikarek urtean batez beste hamabost mila biktima biltzen dituzte. Pentsatzeko modukoa, noski. Ondorenak zuzentzea zer zaila eta ezina den ikusirik, onena, beharbada, lurrikarak norberak eragitea litzateke.

Gaur egun lur azalaren dinamika ondo ezagutzen da. Azal hau ez da bloke bakarra, luzaro uste zenez, elkarren erlazioan mugitzen den plaka mordo bat baizik. Esate baterako: Amerika Europatik urruntzen ari da.

Beste batzutan elkarren kontra bortizki jotzen dute. Hone-la, India, lehen isla handi bat zen. Asia jo zuen eta txoke hartatik Himalaya sortu zen.

Beste batzutan lur azaleko bi blokek elkar trabatzen dute. Elkarrekiko ataskoa apurtzen dutenean, horixe da seismoa. Gaur lurrikarak eztitzeko pentsatzen hasirik daude. Ez da ameskaria. Toki egoki bat hautatu eta lurrikara artifizialki proboka liteke urezko indizio bat lurrari sarturik. Honela lur azpiko presioa gehituko litzateke eta plaka ataskatua askatu. Hori da Californian lortu nahi dutena. Baita eskuan luketena ere, untxi espazioetan urtzen duten laurdena horretan gastatuko balute.

162 APEZA TRANBIAN

Gerra aurrean nolako giro politikoa zegoen esan beharrik ez dago. Hura ezagutu zuten askoren ustez, «gaurko antzekoa». Nahi ziren egunkari eta aldizkariak saltzeko askatasuna bazen behintzat. Bizkaiko Bedia izeneko herrian gizon batak «El liberal» saltzen zuen elizpean. Behin herriko apezak bekoki beltzez agindu zion:

—Elizako itoginetatik kanpora.

Gizonak men egin beharra izan zuen, baina ez gobernadoreari denuntziarik sartu gabe. Gobernadoreak Bediako apezari dei egin zion eta hura tranbian joan zen Bilbora. Gobernadoreak galdetu zion:

—Zer gertatzen da Bedia horretan?

—Nik ez diot saltzerik debekatu. Baina elizako itogineta-
tik barrura neuk agindu behar dudala, uste dut.

—Horrela baldin ba da, arrazoia duzu.

Orduan apezak zutitu eta erreklamatu zuen.

—Horrela baldin ba da eta arrazoia baldin ba dut, tranbia
hamaika txakur kostatu zait. Eta harantz beste hainbeste.

163 AMERIKAKO FILME BERRIAK

Amerikako filme berriek, obserbadore batzuren ustez, Amerikako herria bere hiltzaileak uzten ari dela ematen dute. Estatu Batuetan, handik hortik edo hemendik, filmean bukatzen da dena. Baina «Ehiztaria», «Itzulia» eta horrelako filmeek zerbait gehiago adierazten dute. Zerbait aldatzen ari da han ere.

Vietnamgo gerrak, Watergatek eta horiek dena pozoindu zuten. Zerbait egin beharra zegoen amerikarrei sinets erazteko, Asiako Hego Ekialdean komunisten aurrerapenei kontra egitea krimen izugarria, zela edo presidentea tranposo bat besterik ez zela, nahizta gehienez historiak gizonik handienetarikotzat agertu. Denek ez zuten orduan ere horrelakorik sinesten, baina asko eta asko hala zeuden.

Gure beharbada hutsen edo oraingo agintearen ahultasunaren kontrako erreakzioz, fede eta borondate on pixka bat azaleratzen ari dela dirudi, baita jenderik «kulpanteenen» golkoan ere. Horrela baldin ba da, ba zen garaia.

164 GAITZA BERA BAINO OKERRAGO

Batzuk gehiegi, beste batzuk bat ere ez. Oraintsu Albazeteko bati gertatua ez da kontatzeko ere polita. Gizonak, bere harreman sexuala normalki eta ederki bukatu ondoren, zaki-

lik ez zitzaiola biguntzen ikusten zuen. Harro eta tente zira-
rauen hark. Lehenengotan gizona bera ere harro zegoen. Baina denbora joan ahala, larritzen hasi zen. Ordubete pasa-
tu zen, orduak pasatu ziren, eta azkenean, hark ez zuela onez
errenditzeko asmorik ikustean, operatu egin behar izan zu-
ten.

Gaitz hori oso noiz behinka gertatzen omen da. Baina ger-
tatzen zaionak ederki pagatzen ditu besteenak ere, oso min-
garia baita, gaixoaren osasuna eta bizia ere kolokatzerraino.

Operazioa muskulu kizkurtuak ebakitzea izan zen. Horre-
la salbatu zuten tresnatxo makurgaitza. Baina haren fanfa-
rrieriak hantxe bukatu ziren betiko. Hura ez da sekula gehia-
go tentetuko. Gizon gaixoari behin baino sarriago bururatu-
ko zaio esaera hura: gaitza bera baino, erremedioa okerrago.
Lepoa moztea okerragoa izango zela pentsatu eta aurrera.

165 GAZTAINAK TIROKA BILTZEN

Errusian ezkurak, gaztainak, intxaurrak eta horrelako
fruitu aleak biltzeko sistema polita asmatu dute. Zuhaitzaren
aurrez aurre kainoi bat jarri eta dinbi danba. Danbada hark
haize bolada batek bezala iharrosi zituen hostoak eta adarrak
eta baia horiak azpiko oihal berezi batetara erortzen hasi zi-
ren.

Esperimentua egin zutenean, baiak biltzeko behintzat sis-
tema oso efikaza zela ikusi zuten. Frutuak ez du tratu txarrik
hartzen, zuhaitzari ere ez zaio kalterik egiten eta gainera
aleak heldu ahala biltzeko modua ematen du. Uzta kainoi ho-
rrek airea eta gas naturala nahasirik funtzionatzen du. Pentsa
nolako aurrerapena den, horrelako kainoi batek lauhun la-
gunen lana egiten baitu.

Baiak biltzeko balio ba du, gaztainak, urritxak eta horrela-
koak biltzeko ere balio izango du, beharbada. Gaztainak jan
eta gero tiroka hastea ba genekien. Zuhaitzean bertan hastea
falta zitzaigun.

ZEBERIOTARRA HAGINA ATERATZERA

Arratia alde batetik eta Ugao eta Arrigorriaga bestetik, Zeberio herririk handienetarikoa da lurrez, luzez behintzat. Norbaitek esan zuen eguzkiak egun osoa egiten duela, Zeberio pasatzen bakarrik. Eta Zeberiotarrak?

Behin Zeberiotar bat hagina ateratzera joan zen Bilbora, egun osoa hartarako harturik. Heldu eta purgatorioko aukian jarri zutenean, dentistak esan zion:

—Ireki ahoa.

—Bai, gizona. Bestela ez nintzen etorriko.

—Zein da atera behar dizudan hortza?

—Ez da hortza, hagina baizik. Hor bazter aldean dagoen hagin eskandaloso hori.

Alikateak sartu zizkion, baina haginak ez zuen etorri nahi. Zeberiotarra orroaka eta jarlekua ere tatarrez zebilen. Hala-ko batetan

—Hemen duzu —hots egin zuen dentistak—. Hagina ala haizurra da berau?

Batak eta besteak arnasa pixka bat lasaitutakoan, dentistak berriro:

—Ea nola daukazun. Koino! Okerrekoa atera dizut.

—Okerrekoa atera didazula? Ipin hori bere lekuan ala ez duzu sekula gehiago haginik aterako.

Ez dakigu zertan bukatu zen, baina ez dirudi elkar jan zutenik, biak bizi baitira.

DANTZA, JOLAS ETA EROMEN

Mundua zabala da eta mundu handian kontu handiak. Ba dira gaur bertan ere zibilizazio arras desberdinak. Denak ez

dira telebistatik zintzilik bizi. Herri ikusgarri eta hunkigarri horietariko bat Indonesiako Bali izeneko irla da. Irla honetan baliarrek bizitza guztia antzezten edo antzerki egiten dute. Honetan dantza da nagusi eta dantza sailean bat goren: Barong eta Rangda.

Barong onaren aldekoa da eta Rangda parte txarreko alar-gun sorgina. Gauerdietan kanposantu inguruetan ibiltzen diren izpiritu gaiztoen eta sorginen erregina da. Ilunpean bizi da eta honen adoratzaileek magia beltza praktikatzan dute. «Barong dantza» izeneko horretan, dantzariak Rangda sorgina ezpatatzan atakatzan dute. Sorginak, ordea, hetxizatu edo liluratu egiten ditu eta zerraldo erortzen dira, ezpatak beren buruetarantz dituztela.

Trantze hori sarritan benetakoa izaten da, benetan hetxizatzen dira. Ez da errepresentazio hutsa, egiazko bibentzia baizik. Kanpotar ikusleentzat ulertu ezinekkoa da hori. Izan ere, baliarrentzat hetxizua eta magia eguneroko bizitzaren salda dira.

Dantza hau, ilargi beteko lehen gauetan, hilero egiten dute. Gau horretan, hilero, herria Hilan Tenplu inguruan biltzen da dantza eta beste anitz antzeppen emateko.

Jolasa, erligioa, magia... dena dabil batera.

GAY GAU AMORRATUA

San Frantziskon homosexualen azken manifestazioa ez zen txantxetako izan. Halako gogorraldirik ez da noiznahi ikusten. Bost mila manifestarik kaleak odoletan eta sutan jarri zituzten sei ordutako motin luzean. Moscone eta Harvey Milk, gayen liderra, iaz San Frantziskon hil zituen polizia ohi baten epaia zen. Tribunalak White polizia gasezko gelara bidali beharrean, goren sententziatik zortzi urtetako presoaldia ezarri zion. Aldeko abokatuek betiko argudioa erabili zuten: «ahalmen mentala urriturik».

Bost mila manifestariak justizi etxearen aurrera heldu ziren, polizien kordoiraino. Orduan batek hots egin zuen:

«Goazen barrura!». Eta han armatui zen armatzekoa. Burdinaz eta arietez ateen kontra oldartu ziren eta leihoak harri-
kra eta botilaka apurtu zituzten. Poliziak antidisturbioz, porraz eta ahal zuen guztiz jotzen zuen. Han ez zegoen berriker-
tarik.

Sei orduren buruan urakana amaitu zenean, balantze bi-
kaina gelditu zen: milioi bat dolarren kalteak etxe publikoei,
hamabi polizi-kotxe erre eta ehun eta hemeretzi zauritu.

169 HAURRAK JAIOTZEAN AITAK GAIZKI

Ba da esaera nabarmen bat dioena: «erditze txarrean
lehenbizi aita salbatu». Emakumeentzat hau adar jotze
gehiegi ba da ere, mundu guztian ez dira gauzak berdinak eta
begira karibetarren artean nola diren jaiotzak, orain tradizio
hori galtzen ari ba da ere. Emakumea, umea eginez batera,
lanera itzultzen da. Aita, ordea, umegilea bera balitz bezala,
sabeleko min handien kexak eta aieneak botatzen hasten da.
Eta txosnako ohatzean etzaten da.

Han gaixo bat bezala zaintzen dute. Bost egun ezer jan
gabe pasatzen ditu. Seigarrenean «uicu» txurrut bat egiten
du. Edari hori garagardoaren antzekoa da, alimentu gutxi-
koa. Hamargarren egunean mandioka jaten du, beste «uicu»
txurrut bat eta berriro baraua beste hilabete osoan.

Egun horretan —erditondoko berrogeigarren egunean—
ahaideak eta adiskideak bazkaltzera gonbidaturik etortzen
dira. Bazkal aurretik azken zeremonia egin behar. «Acu-
re»zko hortzez gaixoaren azala odoletan jarri arte ebakitzen
dute.

Jaio berria mutila ba da, aitaren odol honekin gudarigaia
bataiatzen dute. Odol honek ausardia eta kemena ezartzen
dizkio. Haurra mutikotzean lehenengo lana arku erabiltzen
ikastea izaten da. Eta beharko ikasi. Jana zuhaitz adar bate-
tan esekitzen diote eta hura geziz zulatu arte, karibetar muti-
koak ez dauka jaterik.

170

OROZKOTARRA ETXERATU EZINIK

Orozko Bizkaiko herri bat da, Bilbotik Gasteizera Altube-
tik doan bide inguruan, Araba jotzen duela. Orozko hain-
bat herri eta auzo ditu, batzuk oso urrun, ia Gorbean gora.
Orozkotar bat ba zihoan tabernatik etxerantz eta ez alferreko
jira eginda. Egon eta edan, edan eta egon, noizbait abiatzea
pentsatu zuenerako, haren hanketan zirkulazio kodigu berria
zebilen.

Ordubetea bide luzeak egin zituelakoan, oraindik bide
erdian zihoan. Parean gertatu zitzaion batek galdetu zion:

—Zer lagun? Karga handitxo?

—Handia ez, baina oker kargatua.

Handik lasterrera kaminoak aldazgora gogorra hartzen
zuen. Pausu bat aurreratzeko, hamalagarren ahaleginak ere
ez zion balio. Bere gorputzari esaten zion:

—Gorantz ez duzu nahi? Ea beherantz nola moldatzen za-
ren.

Beherantz, bigarren ahaleginik gabe ere, poliki joaten zi-
tzaion gorputza.

—Madarikatua! Beherantz bai eh? Ea, bada. Buruak ere
gorputzarekin ibili behar du eta goazen.

Eta berriro tabernako atean zen gizona, karga zuzen jar-
tzekotan.

171 LEHEN BALEARRANTZALEAK

Nortzu izan ziren lehen balearrantzaleak edo balearen
lehen arrantzaleak? Dokumentuetatik lehentasun hori eus-
kaldunei dagokie. Balea abere izugarria da. Baleak berrogei-
ta hamar toneladatik gora du. 1095ean Baionari balearen ha-
ragia saltzeko baimena eman zitzaion. Miarritzek, XII. men-
dearen azkenetan balea arrantzatzeko baimena lortzen du.

Mugaz hemendik, dokumenturik zaharrena 1200go abenduaren 13koa da. Bertar. Mutrikuk urtean balea bat Santiagoren Ordenari donatzeko agindua hartzen du. Urteko errenta hori agertzeak lan horretan lehenagotik ari zirela esan nahi du. XIII. mendean dokumentu asko dira garai hartan balearen arrantza oso hedaturik zegoela adierazten dutenak. 1.237ko irailaren 28an, Zarauzko Konfirmazio Gutunean, Fernando Hirugarrenak burutik buztanerainoko tira bat izendatzen zuen harrapatzen zuten balea bakoitzetik, «foruaren arabera».

Getarian ere harrapatzen zuten lehen balea erregerentzat zen, XIII. mendeko foruaren arabera. Beraz, balea horrela zergagai izateko, seinalea balearen arrantza oso ezaguna zela Euskal Herrian, XII. mendean zehar.

172 LANTEGIAK ESPAZIOAN

Ez da ameskeria. Ez da fikziozko zientzia. Espazioa industriatzera doaz. «Rockwell International» delakoak estudio bat egin du «Espazioaren industriakuntza» izeneko. Bertan zerrenda bat ematen du, laster espazioan egingo diren gaiena.

Medizinan, biologian, elektronikan eta abar esperimentuak espazioan egingo dira. Honek bide berriak irekiko ditu. Baita mundu berriak ere. Nola lantegiak espazioan? Untzi espazial bat eta bertan laborategia. Edo lantegi bat soilki. Hain kondizio desberdinak izanik, esperimentuak ere berriak izango dira. Beraz, ondorioak eta aurkikundeak ere bai.

Honela laster gure kontsumo gaiak espazioan eginak izan litezke. Txertoa medikamentuak, tresna bat, autoaren errepostuak, telebistaren piezak... espazioan eginak izan litezke. Guzti hau harrigarria bada ere, gero eta hurbilago ikusten da. Zailena zera da, alegia, espazioaren industriakuntzak zer ekarriko duen imaginatzea. Orain «itsasora noa» edo «Ameriketara noa» esaten den bezala, laster etorriko da denbora «Marten egiten dut lan» edo «Saturnoko untzira noa» esango dena.

173 HARAGI KONTAMINATUA JATEN

Haragiari hiltegieta mila barrabaskeria egiten zaio pisu gehiago edo itxura hobea har dezan. Horretarako hormonak, antibiotikoak eta horrelako gai kimikoak sartzen zaizkio, nahizta debekaturik egon. Legeak bereziki debekatzen du gizonen kontsumora destinaturiko abereengan produktu horiek erabiltzea. Baina arau hauek, hala Espainian nola Europan ederki saltatzen dituzte.

Zertan dago jokia? Produktu horiekin, abereak, txahalak batez ere, errazago gizentzen dira. Esne behiek, txerriek, oilaskoek eta produkzio azkarreko beste abereek, kimikaz trataturik, beren esnean, haragian edo erraietan behar baino produktu hondar gehiago daramatela gauza jakina da.

Zertan dago arriskua? Hormona eta antibiotiko horiek gero gizonak asimila ditzakeela. Gauzak dauden bezala eta dauden kontrolbide urriekin, dudarik ere ez, abere kontaminatuak saltzen direla gure merkatuetan. Frantzia iaz egini-ko odol eta gernu analisisetan, lauhundik hirurehun kasutan hormona sintetiko bat agertu zen. Hormona hori ez omen da batere lagun ona.

174 SENAR JIPOILARIA

Bizkaiko Lea Ibarreko herri batetan, ba zen gizon bat andreari egundoko jipoiak ematen zizkiona. Kasua normaletik gorakoa omen zen, gauza horretan normala esateak ezer zuritzen ez ba du ere.

Herrian eta erbestean ere zabaldu zen berriketa. Agoazilak behin baino sarriago eraman zizkion kexak bake epaileari halako edo bestelakoren eraginez. Noizbait bake epaileak gizonari deitzea pentsatu zuen. Agoazila zen deien eta gainera-koen eraman-ekarlea eta —morrosko ederra bera— kasu honetan ere epaileak baino esku gehiago zuen berak. Jipoilaria udaletxera presentatu zenean, honela hitzegin zion agoazilak, epailea ondoan zela:

—Entzun dugu andrea jotzen duzula eta moduz jo ere. Egia da hori?

—Jendeak, atzamarra ba da besoa esaten du. Gure andrea bera ere, ez da azkena horretan.

—Beno —erabaki zuen agoazilak—. Hor ez da behar ez besorik ez atzamarrik. Ez dezagula berriz horrelakorik entzun. Eta jo behar ba duzu, badu hark tokitxo bat eta hantxe bakarrik jo.

Ez dakigu atzamarra ala besoa izango zen, baina geroztik ez zen etxe hartan jipoi hotsik izan.

175 MUNDUA K.O. GARTZELAN

«Mundua K.O. utziko dut gartzelan».

Desafio hori bota zuen James Scottek. Gizon honen historiari Estatu Batuetan berotasun handia sortu zuen. Hirurogeita hamalauan berrogei urtetara kondenaturik, gartzelan entrenatzen zen boxealari hau, munduko erdiastunen aspirantea zen.

Kasu latza da honena. Haurretan erreformategian sartu zuten ohosteagatik. Handik Tretongo presondegira aldatu zuten «zentzagaitz» etiketaz (inkorregiblea). Gartzelan esku haserrea zuela ikusirik, bere amorrazioa zakuen kontra hutsutzen uzten diote. Rahwayko presondegian zenbait boxeo torneo eta fama irabazten du. Kanpotik begia botatzen diote eta «hizpean» ateratzen dute.

Conteh ingelesarekin (munduko txapeldunarekin) burrukatu behar zuen bezperan bertan, lapurreta berrian harrapatzen dute. Berrogei urtetara kondenatzen dute mutila eta gainera laurogeita bosterarte askatasun probisionalik eskatzerik ere ez. Rahwayko gartzelan zegoela, munduko boxeo elkar-tearen klasifikazioan lehen postua lortu zuen. Boxeoan ez da edonor. Baina gartzelan zenbaki bat.

176

ZIKINA URRE

Bizkaiko Berriatuan, Altxu esaten dioten aitona arbel bat du sukaldean, ilobekin batera berak ere bere «eskoletarako» erabiltzen duena. Irratiz edo entzuten dituen berriak nabarmenak hantxe apuntatzen ditu. Behin, berri hau zeukan arbelean:

«New Yorken egunero hogeita mila tonelada zikin biltzen dira».

Eta gaineratu zuen:

«Gurditan ere, ez da gutxi beharko».

Simaurra, zikina, zarama, zaborra. Horra egunero kalera ateratzen ditugun hondakinen zenbait izen. Zer egin hainbeste zikinez? Erre? Egosi? Pilatu?

Injineru aleman baten asmakizunari eskerrak, zikinik gehienak, ehuneko laurogeita hamar, errekuuperatzekoak omen dira. Ehuneko hamar bakarrik alferrik galtzen da eta hura erre egin behar.

Asmakizun honek, dirua emanez gainera, gaurko hiri eta herrietako arazo latz bati soluzioa ematen dio. Dirutan tonelada bakoitzak ia mila pezeta balio omen du. Oraindik, ordea, Alemaniako hiri batek eta Sueziako beste batek bakarrik onartu dute sistema berria. Besteak nagi daude, sistema garestia delako beharbada.

177

DANTZA LOTUKO GILTZA

Beste askori bezala, mutil bati neska bat gustatzen zitzaion gehien. Pentsamendu hutsak ere, gorputz osoa endregatzen zion gizagaixoari, batez ere gizonezkoek batzutan hain apal eta beste batzutan hain harro duten tresnatxoak.

Zerbait nahi duenak asko sufritu behar baitu, mutil hark ere ez zuen nahi adina aukera aurkitzen neskarekin hitzegite-

ko. Eta zuen apurretan ere, ez zitzaion beharreko hitzik atezaten. Behin, hala ere, dantzan egiteko aukera izan zuen. Ba zebiltzan batera eta bestera eta pentsamendu hutsak halako berotasuna ekartzen ba zion, pentsa nola ibiliko zen gure mutila. Tresnatxoa erremedio gabe harrotu zitzaion eta neskek esan zion:

—Txo! Gorde ezazu giltza hori atzeko poltsikoan.

—Bai, zure atzeko poltsikoan izatekotan.

—Nik ez dut atzean poltsikorik.

—Ez duzu giltza honentzat hori baino gordeleku egokiagorik?

Ez dakigu zertan bukatu zuten baina ez ziren gaizki hasi.

178 VENUSERA JOANETORRIA

Duela urte batzuk, Dionner Venus zelakoaren bidez eta ordu eta erdian bakarrik, hainbeste datu bildu zuten lurretik hurbilen dagoen planetari buruz. Datu asko oraindik aztertzeko ba dago ere, ez du argitasun gutxi ekarri misio horrek.

Bi unti espazial ziren. Batek lau sonda bidali zituen Venusen azalera. Hirurogeita zazpi minututan funtzionatu zuen planeta hartako bero kiskalgarriak hondatu arte. Bestea orain ere Venusen irudiak eta beste zenbait datu bidaltzen ari da.

Zer atera dute? Planeta honen azalean laurehun eta berrogeita bosteko tenperatura dago. Hemen berrogei graduz itozten baldin bagaude, pentsa hura zer izango den. Atmosferako presioa ere lurrekoa baino laurogeita hamaika bider handiagoa da.

Zergatik ote da hori? Laino edo hodei trinkoak daudelako. Hauek eguzki energiaren isladapena edo errebotea eragozten dute. Orduan dena bertan gelditzen da. Hortik aparte Venusen ere, lurreko antzeko klima gorabeherak daude. Poloak Ekuadorra baino hotzagoak dira. Gure artizarra ez da, beraz, hemendik ematen duen bezain xaloa eta emea.

179

EZ PEKATURIK EZ JESUSIK

Aguretxo bat hil zorian zetzan. Arnasa mehea zuen eta hezur hutsetan zegoen. Ahotsa ozta-ozta entzuten zitzaion apezak ekarri ziotenean. Apezak esan zion:

—Gizontxoa. Mundua honelaxe da. Gure Jainkoak berarengana eramane nahi zaitu. Haren aurrean arima garbiz agertzeko zer gauza ederragorik konfesio eder bat baino? Ba dakit hitzegiteko moduan ez zaudela. Aski zaizu «Jesus» esatea eta damutzea. Esan «Jesus» eta nik absoluzioa emango dizut.

Baina agureak ezetz. Ez zuela Jesusik esango.

—Zergatik ez, ordea?

—Nik ez dut damutasunik behar.

—Jainkoaren aurrean denok behar dugu damutasuna.

—Nik ez. Nik ez dut pekaturik.

Ez zegoen hari Jesusik ez ezer damuzkorik esan erazterik. Apezak azkenean:

—Ba dakizu gaur zer ikusi dudan? Idia hegaz ikusi dut.

—Jeesus! —hots egin zuen aguretxoak.

Apezak huraxe aprobe txatu zuen absoluzioa emateko.

180

KONTINENTEAK MUGITZEN ARI DIRA

Kontinenteak mugitzen ari dira? Desplazatzen ari dira? Baietz dirudi. Dirudi bakarrik ez. Desplazatzen ari direla demonstraturik dago. Adibidez, Ozeano Bareko plataforma trasladatzen ari da Ipar Amerikako plataformari buruz. Poloak ere desplazatzen ari dira. Iparreko poloa Groenlandiarantz doa, urtean hamar zentimetrotako abiaduran. Beraz, hamar urtetan metro bat. New York eta Londres aurten iaz baino urrutiago daude.

Zergatik gertatzen da hori? Lurraren sabela bol-bol ari delako, lurraren barrua irakiten dagoelako. Horregatik kanpora agertzen diren seinale hauen estudioek lurra bera eta bere formazioa jakiten lagun dezakete. Baita lurrikarak prebenitzeko ere. Lurrikara hain bildurgarriak, hain zuzen, desplazamendu horiek gertatzen diren lekuan gertatzen dira. Horregatik desplazamenduak estudiatuz, lurrikarak aurretik jakin daitezke. Metaletan ere zerikusi handia du lur barruko eltze edo lapiko horren mugimenduak. Desplazamendu horietatik meatzeak detektatzeko ere modua atera liteke. Hemendik milioi bat urtetara Bilbotik Donostiara mila kilometro izango dira beharbada.

181 EMOZIOA ERE EZKERTIA DA

Barre edo negar egiten duzunean, triste edo pozik zaude-nean, aurpegiko ezker alde eta eskuinaldeak berdin erantzuten dutela uste duzu? Duela hogeita hamar urte amerikar ikertzaile batek teoria hau iragarri zuen, alegia, aurpegiaren eskuinaldeak ezker aldeak baino hobeki kontrolatzen duela emozioaren adierazpena. Beste era batera esanda, aurpegiaren ezker aldeak emozioa bizikiago adierazten duela. Teoria hau hiru sikologo amerikarrek zeharo baieztatu dute argazkien muntaiak eginez.

Argazkien montajea gauza kuriozosa da. Barrez edo negarrez zaudela bi argazki segituan atera. Beraz argazki berdinak dira. Gero argazkiak goitik behera erdibitu eta bi eskuinaldeekin argazki bakarra muntatu.

Ezker alde biek ere berdin. Hauekin montaturiko argazkia askoz ere biziagoa eta espresiboagoa da eskuinaldekoe-kin egina baino.

Zer arrazoi dago hor? Aurpegiaren ezker alde zerebroaren eskuinaldeak kontrolatzen duela. Zerebroaren alderdi hau kanpoarekin harreman direktoagoan dago beste alderdia baino. Horregatik naturalago eta solteago funtzionatzen du. Eta hala igartzen da bere mende duen aurpegiaren ezker aldean ere.

Ugazaba eta morroia artajorran ari ziren. Artoa jorratzea landare gazteari belarrak kentzea eta haitzurrez pasatzea da. Auzoko soroan ere artajorran ari ziren eta goiz erdian hamaiketakoak ekarri zien etxeoandreak. Soro bazterrera joan eta jaten ari ziren.

Ugazabak orduan morroiari:

—Goazen gu ere soro bazterrera

—Hamaiketakorik ez eta soro bazterrera?

—Haiek jaten ari garela pentsatuko dute.

Auzokoak laneratu zirenean. Berak ere han ziren berriro sailean. Morroiak jorra plantak egiten zituen baina ez zuen haitzurrik sartzen.

—Zertan ari haiz? —galdetzen dio ugazabak.

—Haiek lanean ari garela pentsatuko dute.

Morroiak bereari eusten zion. Ugazaba haserretu zen eta mehatxu hau bota zion:

—Deskoiduan artorik zimeltzen bazaik, ez haiz gehiago etxean sartuko.

Eta morroiak erantzun:

—Eta niri hesterik zimeltzen bazait, ez zara gehiago etxetik irtengo.

Goethe izan da Alemaniako literaturik handiena eta munduan ere gorenetarikoa. Laurogeita bi urtekin hil zen. Nahiko egin zuen garai hartarako. Kondairak dio osasun ederra zuela eta azkenean, hil aurretioan, esaldi famatu hau esan zuela: «argia, argi gehiago».

Esaldi horri hamaika buelta eta misterio ezarri zaio geroztik.

Baina ez omen dira horiek Goetheren azken hitzak. Hori esan zuen, baina gero ardoa eskatu zuen. Ordubetea ez zuen hitzik egin. Noizik noizera bere errain Odiliari begiratu dio. Eta halako batetan hona hemen Goetheren azken hitzak:

«Zatoz, alabatxo. Emaidazu hankatxoa».

Esaldi hau ez da romantikoentzat bestea bezain antologikoa. Ez da bestea bezain alardetsua. Zer egingo diogu, ba? Poeta handi hark ez zeukan bere agonian ondorengoei zer gehiago gustatuko zitzaizkien pentsatu beharrik. Gainera ondo pentsatuz gero, hankatxoaren zera ez da beste esaldi harro hura baino samurragoa, baita sakonagoa ere? Mitifikatzaileek hori dute beste buruhauste bat.

184

HEZUR AUSLEAREN MALEZIAK

Hezurauslea txori handi bat da, zarraski zalea edo okela ustel jalea. Sei edo zortzi kilo ditu eta bi metro eta erdiko zabalgoa hegan ari denean. Pirinioetako txoritzar honek bere sistema bereziak ditu bizimodua ateratzeko. Animalia bat hiltzean, hezurauslea ez zaizu hurbilduko beste zarraskizale txikiagoek gorpu hura prestatu arte. Tarte hori zenbait egun luza daiteke. Beletak, miruak, arranoak eta saiak han biltzen dira.

Hezurausleak mugimendu hori somatzen duenean, bietatik bat egiten du: tokia gogotan hartu eta joan, edo inguruko haitz batetan jarri eta begiratu.

Beste txoriek animalia hila zatikatzen dutenean, hausleak han-hemen sakabanaturiko hezurtxoak jaten ditu eta hezur handiak erpeetan hartu eta eramane. Bere haitzetik begira dagoela eta beste txoriek gorpua disputatzen ari direla, puskarren bat solte ikusten badu, hezurauslea bertikal erortzen da. Puska hura harrapatu eta inguruko haitzen batetan jaten du.

Badu beste sistema originalagorik ere. Arranoek, saiak, txakurrek edo azeriek piezaren bat ehizatzen dutenean, he-

zurauslea pertsegitzen hasten da. Segi eta segi besteak nekatu eta pieza bertan behera utzi arte. Gure txoriak ez du joan eta jan besterik.

Begira zer sistema bitxiak dituen txori maltzur honek. Hezur handiegia ba da edo hezurra osorik egon eta barruko muietik ezin atera, erpeetan hartu eta ba darama. Nora? Haitzarte batetara. Hura izango da bere hezuraren zehatokia edo errota.

Haitz zorrotzak dauden tokia hautatuko dizu. Altura decentea iruditzen zaionean, hezurra soltatzen du haitzen kontra hauts dadin. Hezurra behera jo aurretik, berak ere hegoak bildu eta abiadura izugarrian jaisten da. Haitzen kontra zehatu behar duela dirudienean, hegoak ireki eta poliki-poliki lurreratzen da. Hezurra lehen intentuan hautsi ez ba da, berriro hartu, igon eta goragotik botatzen du. Bi, lau, sei, berderatzi eta hamabi bider bota beharrik ere izaten da, lehen botaldian nekez lortzen baitu nahi duenik. Bizitzan burugorriak izan direnak ez zaizkio txori honi gutxi kostatzen.

Hezurausleak hezuraren trajektoria kalkulatzeko ere ez dira delineante makalak. Haizearen eragina kalkulaturik, ez dute haitzen parean botako urrunago baizik, haizeak behar den lekura eramango duela jakinik.

185 KARRERAREN BAT OTE ZEN

Duela zenbait urte Etxebarrieta Tolosako Benta Haundin hil zutenean, Euskal Herria airean jarri zen. Etxebarrietaren aldeko mezarik iragartzen zen elizak goardia zibilek inguratu zituzten eta gainerakoa esan beharrik ez dago.

Bizkaiko Larrabetzun ere hala egin zuen apez batek. Meza bat iragarri zuen eta goardia zibilek inori sartzen utzi ez. Apezak orduan plazara irten eta hurrengo meza izango zela iragarri zion herriari. Hurrengo hurrengo ala joan ziren goizeko mezak eta arratsalderako iragarri zion herriari. Arratsaldean ere berdinean. Goardia zibilak sutan zeuden, meza bat

izango zelakoan igande guztia han erdi goserik eman beharrez.

Egun hartan ezin izan zenez, apezak hurrengo iganderako iragarri zuen Etxebarrietaren aldeko meza. Hurrengo igandean ere zirku berdina goizetik arratsalderarte. Baina orduan goardia zibilak ere gehiago eta hobeki preparaturik etorri ziren, bi errelebotan eta bazkari eta guzti.

Zeremonia haietan ari zirela, andretxo bat azaldu zen bere astoarekin herrira zetorrena. Eta galdetu zuen:

—Qué; hay carrera o qué?

Eta goardia zibil batek erantzun:

—Sí; carrera. Verá usted lo que van a correr con ese cura por delante.

186 APEZA ZELAKOAN MONJEKIN

Hogeita bi urtetako mutil gazte bat trenean zihoan. Aurrean hospitaleko monja bat. Gazteak Valentziako Mertzede-ko prioretzat agertzen du bere burua. Monja hark mertzedarioekin zerikusia baitzuen, berriketa mamitsu zihoan. Agurtzean monjak hospitalera gonbidatu zuen inoiz Torroellatik (Girona) pasatzen bazen.

Mutilak bidea hain errez ikusirik, laster jo zuen hospitaleko atea. Baita ostatua eskatu ere «aita probintziala bila etorri arte».

Manuel Muñoz laster popularatu zen Torroellan. Hura zen apeza hura. Mezak ederki ematen zituen. Baita monjen gustoko sermoiak egin ere. Tabernako neskarekin oso lagun egin zen. Neskak gero esango zuen:

—Egin duenagatik saria behar luke eta ez zigorra, ez baitio inori kalterik egin.

Bi hilabete hala zeramatzan ederki eta auskalo noiz arte, bera deskoidatu ez balitz. Hospitalean zebilen pintore batek Valentziara joan behar zuela esan zion. Gure prioreak Mertzede-ko Komentura bere partez azaltzeko esan zion, ezer

behar bazuen. Pentsatzen ez hark bestea ere bere antzekoa zenik. Pintoreak Valentziako komentuko atea jo zuen eta han hasi zen istorio honen azkena. Monjak penaz, herriko neskak konfessore bikain bat galdurik, guardia zibilek eraman zuten aita priorea.

187 EZ DROGARIK EZ EZER

Bizkaiko alderdi batzutan, burrukan edo errietan iharduteari «drogan egin» esaten diote. Horrela, drogazalea eskandalu bila ibiltzen dena da eta «droga» hitzak burruka edo errieta esan nahi du, esaera korrienteak direlarik: «beti drogan», «beti droga bila» eta abar.

Bada honelako gizon bat gaztetan drogalari trebea izana. Orainsu taberna batetan zegoen eta han zenbait gizon ari ziren drogak gora eta drogak behera. Oraingo gazteek ez dutela drogak eta horrelakoa besterik pentsatzen eta abar. Gure gizona ernegatu zen albotik berriketa hartaz eta hitzegin zuen:

—Zer esaten ari zarete zuek? Orain ez dago drogarik. Lehen bai, ordea. Orain, ez drogarik ez ezer.

Herri bereko beste gizon bat auzoko etxe batetara joan zen eta txakurra biziki haserre atera zitzaion. Gizona geldi zegoen, ez aurrera ez atzera, zer egin ez zekiela. Etxekoan-dreak esan zion:

—Lasai gizona. Horrek ez dizu kalterik egingo.

Eta gizonak:

—Zeuri esan dizu hori?

188 JEREMIASEN KALAMITATEAK

Bizkaiko herri batetan, zeinetan esango ez badut ere, ba da gizon bat Jeremias izena duena, beste gehienak bezala txikitant eskolan hainbat kalamitate pasatua. Jeremias eskolara

hasi berri zen. Maistrak lezioa ematera deitzen dio mutikoari. Hemen hasten da Jeremiasen kalamitatea.

—Ea, Jeremias —diotso maistrak «A» letra erakutsiz—
Zer letra da hau?

Jeremiasek ez zuen ahorik irekitzen. Berriro ere maistrak:

—Zer letra da hau?

Jeremiasek lehen baino hortzak estuago. Ekin eta ekin, maistrak agiraka egin zion, amenazatu zuen, kaskarra berotu zion, baina Jeremias «A»rik esan gabe itzuli zen bere mahaitxora.

Ba zen eskola hartan beste mutiko bat, trantze hartan ia es-tuasun gehiago pasatu zuena. Jeremiasen anaia zen, bera baino zahartxoagoa. Honek eskolatik irtetea diotsa anaia txikiari:

—Jeremias, zergatik ez diozu «A» esan zuk hori badakizu eta?

Eta Jeremiasek erantzun:

—Bai! «A» ezta? Eta gero «E» eta «I» eta denak esan behar.

189 GALTZADA BAT OHOSTU

Lapurrak iluna eta ezkutua maite dituela, baina hori ere ez dago hain argi. Lapur batzuk argia ere maite dute. Ez omen dago lapurreta naturala bezalakorik. Hala katedrale batetan bi lagunek, beren brusa eta guzti, organu txiki bikaina bizkarreran eraman zuten, kanonigoak «kinkilimi domini» eta horrelakoak kantatzen ari ziren bitartean. Sakristauak ere ikusi zituen eta jende askok. Nork uste, ordea, lapurrak zirenik?

Duela egun gutxi Estatu Batuetan ere, Newark izeneko hirian, marka ederra bota dute. Nork uste izango zuen galtzada osoa eraman behar zutela? Bai, jauna. Hiru lagunek, jende guztiaren aurrean, kale batetako zoladuran (pabimentuan) berrogeita hamar metro altxatu zituzten. Kamioietan kargatu eta etxegile konpainia batzuri saldu zizkieten. Dudarik ere ez, kale berriak egiteko izango zela.

Lapur horiek merezia dute kaleren baten izena. Egunen batez, brusa eta behar direnak jantzirik, Donostiako Kontxako farolak eramaten hasten bazara, nork esan behar dizu ezer?

190 ZEANURIKO KOKOAK

Bizkaiko Arratiako haranean ba da Zeanuri izeneko herri bat, Bilbotik Gasteizera bidean, Barazarko aldaparen oinetan. Zeanuritarrei «kokoak» esaten diete, Billarotarrek batez ere. Billaro beste herri bat da, Bilbo aldetik Zeanuri jotzen duena.

Zeanurin azukrearen berri lehenengoz entzun zutenean, herritar bat Gasteizera bidali zuten mandoz, generu miragarri haren bila. Bueltan, Barazarren behera zetorrela, mandoa erori eta azukre zakuak han egin zituen umeak. Zeanuritarrek kontuz kontuz bildu zuen azukrea.

Baina bai ederki zikindua ere. Itxura tristea zuen haren zuritasunak eta beheko errekan garbitzea pentsatu zuen. Garbitu zuen, bai, ederki. Ohartu zenerako, urak eramana zuen mandoari ekartzea hainbeste kostatu zitzaiona. Horregatik Billarotarrek zeanuritarrengatik esaten dute:

—Ez dira izango, bada, kokoak?

Eta zeanuritarrek erantzuten:

—Billarotarrak handiagoak.

Honek ere ba du bere gakoa. Billarotar bati kandela bat apurtu zitzaion eta errementaldegira (haroztegira) eraman zuen konpontzera.

191 SORGIÑAK BIZIRIK

—Nik ez dut sorginetan sinesten, baina ba daude.

Hala esan zuen nafar batek eta arrazoia izango du. Zer da hobe, sinestu ez eta egotea ala sinestu eta ez egotea? Zuga-

rramurdi da Euskal Herriko sorgin zelairik ospetsuena. Abuztuaren hamabostean, hain zuzen Ama Birjinaren egunean, ospakizun handia egiten da bertan. Lezean bi ahari erre eta egundoko mozkorrak harrapatzen dituzte.

Gero desfile bat antolatzen dute. Elkarri eskutik heldurik akelarre-horretan parte hartzen duten gizon eta emakumeak herrian zehar doaz agintariak probokatuz. Gero herriko plazan bildu eta sorgingoari estuki dagokion euskal dantza bat dantzatzen dute.

Galizian ere, «polones» edo «folladas» izenekoak ospatzen dira. Elizak hamaika ahalegin egin du kentzeko baina alferrik. Gaez lagun sail handi bat egiten da eta gaitaz, zuziz eta erramuz, «santa campaña» bat bezala, herriko plazan biltzen dira.

Sorginak hiltzen ba dituzte, biziak sorginduko dira.

192

BURUA BOTA ALA GORDE

Lekeition ba da «kabaua» esaten zaion toki bat. Toki hori itsas bazterrean dago. Goitik behera perpendikularki doan amildegia da, itsas bazterreko haitzean. Altura ederreko amildegia, ondoan itsasoa bera duelarik. Inguru hartan eserra normalak dira honelakoak: «hori baino hobe dezu kabautik behera burua bota» eta abar.

Horrela bi lekeitiar senar-emazte, ez ziren, antza, hain ondo konpontzen. Haserrea eta erronka ugari zen etxean. Behin gizonak erabaki zorrotza hartu zuen eta esan zion andreari:

—Aspertu naiz zurekin eta ba noa kabautik behera burua botatzera.

Gizona etxetik irten eta abiatu zen kabaurantz. Hark uste zuen andreak atzetik segituko ziola, baina ez. Andrea etxean gelditu zen lasai asko.

«Bota behar dut, bota behar dut» hots egiten zuen bidean, baina andrerik ez zetorren atzetik.

Hala ere, bera bakarrik ba zen ere, heldu zen kabaura gure gizona. «Andre madarikatua». Inguratu zen amildegira, begiratu zuen kabautik behera eta esan zuen:

—Pello, Pello. Urrutik dago hori!...

Etixeratzean andreak galdetu zion:

—Zer? Bota duzu burua?

—Ez andrea. Burua bakarrik botatzerik ez du merezi. Hurrengoan neuk saltatzea pentsatu dut.

193

ANIMALIAK GALTZEN

Animaliak arriskuan daude. Urtean animalia espezie bat galtzen ari zaigu. Azken hiru mendeotan laurehun espezieta-tik gora galdu dira. Datozen ehun urteetan, berrehun espezie baino gehiago galduko dira. Datu hauek serio hartzekoak dira. Martxa honetan animalia guztiak galtzeko bidea darabagu.

Errudun nagusiak ehiza, landare eta animalia exotikoen salerosia eta batez ere habitat edo bizinguruen desagitea. Oihan tropikalak moztu, lurrak ere, bere gai organikoak zurupatu, ibaiak eta itsasoak kutsatu... Horrela apurka apurka, desertua zabalduz doa gure lurreko alderdi guztietan.

Historilariak 80. urtean somatu zuten animalien lehen galera gizonaren erruz. Europako lehoia zen bera. Gero ehun eta hogeitau ugartun klase eta ehun eta berrogeita hamar txori klase galdu ziren. Guzti hauetariko erdiak hamar mende honetan deseginak izan dira.

XVII. mendetik hogeigarrenerarte hamar urtetarik espezie bat galtzen zen. Mende honetan, ordea, urtean bat. Zer egin behar du gizonak animalia gabe, bera ere animalia espezie bat izanik?

DINKAK, SUDANGO ABELTZAINAK

Dinkak Sudanen, Nilo inguruan bizi den herria da. Ez dira milioi batera heltzen. Argalak eta luzeak dira hango bizilagunak eta oso egitura ederrekoak. Munduko arrazarik altuena segur asgo. Ia bi metro dituzte batez beste. Dinkek haragia jaten dute eta gustatzen zaie, baina ez dute ganadurik hiltzeko hazten, okasio handietan edo izan ezik.

Beste afrikar artzain batzuren antzera, dinkek ganaduari odola ateratzen diote lepotik. Irakin eta potaje bezala edaten dute. Edo odola mamitu, erre eta zatika jan. Oso pipazaleak dira, ez hainbeste bizioz, keak tsetse izeneko eltxo bildurgarriak uxatzen dituelako baizik.

Abereen simaurra bordetako hormetan eta behean itsasteko erabiltzen dute. Eta lehortzen denean sua egiteko oso ona da. Gero simaur errearen hautsez gorputza igurzten dute eltxoengandik defenditzeko.

Eta hau harrigarria, gernua gazta egiteko erabiltzen dute eta garbitzeko ere bai. Eta bi metrotako morroskoak hazi. Guri pentsatze hutsez ere, nazka ematen digutenak haien janari kutunak dira.

LAU ORDU LEHENAGO MEZATARA

Beste anitz aldetan bezala, Markinaldean ere ba dira oso urrun dauden baserriak. Halako batetan bizi zen gizon batek lehen mezara joateko ohitura zuen Markinako elizara.

Hala joan zen beti bezala igande goiz batez ere ia bi ordutako bidean. Gaua zen oraindik eta elizpean eserita zegoen. Hori ere beti bezala, inor baino lehenago heltzen baitzen beti. Hala zegoela, eliz dorreko kanpaiak goizaldeko ordu biak jo zituen.

—Koino! Zer arraio jotzen du erloju horrek?

Erlojua ondo zebilen, ordea, eta bera gaizki. Nola hain bide luzean etxeraino joan berriro seietarako etortzekotan? Ez. Hobe zen bertan gelditu. Denbora aprobetxatzeko albatariarenera joatea pentsatu zuen. Behin eta berriro jo zuen atea eta azkenean albatariak:

—Nor da?

—Neu naiz, jauna. Gure astoak buztanpean urratu bat du eta zer egin niezaioke, jauna?

Albatariak erantzun zion:

—Zer egin? Joan eta miazka iezaiozu zerorrek.

MANTXAKO KANALEA BIZIKLETAN

Airezko bizikleta da. Baina bizikleta noski. Eta bizikleta bitxia. Planeagailu bat ziklista profesional batek eraginda hegan egitekoa. «Albatros» du izena. Hogeita bost kilo baka- rrik astunean eta metro eta laurden zabalean. Ba dakizu nolako zabalgoa den hori hain pisu gutxirako?

Materialik modernoenez egina izan da. Hegoak fin finak dira. Helizeari eragiten dion pedala aluminio ultramehezko hodia da, ohiko tuboak baino lau bider arinagoa. Motor bakarra bizikletarien hanketako indarra da. Gizona, beraz, bere medio propioz hegan dugu. Kontradikzio bat baita izan ere gizonak ilargira hainbeste tramakulu bidaltzea bere indarrez airean ibiltzerik lortu gabe.

Ez dago gauza zailagorik mobylette baten indar erdi duen motor batekin hegan egitea baino. Motortxo hori giza gorputza da. Paul MacCready dugu asmakari horren egilea. Byran Allen izango da kanalea batetik besteratu duen bizikletaria.

Bizkaiko herri batetako apeza burutik endregatzen hasirik zebilen. Haren mezek eta mezaz gainerakoek gero eta hizpi-de gehiago ematen zuten herrian eta hura norabait eraman beharra zegoela pentsatzen ari ziren. Nork eta nola esan, ordea? Azkenean asmatu zuten zerbait.

Bermeon —zoroetxean, alegia— egun handi bat ospatzeko zirela eta meza nagusia berak ematea nahi zutela esan zioten.

Gure apeza, bestela ere, meza nagusi zalea izaki, aisa makurtu zen horretara. Behin sartuz gero, han uztea erraza izango zela uste zuten. Eta hala egin zuten.

Halako batetan beste mutil bat ere agertu zen handik, akordeoia bizkarrean zeramala. Apezak galdetu zion:

—Zer dugu?

—Hemen erromeria zela eta jotzera etortzeko esan didate.

Apezak esan zion:

—Erromeria? Zaude lasai. Ni ere meza nagusitarako etorri nintzen eta hemen nago zain, zazpi urtetan.

Maneiu genetikoa genak maneiatzea edo manipulatzeko da. Gen bat herentzia biologikoa determinatzen duen substantzia da. Ez dago bildurtzeko motiborik. Teknika honek kontrako asko eduki ditu, baina sasi profetak oker zeuden. Genen maneiuak aurkikunde asko eta handiak ekarri ditu gizartearen onerako.

Hepatitis birusaren gen bat bakteria bati txertaturik, hiru zientzilari frantsesek hepatitisaren prebentzioa asmatu dute.

Goeddel amerikar ikerlariak sistema berarekin insulina iragarri berri du, diabetesen tratamendurako garrantzia handikoa. Iaz San Frantziskoko eta Harvard-go unibertsitateko zientzilariek jaioaurreko diagnostikoaren teknika martxan jarri dute genen maneiuaren oinarri dela. Baita anemiak eta beste zenbait gaitz genetiko sendatu ere.

Beste alde batetik Parisko eta Strasburgoko ikerlariek elikaduran garrantzia handia izan dezakeen albuminazko molekula handi bat lortu dute bakterien bidez. Botanistek, genen maneiuari eskerrak, landare sendoagoak lortzeko ustea dute. Alderdi kutsatuak garbitzeko bakteri iturriak egiteko ere pentsatzen hasirik daude.

Gizon bat gatza ekartzera dedikatzen zen asto urtetsuarekin. Behin, egunero pasatzen zen errekan urak altutxo zihoa-zen eta astoak ez zuen pasatu nahi. Tira eta tira, halakoren batetan erreken erdi erdian erori zen aberea. Pisua ere dezentea zeraman bizkarrean eta ez zegoen hura handik zutierazterik.

Astoduna makila edo zerbaiten bila zen bitartean, astoa berez jaiki zen errekatik, gatz guztiak urturik eta Perikotxu baino bizkorrago. Behin egina birritan ere egitekoa da, eta harez gero astoak erreka hartatik pasatzen zen guztietan ezteko maleziak hartu zituen, zorroa ederki arindurik.

—Ah bai? —esan zion astazainak— Bihar ikusiko duk.

Hurrengo egunean gatz ordez esponjaz kargatu zuen astoa. Hau, beti bezala eta betiko tokian etzan zen. Denbora gutxira ito behar zuen asto gaixoak.

—Orain zer? —galdetu zion ugazabak— Jaiki hadi orain.

Susto galanta pasa erazitakoan, esponjak deskargatu zizkion eta hartan urtu ziren astoaren maleziak ere. Geroztik ez zuen halako aprobarik egin abere gaixoak.

Hiru amerikar erakunde (NASA barruan dela) elkartu dira satellite artifizialen bidez nekazal espionaiako sistemarik eraginkorrena martxan jartzeko. Munduko lurralderik emankorrenetako gari, arto eta abarren uztak espaziotik aurrerik ikus daitezke. Orain arte USAn ehun eta berrogeita hamar mila lagun zeuden lan horretan enplegatutako, hala hola-ko erresultatuz. Orain LACIE izeneko programa espazialak nekazal merkatua azpiko goratzeko martxa darama.

Prebisio horiei eskerrak, eskaria eta benetako uzta berdintsu egokitu litezke, inportazioak eta esportazioak garaiz planifikatu, urteroko eritasunei dagozkien uzta galerak (%20 inguru) gutxitu. Satelliteak uztaren osasun egoera segitzen du.

Satellitearen begiradak ehun eta laurogeita bost kilometro hartzen ditu. Egunero ordu berean pasatzen da lurretik 913 kilometrotara. Hogeita bost hektareatik beherako uztarik ez du kontutan hartzen.

Iaz amerikarrek errusoek uzta iragarri zuten: laurogeita bederatzi milioi tonelada. Errusoak berak baino ingururago ibili ziren, hauek ehun eta hamar milioi iragarri baitzuten. Egiazko uzta laurogeita hamaika milioi eta erdi izan zen.

Munduan modu askotako rekordak dira, baina Peter Suymanek egin berri duena hobetzea kostatuko da. Ausartzea ere ez da gutxi. Izugarria. Hots, izua ematekoa. Hamazortzi oin karratu dituen kristalezko gela edo kalabozo batetan hogeita lau suge pozointsuekin hogeita hamasei egun egin ditu, ditu.

Hego Afrikako mutil honek hogeita bost urte ditu. Hainbeste egun suge artean eman ondoren, bere rekorda seguru

uzteko, beste bi aste gehiago egin zituen kobra eta horrelako laguntxoekin batera.

«Gaixorik nago eta nerbioetatik jota. Hiltza jotzen nuen neure burua. Ifernua zen hura».

Okerrena desmaio batek ekarri omen zion. Berrirori seneratzean, belarri, begi eta sudur, dena sugeztaturik iratzarri zen. Gorputzeko epeltasuna maite baitute sugeek.

Suymanek berrehun suge ditu etxean. Aproba honetan esan ezinezko gomuta izpiritualak bildurik ere, ez omen luke berriz horrelakorik egingo. Horrenbeste barkatuko diogu. Zergatik egin ote du hori? Sugeei galdetu beharko, mutilak berak apenas jakingo baitu.

Gaur Gernikan bizi den bergarar bat «trabajadoreetatik» etxeratu zenean, hormak zintzilik omen zeuden. Plaentzian hasi zen nola-halako lanean. Hamaika pezeta eta erdi irabazten zituen eta ostatua hamabi kostatzen zitzaion. Gauetan musean ere jokatzeko zuten tabernan «koskara». Zorrak egin ahal, koaderno batetan apuntatzen zuen tabernandreak eta han gelditzen zen bakoitzaren «koska», kintzena egunean kobratzekotan.

Bergararra Eibarrera aldatu zen. Behin goardia zibilak etorri zitzaizkion.

—Ya nos ha costado localizarle.

Mutilak Plaentziako zorreatatik izango zela pentsatu zuen.

—Le reclaman a usted de un campo de concentración.

Gaitz erdi —pentsatu zuen bergararrak—. Haraino ez zai-
gu zorren konturik iritsiko.

Beste bi urte «trabajadoreetan» pasatu ondoren. Plaentziara jo zuen bueltan eta lehengo «koska» gogoan. Baso erdi eskatu zuen taberna hartan eta andreak «aurpegi ezaguna» esan zion. Orduan mutilak:

—Bai, ba dut nik hemen aspaldiko zor bat eta berandutxo bada ere ordaindu nahi nuke.

Tabernandrea joan zen koaderno hartara, tiratu zion eta:

—Ene! Saguek janda dena. Ezer ere ez.

Bergararrak esan zion:

—Sagu horiek non diren baneki, pozik emango nieke gazta zati bana.

203

ENTZUTEKO TRESNA DEABRUZKOAK

Gaur egun mikro-emisore bat arroz garau batetan ezkuta daiteke. Deabrukeria tekniko hauei eskerrak eta inguru politiko eta industrialetako espionaiak zorrotzei eskerrak, adiketaren —eta antiadiketaren— merkatua ezin aberatsagoa da. Frantzian bakarrik espionaiako hirurehun mila emisore inguru jarrita daude. Non? Edonon: bulegoan, hotelean, edo zeure zapatan.

Duela urte batzu, Amsterdamgo Chevron petrolio konpainiako zuzendariak, adiketako modelu batzu erakusteko eskatu zion teknikari bati. Honek zuzendariaren telefonoa ireki zuen, han mikro-kapsula bat sartzeko eta hara, tresna bat lehendik martxan zegoela bertan.

Ba dira mikro pasiboak kanpotik aktibatu ez detektatu ezinekoak. Lehen modelua Amerikar Arranoaren enbleman agertu zen. Sobietarrek Moskuko Estatu Batuen enbaxadoreari erregalaturiko ezaugarria hain zuzen. Mikro-tresna horiek nonahi kamuflaturik dituzu, luman, erlojuan, eraztuan, hautsontzian, pizgailuan, zapatan. Seguru ote gaude?

204

ZERUA TRASTEZ BETERIK

Duela aste batzu Tokio inguruko-Narita nazioarteko aireportuan eskandalu ederra armatu zen. Hegazkinez gainera

hamaika trastek inbaditu zuen zerua. Maskaradun kontestariak globoak eta kometak erruz bota zituzten. Aluminiozko laminatxo eta guzti, radarra nahasteko eta aire trafikoa hankaz gora botatzeko.

Beste batzuk kotxe neumatikoak erre zituzten eta hura zen kea eta beltza. Aireportuaren lehen urtemuga zen eta bost mila manifestarik garbi utzi zuten aireportu honen kontrako gudua oraindik airean dagoela. Hamabi urtetan zehar ezker erradikalen eta baserritarren koalizio bat espropiazioen kontra ari izan da aireportuko lanak blokeatzeko.

Ba dira oraindik aireportuko pisten gehigarriak eta abar egiteko behar diren lurrak ez saltzera dauden (granjeroak). Horrela Narita ultramodernoak ez du aireportu zaharrak baino hegaldi gehiago antolatzerik. Bost hilak eta milaka zaurituak izan dira manifestazioetan.

Duela zenbait aste, zazpi mila polizia, hezurretaraino armaturik, aireportua okupatu zuten eta bilete gabeko guztiak atzera. Ez zen ezbehar handirik gertatu, baina helikoptero bat globo izugarri batetan gatibatu zen eta derrigor lurreratu behar.

205

HONTZAK ETA MOZOLOAK

Bizkaiko Oiz azpiko gizon bat ba zihoan tabernatik etxerantz gauerdian. Bidez bide hizketan zihoan mendian gora, Oiz alde guztia berea balu bezain animoso. Ez guztiz mozkorturik, baina bai estratak betean eta berritsu. Honetan, hontz bat hasi zen inguruan, ohi bezala errespetua sartu nahirik.

—Ix... ix...

—Tira, mutil. Isilduko naiz.

Gizona isilik zihoan, baina hontzak bere sesioan zirauen:

—Ix... Ix...

Aurrera eta aurrera, mozolo bat ere hasi zen bere propagandak egiten:

—UUU... uuu...

—«U» diozu, «u», «a»tik ere pasatu gabe?

Etixeratzean, emazteak kartila ederra kantatu zion. Gizona tutik esan gabe oheratu zen. Eta emazteak albotik:

—Ez duzu hitzik? Nahi duzunean etxeratu eta hitzik ere ez?

Gizonak erantzun zion:

—Beno andrea. Bidean isiltzeko esan didate. Etxean hitzegiteko. Jar zaitezte akorduan eta gero agindu.

206 MOZKORRAK BOLANTEAN

Goizaldeetako istripurik gehienak edanak omen dakartza. Ez beharbada mozkorrek, baina bai bustiegi ibiltzeak. Nola-ko legeak egingo zenituzke gidari mozkorrek zuzentzeko? Begira nola dauden gauzak zenbait naziotan.

Australian, gidari mozkorren izenak egunkarietan jartzen dituzte honako izenburu honekin:

«Mozkortu zen eta preso dago».

Malayan ere, preso sartzen dituzte eta ezkondu baldin balego, emaztea ere bai. Lege hori Euskal Herrian ezarri gero, hamaika emakumek egon beharko luke, gartzelatik irten gabe.

Hego Afrikan ere, ez dago txantxetan ibiltzerik. Bolantea harrapatzen duten mozkorrek hamar urtetako gartzela edo hiru mila dolar ordaindu beharra du edo biak batera. Ez da edari merkea.

Turkian azkenez irudimen gehiago dute. Hiritik hogeita hamabi kilometrotara dagoen herri batetara eramaten dituzte eta handik oinez etor erazi, poliziaren begipean. Ajea kentzeko izango da hori.

207 HEZKUNTZA FUSILPEAN

Uruguayko militarrek kontinenteko hezkuntza sistemarik aurreratuenetarikoak zapuztua zuten, Mendebaldeko zibilizazioaren kontrako edozerk Uruguayko balio tradizionalak hondatzen omen baititu. Horrela lehen mailan %30 irakasle kendu zituzten, bigarrenean %35 eta unibertsitatean erdiak baino gehiago. Mehazketa ederra.

Zer irakatsi behar da? Mendebaldeko zibilizazioa. Eta zer da hori? Mundu berriaren konkistarekin Amerikara heldu zen trilogia bikaina: grekoen klasizismoa, erromatarren molde juridikoa eta kristauen moralak. Trilogia biribil horri muzin egiteagatik, hamaika hezlari, kazetari eta politiko torturatu, bahitu edo hil dute hango poliziek.

«Tradiziorik garbieneko balio funtsezkoak» ez eusteagatik Uruguayko kultur gizonak gorriak ikusten ari dira gartzelatan eta erbestean. Pentsa nola dagoen eltzeta, Juan Ramón Jiménez Machado, García Lorca, Mario Benetti, Carlos Onetti eta horrelakoak subertsiboak baitira.

Ez dugu argitasun gehiegi behar auzoko berri etxetik dakinok. Mailua eta beste jogailuak mundu guztian berdintsuak dira.

208 SOLDADUTZATIK LIBRE

Gipuzkoar mutil batek ez zuen inola ere soldadu joan nahi. Entzuteak ere hozkidura ematen zion. Epe madarikatua gero eta hurbilago zetorren, ordea, eta mutila gero eta estuago galtzetan. Lagun bati esan zion:

—Zer egin dezaket soldadutzara ez joateko?

—Gauza asko, mutil. Esate baterako, hortzak atera.

—Hortzik eza aski motibo litzatekeela uste duk?

—Bai horixe.

Zerbaitegatik pentsatze hutsak ere horzkidura ematen zion eta bi bider pentsatzeko utzi gabe, etxera joan eta horzak errezkadan erauzi zituen. Hura zuloa gelditu zitzaiona ahoan.

Herrian eta inguruetan laster famatu zen kasua. Hori duk hori norkbereari hortzekin eustea.

Eguna heldu zen eta deitu zioten kaxara. Mutila seguru eta lasai zihoan. Mediku azterketa egin zioten eta parte ofizialak zioen:

—Libre. Oin Planuak.

209 IZARRAK ESKUETAN

Inork ez du astrologian sinesten, baina milaka dira izarren predikzioekin larri dabiltzanak. Orain astrologiako sinestunek edo zaleek, behintzat, beren kontura horoskopoa egiteko, prebisioak, datak eta abar jakiteko modua dute. Eta dena norbere etxean, egunkarietara edo herriko astrologoengana jo gabe.

Amerikan, putzarekin ere, negozioa egingo lukete eta Connecticut-go marka batek bateriazko tresna bat plazaratu du. «Zodiako-Astro konputagailua» izenekoa. Tresna automatiko honek kalkulagailu baten antzera funtzionatzen du eta eskuz maneiatzekoa da. «Zodiako» delako horrek honelako galderei erantzun liezaieke: Egin dezaket bidaiarik gaur? Egun ona ote da bihar soldataren igoera eskatzeko? Ikusi dezaket neure maitea?

Erantzunak, formula astrologikoetan oinarriturik datoz, eguzkiaren, ilargiaren eta izarren egoera kontutan harturik. Baita norbere datu pertsonalak ere, hala jaiotzeguna eta toki eta horrelakoak.

Ba dakizu. Dolar batzuren truke izarrek sakelean erabil ditzakezu. Kontuz, ordea, bihotzetik sakeleratzean, izar itzialak gerta ez daitezten.

210 STRESSAK INPOTENTZIA DAKAR

Ba da gero eta gehiago entzuten den hitz ingeles bat. Stressa delakoa da bera. Hitz honek urduritasuna, bizitza azelera-tuaren larritasuna esan nahi du. Gero eta maizago gertatzen da, harreman sexual normaletarako gai diren gizonezko gazteek, orgasmoa nekezago lortzen dutela.

Doktore aleman baten ustez, gaur egungo gizarteriak dabilen martxako konpetentziak eta stressak dakar hori. Eta gizonezko potenteengan orgasmoa gutxitu ez ezik, inpotentzia osoa ere ekar lezakete stressak eta beste eragin sikikoek.

Bestalde, emakumeei gagozkiela, eta Cambridge-ko unibertsitateko endokrinologo baten ustez, langintzako stressak eta etxeko ardurak omen dira giza hormonon gehierazleak. Hortik dator lanbide edo profesioaren batetan diharduten emakume askoren maskulinakuntza, edo, lehenago esango zuten bezala, «marimutiltzea»: abotsa sendotu, paparrean eta sabelaldean biloa hazi eta abar.

Honekin ez da, inola ere, emakumearen profesionaltzetik kritikatu nahi, gaurko gizarteko lanbide batzuetako kondizio txarrak salatu baizik.

211 KAFEA GALTZERDIAN

Medikua, apeza, sekretarioa eta horrelako batzuek ehizara irten ziren. «Herriko indar biziak» esaten zaienak. Ordu batzuek mendian zehar egin ondoren, euriak eman ziren eta base-rri batetara jo zuten goizeko hamarrak aldean, beren eskopetarik bizkarrean. Zakurra zaunkaka eta etxeoandreak:

—Ene jaunak, nola hemendik? Busti behar duzue. Sartu barrura.

Sartu ziren eta etxeoandrea hamarretakoa zerbait prestatzen hasi zen. Sukalde iluna zen, beltza ere bai tarteka, keak aspertua gero ere kanporako bidea nekez aurkitzen

zuen. Baina txorizoak bikain zeuden. Ardoa ere bai. Hura zen muturrak eta hatzamar puntak miazkatu beharra. Eta berriro txorizoak. Emakumeak frijitu ahala, nagitasun handirik gabe sartzen zen zintzur haietan behera. Hitz batez, ederki jarri zirela herriko indar biziak edo herrian bizitzen dakiten indarrak.

—Kafetxo bat egingo bazenigu, etxeoandre.

—Bai horixe.

Emakume gaixoak laster egin zuen kafea lapiko beltz handi batetan. Medikua eta konpainia harriturik gelditu ziren kafea iragazteko galtzerdi bat zerabilela ikustean.

—Kafea galtzerdian? —galdetu zuen medikuak.

Etxekoandreak erantzun zion:

—Berdin da, bestela ere garbitu beharra baitzegoen.

212 SUSTO GOGOANGARRIA

Ba zen herriko taberna-denda horietariko bat. Denetarik zen bertan, bakoitzetik askorik ez bazen ere. Taberna hari «Joxeparena» esaten zioten. Gizona mostradorean zebilen eta kanpotar neska-mutil bi sartu ziren. Mutilak esan zuen:

—Aizu, gizona. Nik Karlos Hirugarrena eta honek Marie Brizard.

Tabernari gaixoa nora ezean gelditu zen. Bikote ezezagunari pixka bat begiratu ondoren, sukaldera joan zen eta andreari esan zion:

—Joxepa, hauek izen-abizenak hartzen ari dira.

Senar-emazteak mostradorera atera ziren eta gizonak esan zuen:

—Ni Felipe Ugartetxea eta hau Joxepa Gartziarena. Zer behar duzue?

Mutilak berriro ere:

—Nik Karlos Hirugarrena eta honek Marie Brizard.

—Ba, guk esan dizueguna eta hemen ez da besterik inor bizi.

—Atera orduan Terry bat eta Anis bat.

Edan zuten, ordaindu, eta aldegin zuten neska-mutilek.

Gizonak esan zion andreari:

—Horrelako sustoa, kopa bana edanda joateko?

213 AUTO STOPZALE BERRIA

Mutil bat bere kotxean zihoan bide luzean. Joan eta joan, bide bazterrean neska bat erreparatu zuen, bere bidean aurrera zihoala. Frenazo bat eman zuen eta:

—Kaixo, neska. Ba zatoz nirekin?

—Nork esan dizu inora joan behar dudanik?

—Badaezpada galdetzen dizut.

—Erratu zara. Nik ez dut stopik egin.

—Neuk egin dizut, ordea. Kotxedunak ez du, bada, stop egiteko eskubiderik?

—Eskubidea izango duzu, baina lotsa askorik ez. Nahi badut eskatuko dizut.

—Koino! Beraz, zuk «eramango nauzu» eskatzea ondo dago eta nik «eramango zaitut» eskaintzea lotsagabekeria.

—Esan dizut, joan nahi dudanean neuk eskatuko dizudala.

—Zer axola du goilara ahora nahiz ahoa goilarera eraman?

—Esan dizut nik ez dudala inora joan beharrik.

—Hortik hasi bazina, bukatu genukeen komedia hau.

—Nor hasi da, ordea, hemen?

—Ikusten denez, neuk egin behar dut dena, hasi eta bukatu. Agur.

214 ORDUA ETA KANPAIAK

Gizona tabernatik etxera zetorren. Berandu, noski, edo ez andreak nahi bezain goiz. Kontuz kontuz sartu zen etxean. Ate madarikatuei, beti bezala, biharamunean olioa ematea erabaki zuen. Soinekoak ustez kurioso erantzi zituen eta bazihoan ohean sartzera inor ohartu ez zelakoan. Andreak, ordea, non galdetzen dion:

—Zer ordu da?

—Hamabiak hamar gutxiago.

Handik berehalaxe, kanpaiak tan-tan ordu biak jo zituen.

—Ordu biak? —hots egin zuen andreak.

—Zer, ba? —erantzun zuen gizonak. Hamabiak hamar gutxiago zenbat dira, ba?

Gau hura hartan pasatu zen eta hurrengoan ere atea oliotuta gabe zeuden. Era berdinean eta ordu berdintsuan etxeratu zen gizona. Oheratu zen eta andreak:

—Zer ordu da?

—Hamarrak.

Handik laster kanpaiak jo zuen. Ordu batak.

—Hamarrak eh?

Gizonak orduan:

—Zer nahi duzu, ba? Zero ere jotzea?

215 ADIMENA HEREDAGARRIA DA?

Aspaldiko eztabaida dugu hau. Zerk egiten du gizona, zerk eragiten dio gizonari? Bere aurrekoen odolak ala hartzen duen hezkuntzak? Beste era batera esanik, listotasuna berezkoa edo herentziazkoa da ala bizitzak eta inguruak ezartzen diona?

Adimena heredagarria baldin bada, etnia batzu beste batzu baino goragoak direla aitortu behar. Berezko desberdintasunik ba dela aitortu behar. Teoria honekin ari da «eskuin berria».

Wilson, joera honetako soziologoaren ustez, genek osoz esplikatzeko dute gizonen eta abereen portaera. Geneak etengabe bere garaipena, bere ugalmena nahi du eta horretarako bere estrategia berezia du. Honela indibiduoak bere antzeko genik gehien daramanaren alde joko du beti. Familia, neba-arrebak, lehengusu-lehengusinak, eta horrela klana edo aberria. Hitz batez, arraza.

Wilsonen ustez, zerk ulerkaitzena ere ulergarri da genaren estrategia deszifratuz gero. Horrela nondik dator arren nagusitasuna? Nondik arraren poligamiara joera? Ahalik gehien ereitea interesatzen zaiolako. Biolentzia? Wilsonek, Konrad Lorenz-en kontra, ez du berezko portaera agresibotant sinesten. Gerra ez da «genen burruka» besterik eta ez indibiduoena. Bakea eta elkar laguntza, berriz, paktu bat. Gaur nire alde, bihar zure alde... Nire geneek behar bazaituzte. Teoria honek badu alderantzizkoa ere.

Aparte eta inguru sozial-kultural desberdinetan hezitako bi bikirengan esperimentuak eginik, koefiziente intelektuallean alde handiak ikusi dira.

Subelikadura apur batek bere eragina du eta elikadura txarrek zer esanik ere ez, epe laburrera igartzen ez bada ere. Eta eragin horiek transmititzekoak dira. Ez genez edo genetikaz, baizik soil soilki haur gaizki elikatuak, adimen gutxiagokoak ez duelako bere ondorengorik ondo elikatzen jakingo.

Indibiduoaren tailua eta haren zerebroko zelulen kopurua amak hartzen duen janarien kantitate eta kalitatearekin estuki loturik dago. Subdesarrollo intelektualaren geografia munduko maparena bera izatea ez da kasualitatea.

Gaur egun gauza jakina da haurren «hazieran» bi aldi kritiko daudela zerebroko zelulei buruz. Bat haurdunaldiko bostgarren astetik hogeigarrenera. Bigarrena haurdunaldiko hogeita bostgarren astetik jaio ondoko bigarren urtera. Tarte hauetan haurrak kalitatez eta kantitatez nahiko janari hartzen ez badu, haren adimenik ez da sekula osoki garatuko.

ILUNETAN ARGAZKIAK ATERA

Edozein gaik edo gorputzek, berotutakoan, izpi infragorriak botatzen ditu. Izpi horiek gizonen begiari ikustezinak zaizkio. Gai berotuak izpi infragorriak botatzen dituela, duela mende eta erditik ere ba genekien. Baina izpi horiek harra-patzeko (termobisoreak) egitea oraintsuko kontua da.

Begira nolako ustekabe bitxiak gertatu ziren. Lagun bat gela guztiz ilun batetan fotografiatu zuten. Lagun horrengandik hamabosten bat metrotara termoikuskailu bat zegoen. Honexen pantailatik atera zuten argazkia. Ilun ilunetan ateratako argazkia. Baina orain dator nobedade nagusia.

Laguna gelatik irten eta handik hamar eta hogeit hamar minututara toki hura, laguna egoniko toki hura, berriro fotografiatu zuten. Argazkietan lagunaren zilueta argi-argi nabari zen. Hogeita hamabost minutu pasatu behar, zilueta hura ezabatzeko eta galtzen hasteko.

Izpi infragorritz eta norbera ez dagoela, hogeit hamar minutu pasatu eta gero argazkiak atera ahal badira, ez ote dago beste zer-bait hogeit mila urtetara ere ateratzekoa? Bai segur asko. Baina aurkitu egin behar.

ZIKINA ETA ZIKINAGOA

Soldadu zegoen mutila. Joan aurretik ere bazuen garbitasunari errentarik ordaintzen ez zion fama. «Soldadutzan bestela ere zikinetik hobeki egoten baita jainkoaren graziatik baino, mutilak ez zuen lehengo famarik asko hobetu.

—Zuek garbitzen galtzen duzuen denbora —esaten zuen— nik, huraxe gehiago lo egiteko.

Zikinago eta sanoago, hura ez zegoen izorratzerik. Behin, ordea, atzean min zuen. Joaten ez zitzaion mina. Galtzak

jaistea purgatorio garbia zitzaion, batez ere koartelean izaten diren komenentziakin. Almorranak zirelakoan, medikuarengana apuntatu zen. Bueltan lagunek galdetu zioten:

—Zer esan dizu medikuak?

—Ipurdia garbitzeko.

Koarteleatik hurbil, taberna moduko bat zegoen. Hara jozten zuten soldaduek. Gure mutilak galtzontzilorik ez zuen garbitzen. Eratarra lehenbizi eta alderantziz gero, aspertu arte erabili ondoren, bota egiten zituen taberna ondoko zikindegira. Behin lagunak sartu ziren tabernan. Batek eskuak garbitu zituen eta lehortzerakoan, botoi bat somatu zuen hatzamarretan. Bestearen galtzontziloak ziren, tabernako nagusiak zikindegitik jasoak. Eta soldaduak, nagusiak entzuteko moduan, esan zuen:

—Aizu. Hemen daude zure almorranak.

PREZIOEN TERRORISMOA KOSTALDEAN

Aurten gutxiago bada ere, hamaika udazale badoa eta joana da Valentzian, Alikanten eta Malagan zehar. Valentziako eta Alikanteko udazaleentzat terrorismorik handiena prezioak omen dira. Eta aurrera zenbakiak, horiek baitira argienak.

Madrilgo eta beste hirietako kafetegietan, ehun edo ehun eta piku kostatzen zaizun hiru zaporetako izotz kopagatik, Altean berrehun eta berrogeita hamarretik gora eskatuko ditzute. Nekazariari hamazazpi pezeta ordaintzen zaion meloia hirurogeita hamar edo laurogei pezeta ordaindu beharko duzu.

Era berean, pepinoak Madrilgo azokan lau pezeta eta kostaldean 44; sandiak seitik hogeita bostera jasoko dizkizute.

Berengena hogeitik laurogeira. Uhazak bost edo zazpitik hogeita hamarrera. Eta honela edo honelatsu doaz gauzak kostalde eguzkitsu horretan.

Zer egin? Non ote dago prezioen kontrola? Okerrena, kontrolatuz gero, ostalaritza bikutara doala. Horrek esan nahi du negozio horren oinarrietariko bat lapurreta dela. Eta orain gainera krisisa. Golkoa bete intxaur eta bizkarra bete ogi hartu eta Aralarra joatea onena.

219

EZ DUTE EZERGATIK HIL NAHI

Ba dira honelako esaera topikoak:

«Polizia baten ohorerik handiena aberriagatik hiltzea da».

Baina, gero eta argiago dago, poliziak ez duela ezergatik hil nahi eta guzti hori ministroen eta generalen berriketa marroa dela.

Murtziako goarnizioko hogeita bost polizia espedientuak izan ziren, Euskadira aldatuak lagunak etxekoen manifestaziorik desegin nahi ez izateagatik. Zigortzat Espainia guztian sakabanatu zituzten. Sevillatik Iruñera aldatuak berrogeita sei polizia isilpean atera behar izan zituzten polizia andaluzen etxekoen manifestazioa ebitatzeagatik. Sevillako poliziek indar polizialen laguntza eskatu zuten lekualdatzeen kontra. Honelako gauzak ugari gertatzen ari dira. Poliziek eta goardia zibilek, gero eta oztopo gehiago jartzen dute Madrilerara eta Euskadira joateko, batez ere.

Madrilen, atentatuz hildako polizia baten hiletan, emakume batek esan zuen:

—Onena gauzak hartu eta geure herrira itzultzea. Molda daitezela ahal duten moduan.

Gobernuak gero eta eragozpen gehiago du polizia berriak errekutatzeke. Zer egin? Soldadak jaso. Eta hor doa gure errenta nazionalik erdia. On egin.

220

DON BALDOMEROREN ARDURAK

Duela urte mordoxka, ba zen Gernikan apez bat inguru guztian entzutetsu bilakatu zena. Don Baldomero zuen izena eta haren pasadizoak, gaur ere, erregearen diskurtsoak baino gehiago estimatzen dituzte gernikarrek. Konfesonarioan jende asko izaten zuen beti. Behin, burua atera zuen eta oraindik errekada amaigabea ikusi zuen bere zain. Beste konfesonarioak erdi hutsik eta jendea esaten hasi zen:

—Zoaz hara, gizona, han ere Jainko bera baitago. Zoaz hara, andretxoak. Han ere entzungo dizute.

Eseri zen berriro eta, hain suertez, itsu bat etortzea gertatu zen, laguntzaileak besotik zekarrela. Don Baldomero, bi gizonak hurreratzen ikusi zituenean, haserrez esan zuen.

—Lehen jendea kendu ezinik eta orain binaka zatotze?

Itsu gaixoa oztopatu zen eta konfesionario ertza jo zuen. Gure Don Baldomero, gero eta haserreago zihoan bere kaioan eta hots egin zuen:

—Estraminarik apurtu gabe.

—Barka, jauna, itsua bainaiz.

—Itsua? Eta beste hori?

—Hori neure laguntzailea, jauna.

—Ba, hurrengoan zure bekatuak berak ekar ditzala eta zu etxean geld.

221

MEDITERRANEOKO AZKEN PIRATA

Juan March Ordinas, March taldearen sortzailea, Mediterraneo azken pirata eta handiena. Beste talde kapitalista batzuek lurdunen eta burgesen aliantzetatik datozen bezala, March taldea hutsetik hasi zen. Tabako kontrabandotik hasi

zen dena. Gero bikoka nagusia Primo de Riverari eta Franco-ri emaniko laguntzen kobrantza izan zen. Munduko lehen gerran ere bere parte ederra izan zuen alemanen alde.

Pentsa nolako morala duen pirata honek Marokkoko gerran, hogeigarren urte inguruan bi bandoei gerragaiak hornitzen zizkien, Marokkotar independentistek eta Espainiako armadari. Baita irabazi gizenik atera ere. Negoziorik gordine-na ordea, Algerian eta Marokkon tabakogintzak jartzea izan zen. Hura zen gero kontrabandoa Espainiara eta afrikar kolonietara.

Nor zen pirateria etengabe hau sortu zuen izen famatu hori? Mallorcako abeltzain baten semea eta kontrabandista txiki baten iloba. Hori duk igoten jakitea.

222 ESKUINDARREN NEGOZIOA ARMEN SALMENTA

Espainiako bankari aristokrata, enpresari, exekutibo eta funtzionari nagusiak diktadurei armak saltzen ari dira. Sarritan gure dirudunak armen trafikari baldar bihurtzen dira, Espainiako portuetatik Hego Afrikara, Rhodesiara, Argentinara, Txilera edo Israelera armak bidaliz. Eta negozio biribila.

Somozak Madrilgo Getafeko langileek eginiko hegazkinak erabili ditu. Hemengo Lan Roverrak, Saharan zehar dabilta polisarioen ehizan. Arma trafikari nagusia, beharbada, «Barreiros y Hermanos» delakoa da. Honek hamaika gerragai bidali die Amerikako, Afrikako eta Asiako diktadurei. Ingelesek aurkituriko «Allul» untxiaren kasuak ederki nabarmendu zuten enpresa honen salerosketa izugarria.

Nortzu daude hor? Espainiako eskuin dirutsuak. Dirua helburu nagusia omen bada, nola ez dira deskoidatzen diktaduren kontra ari diren iraultzei ere saltzen? Diruak ere bere lege eta aliantza bereziak ditu.

223 ERRESPETUKO BIZARGINA

Bi mutil elkarrekin soldadutzan zeuden. Bata beteranoa zen eta bestea berri samarra. Berriak, jai batzutan etxerako baimena zuen. Besteak bertan gelditu behar eta esaten zion:

—Geldi bertan. Etxean zer egin behar duzu bada?

—Ez. Etxera joan behar dut. Bizar makinarik ere ez daukat hemen eta hau ez da patxada.

—Bizarra kentzera etxera? Ba da bertan ere bizargin bat, mutil.

Azkenean gelditzea erabaki zuen mutilak. Bizargina koartel ondoko etxe zahar batetara joan zen. Gizona otarre bat bizkarrean zuela aurkitu zuen. Otarrea lurrera bota eta agindu zion:

—Eseri hor.

Mutila otarrean eseri zen eta laster itzuli zen gizona bere xaboiz eta labainez. Bizarketa aurrera zihoala, gizonak xaboiari plif eta plaf ttua egiten zion. Soldadua isilik zegoen. Nork esan zerbait hari? Nola edo hala bizarketa hura bukatu zen eta bueltan lagunari esan zion:

—Nolako bizarginarengana bidali nauzu? xaboiari ur orde, ttua egiten zion.

—Arraioa! —esan zion beteranoak—. Zurekin oraindik konfiantzarik ez duelako. Guri aurpegira botatzen digu.

224 NOSTRADAMUS IGARLE OSPETSUA

Probenzako Salon-de-Crou hirira doanak nondik edo handik Nostradamusen izena entzun beharko du. Astrologo ospetsu hau hamaseigarren mendean bizi zen eta medikua zen. Hiriko elizetariko batetan duzu haren hilobia, enparantzan jaso zioten irudia kamioi batek eraman bazuen ere. Nostradamus hau gizon bitxia dugu. «Igarpenak» eta «Zenturiak»

izeneko liburuen egile honek Enrike II.ren heriotza eta Frantziako geroko erregeen izenak iragarri zituen. Baita igarri ere Parisen, erregeek deiturik joanda hezueriz zegoela, gorte guztia joan omen zitzaion ikustera.

Mendeak aurretik, Frantziako iraultzaren data iragarri zuen, Napoleonen aginpideratzea, munduko gerra bien datak eta, dirudenez, etortzeko den hirugarrenarena ere bai. Apokalipsiko Armagedon gudua, munduaren azken aurrean, Behe Rhodanoko lurralde hauetantxe gertatuko zela iragarri zuen. Hori igarri zuen ala ez jakiteko, modurik apenas izango dugu guk Astrologoek eta sikiatrek bat egiten dutenean, hamaika nobedade entzun behar dugu.

225

LUZIO ARROLA

Luzio Arrola gizon ikaragarria zen. Mendararra jatorriz, Bizkaiko Nabarnizko Arrola baserrira ezkondu zen. Arrola mendian goi goiko baserria da. Luzio Arrola hiru kintaletik gorako gizona zen. Bertsolaria bera eta kontulari aparta, Gernikako astelehenetan hamaika jende inguratzen zitzaion. Behin batek galdetu zion:

—Zer Luzio? milioi pare batekin bizi liteke?

—Hara, bada —erantzun zuen gizonak— Hamar milioiduna ere hor hil da lehengoan.

Luzio Arrola gaztaiekin Gizaburutik zehar Lekeitiora pasatzen zen hiru-lau ordutako bidean. Gizaburuko tabernan koartilu bat ardo eskatu eta han zegoen atea betean kamino-ra begira. Berez hain handia izanik, galtzak bere dobleko nasaiak erabiltzen zituen eta pentsa nolako itzala. Gizaburutar batek esan zion:

—Kaixo Luzio. Nola jiratu dituzu galtza horiek?

—Hara, bada —berriz ere Luziok—. Amak egin zizkidan txikia nintzanean, handia haziko nintzelakoan.

Handia zen, baina hil zen hura ere. Haren hileta egunean ba zirudien herria hutsik gelditu zela.

Baina kanposantua beterik.

226

ANIMALIEN BARRUAN IMANA?

Bakteriak organismo txiki txikiak dira, zelula bakarrekoak. Bakteria batzuk beti Iparrerantz jotzen dute. Zergatik ote da hori? Konpas txiki-txiki bat daramate barruan eta honekin orientatzen dira lurreko kanpo magnetikoan zehar. Hori aurkitu berri du Frankel doktoreak Massachusettsko institutu teknologikoan. Bakteriek berek sintetizatzen dute konpas hori. Eta konpasa magnetitaz eginda dago, hau da, burdinez eta oxigenoz. Horrexek ematen du imana edo magnetismoa.

Aurkikunde honen garrantzia honetan datza. Abere mota bat bada, behintzat, kanpo magnetikoa barruan etengabe daraman konpas batez somatzen duena eta ez hartarako instinto bereziren batez. Eta hortik hurren galdera: beste abere mota batzuk ere ez ote dute honelako konpasik?

Baietz esan liteke, zeren ikerlariak aspalditik aurkitua bait zuten magnetita hori usoen buruan eta erleen sabelean. Frankelen aurkikunde egiaztatzen bada, usoa, erleak eta abar eguzkitik orientatzen diren hipotesia aldatu egin behar. Bakterien kasuan konpas honen Iparra bakterien buruan dago. Horregatik jotzen dute beti Iparrerantz.

Gauza xebreak gertatzen dira mundu txiki horretan.

227

AMERIKANOA KONFESATZERA

Bizkaiko Lea Ibarreko herritar bat Ameriketatik itzuli zen, hamazazpi urte bertan eginik. Gizon sendoa eta braboa bera, Amerikaldi guztian egin gabeko lan bat egitea pentsaturik, Lekeitiora joan zen konfesatzera. Ohitura galdurik eta ingurua ilun, konfesonarioan aurrera samar sartu zen, «Ave Maria Purisima» esanez. Apezak esan zion:

—Ooo! Noraino sartu behar zara, gizona?

Gizonak atzerantz egin zuen eta apezak orduan:

—Zoaz orain aldare nagusiraino.

Hasiera bikaina. Gizonak bere lekuan zentratzea lortu zuenean, berriro esan zuen:

—Ave Maria Purisima.

—Hori esan duzu lehen ere.

—Galdetu orduan berorrek.

—Zenbat denbora duzu konfesatu zarela?

—Hamazazpi urte, jauna.

—Hamazazpi urte? Ezagun duzu, bai, tankeran ere.

—Ameriketan izana naiz, jauna.

—Ameriketan ez zen, bada, Jainkorik?

—Behar luke.

—Behar luke diozu? Nongo dotrinara ibili zara zu?

Gizona leporaino bete zen eta konfesonarioari bi eskuekin heldurik, esan zion:

—Begira, jauna. Ameriketan ba zen, bai, Jainkorik, baina ez zen astorik. Eta nola karga handi samarra nuen, asto handi bat behar nuen eta horrela etorri naiz berorregana.

228

TXAMULEN ERLIGIO HARRIGARRIA

Mexikon hirurogei talde etniko baino gehiago dira. Ba dira hirurehun hizkuntza desberdin eta bost milioi bizilagun oraindik gaztelaniaz ez dakitenak. Konkistatzaileak lur haiek inbaditzean, azteken bertso batek dio:

«Gure Jainkoak hil badituzue, hil gaitzazue gu ere».

Okantzalak izeneko beste talde batetan, denek batera suizidatzea pentsatu zuten eta amildegi batetan behera bota zituzten beren buruak. Lokandoiak izeneko beste talde batetakoak, espainiar uztarritik ihesi, urrutiko oihanean ezkutatu

ziren eta han egon dira hogeigarren menderarte zibilizazioarekin harremanik txikienik gabe.

Mexikon katolikotasuna indartsu errotu zen. Baina talde bakoitzak bere tradizio zaharrak azalean daramatza. Txamulen kasua harrigarria da. Katolikoak izanik, ez dute apezpikurik ez apezik onartzen. Han elizetan argazkirik ateratzen deskoidatzen denak bertan utziko du larrua. Lagun bat fotografiatzea arima ohostea dela uste dute.

Santuek berek ere kontuz ibili beharra dute han. Santuek ba dute, bai, gizonak zigortzeko edo saritzeko eskubidea. Baina ondo portatzen ez badira, beraiek ere zigortuak izango dira. Horrela eliza zokoetan santuen irudi beztuak ikusten dira, txamulen batzarreak beren erruak nahiko ordaindu dituztela erabaki arte. Komunitateari txarrik gertatu bazaio, santuren batek kontu zorrotzak eman beharko ditu.

229

IDILIOTIK TRAGEDIARA

Bazen garai bat indio arawakoak basati otzantzat, gizaki mantsotzat jotzen zituztena. Konkistatzaileak heltzean, arawakoak erregaluri onenak egiten hasi ziren. Karibetarrekin etengabeko gerra zerabilten eta europarren laguntza ederki etorriko zitzaizela uste zuten. Gaztelarrek ere hasieran ba zuten kortesiarik ugari. Hauetako urrea bilatzeko eta ateratzeko indioen laguntza komeni.

Hasierako idilio hura, ordea, laster hasi zen tragediaratzen. Gaztelarrek india alfertzat, tripazaitzat eta nazkagarritzat jotzen zuten. Ezin zuten ikusi nola armiarmak eta sugeak hain gogoz jaten zituzten, nola sodomia eta idolatria hain maite zuten, nola antropofagiak hainbeste indar zuen eta batez ere nola urrea ateratzen gehiago laguntzen ez zuten.

Indioentzat, ordea, europarrak ezjakin hutsak ziren. Ez zekiten mandioka bezalako janari bikaina zer zen ere: ez ze-

kiten hamaken berririk ere. Eta zentzugarabekeriarik handiena haien urrezaletasuna. Zertarako nahi zuten ezertarako balio ez duen urrea? Zertarako hainbeste lan eta kalamitate bitxikeriatzat eta apaingarritzat baizik balio ez duen gauza bat ateratzeko? tragedi kanpaiak hasi ziren eta oraindik bukatzeko daude, indioen zorigaitzerako.

230

OILARRA ERLOJU

Baserriko etxagun batek morroia behar zuen eta mutil bat azaldu zen baldintzak jakitera. Jana, jantzia eta soldata pixka bat, zen ugazabaren eskaintza. Morroia konformatu zen, baina zenbat lan, zer ordutan jaiki eta horrelakoak garbi utzi nahi zituen. Ugazabak esan zion:

—Lana, baserriko lan normala. Hemen zer martxa dugun ba dakizu. Goizean jaikitze hori oilarrak erabakiko du. Hori xe da gure erlojua, udan goizago neguan beranduago.

Morroia konformatu zen. Biharamunean oilarrak jo eta gora. Egunetik egunera, ordea, oilarrak gero eta goizago josten zuen, normalean beranduago jo behar zuelarik, udazkena baitzen.

—Aizu, nagusia. Oilar hori ez da eguzkiarekin aldrebes ari?

—Oilarra nonnahi da oilarra. Erloju horrek ez du hutsik.

Zer gertatzen zen? Ugazabak gero eta goizago jaiki eta oilarrari argia bat pizten zion. Oilarra, nagiak atereaz, berehalaxe hasten zen kukurrukua, egunsentia zelakoan. Ah, bai? Biharamunean morroiak kukurrukuaz batera jaiki, joan eta oilarrari lepoa bihurtu zion. Ugazabak esan zion:

—Zertan ari zara, mutil?

—Erlojuari kuerda ematen.

Haren hurrengo kukurrukua entzuten duena ez da gorra.

231

KARIBETARRENTZAT EUOPAR LOTSAGARRIAK

Karibetarrak oso gogorrak eta basatiak omen ziren. Bestalde, herrietako gizonik bizirik harrapatzen bazuten, haragi probisiotzat eramaten zuten. Hilda bazegoen, berehalaxe jaten omen zuten. Gauza hauek konkistatzaileek esanik dakizkigu eta horien esanekin ere ezin urrun joan. Etsaien ahotik etsaien txarrik, kontuz sinetsi.

Baina etsai batek —kasu honetan konkistatzaileek— etsaiengatik onik badio, sinesgarri izango da. Eta duela pare bat mende honela ikusten zituzten karibetarrak.

«Ez dago munduan —diote— karibetarrak baino independentizale amorratuagorik. Honetan ezin dute irristadarik txikienik ere jasan».

Eta hau da harrigarriena. «Europarrek —dio kronista batek— beren nagusiei erakusten dieten lotsa eta deferentziak ikustean, higuina hartzen digute. Esklabo zitaltzat arbuia-tzen gaituzte. Ezin dute ulertu nola gizona bere kidearen aurrean makurtzerainoko doilorra izan litekeen».

Hori egia bada, karibetarrak ez ziren hain basatiak. Bai, ordea, lotsagarriak europarrak.

232

EZ TXORIZORIK EZ ARRAULTZERIK

Ba zen Gernikan Marino izeneko pelotari bat, pelotan bezain abila beste zenbait gauzatan ere. Perretxiko eta horrelako edozerzalea zen gizona eta hala joan zen behin beste lagun batekin. Lagun hura lehenago Gernikako taberna batetan kamareru egona zen. Zakukadatxoa batu zuten eta Gernikan gau berandurarte tabernarik tabernara ibili ondoren, gosetu ziren.

—Aizu! Zerbait jango bagenu zer?

—Ordu honetan nora jo, ordea?

—Egon —esan zuen lagunak—. Neure lehengo tabernara joango gara.

Taberna hartako nagusia, andreak aldeginde zegoen. Zurrumuroak behintzat hala ziren eta ba ziren egun batzu andreak etxerik zapaldu ez zuela. Jo zuten atea, tabernariak leihora atera zuen burua eta:

—Zer behar duzue.

—Ireki atea. Zerbait jan behar dugu.

—Ez daukat ezer, ordea.

—Txorizoak eta arraultzak edukiko dituzu.

—Ezertxo ere ez.

—Nahi duzu arrazoi bat? —bukatu zuen Marinok—. Ez txorizorik ez arraultzerik ez baduzu, ondo egin dizu andreak.

233 INSPIRAZIOAREN ERAGILE USTEGABEAK

Inspirazioa ez da goitik behera datorrena. Baina bai huskeria batek edo usterik gutxieneko zerbaitek iratzar dezakeena. Musikagile handien zenbait pieza ospetsuk eragile xelebrea izan dute.

Mozarten «Xirula magikoa» izeneko estreinuaren azken entseiuari, eskenako zuzendaria ez zegoen konforme pasarte batekin.

—Konpas batzu behar dira hemen —esan zion pianoan eserita zegoen Mozarti.

Honek pixka bat kontzentratu eta berehalaxe idatzi zuen zerrenda bat. Eta horra nola sortu zen «Apezen Ibilaldia» izeneko melodia bikaina.

Beethoven bere ohiko tabernara joan zen gosaltzera. Koadernotxoa atera eta zirriborro batzu arrapatuta idazten hasi

zen. Zerbitzariak hura hala ikustean, ez zuen molestatu nahi. Ordubetera Beethovenek hots egin zuen:

—Zerbitzari, kontua!

—Baina jauna, ez duzu oraindik ezer eskatu

—Orduan zeri begira zaude? —esan zion zorrozki Beethovenek—. Ekar ezazu zerbait jateko eta utz nazazu bakean.

Chopin, barreka ari zen txakur txiki bat bere buztanari hozka eta zilipurdika ikustean. Bat batean, isildu, pianora joan eta konpas batzu jotzen hasi zen, bere valsik famatuenera bat sorturik. Eta horrela beste anitz kasu.

234 BEROAREN AURKA EBAPORAZIOA

Airea gorputzeko tenperaturaz goitik dagoenean, ugaztunak gehiago berotuko lirake, berehalaxe ebaporazioak hozterik ez balekar. Ebaporazioak beroa absorbitzen du eta beraz hoztea dakar. Izerdiaren eginkizunetarik bat horixe da hain zuzen. Ez bakarrik gorputzeko zikinak, toxinak eta abar kentzea. Temperatura neutralteza ere bai. Izerdirik isuriko ez bagenu, beroak kalteak egingo lizkiguke. Zer da hoztu behar dena? Odola. Hori da gorputzeko erregaketa. Odol beroak zerebroa berehalaxe hondatuko luke.

Beste sistema bat arnastua da. Txakurrak, adibidez, zergatik gelditu daudela ere arnastuta ari izaten dira? Arnastua ez da nekearen ondorioa bakarrik. Arnastudun animaliarik gehienak aho eta sudur aproposak dituzte ebaporaziorako. Leku handiak eta hezeak dituzte, baita zain-arterien konexio asko ere alderdi horretan.

Beraz odol jario asko harrapatzen du. Sudur zuloetan likido bat segregatzen duen glandula bat dute. Ahoan ttua da likidu segregatu hori. Hortik aurrera ebaporazioak egiten du dena. Horrexegatik lehortzen du beroak ahoa, ttua ebaporatzen delako. Eskerrak, ordea, ttua ebaporatze horri, beste la burua itoko bailiguke beroak.

Ba zen gerra ondoan bizkaitar pelotari bat Marino izena zuena. Haren entzuteak Gernikaldean bizirik dirau, pelotari gisa baino gehiago bestelako gertaerengatik. Arrantza-zale handia zen Marino. Bere butroi, sare edo kanaberaz, erreka bazterrek ba zekiten haren berri. Hala ari zen behin eta ez zuen ezer harrapatzen. Apeza ondotik pasatzea gertatu zen eta galdetu zion:

—Zer, Marino, ba da zerbait?

—Ezer ere ez.

Apezak ez bide zuen beste lan handirik eta han zebilen inguruan atzera eta aurrera eta berritsu. Gerotxoago ere galdetu zion:

—Ez da ezer erortzen?

—Ez jauna. Itxura denez, berori hemen dabilela igarri dute eta ez dago zereginik.

—Beno, horregatik baldin bada joango naiz hemendik.

Apeza joan zen, baina handik lasterrera berriro agertu zen.

—Zenbat? —galdetu zuen apezak.

—Jainkotan aina.

—Tira, bada. Bat behintzat ba duzu.

Eta Marinok:

—Bat ere ez, jauna.

236 EHORTZALEA ETA EHORTZIA

Gerran kontu beltzak eta beltzena hiltzea. Etsaiei eusten aina lan omen zen hilak ehortzen. Kanpamentura eraman zuten bat eta medikuak hiltzat eman zuen. Han ez zen gaubelarik egiteko astirik eta ehortzeko agindu zuten, egunero hainbat bider bezala. Soldadu ehortzalea lurra botatzen hasi zenean, hildakoak zulotik esan zuen:

—Ai!

—Ai? Nik zer egitea nahi duzu, bada? —Eta lurra botatzen jarraitu zuen.

Frentean danbarrada trinkoa zebilen.

—Ai! Ez nago hilda. Bizi naiz.

—Zaude isilik. Medikuak baino gehiago jakingo duzu zuk?

—Mesedez. Ni ez nago hilda.

—Pazientzia. Laster hilko haiz.

Ehortsaleak lurra bota zion eta hilko zela uste dugu. Nork esanik jakin zen gertaera hau? Ehortsaleak berak esanik behar. Denbora aurrera zihoan eta gerra atzera. Biharamuneko eguzkirik ikusteko esperantzarik apenas zuen inork.

237

ESNE BIDEA ALA HAUTS BIDEA?

Izadian, unibertsoan, galaxiak daude. Galaxia bakoitzean milioika izar. Eguzkia izar erdizko bat izanik, begira zenbat planeta eta satelite dituen inguruan, gure lurra txikienetarikoa delarik. Unibertso harrigarrian bizi gara. Gure galaxiak Esne Bidea du izena. Galaxia hau espirala dela pentsatzeko arrastoak daude. Beste galaxia espiralak aztertzeke ere erreferentzia ona izan liteke.

Ez da, ordea, erraza gure galaxia estudiatzea. Eguzki sistema eta, beraz, gu Esne Bide espiral horren ertzaldean gaude. Hemendik espiralaren erdialdea ikusteko eragozpen handi bat dago. Zenbat eta erdirago hainbat hauts eta gas gehiago dago izar artean. Gure galaxiako ikerketa optikoa sei mila urte-argitara bakarrik heltzen da, hots, argia sei mila urtetan hel litekeen lekuraino. Gure galaxiak, ordea, ehun mila urte-argitako diametroa du. Kontuan eduki argiak segunduko hirurehun mila kilometro korritzen duela.

Hutsezko eta gasezko laino izugarri horiek direla bide, oraindik ez dugu gure galaxiarik gehienaren egitura eta konposizioa zehazterik.

Gure Esne Bidea hauts bidea baita gehiago. Amerikarrek hor ere hauts esnea egiten ez badigute.

238

ARGIA ETA BIZITZA

Eguzki sistema gure galaxiaren —Esne Bidearen— ertzaldean dago. Gure perspektibatik ikusten diren laino ilunak galaxiaren erdialdean daudenetarik apur batzu baizik ez dira.

Eguzki sistema galaxiaren nukleotik hurbilago balego, lur-reko bizitza arriskupean legoke, eguzkiak laino aktiboren bat jotzea errazago bailitzateke. Elkar jotze horrek eguzkitik lurrerako irradiapena motelduko luke. Beraz, lurrak argi gutxiago hartuko luke. Lurrean izan diren izotz aroak, hain zuzen, eguzkiak izar arteko laino horiekin topo egitetik etorri direla uste du zenbait astronomok.

Honela balitz, kontradikzio ironiko bat gertatzen da. Alde batetik hauts laino horiexek izan dira geroko izarren eta planeten sorterazle eta bestetik laino berak izan gero bizitzaren itzaltzaile. Lurreko bizitza, beraz, eguzkia galaxiako hautsalde nagusitik kanpo dagoelako da ala hori eta guzti ere?

Galaxiaren barne aldean izargintza edo izarrak sortzea askoz azkarrago ari da. Bizitza sortzeko probabilitatea ere, beraz, handiagoa da. Baina bai hauts lainoren bat jotzeko ere. Bietarik zein ote da efektu nagusia? Efektu hori funtsezkoa ote da? Oraindik ez dakigu. Oraindik aztergai da hori.

239

GAIZKI ESAN EDO GAIZKI ULERTU

Urte batez lagun egin ziren Urkiolan bi gizon. Orduan Urkiolara denbora pasatze hutsera nekez joaten baitzen, elkarri esan zioten:

—Zer duzu, bada, Urkiolara etortzeko?

—Ba dut behi bat azken bi urteotan txahalik egin nahi ez duena.

—Arraioa! Nik ere ba dut alaba bat duela bi urte ezkondua eta oraindik ez du umerik izan.

San Antonioren eskariak eta promesak bete ondoren eta pagopean bazkaldu eta egun ederra iragan ondoren, hurrengo urterarte elkar agurtu zuten bi gizonak, esanez:

—Ea nola portatzen zaigun San Antonio.

—Datorren urtean hitzegingo dugu.

Hurrengo urtean lagun zaharrak berriro bildu ziren Urkiolan.

—Zer moduz portatu zaizu San Antonio?

—Niri ederki. Behiak txahala egin dit. Eta zure alaba?

—Ez dakit, mutil. Edo neuk gaizki esan edo berak gaizki ulertu, alaba ezkonduak egin beharrean alaba ezkongabeak umea egin du gurean.

240

«ARKAKUSO» BAT BULARRETAKOAN

Haur asko ekartzea ez omen da soluzioa. Batere ez ekartzea ere irtenbide eskasa. Non dago bien bitartea? Nola geldierazi pendulua norberak nahi duen puntuan? Horra mundu honetako ardurarik handienetarikoa. Hor dira barauak, anti-sorgailuak, berezko zikloak eta mila sistema.

Ba zen Indian jaiotz kontrolako departamentuko zuzendari bat, inguruko familiarik ugarienaren aita izatera heldu zena. Nola, ordea, hori? Eta erantzuten zuen:

—Inor kontrolatzea errazago da norbere burua edo norberer hori baino.

Hona orain sistema berri bat aurkitu dutela. Arkakuso soil bat. Hamaika arkakuso ba zen gerra ondoren, hain zuzen haurrik gehien jaiotzen zenean. Arkakuso hau elektronikoa da. Ehundaka mila informazio daramaten semi-konduktooren txirlora horiek dira arkakuso berriok. Elektronikako asmakizunak.

Teknika honen oinarria aspalditik ezaguna da. Bularretako tenperatura obulazioarekin zerikusian dago. Baina termometroa ez da zehatzegia. Sarritan gainera ahaztu egiten da. Soluzioa «arkakuso» bat bularretakoan. Arkakuso hori bi argi txiki-txiki bizteko programaturik dago: gorria eta berdea, segun obulazioa posible den ala ez. Hauxe da ia-ia lortzear dagoen sistema bitxia. Non? Eskozian, Glasgowko uni-bertsitateko elektronikara sailean.

241

«EVE», BEREBILKUME BIRIBILA

Berebilkume berri bat asmatu nahirik dabilta. «Eve» du izena, frantsez hitz hauen inzialekin. «Elements pour une Voiture Economique». Berebil konpainiek projektuan duten berebilkumea dugu hau, konpainia hauen eta energia planen arteko kontratu baten gaia izan dena.

Zer dago hemen? Teknikaren etengabeko asma grina ala ameskeria bat? Energia kontua dago azpian. Eta hori dela bide, negoziarako beste patente bat. Berebil hau ez da batere jatuna edo tripazaina izango.

Jaiotzen denean, bere oraingo senideek baino %25 gutxia-kontsumituko du. Hori lortuz gero, pentsa nolako aurre-rapena. Beste alderdiren batetatik gakorik ez badu.

Laugurpildun berri honen apetitua gutxitzeko halako gai hauek erabiliko dituzte: aluminioa, aleazio arinak, eta plastikozko materialak, kiloak gutxitzeko. Eta elektronikara asko motorak behar beharrezkoa baizik gasta ez dezan. Eta azkez irudimen asko, kutxa aireinamiko honen barruan lau la-gun itxuraz moldatzeko.

Horrez gainera ertzak eliminatzea joko dute, haizearen ukitua arintzeko. Beraz, forma biribildua izango du. Derrigor batean (hau gure sugerentzia da) aldasbeheran behintzat bueltaka joateko modukoa. Zenbat kostatuko ote da auto berri hau?

242

TXIKIA BAINA BIZKORRA

Arratiako tranbia Bizkaian eta Euskal Herri guztian ere fatua zen. Ez da hainbeste urte kendu zutela. Arratiarrek, heste bat kentzea baino gehiago sentitu zuten hura. Zeanuritik Bilbora zen. Bidean nonnahi gelditzen zen eta batzutan behar ez zen tokian ere bai. Ibilpide eroso, ia familiarra. Eta beti beterik. Baina bai astiro ere. Hogeita hamabosten bat kilometro egiteko bi ordutatik hiru ordutara behar zituen.

Herrietan —Areatza, Arteaga, Arantzazu, Igorre eta abar— eliza ondotik pasatzean, jende guztiak kanpandorrenantz ateratzen zuen burua, zer ordu zen ikusteko. Zeanuritar batek esku erlojua estreinatu berria zekarren. Harro zeto-rren gizona, tranbiakada jendea, bere eskuturreko erlojuari begira.

—Non erosi duzu hori?

—Dagoen lekuan.

—Eta non dago dagoen leku hori?

—Semeak Afrikatik ekarri dit.

Igorre parean, ohitura zenez, denek kanpandorrera begiratu zuten. Zeanuritarrak ere bai, ordua aldean ekarri arren. Igorreko erloju handia baino hamar minutu aurrerago zebilen berea eta hots egin zuen:

—Hau duk erlojua, txikia baina bizkorra. Zeanuritik hona hamar minutu kendu dizkio.

243

MAYAK TXIKLEAREN ASMATZAILEAK

Ohitura txit modernoa badirudi ere, goma zati bat maxkaztea aspaldiko kontua dugu. Indio mayek teknika hori oso desarroilaturik zuten. Mayen kultura Mexikoko behe aldean eta Erdi Amerikako zati batetan zabaldu zen. Iberiar penintsula guztia baino askoz lurralde handiagoa.

Yukatanen eta Guatemalan batez ere, ba da zuhaitz bat hangoek «chico-zapote» esaten diotena. Zapote honek melokotoi handi baten antzeko alea ematen du, biguna eta oso gozoa. Zapoteak ur esnetsua ere ematen du, gogortutakoan goma bezalakoa bihurtzen dena eta txiklea deritzana. Hain zuzen hitz hori indio azteken «nahuatl» izeneko hizkuntzatik dator: tzicli edo txictli.

Txiklea mayen azoka guztietako trukagaia zen, hainbat berrikuntza asmatu arren, ez ziren dirurik ezagutzera heldu. Mayek zapoteen esne edo ur esnetsu hori egosi egiten zuten loditzeko. Egia esan, mayen arteko txiklegintzaz eta beste gauza askotaz ere gauza handirik ez dakigu, konkistatzaileek milaka eskuskribu erre baitzuten. Hiru bakarrik heldu zaizkigu.

Espainolek ez zuten txiklea maxkatzeko ohiturarik berengandu. Bai, ordea, tabakoa erretzekoa. Karibetarren, azteken eta beste hango zenbait herriren ohitura zen tabakoa.

244 INDIOAK LEHEN PELOTARIAK

Esku pelota euskaldunen asmakizuna da? Oso arriskugarria da zerbait norbere eskusiba dela esatea, mundua zabala eta zaharra baita. Esku pelota segur asko herri primitibo askotako kontua da, bai elkarki transmititu ziotelako, bai baikoitzak bere aldetik ere asma zezakeelako.

Indio mayek txiklea asmatu zutela jakina da. Txiklea elaboratzeko gai edo goma berarekin pelotak egiten zituzten eta hain zuzen horixe zen mayen joko nazionala: «pok-a-tok». Pokatok hori euskaldunen pelotaren antzekoa zen. Baina hura ez zen berriketa. Ba zuen kirol horrek mami erritual eta erlijiosorik ugari ere. Hormaz, mailadiz, eta tenpluz inguratutako patio handietan jokatzeko zuten. Honelako batzu ederki kontserbaturik heldu dira gaur arte.

Irabazleak zer sari? Aski zuen galtzetik libratzea. Zerenharritu zaitezte, jaunak ba dirudi joko hori giza biktimak hau-

tatzeko zela eta irabazleek galtzaileei burua mozteko ohitura zela. Chichén Itzá-ko frontoi baxuerliebeek hori adierazten dute. Partidu haiek ikusgarriak izan behar, han ez baitzen, ez, tongorik izango.

245 TXANPONAK ERREKARA

Ez dakigu arrain zalea zen baina bai arrantza zalea. Haren jira maitea huraxe zen: oilarraren lehen joaldian jaiki, polaina handiak jantzi, arrantza tresnak hartu eta egunsentirako errekan. Eta txakurra. Txakurra beti ondoan edo inguruan. Eta eguerdiko hamabiak aldera herrian basoerdi batzu garbitu, kontuak esan eta zer nahi duzu, bada, gehiago?

Kanabera jarri zuen eta amua beitarekin bota zuen.

—Lehenengoa hiretzat- esan zion txakurrari.

Tiratzen zuen baina ez zetorren ezer.

—Jendea lo dago hemen oraindik.

Erreka goratxoago joan eta berriro bota zituen amu-beitak. Berriro ere lehenengoa txakurrari eskaini zion. Baina han ere jendea lo zegoen, antza.

—Ez dakit lehenengoa eta azkena bat izango ez diren gaur.

Ordubete iragan zuen erreka bazterrean gora eta behera, hirulau amu aldatu zituen eta oraindik ez zuen alerik jaso.

—Arraioa! —esan zion txakurrari—. Hik jarri beharko duk amuan.

Txakurrak muturrak zimurtu zituen eta txori baten atzetik abiatu zen, hura ere alferrik. Eguzkia berotzen hasia zen, gizona aspertu zen, amuari azkenengoz tiratu zion, sakeleko txanpon guztiak atera zituen eta erreka bota zituen, esanez:

—Eros ezazue zeuek nahi duzuen bezalakoa.

ENERGIA URAREN HIDROGENOTIK

Atomoaren fisioaz hurrengo mende honetako aurkikunde-rik handiena ikustear gaudela lasai esan genezake: hidrogenoa uretik ateratzea. Fotosintesi artifiziala litzateke hori, landareek egiten duten fotosintesi naturala imitaturik. Hau lortzen denean (eta gutxi falta da) egia bilakatuko da jakintzuen amets nagusia: energi iturri infinitoa genuke eskuan.

Izan ere ur molekula bakoitzean (H_2O) bi heren hidrogeno daude. Baina hidrogenoa uretik ateratzeko ere energia behar da. Hidrogenotik bertatik aterako litzatekeen baino energia gehiago. Hor dago gakoa. Horretarako genukeen energia bakarra eguzkiarena litzateke. Eta horretan ari dira jakintsuak Strasburgoko Pasteur unibertsitatean eta orain Estatu Batuetan, Britainia Handian, Israelen eta Japonian.

Berriro ere jakintsuak naturan inspiratzen dira, landare berdeek eta algek eguzkiaren energia kimiko bihurtzeko dabilten mekanismora. Indar kimiko hori landareak behar dituen azukreak eta karbono hidratoak dira.

Laburki esanda, argi energiak landareetan dauden ur molekulak puskatu egiten ditu, oxigenoa, hidrogeno protoiak eta elektroiak apartatuz. Landareek berez egiten duten hori artifizialki lortzea, mendeko aurkikunderik handiena izango litzateke.

IZAR HARRIGARRI BAT

Ba da gure galaxian izar harrigarri bat. Duela hamar urte «izar berezia» deitu zioten, ez baita orain arteko ezein kategoria ezagunetan sartzen. Astronomoak galdezka ari dira eta orain arte dakiten guztia hankaz gora doa. Ba dira urte luzeetako teoria guztiak kilikolo jartzen diren uneak eta izar misterioso hauxe da bat. Gure «izar berezia» hamar mila urte argitara dago. Esate baterako, Aramaio baino haratxoago. Izarrak aztertzekeo modu bakarra bere izpiak deskonposatzea

da, espektru baten bidez. Honela izarren elementuak eta beste zer fisikoak jakiten dira.

Orain arte gure izarrean dena zen normala, hidrogenoa eta helioa. Baina orain austriar irratiastronomo talde batek haren izpiak bizitasun handikoak direla hauteman du. Astronomoak harriturik daude. Espektruan gai kimiko ezezagunak ageri dira. Baina harrigarriena da espektru berean bi emisio hari ikusten direla. Batean izarra guregandik urruntzen ari da. Bestean, ordea, izugarriro hurbiltzen ari zaigu. Zer misterio da era batera urruntze eta hurbiltzea?

Eta harrigarriago oraindik. Segunduan 50.000 kilometrotako abiadura erogarria dakar. Orain arte izarretan hautemantiko goren abiadura segunduko ehun batzu kilometro zen. Aurkikunde honek uste gabeko mundua dakar atzetik.

SEME ALABAK KARRERAN

Marino gernikarra, beste asko bezala, pelotatik erretiratu zen, baina ez lagun artetik. Hala zebilen behin txikiteoan tabernarik taberna bere lagunekin. Bi neska-mutil txiki inguratu zitzaizkion eta esan zioten:

—Aita, eman dirua karameluak erosteko.

—Haurtxoak —esan zuen Marinok—. Diruduna ama da. Nik ere hari eskatzen diot txikitoak edateko eta zuek ere hari eskatu.

Haurrak joaten ziren baina bai laster agertu ere.

—Aita, eman dirua. Zuk ere ba duzu dirua eta eman peze-ta bat.

—Begira, haurtxoak —esan zuen aitak—. Ikusten duzue arbola hura? Ea zeinek lehenago egiten duen joan-etorria.

Neskato-mutikoak galdu-gordean abiatu ziren arbolarantz. Marinok zurrut bat egiten zuenerako, han ziren haurrak bueltan, eskuak luze propinarean zain. Marinok orduan esan zien:

—Beno, haurtxoak. Orain ez duzue esango aitak karrera-rik eman ez dizuenik.

249 ZEHAZTASUN MUNIZIOAK

Zehaztasuna edo prezisioa, horra armagileen helburu nagusia. Tiro segur batez zubi bat edo tanke bat suntsitzea orratz burua baizik ez den distantziara; ia hotsaren dobleko abiadura daraman eta ehun eta hirurogeita hamabost kilometrotara doan abioi bat lurreratzea; ia itsasoa jotzen eta orduko 700 kilometrotan doan misil bat beste misil batez berrogeita hamar kilometroren distantziara jotzea... horra azken urteotako armagintzak ekarri dituen aurrerapenak, sistema elektronikoa eta optoelektriko guztiekin.

Kalkulagailu elektronikoa, laser izpiak, izpi infragorrien detektagailuak, eta abar. Orain giza batailoi handiak sobera daude. Abioi batek bere misilekin beste lau batera bota ditzake. Oraingo gorabehera nagusia, lehen kolpeari ihes egitea eta lehen kolpean betean ematea da.

Vietnamgo gerra ondoren, autodirigituaren moeta berri bat azaldu da. Laser sistemak deritzote. Koheteak, bota beharreko objektiboak isladatzen duen argiari eskerrak, dirigitzen dira eta hark argi hori islada dezan, laser izpien azauak bidaltzen zaizkio. Argi egin erazi eta gero jo. Hirurogeita hamar urtetan noraino heldu garen. Pentsa 1909ko uztailaren 19an Loni Bleriot-ek Mantxako kanala ozta-ozta pasatu zuela lehen hegazkinean.

250 BIHAR HIDROGENOA

Energia sorterazea gutxienean da. Hura gordetzea eta ekarriera ematea, hori da gako nagusia. Ez uste hain samurra denik. Eguzki energiaren eta elektrikaren aldekoek ba dakite zerbait horretaz. Bateriak eta pilagailuak astunak eta kostutsuak dira eta gainera ez dute apur bat besterik kontserbatzen.

Horixe da gasolinaren nagusitasunaren arrazoiatarik bat. Gasolina kaloria emale bikaina da, praktikoa, arina eta efikaza. Litro bakoitzak 10.000 kilo-kaloriatatik gora darama. Baina ba da askoz gehiago duen beste bat, hidrogenoa. Gaso-

lina baino hiru bider indartsuagoa da eta gainera kutsatzen ez duena.

Baina beti dago zerbait eta hemen dago gakoa. Oraingoz kilowatio bat gastatu behar da, uretik 0,60 kilowatio emango duen hidrogenoa lortzeko. Honela ez dugu ezer irabazten. Bestalde, presioan dagoela, hidrogenoa bonba leherkorra da. Hura gordetzeko beste metale batzurekin batu behar da biltegi astun eta garestietan.

Hala ere gas hauxe da gure bihar-etziko petrolioia, bera baita izadi osoaren materiala. Bera da izarren erregaia. Hidrogenotik hasi zen dena eta gaur ere hidrogenoa da gehiena. Ba dugu, beraz, pixka batetarako energiarik.

251 BURRIKA UMEANDO

Errezilgo Azpillaren ateraldiak eta pasadizuak famatuak ziren inguruetan. Behin gure gizonaren etxean astoa umea egitera zihoan. Ezorduak ziren eta erditze zaila zirudien. Asto gaixoak ezin zuen libratu eta Azpilla al baitariarenera abiatu zen. Atea jo zuen eta hots egin zuen:

—Burrika umeando, betenario andando.

«Umeando» hori «ume»tik datorrena, noski, eta ez «humo»tik. Umea egiten ari zela esan nahi zuen eta ederki ulertu zioten edo hala uste zuen behintzat. Beste gabe etxeratu zen eta hara astakumea jaio zela eta hila.

—Hau ere ba dugu? Albaitaririk ezin izango dugu alferrik etor arazi.

Berriro al baitariarenera joan zen eta honela eman zion kontrabisua:

—Burrika umeando, burrikilla matando, betenario no andando.

—¿Cómo dice?

Azpillak behin eta berriro bere kartila bota zuen, baina ez bide zioten askorik ulertzen. Gehiago ezinez eta astakume hilaren saminez, buelta eman eta esan zuen:

—Gero erdaraz dakitela esango dute hauek.

Sagu antiterroristak deitzen diete eta superpoliziak dira. Sagu klase salatariak dira. Amerikar poliziak sagu hauek hartu ditu, lehengo polizi zakurren orde. Hauen egitekoa orain arte, terroristek aireportuan edo abioietan bertan ezkuta ditzakeen lehergaiak, usnaz detektatzea zen.

Mundua zerbaitetarako dabil bueltaka eta Kanadar ikerlariek ere zerbaitetarako dute burua lepo gainean. Horrela maraskariak egiteko hori egin eginean bete dezaketela erakutsi dute. Laborategietan hala demostratu ondoren, berehalaxe datoz proiektuak. Beste gauza askotan, aurkituta egonik ere, proiektuak han egoteko dira bazterreko mahaian saguek jateko.

Baina oraingoan saguak berak dira proiektuko protagonistak eta hau da duten asmoa, alegia, sagu komisartegiak jarri aireportuetako toki neuralgikoetan. Toki horiek, batez ere, bidaiariak tresna elektronikoz arakatzen dituzten lekue-tan daude. Beharbada saguek polbora usaina hartuko dute. Nolanahi ere saguek ba dute erreakzio bereziren bat lehergaien inguruan eta hor dago gakoa. Aurrerantzean terroristek katu eta guzti ibili beharko.

Medizinen problemarik latzenetarikoa hau da, alegia, medizina benetako perdigoiak bezala direla, doazen puntuaz gainera gorputza ere berdin jotzen dutenak. Eta ez bakarrik jo. Urratu ere bai. Oso gai toxikoak direnean, antiminbiziak esate baterako, ondorio sekundarioak edo bide batezkoak, hondagarriak izan daitezke.

Txikagoko medikuntza eskolako bi ikerlarik lehen erremedioa aurkitu berri dute. Medikamentuari partikula magnetiko bat ezarri diote eta zelai magnetikoari eskerrak, gorputz guztian zehar, behar den organoraino gidatzea lortu dute. Zer alde dago hemen? Medikamentua era klasikoz sarturik, ehun bider dosi gehiago behar izango zen ondorio bera lor-

tzeko. Pentsa batetik ehunera zer alde dagoen ondorio sekundarioetan.

Oraindik esperimendu hau abere batengan bakarrik egin dute. Arratoiek hamaika penitentzia pasatzen dute laborategietan eta aproba hau ere arratoi batekin egin dute, medikamentuaren blankoa buztana zelarik. Aurrerapen hau farmazietara heldu aurretik denbora joango da, baina inoiz aplikatuzera iristen badira, ez da pausu makala izango.

Behin amonatu gero, azkena hurbilago hasiera baino. Bizkaiko Gizaburuagako herrian, Landeta baserrian, amona zaharra hil zorian zegoen. Emakume atsegina bizitzan, heriotzari ere ez zion aurpegi garrantzik jarri. Bai, ordea, bildurtxo. Apezari dei egin zioten.

—Zer moduz, amona? —galdetu zion apezak gelara sartzean.

—Tokatzen zaigun moduan, jauna. Gure moduak bukatu ziren.

—Bukatu? Ez horixe. Oraindik dantzan egin behar duzu zuk.

—Dantzan? Nire itzalak egin beharko du, jauna, norbaitek argi egiten badit.

—Hori ez da horrela, baina beno. Emango diogu errepassutxu bat arima horri?

—Urrikaldu ahalko zait gure Jainko ona.

Elizakoak eman ondoren, apezak agur egiten dio:

—Laster arte, amona.

Amonak esaten du:

—Ez bedi joan, jauna, gaur hilko bainaiz ni.

Apeza gelditu zen. Gauerdia aurrera zihoan eta goizaldeko laurak inguruan amonak esan zuen:

—Joan bedi, jauna, etxera, honez gero ez bainaiz gaur hilko.

Euskaldunak izan ziren balearen lehen arrantzaleak. Gairai haietan XII. mendetik honantz baleek Bizkaiko Golkoa maite zuten beren turismorako. Honela hemengo balearrantzaleek ez zuten urrutira joan beharrik. Portu bakoitzean ba zen gailur bat eta han talaia itsasoa obserbatzeko.

Balenaroa azaroaren hasieratik martxoaren erdirarte zen. Denbora honetan talaiari bat gau eta egun zain zegoen. Balearik erreparatzen zuenean, sua pizten zuen. Berehalaxe pregoijoleak danborrez edo sakristauak kanpaiz herrian zehar berria zabaltzen zuen. Dei horri «baleen deia» zeritzon. Azkar ibili beharra zegoen. Beste portu batzutakoak heldu aurretik. Hamaika istilu eta haserre ekarri zuen honek.

Gero euskaldunak Terranovaraino heldu ziren. Ba dira Terranova euskal arrantzaleek aurkitu zutela diotenak. 1500 urte inguruan gabiltza orain. Terranovako toponimian euskal izen asko gelditu zen. Berak ziren han nagusi, irla hari «Terranovako probintzia» esateraino.

Kanadara ere jo zuten eta Labrador izeneko penintsula azpian bi mila euskaldun ibiltzen ziren balenaroen, bertako jendeak euskal hitzak eta esaerak ikasteraino. Honela hangoei «zer moduz» galdetu eta erantzuten zuten: «Apezak hobeki». Hau ez da misiolariak irakatsia izango.

Nolakoa zen balearen harrapaketa bera? Gaur motorezko eta arpoi-kainoiz lan hori, gardantxiloak harrapatzea bezala da ordukoaren ondoan. Hura ez zen txantxetakoa.

Untzi kaxkar batetan zutik eta animalia izugarriari begira--begira, arponariak bere indar guztiakin jaurtikitzen dio arpoia baleari. Odol hotza behar du, hutsik ez egiteko baita indarra ere arpoia sakon sartzeko. Baleak sastada hura jasotzen duenean, orduan hasten dira benetako istiluak. Balea bertikalki hondoratzen da arpoi eta guzti. Soka agudo eta erritmoz eman behar zaio, untzia urpera eraman ez dezan. Animalia arnasa hartzera azaleratzen zen bakoitzean odoluskailuak jaurtikitzen zizkieten, haragian erraz sartzeko eta ir-

teteko moduko tresnak. Eta horrela balea odolustu eta errenditu arte.

Balearen urperatze eta urgaineratze horiek ez ziren berriketak. Tirakada bildurgarriak egiten zizkion untziari. Inoiz azpitik untzi parean ur gaineratzea gertatzen zenean, untzia eta untzikoak airean zihoazen. Orduan bakoitzak ahal zuena eta beste mundura ere ez gutxi.

Etzegile batek dozenerdiren bat langile peoi zituen. Dirua urri zebilen eta jana urriago. Peoiak haserre ziren. Egunean hamazortzi pezetaz zebiltzan eta hogeira jasotzeko eskatu zuten.

—Jaso? —erremuskatu zuen ugazabak— Ea noiz pentsatzen duzuen lana jasotzea.

Gauzak lehenean gelditu ziren. Biharamunean mutil bat han zebilen bere karretilaz hara eta hona, buru makur eta astiro. Ugazabak esan zion:

—Ez duzu beste martxarik?

—Bai, baina hoge pezetatakoa. Hamazortzikoa hauxe da.

Lagunek barre algara ederra bota zuten. Ugazabak ez zuen kolpera ezer asmatu eta obran buelta bat ematera joan zen.

Arraioa —pentsatu zuen—. Errespetua sartu beharra dago hemen.

Gauzak hobeki pentsaturik, berriro mutil harengana joan eta esan zion:

—Ez duzu beste pausurik, mutil?

—Bai, laburragoa.

Eta mutila astiro-astiro ibiltzen hasi zen.

257 BIHOTZAREN KOLPEAK

Ez zara inoiz bildurtu bihotzak kolpe handi bat eman dizulako? Arnasa hartu eta gerotxoago, berrir normal. Zer da hori? Abisu gogorra? Ala bihotzaren adar jotzea? Bihotzak estatu kolpea jotzen badizu; apenas daukazu goraintziak emateko astirik. Baina beste kolpe horiek?

Bihotzak, arnasak bezala, isilik ibili behar du. Horregatik zerbait apartekorik nabari denean, sustoa ematen du. Oso gutxitan izango da, ordea, infartuaren ezaugarri. Bihotzaren ohi gabeko taupadak era askotakoak izan litezke. Azkarrak (takikardia); gogorak eta erregularrak (taupadak); gogorrrak eta irregularrak (arritmia). Hirugarren honi ez bildurrik izan, bihotzaren huts baten erantzuna baizik ez baita. Medikuek esaten dutenez, zarata asko eta ezer ere ez.

Takikardia eta taupadak, gehienez, emoziotik edo digestiotik harako desordena neuro-begetatiboaren ondorioak besterik ez dira: kafe gehiegi, tabakoa, etab. Bihotzeko edo nerbio sistimako medizina simple batzu (lasaigarriak-sedan-teak) aski zaizkigu berriz erritmo normalera itzultzeko.

Ez dago beraz ikaratu beharrik. Baina utzikeriarik ere ez. Erritmoaren gorabehera horien azpian, ba liteke lesioren bat nonbait izatea, bihotzean bertan, tiroidean edo beste nonbait. Lasaigarriarik onena, noizik behin, medikuarengana joatea.

258 MUSIKA TERAPIATZAT

Historia idatzian David da lehen musikoterapeuta, Saulek bere gogo gaixotia lasaitzeko txirula jotzera deitzen zion. Gizonak, gizon denetik du musikaren eragin onaren edo txarraren ezagutza. Estatu Batuak izan ziren musika terapiatzat landu zuten lehen eragileak. Lehen munduko gerran zenbait ospitaletan musikariak kontratatzen zituzten gerrako zaurituak olgatzeko. Medikuek aukera ederra izan zuten erien erreazioak ikusteko.

Duela hamahiru urte, musikaterapiako katedra bat sortu zuten Salvadorgo Unibertsitateko Medikuntz Fakultatean, Buenos Airesen. Musikaterapiako tekniken arloa oso zabala bada ere, ba dira teknika hauek bereziki ongarrri zaizkien eriak. Honela hitz maila gutxiko eri mentalengan, musika hitz gabeko komunikapenaren lagungarri da, kontzentrazioa erraztuz.

Gor, mutu, itsu, elbarri zerebral, lisiatu, portaera problemadun haur edo nagusi eta abarri ere musika ongarrri zaie. Beste aplikazio batzu: alkoholikoak, toxikomanoak, erdi-tzeak, logabetasuna, bikotearen terapia, operazioetarako prestakuntza psikologikoa, etab.

Ba dira uste dutenak oiloek eta behiek ere musikarekin arraultze eta esne gehiago ematen dutela.

259 URREA ETA BAZKARIA

Bizkaiko herri batetan ba zen bitxigile bat zikoitza bezain susmatia. Non urre usaina, han zuen sudurra. Leiho gabeko gelan lan egiten zuen lapurren bildurrez. Emazteari zorrozki agindu zion:

—Ez inori aterik ireki, urreduna ez bada.

Behin artzain batek atea jo zuen, bitxigilearekin egon nahi zuela esanez. Emazteak ezetz esaten zion baina artzainak derri gorra zela.

—Zer behar du bada? —galdetu zuen bitxigileak.

—Urre zati baten prezioa jakin nahi du.

Bitxigileak urre kontua adituz batera, gizona berehalaxe sarrerazteko agindu zion emazteari. Baita bazkari ederra jarrri ere hizketan hasi aurretik. Gerra ondoan hamaika halako egina zen bitxigilea. Artzaina ederki animatu zen, halako bazkaririk ez baitzuen inoiz harrapatu.

—Benoa —hasi zen azkenean bitxigilea— Urrearen inguruan, beraz, zu ere.

—Bai gizona, munduan denetik baita, txarrik eta onik.

—Eta zertarako behar duzu, bada, urrearen preziorik jakin?
—Horretara nentorren hain zuzen. Begira, ni artzaina naiz eta egunen batez urre zati bat aurkituko banu, zer preziotan dabilen jakin nahi nuke.

260

DIAGNOSTIKOA KONPUTAGAILUEN BIDEZ

Diagnostiko kliniko orokorrerako konputagailuak erabil-
tzea aspaldiko kontua da, munduko hiri handietako etxe na-
gusietan. Baina arlo honetan azken hitza «araketa topografi-
koko konputagailu axiala» deritzona da. Honekin giza gor-
putzeko edozein puntu araka liteke, interbentzio kirurgiko-
rik gabe.

Sistema honen irradiapena oso apala da eta haurdun ema-
kumeei ere, ezar dakieke fetolari gaitzik egin gabe. Gainera X
izpiak baino sistema zehatzagoa da. Zenbait minbizi moeta
azkar geldierazteko laguntzaile aparta.

Horrez gainera, organismo barruko araketa hau «video-
tape» delakoan graba daiteke. New York-eko North Shore
ospitalean, kolorezko pantailan ikus daiteke bihotza nola da-
bilen eta nola jarrioten den hark bonbatzen duen odola.

Prozedimendu honekin diagnostiko zehatza eta berehala-
koa lor daiteke, kirurgiara jo gabe. Sistema hau gure herrie-
tara heldu aurretik urte batzu joango dira.

261

ASMAKARI IKUSGARRIAK

Ba dira, bai, asmakari ikusgarriak, espektakularrak eta
gaur dakarguna ez da txikiena: aulki gurpilduna, abotsaren
bidez erabilia. Pentsa ezazu elbarri edo ezindu horietariko
bat, bere aulkian edo gurditxoan geldi, edo beste batek dara-
mana. Asmakari berrian aulkiak ezagutu egiten du gurpilei
eragiteko gauza ez den lagunaren abotsa eta honen aginduak

betetzen ditu: «Aurrera» «atzera» «geldi» «eskuinera» «ez-
kerrera»...

Gorputzaren elbarritasun osorako, oraingo ikerketak zer
honetara doaz, alegia, eriak garondoan edo buruan ukan le-
zakeen muskulu indarra aprobetxatzera. Muskulu honen
mugimendurik txikiak ere etxeko aparatu elektroniko
mordo bat kontrola dezaketen (inpulsoak) bidaltzeko era-
biltzen dira.

Beraz, menpetasun osoko lagunek badute egoera hestu
hori hausteko modu bat. Bere aulkiaz edo gurditxoaz gaine-
ra, irrati, telebista, telefono, eta abar martxan jar dezake,
bere nahiaren arabera. Baita bere izaera sikikoak eta etxe in-
guruak asko irabazi ere. Beste gauza bat da, asmakari edo au-
rterapen hauek behar dutenen eskuetara noiz helduko diren.

262

SEPARAZIORIK ONENA

Patxiko Garrantzanekoa bizargina zen. Gerra ondoko bi-
zarginek ilebizarrak moztuz gainera, zorriak hiltzen ere ba
zuten aski lan. Patxikok zorriak ez ezik buruak ere ederki es-
karmentatzen omen zituen eta ez zitzaion bezerorik falta.
Goizean, seirak eta erdiak alderako, bizartegian zen. Ilun-
tzean berriro taberna eta beti berandu etxera.

—Patxiko —esan zion behin andreak—. Honela ez dago bi-
ziterik.

—Nola, bada?

—Separatu edo zerbait pentsatu beharra dago.

—Oraindik separatuago nahi duzu, ez baitut umerik ere eza-
gutzen

—Paper eta guztiko separazioa.

—Papera zertarako?

—Ondo separatzeko.

—Ondo separatzeko papera?

Patxikok, biharamunean, tabloi handi batzu garraiatu zituenu etxe aurrera. Andreak galdetu zion:

—Zertarako dituzu oholtzar horiek?

—Ez zenuen atzo ondo separatzeko papera eskatzen? Beste-lakoak dira hauek paperaren ondoan.

263 ASTOA SALDU ASTOA EROSI

Gizon batek Zumarragako feriara astoa eraman zuen saltzeko. Makina bat urte egina zen etxean eta abere gaixoari eskurik esku ibiltzeko sasoi heldu zitzaion, bere denboran ona izana bazen ere. Bostehun pezetatan ijito batzuri saldu zion.

Ederki bazkaldu eta arratsaldean feriatik zebilen berriro, beste asto bat erosi behar baitzuen. Ilunabarra zen tratua egin zuenerako. Asto berria lau mila eta bostehun pezeta ordaindu zuen. Apala eta dotorea bera. Salerosiaren atxakian ederki afaldu eta goizaldea aurrera zihoan hura etxerantz abiatu zenerako.

—Arraioa! —zioen bidean—. Hauxe asto leiala eta mena erosi dudana.

Izan ere astoak batere tiratu gabe segitzen zion mantso-mantso.

Goizaldeko hiruretan, bidean zigarro bat pizteko, soka solterik utzi zuen. Eta hara astoa aurretik zihoala tiki-taka. Etxeratu zenean andreak esan zion:

—Hauek dira orduak?

—Orduak ez baina astoa bai. Lehenengoa halakoa bazen, oraingoa uste dut ez duzula gutxiago maiteko.

Biharamun goizean andrea ikuilura joan zen eta asto berriaren aurpegia ikusiz batera hots egin zuen:

—Gizona, zer ekarri duzu etxera?

Asto berria salduriko zaharra bera zen, ederki moztua eta itxuroso jarria.

264 ARGALTZEKO AKUPUNTURA

Ekialdeko akupunturan anitz modu dago loditasuna tratatzeko edo argaltzea lortzeko. Sorginkeria badirudi ere, begira metodorik arruntena zein den: urdailaren puntua belarrian ziztatu. Ulertu duzu? Belarrian, bai, belarrian. Belarria izan ere, giza enbrioi txiki bat bezala da. Bere azalean gorputz zati, errai eta alderdi guztiak errepresentaturik ditu.

Behar dena, beraz, urdailari belarrian dagokion puntua aurkitu. Puntu horri akupuntura ezartzen zaio. Orratz bat sartu eta jateko gogoa moteltzen da. Belarrietan eta gorputzeko beste alderdi batzutan ere, badira loditasunari kontra egiteko beste zenbait puntu, bai gogoa baretuz eta barauaren antsia menderatuz, bai janarien ebakuazioa azkartuz.

Gehinean hamabi edo hamalau sesiotako tratamendua ematea nahiko izaten da eta gero hilabeteren bat edo bi atsedenean utzi. Atsedenaldi horretantxe da organismoak orratzen eraginari erantzuten diona eta hobekuntza edo argaltzea igartzen dena. Ekialdeko teknika hauei askok muzin egiten die. Baina han ere, ez dira tentelak eta zerbait izango da.

265

KAFEA ON, TABAKOA TXAR

Tabakoak etsai asko ditu, baina bai lagunak ere. Orain beste gaitz bat aurkitu diote. Edo aurkitu diotela, diote behintzat. Tabakoak, hain zuzen, ahalmen sexuala laburtzen omen du. Hona zergatik. E bitaminaren propietate bat glandula sexualen iharduna gehitzea da. E bitaminaren ezak edo eskasiak moteltasun sexuala dakar, hala gizonarengan nola emakumeengan. Ertzeko kasuetan antzutasuna ere bai.

Azken berriek diotenez, tabakoaren nikotinak antibitamina gisa jokatzeko omen du, E bitaminaren eragina alferrik galduz. Honela erretzailearen ahalmen sexuala moteltzen omen du. Horixe besterik ez zen behar.

Kafearentzat, ordea, berri onak datoz. Estatu Batuetan, Georgiako Duke unibertsitateak bost urtetan zehar eginiko ikerketa baten ondorioak argitaratu ditu. Bertan kafe edaleen eta ez edaleen historia gonparatzen dute. Hona hemen egileek zer dioten:

Ez dago inolako alderik batetik bestera. Kafe hartzeak ez du bihotzeko atake arriskurik gehitzen. Egunero bost kikaraka baina gehiago edaten dutenek ere ez.

Guzti hauek egiak badira, tabakotan gastatzen dena kafeari eman beharko zaio. Okerrera, etxetik kanpora behintzat, kafetxo batek pakete osoa balio duela.

266 AFARITIK EPAILEARENGANA

Gipuzkoako Gabirian gertatzen dira honelakoak. Bi lagun elkarrekin afaltzen ari ziren herriko tabernan. Ez dakigu zerk on eginda edo zerk gaitz eginda, afari buruan haserretu egin ziren, arrazoiak dirutan neurtzekotan.

—Zeinek diru gehiago! —desafiatu zuen batak.

—Bota! —erantzun zuen besteak.

—Ondu hau! —batek, milakoa mahai gainera botata.

—Ondu hauek! —besteak, milako bi gainean jarriz.

Bederatzigarrena txanpenez eta kanbioz hornitu behar izan zuen batak. Aspaldiko kontua da hau eta orduan ez ziren milakoak orbelarekin batera ibiliko. Bederatzigarrena hala juxtu samar hornitu zuela ikustean, besteak beste hiru-lau milako bota zituen kolpera. Hura ontzerik ez zegoen.

—Arraioa! —esan zuen galtzaileak. Eta laguna betondoan jo eta mahaipera sartu zen. Besteak mahaipetik mehatxatu:

—Hau ez da honela geldituko.

—Ez. Hori hazi egingo zaizu. Hori beztu egingo zaizu.

Gauzak bakeratzeko itxura meharra zen han. Hazi eta beztu zitzaion bai ederki begia gizonari eta lagun afaritik jueze-raino heldu zen auzia.

Begia hazirik eta bezturik gelditu zitzaionak epailearengana jo zuen. Epaitegian jotzaileari galdetu zioten:

—Zer egin duzu gizona?

—Horren begiak ederki erakusten du, jauna, zer egin du dan.

—Gustatuko litzaizuke zerorri horrelako betondokorik?

—Horrelakoa bai, horrexegatik eman nion.

Multatzat epaileak zortzi eguneko lanaren gorabehera ezarri zion jotzaileari eta jira hartako gastuak gainera. Bi gabi-riarrak bueltan elkarrekin herriratu ziren. Eta biak taberna-ra. Bata mostradoreko punta batean jarri zen eta jotzailea bestean, ate aldean. Jotzaileak hots egin zuen:

—Atera hemen zernahi. Egon! —esan zuen segidan bere laguna edo kontrarioa seinalatuz—. Atera horri ere dauka-zun edaririk patalena.

Edan zuten eta kontua eskatu zuen.

—Hau bakarrik da?

Kalkuluak atera eta segitu zuen:

—Epaitegiko gastuak honenbeste, multa honenbeste, tabernakoa hau bakarrik... Beste betondoko bat eman eta jarriko dugu berriz festa?

267 AIREZKO BAINUA

Airezko bainua urezkoa baino garrantzizkoagoa da. Gutxi edo asko gure gorputza, gure azala airez bainaturik dago beti. Animaliak airezko bainu etengabea bizi dira. Gizonen kasua berdintsua da, baina ez berdina, jantzirik baikabiltza.

Soinekoek airezko bainua asko aldatzen dute. Airezko bainua esatean, gorputz azala zuzenki aireari jartzea esan nahi da. Hitz batez, biluzik airea hartzea. Baina horrek freskura zentzazioa eman behar du eta hori 20 gradutatik behera-ko tenperaturan gertatzen da. Hotzak hil gabe, jakina.

Zer eragin du airezko bainu honek? Poroetan zehar gai toxiko pila handia kanporatzen da. Gai toxiko horiek, batzu hesteetako usteltasunetik datoz, beste batzu metabolismo al-teratutik (hezueria, diabeto, loditasuna...). Beste toxiko me-
taboliko batzu (urea, azido urikoa, etab.), garnuontziak behar bezala eliminatzen ez dituenen, azaletik irteten dira.

Soinekoek airearen berriztapena tratatzen dute eta azaleko izerdi kapa bertan egon erazten. Horregatik azalak, soinekoen tratatutik askatzean, bere desintoxikazio lana hobeki egin dezake. Airezko bainua urezkoa baino askoz leunagoa da. Eguneroko airezko bainua entrenamendu ederra da tenperatura aldakuntzei eusteko eta organismoa bera indartzeko. Etxe barruan biluzik ibiltzeko ohitura duten naturista horiek ez dabilta hain oker.

268 BARTZELONAKO «ASTE BELTZA»

1909ko uztailean langileen matxinada gertatu zen, latza eta azkenean beltza. Erabile nagusiak antimilitarismoa eta antiklerikalismoa ziren. Kubako eta Filipinako hondamendia buka berri zen. Koloniak bukatu ziren. Haietako armada orain Penintsula barruan mantendu behar zen. Nork eman jaten? Langileek. Horrela egoera miserablea jarri zen. Eta gainera Marokoren kontrako gerrara hoge mila gizon bidali behar. Jendea nazkatu eta samindurik zegoen. Era bate-ra antiklerikalismo bizia nabari zen.

Uztailaren 26an, astelehenean, greba orokorra hasten da. Asteartean benetako matxinada zen hura. Gerra egoera deklaratu zen eta armada kalean zen. Herri indarra nagusi da asteartean.

Baina hurrengo egunetan galtzen ari da. Bartzelonako goarnizioak eta beste leku batzutatik etorritako indargarriak gupida gabe saiatu ziren. Uztailaren 31an matxinada itoa zen.

Balantzea? Hilak: hirurogeita hamabost herritar eta hiru soldadu. Zaurituak, bostehundik gora. Ehun eta hamabi edizio erreak izan ziren, beretarik laurogei etxe erlijiosoak edo

kleroarekin zerikusia zutenak. Hainbat mila lagun detentatuak izan ziren eta bi mila prozesatuak. Hauetatik bost exekutatuak, berrogeita hemeretzi betiko kateratuak eta ehun eta hirurogeita hamabost erbesteratuak. «Aste Beltza» izena ez zegoen gaizki jarria.

Emakumeak ausartenak izan ziren bertan. Egoera orokor miserable haren barruan, milaka gizon Marokkorantz irteteko agindua heldu zen. Asko ezkonduak ziren eta emazteak egoera larrian gelditzen ziren. Gizonak untziratzeko zeudela, goi gizarteko damek zigarroak eta domina erlijiosoak banatzen zizkieten. Batzuk erregaluak uretara botatzen zituzten, beren emazteek ohiukatzen zitelarik:

—Bota itzazue armak. Doazela aberatsak. Denak ala inore ez. Doazela fraileak.

Greba orokorrerako emakumeek, protesta ezaugarritzat, buruan txoritxo bat eramatea zabaldu zen. Deiek honela zioten:

—Amen, emazteen eta arreben laguntza behar dugu.

Joka ezazue gogor, gizonak ez baitira kapaz.

Uztailaren hogeita seiko goizean nonnahi ziren txori zu-riak. Piketerik gehienak emakumezkoak ziren. Greba hura matxinada bilakatu zenean, emakumeak aurrengoak ziren. Egunkari batek zioen:

—Kementsuenak emakumeak izan dira. Gizonak etxetik atera eta burrukara arrastatzen zituzten.

Baina denen artean ere ez zuten garaipenik lortu eta aste gogoangarri hura «Aste Beltzaren» izenaz gelditu da historia-ko.

269 BEHAR DIREN HOSTIAK

Etxarriko gizon bat txofer zebilen teileria batetan. Gizalegeak agintzen duen bezala, ez zuen nagusia gehiegi maite. Denbora joan eta kilometroak etorri, laurehun mila pezeta zor zizkion nagusiak. Beste langileak ere berdintsu zebiltzan

eta nagusiaren larrua madarikazioz jostekoa izan balitz, ha-
maika puntada hartu beharko zuen. Azkenean, bildur ziren
bezala, teila fabrikak kiebra jo zuen.

—Arraioa! Toki onean daude gure hartzekoak.

—Zuri zenbat zor dizu?

—Honenbeste.

—Niri laurehun mila pezeta —esan zuen txoferrak—. Ho-
riek eskuratzen ez baditu, nagusi hori neuk txikituko dut.

Nagusia egunero elizara joaten zenetarikoa omen zen. Eta
egunero gure Jauna hartu ere.

Igande batez gure txoferra ere mezatan zen. Nagusia, zeru
guztiak irensteko moduan mihia atera eta Gure Jauna har-
tzen ikusi zuenean, hortzak hesteetaraino estutu zituen.
Meza bukatu eta han gelditu zen apezaren zain.

—Jauna —esan zion—. Gure nagusi horri ez hostia gehia-
gorik eman. Hemendik aurrera gizon horrek behar dituenak
neuk emango dizkiot.

270 BERTSOLARIAK SAHARAN

Arabiarren artean ba da herri bat «Tuareg» izena duena.
Tuareg hauek monogamoak dira, arabiarrik gehienak edo
ahal dutenak behintzat, poligamoak badira ere. Emakume
ezkongabeak guztiz libreak dira.

Neska-mutilen artean ere ohitura libertinoak daude.

Jai oso kurioso bat dute batez ere, «ahal» izena duena.
Bertan gizon eta emakume ezkongabeek, alargunek eta di-
bortziatuek parte hartzen dute. Akelarre antzeko gau-jai edo
gaupasa bat. Suaren inguruan biltzen dira atso edo agure ba-
ten agindupean.

Mentazko tea edan eta han dihardute berriketa bizi eta
ulerkaitzean, emakume bat «amzad» izeneko biolintxo hari-
bakarra jotzen hasi arte. Orduan neska batek edo mutil batek
kantatzeari ematen dio. Baina inprobisatuz, bat batean. Be-

rehalaxe beste norbaitek erantzuten dio eta hala hasten da
etengabeko katea, hemengo bertsolarien antzera.

Lehenago jesta edo gerra gaiak izaten baziren ere, gaur
gehienean maitasunezkoak eta saltsazkoak izaten dira, jaiari
dagokion bezala. Ilargia etzaten denean, bakoitza bere lagu-
narekin aldentzen da ilunean edo desertuan zehar. Har kon-
tu, emakumeek ere gizonak bezala kantatzen eta inprobisat-
zen dutela. Horretan behintzat, euskaldunok baino aurrera-
go dabilta, aitortu behar.

271 OKILAREN GONBITA

Ehiztariak tabernara sartu ziren. Batek okila zekarren ge-
rrian zintzilik. Txintxurreta gabiriarra ere han gertatu zen
mostradore inguruan. Eta ehiztariei esan zien:

—Jaunak, ezagutzen ez banauzue ere, zuek gonbidatu
beharrean naiz.

—Hona, bada, —hasi zen Txintxurreta kontari— abarke-
tarik zer zen ere ez nekien oraindik. Lehen abarka pare
lehen Jaunartzerako erosi zidaten. Elizatik bueltan etxera
joan, haizkora hartu eta mendira joan nintzen. Okil habia bat
ba nuen han, Jainkoari barkamenaz, lehen Jaunartze guztian
burutik kendu ezin izan nuena. Kontuz kontuz hurbildu, tx-
pelaz zapla, zuloa itxi eta ama umeak barruan ziren. Nola
atera ordea? Umeak aurretik ateratzen banituen, haiek utzi
bitartean amak ihes egingo zidan. Ama ateratzen banuen,
berriz, non utzi umeak harrapatu arte? Azkenean pentsatu
nuen zer egin. Ama lehenbizi atera eta neure abarka berrien
kordelez loturik utzi nuen lurrean.

Umeak hartu eta zuhaitzetik salto egin nuenean, okilama
ikaratu zen eta abarka eta guzti joan zen Ormaiztegi aldera.
Abarkak larruzkoak ziren eta arin samarrak.

Hor dakarzuene okil horrek harexen ondorengoa izan
behar du, bere buru gorri eta guzti. Horrexegatik gonbida-
tzen zaituztet.

272 MACHU-PICCHUKO MISTERIOA

Entzun duzu inoiz Machu-Picchu izenik? Peruko hiri bat da hau. Aintzinako indio inken hiria, duela mendeak galdua eta 1911an aurkitua. Hiri harrigarria. Hitzez hitz harrigarria, dena baita harria eta harrizkoa.

Eta harritu zaitetz. Hiri handios hau 2.330 metrotako garaieran dago. Zerutik erori ezik, bertara heltzeko ere komediak daude. Hirian enparantza handiak, kaleak, tenpluak, jauregiak, bizilekuak eta harresi izugarriak daude. Geroago haitzezko gailur zorrotz batzu eta hodeien erreinu mugagabea. Inguruan amildegi eta haitzarte bildugarriak. Hiria egiteko harriak hogeita hamabost kilometrotako bidean ekarriak dira.

Nola arraio eta batez ere zer arraiotarako egin zuten hiri hau? Oraindik apenas dakigu ezer hiri bakan horretako bizilagunez. Hilobietatik ba dirudi emakumezkoak gizonezkoak baino askoz gehiago zirela. Jainkoei destinatutako emakumeak, eguzkiaren birjinak ote ziren, konkistatzaileengandik ihesi? Gotorleku militarren bat? Baina punta hartan zertarako?

Machu-Picchuk gure zentzuaren kanon guztiak hausten ditu. Harri hutsezko hiri bat munduko bazterrik gordeen, malkarren eta helgaitzanean. Zertarako? Horra oraindik antzik ematen ez zaion misterioa.

273 TARANTULA DANTZA

Ba da dantza bat «tarantula» edo «tarantela» izena duena. Hamazazpigarren mendean Italiako Tarento izeneko hirian ba zen historia kolektibo bat, beste hirietara ere zabaltzeko arriskua zuena. Zenbait tarentoarri armiarma misterioso bategen kosk egin zion. Tarento inguruan agertu zelako «Tarantula» deitu zioten. Tarantulismoa berriz koskada haren ondorioei.

Zer ondorio? Min handiak, goragaleak, elbarritasun partziala eta arnasestuak. Herrian uste zenez, ez omen zen sendatzeko modurik. Gaitz estrainio haren erremedio bakarra dantzatzea zen. Dantzatu eta dantzatu etengabe.

Ohitura hori hamalagarren mendetik zetorren. Europan zorne izurriteak edo «herio beltza» izenekoak, triskantzak egin zituen. Hura bukatutakoan, jendea tenteldurik bezala gelditzen omen zen. Gizonek eta emakumeek dantza eta dantza egiten zuten, isilik eta egunetan, horrela izurria uxatuko zutelakoan. Ohitura hau tarantularen kontra Italian zabaldu zenean, «Tarantella» izeneko dantza bizia sortu zen.

Dantza hark, moduren batez, tarantula edo armiarma horien mugimenduak imitatzen zituen. Hasieran astiro eta pausatuki, gero bizkortuz eta azkenean erritmo erogarri bukatzen da. Horrekin eria izerdi bitsetan jartzen zen eta azkenean ahiturik erortzen zen. Ahiturik eta ustez sendaturik. Baita batzu bertan hil ere. Norbaitek esango zukeena: negarez jaio eta dantzan hil.

274 EZ JORNALIK EZ BESTERIK

Ba ziren Gabirian bi etxe elkarren auzo samarrak. Batean emakume alargun bat bizi zen eta bestean itzain bat erdi bakarrik. Behin alargunak soro bat haustera etortzeko, hitzegion itzainari.

—Horretarako tratu txiki bat egin beharko dugu —bota zion itzainak.

—Beno, etorri eta hautsi eta konponduko gara.

Biharamun goizaldeko lauretan, egunsentiak oraindik Goiherriko beste muturra jo aurretik, itzaina aida eta eurt ari zen alargunaren soroan.

—Bai bizkor ari zarela —esan zion geroago emakumeak.

—Bizkor edo garaiz. Noiz egingo dugu, ba, beste txaparro txiki hori?

—Txaparro zer?

—Ea noiz egingo dugun beste lantxo hori.

—Lehenbizi kafe pixka bat ez zaigu gaizki etorriko.

Hau esanda alarguna etxera joan zen. Ate-leihoak ondo itxi eta ez zen gehiago irten.

—Aida —zioen itzainak—. Bai kafe luzea. Ooo! Kubara bila joan ez bada. Eurt! Ea golkotik behera iragazten ari den.

Aspertu zen gizona eta azkenean etxera joan behar, ez halako ez bestelako jornalik gabe. Bidean idiei esan zien:

—Inoiz erruki izan zaituztet, baina gaur inbidia dizuet.

275 UNIBERSITATEA EUSKARA HUTSEAN

Ez dira urte asko, euskara sukalde hizkuntza zela sinesten eta sinets erazten zigitela. Gaur ere, ez dira gutxi, euskarak hizkuntza landua izateko modurik ez duela uste dutenak. Ba da fisika, kimika, biologia eta abar euskara hutsean emate-rik? Ba da, bai, eta horretan ari dira.

Leioako unibertsitatean, Zientzi Fakultateko lehen ikas- turtean hogeita hemeretzi ikasle euskara hutsean karrera ikasten ari dira. Bost asignatura dituzte: Fisika, Kimika, Bio- logia, Matematika eta Geologia.

Irakasleak honela daude: J. Ramon Etxeberriak Fisika ematen du, J. Mari Txurrukak Biologia eta Itziar Urretxak Kimika.

Matematiketan Mari Jose Zaratek teoria ematen du eta J. Mari Arregik problemak. Azkenez Maribel Arriortuak Geo- logia ematen du.

Zientzi karrera hau bost urtetakoa da eta lizentziatuak eta irakasleak ateratzen dira hemendik. Aipatzen ari garen ikas- turte hau karrerako lehenengoa da. Beraz, aurtengoaz gaine- ra, beste lau urte egin beharko dituzte karrera osoa bukatze- ko.

Hogeita hemeretzi ikasle dira, gehienak bizkaitarrak eta gipuzkoarrak. Lehen astean alfabetatze teknikoa egin zuten. Beharrezko ataria noski, zientzi karrera osoa euskara hutsez ematea nobedade handia baita.

Arazo handia materialak edo liburuak dira. Honetan gehiena egina dute eta ez da gutxi. Udako euskal unibertsita- tean argitaraturik dute fisika, kimika eta biologiako teoria guztia euskaraz. Matematikak orain prestatzen eta fotoko- pietan ematen ari dira. Hemen ere erdia egina dute eta beste erdia laster bukatzeko asmotan. Geologian oraintxe hasiak dira. Materialik gehiena, beraz, egina dute eta hortik aurrera irakastea eta ikastea da.

Hala ikasleak nola irakasleak pozik eta fin ari dira, beren erantzukizunaz jabetzen baitira. Esperientzia honek, nahi eta ez, ondo irten behar du. Hala izan dadila, euskara, plaza- ra ez ezik, gailurrera ere jalgi dadin.

276 ROBINSON CRUSOEREN IRLA

Nobela famatu bat, Daniel Defoe ingelesarena. Irla hori Ozeano Barean, Hegoan, dago eta gaur Txileri dagokio. 1573an kasualitatez aurkitu zuen espainol batek. Baina ez zu- ten han bizibiderik ganoraz jarri. 1703. urtean galeoi bat irten zen Ingalaterratik pilotutzat Alexander Selkir eskoziarra ze- ramala. Brasileratzean, kapitaina hil zen.

Kapitain berria eta pilotua ez ziren ondo konpontzen eta urtebeteren buruan haserretu ziren. Nagusia nagusi, kapitai- nak Selkir pilotua irla batetan abandonaturik utzi zuen eta kito. Eskopeta bat, zenbait munizio eta janari pixka bat utzi zion eta han gelditu zen gure pilotu errebeldea, esaten ari ga- ren irlan, bera bakar bakarrik.

Baina gizona hiltzeko ere makurgaitza izaki, nola edo hala iraun zuen, desolazio hari eutsi zion eta aspaldi hila zelakoan, lau urte eta lau hilabeteren buruan, untzi korsari batek irla hura kasualitatez jo zuen eta hala erreskatatu zuen Selkir e- tsiezkorra.

Esperientzia bakan hau Ingalaterran aho zabalik entzuten zuten eta laster hasi ziren argitarapenak, historia hura oinarri harturik.

Daniel Defoeek ere nobela bat idatzi zuen eta hona gizon baten lau urtetako trantze larria literaturaren historiara pasatua.

277 SERMOIAREN PREZIOA

Gabirian San Roke eguna egun handia zen. Meza nagusiko sermoia udaletxearen kontura zen. Garai hartan hamar hogereko zen. Nondik eta nola ez dakigula, sermoiaren prezioa igoteko eskea heldu zen udaletxera. Alkate eta zinegotziak bildu ziren eta idazkariak azaldu zuen:

—San Roke sermoia, gaur arte hamar hogereko dena, bidezmodua ere gora baitoa, jasotzeko eskatzen da, kristau herri bati dagokionez:

Eztabaidak hasi ziren. Inork ez zuen jasotzerik zalantzan jartzen. Zenbat jaso, ordea?

—Pare bat hogereko gehiago ez dago gaizki.

—Behin jasotzen hasiz gero, hamabostera jasoko nuke nik.

—Hamabostera? Goitik datorren hitza ondo dago goitik ordaintzea, baina ez hura datorren pareraino jasota.

—Beno, zenbat orduan?

Txintxurreta aguazila batzar gelan zegoen isilik eta geldi. Eta esan zuen:

—Aizue, niri ez zait hitzik tokatzen, baina zerbait esango nuke, gaizki ez baderitzazue.

—Bai gizona.

—Ba, esaiozue apez horri hamar hogerekoarena egiten duenean, isildu dadila.

278 EHIZATIK NEKAZARITZARA

Giza prehistorian gizona ehizatik nekazaritzara noiz iragan zen, horra arkeologoen ardura nagusietariko bat. Ehiza zibilizazio moeta guztiz berezia eta zaharra da. Paleolitikoan edo Harri aro zaharrean ehizatik bizi ziren. Gizonaren bizi oinarria naturak ematen zuena harrapatzea edo biltzea zen. Basa bizi esan genezake. Lurlantza edo nekazaritza zibilizazio arras berria eta desberdina da.

Ikerlariak aspalditik ari dira Asiako Hego-mendebaldea arakatzen, une hori zehazki jakin nahirik. Argi dago orduko bizilagunek abere gehiago larratzen eta berezko landaretza gehiago esplotatzen zutela janaritzat eta sugarriztat. Ba dirudi ehizako fauna ere dexente gutxitu zutela, klima aldaerak ere martxa bera jartzen zuelarik. Seigarren milurteetik gora Ekialdeko jendeak ehiza eta bilketa, nekazaritzaren gehigarri handi bezala, bertan behera utzi eta ia osoan nekazaritza eta abelzantza hutsera jo zuen.

Laborerik emankorrenak eta lekadunik ugariak —dilistak, indabak, eta ilarrak— ereiten hasi ziren. Haien saldoetan bazen behirik eta txerririk ere, lehenengo eta betiko ardi eta ahuntzez gainera. Orain arteko historia guztia, beraz, hiru aro nagusitan bana dezakegu. Ehiza Aroa, Nekazari Aroa eta Industri Aroa. Hirugarren hau, erlatiboki jorik, oraintxe estrainatzen edo estraina ezinez ari gara.

279 ZER IKUSI HURA IKASI

Telebistak zer egiten eta eragiten duen esan beharrik ez dago. Nolako arma den ere ez, bai onerako, bai txarrerako. Oraindik telebistaren eragin izugarria neurtzeko dago. Beste teknika bat, beste kultura bat dela, ba dakigu. Baina zer neurritan? Batez ere tele-hezkuntza gizartearen kontrol gisa, horra zer pentsatu handia ematen duena.

Fundazioek enpresa pribatuekin batera sorturiko programa batzu, benetako «buru garbiketak» izan dira herri atzera-

tuetako jende askorentzat. Honela Samoan esperimentuzko programa pilotu batek irlako bizilagunei zeharo sinesterazi zien kotxe, diru, ikuzgailu eta abarren nagusi direnen bizimodu sistema tradizionala baino askoz hobea dela. Sistema tradizionalan lan egin, eta herriko buruzagiari dirua eman behar zitzaion, ordainez eta eskubide berdinez, jana eta jantzia harturik.

Bestalde, ONUko janari antolamendua, zenbait urtetan nekazariarentzat ematen ari den programak erakutsi du lanabes lanketa eta hainbat gauzaren berri telebistaz ikasi dutela. Eta nola ikasi ere. Ez dago honelako arma atomikorik. Onerako handia, txarrerako hondamendia.

280 ELIZAKOEKIN HILTEGIRA

Bi lagun goizalde beranduan atera ziren tabernatik. Ateaz kanpora bazen han atzera-aurrerarik eta albo-zeharrik.

—Aizu! guk pausu guztiok zuzen egingo bagenitu, Kalifornian geundeke oraingo.

—Ez gizona, bitartean itsasoa dago hor.

—Behingoagatik hura albotik pasatuko genuke.

—Eta andreari zer esan?

—Gaur uste dut entzuten ere nahiko lan izango dugula.

—Txiza egin behar dut.

—Aizu, txiza diozu? Begira zer datorren han.

Bi lagunek farol bat bizturik aurrez hurbiltzen ari zaiela ikusten dute. Argia berrogeiren bat metrotara zetorrela, txiza egiteko zenak esan zuen:

—Elizakoak datoz.

—Nor ote dago hain gaizki gure herrian?

Bi lagunak txapela erantzi eta belauniko jarri ziren kamino bazterrean. Baita erreberentzia ederrik egin ere hura paretik pasatzean. Zer zen hura? Baserritar bat zen bere zekorrarekin eta farola eskuan hiltegiara zihoana.

—Arraioa! Ez dago inor hain gaizki.

—Postura honetan gu ere ez gaude hain ondo.

Han izan ziren gero lanak, zutitzean.

281 NOIZKO ARRAULTZEAK

Arraultzeak kontserbatzea aspaldiko kezka da munduan. Egur hautsa, hondarra, gatza, egur txirlora, lastoa, zerrautsa, koipea, argizagia, berniza, ur gazia eta beste anitz sistema. Gaur ba dira berniz plastikoak arraultzea urtebetean zaintzen dutenak, itxuraz alderik igarri gabe. Alde hori igartzekoa da, ordea, saltzaileak ezin baitu arraultzearen barne aldakuntzarik ebitatu.

Arraultzeak aire boltsatxo bat du barruan. Denbora joanala, boltsatxo hori desplazatuz eta handituz doa. Ba da sistema bat hutsik gabea eta edozeinen esku dagoena. Jar ezazu litro bat ur epel, bota itzazu hiru goilarekada gatz, sar ezazu arraultzea ur horretan eta berehalaxe igarriko diozu.

Arraultzea hondoan eta etzana edo horizontal badago, pare bat egun ditu. Pixka bat makurturik badago, hogeiren bat gradutako anguluan, hirutatik bost egunetara ditu. Berrogeita bost gradutako makurdura badu, sei edo zortzi egun. Hirurogei gradutako makurduran, hamar edo hamalau egun. Arraultzea zutik edo bertikal jartzen denean, hamabost egunetik hilabetera dabil. Ur gainera badator, orduan kontuz, hilabetetik gora baitu, edo Jainkoak jakin zenbat.

282 ASTOA HIRIRIK HANDIENAREN FUNDATZAILE

Ba da erdal esaera bat gauza batek asko balio duela esateko: «Eso vale un Potosí». Potosí hau aintzinako Peruko eta gaurko Bolibiako hiri bat da. Lurralde zilartsua eta kolonizatzaileen ametsa. Gaur hiri txikia da, baina XVI. eta XVII.

mendeetan Amerikako hiririk handiena zen, ehun eta hoge mila lagun zituelarik.

Hiri honen sorrera xelebrea da. Asto batek fundatu zuen. Alderdi hura aberatsa zela uste zuten, baina Amerikako beste edozein alderdi bezala. Orduan dena zen urre eta zilar gosea. Dena zen harrapatzea eta esplotatzea. Kolonizatzaileen irensmenak ez zuen azkenik.

Eta hara Huallpa izeneko indio bat, astazain zebilela espainol baten morroi. Behin Huallpari astoak, mendian gora ihes egin zion. Indioak jarraitu zion eta astoak, han-hemen lantzean, ahokada bat hartzen zuen. Arre eta iso, astoa eta astazaina urruti iritsi ziren.

Halako batez indioa ohartu zen astoak belarrak sustrai eta guzti ateratzen zituela eta sustrai diztiratsuak zirela. Begiratu eta zilar brintzak zetozen tartean. Indioak astoa harrapatu zuen noizbait eta bueltan ugazabari kontatu zion. Laster joan ziren mina arakatazailerak. Baita aurkitu ere. Zilarrezko mendia zen. Eta hala sortu zen Potosí izeneko hiri handia asto bati eskerrak. Erdal esaera horrek, beraz, euskaraz honela izan beharko du: «Asto osoa balio duk».

283

BESTE MUNDUKO SENARRARENTZAT

Emakume bat gazterik alargundu zen, baita bigarrenez ezkondu ere. Senarra mendian zen ardi lanean. Etxekoandrea atarian zegoela, gizon ezezagun bat hurbildu zitzaion, bidez zihoana. Agurtu eta egunonak elkarri eman ondoren, emakumeak galdetu zion:

—Nondik nora zatoz, gizona?

—Zeutatik etxera, andrea.

—Nondik esan duzu. Zeruetatik?

—Bai, andrea, bai. Zeruetatik nator —erantzun zuen gizonak emakumearen inozentzia ikusirik.

—Aizu, ezagutzen duzu nere lehengo senarra, Kaxinto Pierron zeritzona? Jainkoak osasuntsu gorde dezala ni joan arte.

—Bai, bai. Ezagutzen dut. Askotan egon naiz berarekin.

—Eta zer moduz dago?

—Aspaldion gose antzean dabil eta jantzi ere pobre samar eta gaizki.

—Oh, oh! Gure Kaxinto gaixoa! Ba duzu berriz itzultzeko asmorik? Ikusiko duzu hura?

—Bai, agudo itzuli beharra dut eta nahi baduzu bihar bertan egongo naiz berarekin.

Emakumea etxera sartu zen eta laster itzuli zen jaki eta arropa pila zekarrela. Ba zen han urdaiazpiko, ziztor, arraultze, axuri eta abarrik. Bigarren senarraren arroparik onenak ere han zetozen eta gizon ezezaguna, bat ere uste gabe, ederki kargaturik aldendu zen.

Handik laster, baserriko jauna, emakumearen bigarren senarra, etxeratu zenean, emazteak pozaren pozez kontatu zion gertatua. Nola zeruetatik gizon bat etorri zen, Kaxintoren adiskidea zena eta nola Kaxintorentzat zenbait gauza eman zion, ez omen baitzebilen gaixoa batere ondo.

—Eta zein aldetara joan da?

—Horko bidexka hori gorantz hartu du.

Nagusia zaldia zelaturik, tarrapataka abiatu zen lapurra-
ren atzetik. Bidaldi bat egin ondoren, hara non ageri den lapurra, urruti samar oraindik. Lapurrak, oharturik, bidea uzten du eta oihanean barrena ezkututzen da. Nagusiak ere behorra bidean utzi eta oinez jarraitzen dio, oihan trinkoa baita. Lapurra gorderik zen eta nagusia zaldia utzita oinez zertorela ikustean, bere gordelekitik irten, mangune txiki bat egin eta gauza guztiak behorrari bizkarreratuz, igon eta heup, abiada bizian urrundu zen.

Tarrapatak entzunik, nagusiak ez zuen hortzak kirrizkatzear beste erremediorik. Haserre eta tristerik etxeratu zen.

—Nola zatoz oinez? Non duzu zaldia? —galdetu zion andreak.

—Hara bada, gaixoa oso nekaturik zihoan hainbeste gauza eraman ezinez eta behorra utzi diot, lehenbaitlehen Zerueta-
ra hel dadin.

284 DEABRUAREN MONARKIA

Akelarreak, deabruak, sorginak eta horrelakoak ez dira Euskal Herrikoak bakarrik. 1909an, hona hemen, nola ziren akelarre ingelesak. Sorginak batzarlekura heltzean, infernu-ko zeremoniak hasten dira. Deabrua aker gisa agertzen da, aurpegi bikoitzez, bata aurrez eta bestea atzez. Aulkian eseri eta denek atzeko aurpegian mun ematen diote.

Agurraren ondoren, zeremoni maisuak sorgin bakoitzari bere seinale ezkutua aztertzen dio, Deabruaren jabetasuna-
ren adierazgarri. Falta zaien seinalea egin eta Deabruak ba-
koitzari bere ezizena ezartzen dio. Berehala dantzan eta kan-
tuan amorraturik hasten dira eta ondoren bakoitzak azken
batzarretik hona eginiko gaiztakerien kontaketa. Behar be-
zain gaiztoak izan ez direnak Deabruak pertsonalki azota-
tzen ditu arantzez eta eskorpioz.

Zigor hau bukatzean apo dantza. Milaka eta milaka apo
lurpetik irten eta dantzatzen hasten dira Deabruak tronpeta
jorik. Apoek, saritzat, bataiatu gabeko haurren haragia eska-
tzen diete sorginei. Sorginek bilatuko dutela agintzen dute.
Deabruak, sorginei promes hori ondo betetzeko mehatxatu
ondoren, lurrari ostikada bat ematen dio eta apoak berriro
lurpera doaz.

Azkenez afaria. Sorginek eta deabruak jatekorik nazkaga-
rrienak jan ondoren, berriro dantzan hasten dira Bataioko
Sakramentuaren kontra, apoak berriz lurpetik irtenik. Ba-
tzutan sorginak biluztu eta deabruaren aurrean dantzatzen
dira, katu bana lepotik eta buztan bat gorputzean behera
zintzilik. Eta deabruaren jauntasuna aitortu ondoren, agur
eta hurrengo batzarrerarte.

285 SATELITEAK KOMUNIKABIDE BILDURGARRIAK

Sateliteen teknologiak beste zenbait aplikazio ekarri du,
lehengo komunikabideetarik oso desberdinak eta efikaza-
goak. Mezu bakar bat puntu askotara zabal liteke eta oso
urrun gainera. Hori irratia eta telebista ere egiten dutela?
Bai noski, baina lurrean koneksio sare konplikatua bide dela:
antena, errepikagailuak eta abar.

Sateliteen teknologiak guzti hori ken dezake eta orduan
komunikabide arras desbedina gertatzen da. Zer ondorio le-
karke horrek? Diru aldetik zenbait kostu gutxitzen da. Politi-
ka aldetik inperio handien nagusitasuna gehitzen du. Zerga-
tik? Handien eskuetan dagoelako. Sistema aurreratuegia da
txikien eskuetan egoteko.

Kanadan, adibidez, satellite hauek berehalako zabalkun-
dea izan zuten, gobernua eta hainbat enpresa pribatuk dirua
erruz jarri zutelako. Horrela Ipar Kanadako indioei, hez-
kuntzaren eta osasunaren berri eman zitzairen. Baina era ba-
tera Ipar Amerikako telebista komertzialeko dosi masiboak
ere sartu zizkieten.

Sateliteek hizkuntza eta botere handien indarra gehitzen
dute. Txikiek eta ahulek ez dute, pasiboki hartzeaz, beste au-
kerarik. Tresna espazial hauek harrigarriak eta teknologia
handien ezaugarriak diren neurrian, zibilizazio txikien hilobi
gertatzen dira.

286 MUTIKO MORROIGAIA

Duela laurogeiren bat urte Zaldibiko baserritar bat Laz-
kaomendira joan zen, mutil koxkor bat morroitzat eraman
nahirik. Etxe bateko nagusiak esan zion:

—Gurean ba da mutiko bat, mundua ikustea komeniko li-
tzaiokeena.

Baina mutikoak ez zuen inola ere joan nahi.

—Ederki egongo haiz —animatzen zuen gizonak— Ardi batzu zaindu eta gainerakoa jolasean.

Mutikoak ez zuen bururik jasotzen atari ertzean, noiz behinka ezetz adieraziz.

—Zergatik ez zenuen joan nahi? —galdetu zion aitak gizona joandakoan.

—Ez dudalako nahi —dio mutikoak— Hain ondo egoten bada, Zaldibin bertan ere aurkituko du norbait.

Igande eguerdian, meza nagusi ondoren, mutikoaren osaba batek etxean sar-irten bat egiteko ohitura zuen. Aitak bere koinatuari esaten dio:

—Zaldibiko urlia izan dugu gure mutikoa eramane nahirik eta honek ez du joan nahi.

—Begiratu diozu zer lepo duen? —galdetzen dio osabak ilobari.

—Bai, mehea.

—Eta ilea?

—Luzea —erantzuten du ilobak.

—Ondo esan diozu orduan —sententziatu zuen osabak—. Pentsa etxe hartan zer mantendu izango den morroiarentzat, nagusia horrela dabilenean.

287

BEHIA UNTZIEN HONDORATZAILE

Galiziako itsas ertza oso pertsegitua eta sakeatua izan da historian zehar. Piratak eta korsariak noiznahi agertzen ziren eta izugarrikeriak egin. Gailegoak, gehienak, herri txikietan eta defentsarik gabe, beti zelatan eta bildurrez bizi ziren. Hamabosgarren mendean, adibidez, Francis Drake korsari famatuak Galizia puskatu zuen, egundoko gerra basatia eta krudela sorteraziz. Hemeretzigarren mendean Napoleonen tropek ere basakeria nabarmenak egin zituzten.

Gailegoek ere zerbait egin behar. Denak hain ezjakinak eta kokoloak ez izaki, sistema bitxia asmatu zuten beren pirateriarako, alegia, untxiak hondora erazteko eta harrapatze-koak harrapatzeko. Behia zen pirata nagusia. Adar batetan zuzi biztu bat jartzen zioten behiari eta hondartzan zehar hara eta hona erabiltzen zuten, gau ilun eta ekaizsuetan batez ere.

Behiak buruari eragiten dion berezko baibena zela bide, gauez isilki nabigatzen ari ziren untxiek beste untxiren bat zela pentsatzen zuten, itsas ertzetik hurbilago zebilena. Beraz, untxi hartara gehiago hurbiltzen ziren, bai hura espoliatzeko, bai ekaitzetik hobeki defenditzeko. Ez zekiten askorik untxizat hartutako hura behi bat zela. Hurbiltzen ziren, haitza edo hondarra jotzen zuten eta orduan zetorren benetako ekaitza.

288

ZALDIEN JAIA

Galiziako mendi bideetatik doanak hainbat basa zaldi ikusiko du tximista bezala agertzen eta ezkututzen. Ba da tradizio bat, Santiago ondoko herritxo batetan hain zuzen, gaur ere duela bostehun urte bezain gartsuki ospatzen dutena. Kondaira hau hamaseigarren mendetik datorkigu, askoz aurrerago gertatua bada ere.

Kondairak dio, izurri bildurgarria zabaldu zela herrian. Etxe batetan bi ahizpa bizi omen ziren. Hauek zaldi pare bat agindu omen zioten zaindariari beren ikuilua hondamenditik salbatzeagatik. Bi ahizpen ikuilua eritasunetik salbatu zen eta herriko beste zaldieria guztia hil. Bi ahizpen ikuiluari eskerrak zaldiak pixkanaka berriro ugaritu ziren. Geroztik herriak beti aitortu du zaldiek urtez urte eramaten duten irabazia.

Urtean behin herritar guztiak mendira igoten dira Parrokiari dagokion saldoa batzen dute eta herrira jaisten. Han

arrak eme-umeengandik apartatzen dituzte, txikiak markatzeko eta arren grinak moztu eta saltzeko. Esan bezala, urtean behingo ohitura hau lehen bezain gogotsu ospatzen da gaur ere, nahiz eta orain, saldoa handituz doanez gero, denak harrapatzen gero eta komedia latzagoak izan.

289

EURIA GOITIK ETA URA BURUTIK

Gizona Nafarroatik ardo garraioan zebiltzanetarikoa zen. Etxarritik Ataunen behera eta alderantziz, hamaika txori la-gun egin zituen. Egun guztiak ez baitira berdinak eta gutxiago negu-udak, behin ederki bustirik etxeratu zen; ez barrutik noski kanpotik baizik, egundoko euriteak harrapatu baitzuen.

—Ba zatoz, gizon? —galdetu zion emazteak.

—Banator, baina ez dakit oinez ala igeri.

Sukaldera sartu ziren eta emazteak berriro ere:

—Bustita zaudenez gero, ekar ezazu baldekada bat ur iturritik.

Gizonak ez zuen muturralde polita jarri, baina obeditu zuen. Ontzia hartu iturritik eta euritik bete eta bueltan sukaldera sartu zenean, andreari esan zion:

—Hemen duzu, ba, baldekada ura.

Eta beste gabe parrast burutik behera bota zion.

—Zertan ari zara, gizona? —hotsegin zuen emazteak blai-blai.

—Zuk ere orain, bustita zaudenez gero, ekar ezazu beste baldekada bat.

Ez dakigu zaparradak zertan bukatu ziren, baina goierritarek diotenez, iturrira bidean eskandalu ederrak entzun omen ziren.

290

EBLA, ZIBILIZAZIO AURKI BERRIA

Jesukristoren aurreko hirugarren milurtean gaude. Nilo inguruan faraoiak dira nagusi. Handik ehun batzu kilometrotara, Mesopotamian, Akkad-tarren inperio berria hasten da, inperio handia, noski. Zer gertatzen da garai hartan Niloren eta Mesopotamiaren artean? Ezer ere ez. Potentzia handirik ez dago behintzat. Basamortua eta gizaki batzu eta zenbait abere hara eta hona.

Hori uste zen orain arte. Baina historia hura arras berritu beharra dago. Ba zen han zibilizazio handi bat, faraoiei eta akkadarrei zorrik ez ziena. Ba zen han hiri handi eta bikain bat: Ebla, inperio batetako hiriburua eta lurralde hartako hirugarren potentzia. Ebla izen hau zenbait sumeriar eta babiloniar dokumentutan agertzen zen, baina inork ez zekien deusik hartaz.

Aurkikunde hau, arkeologian garai guztietako aurkikunderik handienetarikoa omen da eta mende honetako handiena. Aurkitzaileak italiar Paolo Mathiae eta beronen taldea izan dira. Hirurogeita lauan hasi eta hamar urtetan lana bukatu dute. Hara Ebla harrigarria, lurpetik berriz agirira ateratako zibilizazio handia, Siriako lurretan. Histori zati bat berriro egin beharra dago eta eskolako liburuak aldatu beharra.

Hiri handia eta zibilizazio handiagoa, duela bost mila urtetakoa. Eblako gauzarik garrantzitsuen eta miragarriena liburutegi edo artxibo bat da, Oholtxo kuneiformeak dira. Hamabost mila oholtxo. Kuneiformeak ziriaren formakoa esan nahi du. Horrela, idazkera kuneiformea letrak edo silabak ziri formaz idaztea da, ohol edo bustin gogortuan.

Eblako hamabost mila oholtxo horietan denerik idatzita dago. Jauregiko sar-irtenak, merkatalgo internazionala, gai historikoak, hala gerrak edo itunak, eskutitzak, hiztegiak, literatur lanak eta poema mitologikoak. Aurkikunde honetako lehen datu berezia orain arte ezagutzen ez zen hizkuntza bat dela, zeinetatik mila urte geroago feniziera sortu zela baitirudi. Eta gainera hemengo hiztegia historiako hiztegirik zaharrena da, ezagutzen denetik behintzat.

Ekialde hurbileko historiari buruz, dokumentu hauek hirugarren milurteko itzalunetik gehiena argitzen dute, hiri honek nazioarteko harreman asko utzi baitzigun oholtxo horietan. Jesukristoren aurreko 2250 inguruan Ebla errea eta desagina izan zen. Haizeak pixkanaka hondarrez eta lurrez es-tali zuen eta hor egon da ehortzirik, italiar ikerlari horiek aurkitu arte.

291 BETAURREKOAK PROBATZEN

Gabiriar bat betaurrekoak behar zituela eta optikara joan zen.

—Zer behar duzu, gizona?

—Badakizu, ba, bista ere ez baita betikoa.

—Eseri hemen lasai.

Argiak itzali eta aparatua begietan jarri zioten, kristalik gabe.

—Ederki ikusten dut —esan zuen beste gabe gabiriarrak—

—Ah, bai? Seinale ona duzu hori.

Begi batean kristal bat jarri zion eta:

—Ea orain!

—Hemendik ederki ikusten dut —erantzun zuen gabiriarrak kristalik gabeko begia seinalatuz.

Optikoak orduan, barre ala haserre zer egin ez zekiela, betaurreko batzu eman zizkion esanez:

—Beno. Eraman hauexek eta gaizki bazaude, etorri eta berriak probatuko ditugu.

Gabiriarrak orduan:

—Ez dira, orde, niretzat, andrearentzat baizik.

—Arraioa! Zergatik ez da, ba, bera etorri?

—Bigarren bueltan etortzeko gelditu da, zerorrek esan bezala.

292 BAKEA GERRILAZ BETEA

Francok gerra irabazi zuen. Salbatua zen Espainia. Orain bakea, bake ederra, bake lasaia eta emankorra. Hogeita bost urtetako bakea. Hori zen propagana guztiak sartzen zuena eta ez gutxiri sinets erazi zieten. Hor solte zebiltzanak bandoleroak ziren, lapurrak ziren. Hori ere propaganda ofizialaren errepika zen.

Ba zen benetan gerrilarik gerra bukatu eta gero? Bai, jai-nak, eta ez gutxi ere. Batez ere 46tik 53ra. Pentsa noiz bukatu zen gerra. Azken talde gerrileroak 63an desegin zituzten. Talde gerrileroek Espainiako probintziak gehienetan jokatu zuten, denetan ez esateagatik. Zenbat gizon hil zen eta zenbaterak armak hartu zituen? 43tik 52ra eta goardia zibilak bakarrik 5.548 «bandolero» hil zituen, ABC egunkariaren arabera. Egunkari honek bapo laburtuko zituen numeroak. Gerrilek hogeita zazpi urte iraun zutela eta goardia zibilez beste gorputzek egin ere joes gero, zenbaki hori lau bidertu beharra dago. Beraz, hogei milatik gora.

Gerrilatik gehien, jakina, probintzia menditsuetan izan zen, hala Asturias, Teruel, Granada, Málaga, Castellón, Santander eta Cuenca. Hiri gerrilak hiri handietan bildu ziren, Bartzelonan batez ere. Gerrilen errepresioan izugarrikeriak egiten dituzte. Langreoko Pozo Funeresen adibidez, hogeita bi lagun detenitzen dituzte mendietan dabilzanen laguntzat edo etxekotzat eta troka edo zulo handi batetara botatzen dituzte. Gehienak ez baitira erortzean hiltzen, gasolina bidoiak bota eta haiei su emanik hiltzen dira herritar gaitxoak.

293 1200. EKO MAIATZA PARISEN

1968ko maiatz frantsesa historian oso sarturik gelditu zen. Estudianteen greba indartsuak Frantzia hankaz gora jarri zuen. Baina historia aspaldi hasirik dago eta 1200ean ere antzeko zerbait gertatu zen Parisen. Garai hartan Paris estu-

diantez beterik zegoen. Baina ez zegoen unibertitate gorporatiborik. Nola sortu zen Parisko unibertitate gorporatiboa? Egundoko nahasteen ondorioz.

Estudianteen eta tabernarien artean txoke izugarri bat izan zen. Polizia sartu zen eta bost estudiante hil ziren. Orduan ikasleek eta irakasleek polizi buruaren zigorra eta beste zenbait kexa azaldu zioten Erregeari, irakaskuntza utzi eta Paristik aldegingo zutela amenazatuz. Erregeak orduan jurisdikzio lokaletik apezpikuaren azpira pasatu zituen auziak.

Parisko unibertitateak, ordea, ez zuen horrekin nahi adinako askatasunik lortu, apezpikuaren mende baitzegoen. Erromara jo zuen. Parisko apezpikuak ez zuen bere aginpidetik utzi nahi. Orduan greba orokorra, luzea eta gogorra heldu zen. Aita Santuak parte hartu behar izan zuen eta ez zen izan unibertitatearen autonomia onartzeaz beste erremediorik. Horrela Parisko unibertitateak maisuen eta ikasleen arauak eta erakundea «de jure» edo legez irentsi behar izan zituen. 1215ean gertatu zen hori. Nahasteak 1200ean hasi baziren, pentsa orduan ere zenbat jo behar zen zerbait lortzeko.

294 MATERIAREN MISTERIOA ARGITUZ

Albert Einstein, historia guztiko bururik handienetarikoa, pot eragin zion sekretua hiru fisikok argitzea lortu dute. Hirurak Fisikako Nobel sariak izan dira. Bata, Abdul Salam, pakistandarra eta beste biak iparramerikarrak: Sheldom Glasgow eta Steven Weinberg.

Hiruon artean atomoaren edo materiaren estruktura oinarritzkoa ulertzeko, aurrerakada handia eman dute. Ba genekien atomoaren barruan lau indar oinarritzko zeudela: grabitate, elektromagnetismoa, atomoen interakzio gogorra eta atomoen interakzio ahula. Lau indar oinarritzko hauek ez dira indar oinarritzko bakar baten agerpenak baizik. Beraz,

orain teoria unifikatua egin liteke. Einsteinek horrexen gako aurkitu ezinik iragan zituen bere azken hogeitun urteak, azkenean bere burua frakasatuz jotzeraino eta tristuraz hiltzeraino.

Teoria honen garrantzia antzeman ezinikoa da energiaren etorkizunerako, nahiz eta berehalako aplikaziorik ezin izan zoritxarrez. Gauza hauek ulertzea ez da erraz. Antz bat emateko, hona ondorio bat, ia fantasia dirudiena: jakintsu hauen aurkikundeekin izarrak eta unibertsoa noiz eta nola sortu ziren jakitetik hurbil gaude. Erligio guztietan aitortu den misteriorik handienetarikoa, kreazioaren argizetik ez gaude urrun.

295 MARMOTA, LODITASUNAREN ERREMEDIAOIA

Marmotaren hibernazioan molekula batek zaintzen du piztia honen tenperatura. «Bonbasina» deritzon molekula honek gizonarengan ere, beharbada, gosea eta metabolismoaren oreka kontrola dezake. Loditasunaren eta hortik datozen eritasun kardio-baskularren behin betiko erremedioa izan liteke. Hori uste du Kaliforniako Salt Ikertetzak.

Begira marmotak zer egiten duen. Udazkenaren azken aldera, eguraldia hozten eta janaria urritzen hasten denean, marmotak negu guztirako loari ematen dio. Haren gorputzean gas karbonikoaren tasa gehitzen da eta mugitzeko eta jateko premiak gutxitzen. Lozorroan sartzen da, tenperatura ia zero gradutaraino jaisten zaio eta zelulen iharduna minimora. Bihotza gelditu eta zerebroko ihardun elektrikoa apenas igartzekoa den. Marmotaren gorputzeko metabolismoak ralentinean dirau.

Piztiaren tenperatura puntu arriskugarriraino jaisten bada, barruko termostako batek arriskua salatzen du eta zerebroak bere hormonen bitartez metabolismoaren azelerapen txiki bat eragiten du. Gosez eta hotzez guztiz ez hiltzeko «pixka

bat hiltze» honen sistema konplexua zenbait ugaztunen pribilegioa da. Satitsuari, saguari eta muxarrari janaria kendu eta lehenengo biak hilko dira, baina muxarrak lo egingo du.

Gizonak ez dauka berez hibernatzeko sistemarik. Baina beharbada bonbasina pixka bat sartuz gero, antzeko zerbaite lortzea baliteke. Esperientziak hortik ari dira.

296

ESPAZIOAN DENBORA AZKARRAGOA

Erlojuak aurrera edo atzera daitezke. Erloju bata bestea baino azkarragoa izan liteke. Baina denbora bera?

Begira. Duela hamar urte, 1976ko ekainaren 18an, «Scout D» izeneko untzia espaziora bota zuten Virginiatik. Hidrogenozko maser bat zeraman barruan. Maserra laserraren bariante bat da. Laserrak onda klase batzu dira. Laser ondak faktuak dira.

Maserrak mikro-onden radiazioak ematen ditu. Onda hauen frekuentzia oso estua da. Eta onda bakoitzak denbora zati oso zehatza ematen du. Honetan erlojua bezala da. Baina erlojua ondo edo gaizki ibil liteke. Beste onda hauengatik, ordea, ez dago ondo ez gaizki esaterik, materiaren beraren barne funtzionamendua baitira.

Eta hemen dator nobedadea. Onden denbora zati edo unitate horrekin lurreko eta espazioko denborak konparatu dituzte. Eta horra espazioko denbora azkarragoa dela. Hemen 10.000 kilometrotara lurreko 10.000 segundu espazioan 9.998 segundu dira. Bi gutxiago. Pentsa hamar mila kilometro unibertsoan ez direla ezer. Beraz, bi segunduren alde alde handia da hor. Ba liteke hemengo ordubete, izar batetan minutu bat izatea edo alderantziz. Einsteinen teorienez zurrutapen bat gehiago duzu hau. Zer arraio da orduan denbora? Konparazio txar bat nahi baduzu, denbora materiaren pultsua da. Konparazio hoberik nahi baduzu, ba duzu burua zertan apurtu.

297

MINBIZIAREN AURKA SUKARRA

Mediku frantsesek eta amerikarrek minbiziaren kontrako erremedio berri bat asmatu dute. Gorputzeko edo gorputz zati batetako tenperatura jasorik, minbiziaren tumoreak desegin edo neutraliza daitezkeela ikusi dute. Sukar artifizialak zer mekanismo eragiten duen oraindik ez dakite, baina bai igartzen dela.

Gorputzeko tenperatura berrogei gradutatik gora jasotzeari hipotermia deritzo. Tumoreak 45 gradu edo gehiagoko tenperaturaz trata daitezke. Azalaren azpian neurtzeko jartzten diren sensore elektrikoek hori adierazten dute. Batzutan haxe da aski minbizia kentzeko.

Hipotermiaren aitatasuna Stehlin doktoreari dagokio. Honen duela hamabi urte antiminbiziak beroturik injektatzea askoz hobe zela antzeman zuen. Anitz urte geroago, Giovanna doktoreak demostratu du minbiziaren zelula asko berrogeita bi gradutatik gorako tenperaturaz hil egiten direla. Medikamentuak odol berotuarekin batera sartzen hasi eta horra zer alde aurkitu duten: honela tratatu gabeko erietatik % 22 bakarrik bizi dira beste bost urte. Medikamentuak odol berotuarekin batera sarturik, ordea, % 78 bizi dira bost urtetik gora. Minbizi klase batzu hiltzeko berotasuna ona baldin bada, ez da hain erremedio zaila. Baina kontuz norbera erre gabe.

298

LASTER DENOK BAKTERIAK JATEN

Bakteriak organismo txiki-txikiak dira, mikroskopikoak. Zelulabakarrak dira eta erdibituz birsortzen dira. Eta hona bakteriak haztea ganadua haztea baino askoz laburragoa, errazagoa eta efikazagoa dela. Borda klase berri honetan ez dago ezbeharririk, ez izurrik, ez atzerapenik hazkunderan.

Bakteriak oso proteinatsuak dira. Iaztik bada lantegi pilotu bat Hoechst-en. «Probioia» deritzon mikrobio berri eta oso aberatsa produzitzen du. Pentsa mikro-organismo hauek zer azkar ugaritzen diren. Txahalak bostetik zortzi astetara behar ditu pisua bi bidertzeko. Belarrak aste bat edo bi behar ditu. Bakteria hauek, ordea, ordu erditik lau ordutara doblatzen dira.

Probioiaren kasuan hirin hori bat ateratzen da, proteina ezin aberatsagoa. Ehuneko 80 proteina du. Arrain hiriak ehuneko 66 du eta soiak ehuneko 45. Probioiaren abantaila nagusia hau da, alegia, energia gutxi kostatzen den erreaktoreetan fabrikatzen dela. Antz bat emateko, hemen janari kaloria bat lortzeko bost energi kaloria behar dira. Txahal hazkuntzan, ordea, janari kaloria bat ateratzeko ehun energi kaloria behar dira. Zenbait animaliatan aprobak egin dituzte eta erresultatuak erabatekoak dira. Hurrengo etapan gizona.

299

BULARRA EMAN ETA MINBIZIRIK EZ

Minbizietariko bat bularreko minbizia da. Alde batetik gero eta bular gutxiago ematen zaio haurrari. Lotura handia dela, elikadura hobeak daudela eta abar. Hona orain minbizilariek edo kantzerologoen zer dioten. Ba zen hipotesi bat haurrei ditia ematen dieten emakumeek bularreko minbiziaren arrisku gutxiago dutela. Hipotesi honek indar handia hartu du orain.

Hong Kong-go ospitale batetako medikuek arrantzaleen emazteak obserbatu dituzte. Hauek bular eskuinaz bakarrik haurrei ditia ematen diete, sineskera bat baitute bular eskuina bizigarriago eta osasuntsuago dela. Eta hona emakume hauek bular ezkerreko minbizira joera gehiago dutela.

Roy Ing doktoreak eta bere laguntzaileek bularreko minbizidun 2.372 emakume interrogatu zituzten, bular eskuinaz bakarrik ditia emateko ohitura zutenak. Hauetariko hama-

retik zortzik bular ezkerrean zuten minbizia. Emakume horiek haurrei bi bularretatik ditia eman baliote zer gertatuko zen? Ondorio garbirik ezin da oraindik atera, baina zenbakiak hor daude. Jakin behar dena da ea ditirik ez ematea txarra den eta horrek ekartzen duen minbizia ala ea ditia emateak edo haurrak berak zerbait onik duelako den, ala biak batera diren.

300

TRATULARIA ETA BASERRITARRA

Gabiriar tratulari bat Ordiziako feriatik etxerantz zetorren oinez. Saltzera eraman zuen idi parek saldu gabe zekarren bueltan. Atzetik beste gabiriar bat zetorren oinez hura ere, baina idien pausakera geldia baino bizkorrago, noski. Parera heltzean esan zuen:

—Arratsalde on.

Tratulariak ez zion kasurik ere egin.

—Ba goazela orduan —berriro ere baserritarrak.

—Ez —tratulariak.

—Ba gaudela orduan.

—Bai.

Tratulariak, lehengo erantzunaz damaturik edo, geroxeago esan zuen:

—Guk ez baitugu zenbaitek bezala azkar ibiltzeko balio.

Baserritarrak orduan:

—Guk ederki korritzen dugu, bada, ez baitugu zenbaitek bezala bizkarrean fardelik.

Tratularia kondorduna baitzen.

—Eta duenak zer egin behar du?

—Idiak saldu eta mandoa erosi, hari kargatzeko.

Berriketa nola bukatu zen ez dakigu, baina ez omen zuten elkar hil, geroztik urte askotara berez hil omen baitziren.

301 KAFEAREN ZAZPI ZORIONAK

Ba zen garai bat kafea drogatzat edo biziotzat jotzen zutena. XVIII. mendean eztabaida latzak ziren ea kafea ala tea pozoitsuagoa zen. Suediako Gustavo III.ak, nekazaritzaren eta arte-letren babestaile handia omen zenak, kafearen eta tearen propietateak biziengan esperimentatzea pentsatu zuen. Horrela exekutatuak izan behar zuten bi hobenduri pozoindurik hiltzera kondenatu zituen, bata kafeaz eta bestea teaz. Pixkanako heriotze hori kontrolatzeko medikuak bereziki izendatu zituen. Erregea asesinaturik hil zen, medikuak ere hi ziren eta bi delinkuenteak oso zahar osasuntsu hil omen ziren.

Kafea Ekialdean zabaldu zen. Mecatik Kairora. Erdi erlijiosoan zen. Derbitxeek (fraile antzekoek) hartzen zuten logalea uxatzeko, eta gaua otoitzean egiteko. Gero elizkizunetatik aparte ere, Mecako erromesak kafeari gustu hartzen hasi ziren eta horrela laikotu zen kafea. Ohitura zaharren aldekoek halako profanaziorik ezin zuten onartu eta arrazoi erlijiosoengatik lehenbiziko kafelekuak 1511an itxi zituzten.

Europar kafea beranduago sartu zen. Elizgizonek mahomarrengandik zetorren edozer gaizki ikusten baitzuten, apez batzuk Klemente VII. Aita Santuarengana jo zuten, kafea kristauei debekatzeko eskatzera. Aita Santuak «deabruaren edari beltz» hura bere begiz ikustea pentsatu zuen. Ekarri zioten eta hain usain gozoa eta tentagarri hartu zion eta ezin probatu gabe utzi. Dastatu ondoren esan omen zuen:

—Penagarri da Satanasen edari hau fedegabeek bakarrik edatea.

302 KALIXTO EUSKALDUNEN AURKA

Duela 800 urte ez gintuzten euskaldunok askorik maite. Euskaldunetz mintzo den idazkirik zaharrenetarikoa «Santia-goren liburua» edo «Codex Calixtinus» da. Hamabigarren mendekoa da eta Kalixto II. Aita Santuak idatzi omen zuen. Begira zer dioen:

«Nafarrak eta baskoak oso antzekoak dira janean, jantzian eta hizkuntzan, baskoak nafarrak baino azal zuriagokoak badira ere. Nafarrek «abarkak» izeneko oinetakoak erabiltzen dituzte, larru ilekun eta ondugabez eginak eta oinari uhalez lotuak. Honela oinazpia babestu eta gainerakoa libre usten dute. Jaten, edaten eta jazten txerri hutsak dira. Denek kazola beretik jaten dute eta ez goilarez, eskuz baizik. Eta edan ere ontzi beretik. Hizketan entzungo bazenituzte, txakurren zaunka dela pentsatuko zenukete, hizkuntza guztiz barbaroa baitute».

Eta geroago dio: «Herri barbaroa da hau, ohituraz eta izaeraz beste guztiengandik desberdina, gaiztakeriaz josia, bihotz iluna, itxura zantarra, galdua, zitala, perfidoa, desleiala eta faltsua, haragikoia, hordia, guztietariko biolentzian txapeldun, okerra, basatia, doilorra eta dongea, fedegabea eta zakarra, ankerra, kimeratsua, inolako bertuterik gabea eta bizio eta txarkeria guztien jabea...».

Gaur ez dakigu baina orduan ba ginen zerbait.

303 MARINO PRESO

Marino pelotaria, pelotarengatik baino bere ateraldiengatik famatuago gelditu zaigun gernikarra, preso zegoen gerra ondoren, noiz irten behar zuen ez zekiela.

—Pelotan ere ahaztu behar zaigu hemen —esaten zuen.

Eibartar sozialista bat zuen lagun, zinegotzi izana bera errepublika garaian eta gerra erdirarte. Beti negarrez omen zegoen gizona esanez:

—Ni ez naiz ezer izan.

—Ezer ez izatea nahiko delitu da bera ere.

—Ni ez naiz, ordea, ezer izan. Ezertxo ere ez.

—Zinegotzia behintzat izan zara —esan zion Marinok.

—Hori ez da ezer, ni ez naiz ezer izan.

—Eta ni zer izan naiz, bada? Azido sulfurikoa?

Beste behin Marino libre zela, istripu bat izan zen Gernikan. Marino tabernan zegoen eta han azaldu zen norbait berririk kontari:

—Istripu izugarria gertatu da. Hanka biak, burua, saihe-tsak, zer ez du apurtu?

—Ez da horrenbeste izango —esan zuen lagun batek.

—Horrenbeste? Ba dakizu zenbat puntada eman dioten? Hogeita hamalau puntada.

—Oker ikusi duzu zuk —esan zuen Marinok— Txalekoren bat izango zen.

304 AZUKREA NOIZDANIK ETA NONDIK

Azukrearen kontsumoa aurrerapenaren indize nagusietariko bat da, hortzetarako oso txarra bada ere. Erremolatxa, azukre emale gisa, duela mende eta erdiko kontua da. Azukre kainabera, ordea, aintzinaterik zaharrenetakoa da. «Azukre» izena bera ere sanskritoko «sarkara» hitzetik dator.

Azukre kainabera berez, Bengalan eta Txinako Ekialdean hartzen dela dirudi. Txinoek, behintzat, oso aintzinatik eza gutzen zuten. Jesukristo baino bostehun urte lehenago, Dariok Indon zehar egin zuen espedizioan, pertsiarrek landare miragarri bat aurkitu zuten: «Erleen interbentziorik gabe ez-tia ematen duen kainabera». Muestra batzu ekarri eta sekretua isiltasan zorrotzean gorde zuten. Alexandro Haundiak Pertsia konkistatzean, azukre kainabera aurkitu zuten.

Mundu Berria edo Amerika aurkitu arte, azukrea gai preziatua eta oso urria zen. Mendebaldean Amerikaren aurkikundeak azukregintzaren iraultza ekarri zuen. Amerikako lurralde tropikalak azukre lanerako ezin hobeak ziren. Hala ere, erremolatxa aurkitu arte, azukrea gauza urria zen. Lehen Mundu Gerrararte lujotzat jotzen zuten. Zenbait herri-ritan ba zen ohitura aipagarri bat: «Azukre kordela». Azukre koskor bat kordeletik mahaian eskegi eta etxeko bakoi-tzak txandaka miazkatu. Mihirik luzeena zuenak suertea.

305 ATZERAPENA ETA GOSEA

Herri aberatsak munduko populazio osotik heren bat bakarrik dira eta lurreko baliakizunen %75 jaten dute. Beraz, hirutatik batek lautatik hiru jaten du. Herri aberats horiek munduko produktu brutoaren %88 dute, merkatalgo eta inbertsioen %80, industriaren %93. FAOren zenbaki ofizialak dituzu hauek.

Ez da, beraz, harriztekoa gizateriaren bi heren gosez, gaizki elikaturik edo atzeraturik egotea. Zeintzu dira herri atzeratuak? Afrikan denak, bi petrolio esportatzaile izan ezik: Libia eta Gabon. Asian atzerapen osoa dute, Japon, Israel, Hong-Kong, Singapur eta Arabiako petrolio esportatzaile- ren batzu izan ezik. Atzerapenaren totalak 132 herri harra- patzen ditu (189tik). Beraz, bi mila milioi lagun; azken hiru urteotan berrogeita hamar milioi gehitu delarik.

Bestalde eta FAOren kalkuluz, urtean hamabost milioi la- gun hiltzen dira, zuzenki edo zeharki, gosearen ondorioz. Oraintsu argitaraturiko txosten baten arabera, ordea, «mun- duko janari probisioa gaur hain ugaria ez bada ere, bai nahi- ko mundu guztia elikatzeko, behar bezala banaturik balego».

306 GALTZAK GALDURIK ETXERA

Ezkiogako organu jolea zen gizona. Elizako auspoak ere bere puntua behar baitu, ba zekien tabernan egoten. Sarritan irtetea ahaztu. Hala zegoen behin Santa Luziako tabernan. Ez dakigu nola, baina txurruta bitarteko zela, galtza gabe aurkitu zen. Berak erantzi ala besteek kendu? Berdintsu da hori goizaldeko orduetan. Mostradore aurrean bere ekibi- zioak egin ondoren etxerantz abiatu zen, esanez:

—Etxera joateko ez da galtzarik behar. Besteetan ere han- kekin joan izan naiz beti. Hankak, mutilak, hankak.

Alkondara hutsean etxe ondoratu zenean, orduan ohartu zen giltza galtzetan zuela. Berririo tabernara joatea gehiegi zen. Etxe ondoko madariondora igoten hasi zen, handik

leihora sartzerakotan. Igon zen, baina leihorik ezin harrapatu. Normalean ondo, baina gau hartan zerbait gertatzen zen han. Madariondoa zabukatzan ari zela, lagunak atzetik heldu ziren galtzak ekartzera.

—Zer? Freskura ona?

—Zuhaitza hurbiltzen dut, baina leiho arraioak atzerantz egiten du. Hurrengoan leiho eta guzti joan beharko dut tabernara.

Azpikoek algara ederrik egin zioten zurtasun fresko hari, goikoak alkondara jaso eta pixa egiten zuen bitartean.

307

GOSEAREN AURKA ALFERRIK

Kanbodiako egoera beltza beharbada bakana da, baina ez bakarra. Bere teknikaz eta aurrerapenaz harropuzturik dabilen gure mundu honek, oraindik ez du gakorik nagusia konpondu: gosea edo elikadura txarra.

1974an Erroman egin zuten gosearen aurkako munduko biltzarreak honela bukatu zuen: «Hamarkada honen azkeneko gosea erauzirik».

Hirurogeian «iraultza berdea» zelakoak hots handiak atera zituen. Norman Borlang-ek labore mota berriak Mexikon ezarri zituen, gari, arto, arroz eta abarren labore supergogorak, superemankorrak. Klimarik latzenei eusten zieten eta hasieran miragarria zen hura. Ekuadorren eta tropikoetan uztak prebisio guztietatik gora zihoazen. Indian gari uzta hamaikatik hogeita sei milioi toneladataraz igon zen. Elikaduraren bigarren munduko biltzarreak, 1970ean, iragarri zuen: «Gosearen eta atzerapenaren aurkako gudua irabaztekoa da». Hona, ordea, gaur gudu hori galdutzat jotzen dela. Aurrera bidean dauden herrietako labore defizita 70ean hama sei milioi bazen, 78an hirurogeita hamaika milioi izan da. Ez da milagrorik gertatu. Zergatik?

Gosearen aurkako «Iraultza-berdeak» edo nekazaritzaren birreraketak porrot egin du. Zergatik? Arrazoi askorenga-

tik. Bata hazkunde demografikoa. Baina ba da beste zenbait arrazoi teknikoagorik eta hauei gagozkie.

Emankortasun handiko motak (garia, artoa, arroza...) normalak baino garestiago ateratzen zirela ikusi zuten. Ongarri eta pestizida gehiago eta batez ere erregaketa ona behar zuten. Nekazariak kontuak atera eta ez zegoela zereginik ikusi zuten. Gai modernoz eta banku kredituz ondo horniturik zeuden lurrun handientzat bakarrik balio zuen. Lurrun txikiek lurrun handiei saldu, langile bihurtu eta azkenean parroan bukatu zuten.

Bestalde okerrena hau da, alegia, subsistentzi kultiboen ordez kultibo espekulatiboak saltzen direla. Ez da jateko onena denik ereiten, ondoen saltzen dena baizik. Eta non saldu? Herri aberatsetan hain zuzen. Kakahueteak, kafeak, kakaoak, azukre kainaberak eta kautxoak, artatxikia, mandio-ka, sorgoa eta abar baztertu dituzte. Senegalen %52 lur kakahueteari dedikatzen zaio. San Maurizioko irlan %80 azukre kanaberari.

Erraz esportatzeko merkantzia guzti hauek diru gehiago ematen dute, baina prezioek lurrik jotzen ez duten bitartean. Gai hauek mundu aberatsetan nola dabilzan, hala dabil herri pobreetako ekonomia. Bestalde beharreko janariak inportatu behar, eta horien prezioak ere herri aberatsetan erabakitzen dira. Hitz batez Hirugarren Munduko nekazaritzak bere lehen helburua galdu du, alegia, nekazariari gosea kendu behintzat. Munduko sistema osoari buelta eman ezik ez dirudi atzerapenak aurrerabiderik duenik.

308

FOSILEN ADINA ETA KARBONOA

Aintzinako animalien eta gizonen eskeletoak aurkitzean, nola jakin zenbat urte duten? Ba da sistemarik hori jakiteko ala fantasiak dira denak? Ez. Ba da teknika bat —karbonoarena— zehatza eta hutsik gabea.

Karbonoaren isotopo radiaktibo bat karbono 14 da. Izenak gutxiena dira. Pentsa ezazu sustantzia bat dela eta aski

da. Oxigenoa, hidrogenoa eta abar bezala. Sustantzia hori, karbono 14 esaten zaion hori, atmosferan etengabe sortzen ari da izpi kosmikoen edo izarren argi izpien eraginaz. Karbono hori landareetan sartzen da eta landareetatik animalietara pasatzen da. Gizonarengana ere bai. Beraz, sustantzia hori izaki bizidun guztiek dute.

Baina landarea edo animalia edo gizona hiltzean, hortxe bukatzen da karbono hartzea ere. Eta lehenik zeukan karbonoa desintegratzen hasten da. Galtze horren erritmoa ezaguna da: erdia galtzeko bost mila eta zazpirehun urte inguru behar dira. Beste hainbeste hurrengo erdia galtzeko eta horrela. Beraz aintzinako gizon eskeleto batek eta gizon bizi batek zenbana karbono duten neurtu, konparatu eta diferentziatik eskeletoaren urteak ateratzen dira, milaren bat gora behera. Hainbeste mila urteren luzeran zehaztasun handia da hori.

309

EURI AZIDOA

Euri azidoa lehenengoz meteorologo suediarrek haintzat hartu zuten 50. urte inguruan. Euri azido hori gaur ipar hemisferioko alderdi askotan erortzen da. Tomate ura edo inoiz ozpina bera bezain azidoa.

Zerk azidatzen edo garrazten du euria? Atmosferan dabil-tzan sulfuro eta nitrogeno oxidoek. Batez ere tximini altuek botatzen dutena.

Tximini horietariko batzu inflazioa ebitatzeko egiten omen dira. Barregarria. Beste batzu hondakin garraio luzea eta garestia ebitatzeko. Zientzigizonak alarmaturik daude eta horrek dakarren erreakzio kimikoaren berri argirik, oraindik ez dakite. Arrainak hilda eta etxeak kurruskaturik dauden inguruak arriskugarritzat jotzen dira.

Estatu Batuetako ekaitz batetan obserbaturiko euria normala baino bostehun bider azidoagoa gertatu da, landareetan kalte handia egiteko modukoa. Kanadan oraintsuko estudio batek atera duenetik, hurrengo hogeai urteetan 48.000 laku

ukiturik geldituko dira. Euri azidoaren eragina bueltagabea izan liteke.

Gaitz hori zer batek bakarrik gutxieraz lezake: sulfuro eta nitrogeno azidoen jarioa moztu edo gai horiek fuel-etik kendu. Hau eginda ere, inguru txartua ontzeko urteak beharko lirateke. Gutxik sinesten du hori egitan egingo dutenik.

310 BIKARBONATOAREN KOMEDIAK

Gizonak betekada handi samarra egin zuen.

—Tripetako mina dut. Bikarbonato pixka bat hartu behar dut.

—Bikarbonatoa? —esan zion lagun batek— Min handia bada, hirukarbonatoa komeni zaizu.

Gizonak ez zuen tabernan ezer hartu, baina etxera heldutakoan hirukarbonatoa eskatu zion alabari.

—Hirukarbonatoa? Bikarbonatoa esan nahi izango duzu, aita.

—Ez dakit, neska. Ona baldin bada, batekin ere nahikoa izan beharko luke, baina emaidazu zerbait hesteak lehertu aurretik.

Hain zuzen etxean ez zen bikarbonaturik.

—Arraioa! —esan zuen aitak—. Behar denean ezer ez gurean.

Gizona bera joan zen bila, bide batez minak entretenitzeko. Dendara heldu zen eta:

—Bikarbonatoa, mesedez.

—Cómo dice?

—Dos carbonatos, coño

—Querrá usted decir bicarbonato.

—Y dos carbonatos, ¿cuántos son, pues?

Etxera heltzean alabari esan zion:

—Erdaldun horiena komedia da. Euskaraz ondo esan eta erdaraz zenbat diren neuk esan behar.

Atomoa txikia dela esateak ez du askorik esaten. Zorri hanka batek milaka milioi atomo dituela esateak ordea, zerbait dirudi. Atomoa hain txikia izanik, ez dago oraindik hura obserbatzeko mikroskopiorik. Baina zientzigizonek, laser teknikaren bidez, atomoak banaka kontatzea eta identifikatzea lortu dute. Laserrak izpi mota bat dira, X izpiak diren antzera.

Hona hemen metodoa. Atomo bakoitzak nukleo bat du eta elektroai inguruan edo orbitan, planetak eguzkiaren inguruan bezala. Atomoa hain txikia bada, pentsa nolakoa izango den elektroia. Baina zientzigizonek ba dakite elektroai zer onda luzea duen. Laser izpi bat dispartatu eta elektroia harrapatzen da, bere orbitatik atera eta Geiger kontagailuz detektaturik. Laser dispartatu bakoitzak elektroai bat bakar harrapatzen du, bai batak eta bai besteak antzeko energia baitute. Horra, beraz, kontatzen den elektroai bakoitzak atomo bat esan nahi duela.

Laser teknikari aplikazio handiak somatzen zaizkio. Lurreko atmosfera berotzen ari den ala ez jakiteko, zenbat karbono dioxido aireak hartzen duen kalkulatzeko, eta beste anitz gauzatarako. Txikitasunean omen dago handitasuna eta hala sinetsi beharko.

312 NANOTASUNA SENDATURIK

Nanoa hazi gabe gelditzen den gizakia, animalia edo landarea da. Nanotasuna edo enanismoa batzutan nabarmena da. Beste batzutan ez hainbeste, baina bai problema handia. Eta hona berri handia. Bakteria bati gen bat txerturik, ikerlariak nanotasuna sendatzeko hormona bat fabrikatzea lortu dute. «Ingeniaritza genetikoaren» pausurik ikusgarriena orain arte.

Orain arte hazkunde hormonarik edo hazteko hormonarik ezin zuten lortu. Kantitate txikia besterik ez zezaketen atera gorpuen hipofisietik. Hipofisia burezuruko glandula bat da. Baina laster nanotasunak jotako milaka haur horiek, normalki hazteko falta zaien hormona berdinez tratatuak izan daitezke. Mundu guztiko biokimikoak eta medikuak harriturik gelditu dira Kaliforniako ikerlari talde baten erremedioaz. Seeburg eta Goedell irakasleak dira talde buru. Hauek sortu duten hormonaz nahi beste haztea izango da.

Lan honetan ari izan diren ikerlaririk gehienak «Genentech» elkartekoak dira. Kaliforniako elkarte pribatu bat da hori, «ingeniaritza genetikoaren» ondorioak komertzialki esploratzera dedikatzen dena.

Galizia ez zen, ez, hain frankozalea izan. Ba zen protagonistek kontatu ezin izan zuten atentatu bat. Galiziako gerrilak Franco hiltzea intentatu zuen. Emakume bat «Servicio de España» zelakoan sartu zen. Calle Real edo Erret Kaleko 16. zenbakian jarri zen. Gerrilero talde batetako sei gizonen «Servicio de Españako» buruzagisari berari pisu bat alokatu zioten 26. zenbakian. Gero 23. zenbakian tiroketa bat izan zen. 16 garreneko emakume hark bere burua laugarren pisutik bota zuen. Detenituek ez zuten sumariorik ez juiziorik izan. Zortzi egunera itsasora jaurtiki zituzten eta hor bukatu zen atentatu hura.

Claudina, Pazo de Meirasen neska zegoen eta Franco santutzat gurtzen zuen emakume batek honela dio:

«Emakume zital hura Franco hil nahi zuten gizon batzurenkin harremanean zebilela jakin nuen. Urdanga hura Doña Matilderen, «Servicio de Españako» alaben buruzagisaren etxean bizi zen. Senarra gerran hil zitzaioa, zer janik ez zuela, familia onekoa zela eta honela engainatu zuen Doña Matilde eta denboraz Francoren alabaren etxeraino sartu zen. A Cruñako «Ultramarinos Aniceto»n egiten genituen Pazora-

ko erosketak. Hara joaten zen furgoneta bat eguneroko janak etab. ekartzera. Hori jakinik, gizon haiek han ziren, egunean bat, bijilantzia. Haien asmoa furgonetan Pazora sartzea zen. Barrura sartuz gero beste emakume hark lagunduko zien. Emakumea beti beltzez zebilen...»

314 KOHETE-AUTOA

«Dardar nago baina hala eta guztiz ere ni naiz hotsa baino azkarrago arrodatu den lehen gizona». Hitz horiek esan zituen Stan Barrettek, azaina ondoren bere emaztea besarkatzean. Arroda edo txirringadun tresnez eta lur azalean lortu-riko record orokorra, orduko 1.199,961 kilometro.

Delako makina hori arrodadun kohete bat da. Hamabi metro luzez eta berrogeita hamaika zentimetro zabalez dituen puru bat bezalako, hidrogenozko peroxidodun motoreak eragina. Berrogeita zortzi mila zaldi eta 1.818 kilo.

Tresna sofistikatu honek auto barruko operazio bakoitza ordenagailu batetara bidaltzen du. Aberiarik balitz, ordenagailu hark makina geldituz eraz lezake, freno gisa jausgailuak zabalduz.

Aproba hori Kaliforniako Edwards aire baseko zelaian egin dute. Stan Barrett, boxeoko txapelduna eta karateko gerriko belzduna, hogeita hamasei urtetakoa, hotsaren abiadura zoluan gaitu duen lehenengoa. Aurreko recorda 1.015 km. orduko zen, 1970ean beste amerikar batek egina. Orain ia 1.200 km. orduko. Hori duk haizea.

315 URTEKO GIZONA

Frantziako «Le Point» astekariak 1979. urteko gizontzat Mahoma izendatu du. Zergatik? Honen izenean dozenaka milioi lagun mobilizatu direlako eta ehundaka milioi horretara deituak izan direlako. Horregatik popularitateko lehen aulkia eman diote gure aroko VI. mendean jaiotako gameluzain honi.

Islamentzat bizi garen data oso sinbolikoa da. Hejirako 1400 urtean gaude. Hejira mahomarren haro edo denborari deritzo. Beraz, haien egutegian mende berri bat: XV. mendea.

Islamek abiada handia hartu du. Kontinente beltza konkistatu ondoren, Sabanan eta oihanean zehar Ekuatoriar Afrika beregandu du, Ipar Amerikan beltzen artean eragin estrainioak biztu ditu eta Brejnev eta konpainia ere kezkatzen hasirik daude, 2000 urtean hirutatik sobietar bat musulmana izango baita.

Moskun Korana, azoka beltzean, prezio izugarrietan erosten da. Yugoslabian ba dira lau milioi eta Txinan bertan ere hogeita milioi. Guzti hau, jakina, arabieriez gainera. Alderik alde islamismoa bolbol jarri da. Islamen zabalkundearen azpian den gerra santua delakoak buruhauste handiak emango ditu.

316 GALAXIEN JAIOTZA IKUSI

Argiaren abiadura handiena bada ere, mugatua da. Segunduko hirurehun mila kilometro. Harrapa ezak hori. Baina mugatua edo finitua. Beraz eta teoriak, astronomo batek denboran atzerantz begira dezake unibertsoaren jaiotzaraino. Nola? Argiak gureganaino heltzen 16.500 milioi urte behar izan dituen gauzak edo galaxiak ikusiz. Imaginatzen duzu zer distantziak diren horiek?

Gakoa hemen dago. Hain urrun egonik eta hainbeste mila milioi urtetan argia etorririk, heltzen zaigun argia jaiotza bera izan liteke. Gure galaxia duela 13.000 milioi urte sortua dela uste da. Baina hau hain hurbil egonik, honen jaiotzako argia aspaldi heldua da lurrera. Ez dugu gure galaxiaren jaiotzarik zuzenean ikusterik. Baina oso urrun dauden argia oraindik gureganaino heltzeke dago. Beraz, heltzen denean, argi hura lehenengo argia izango da, alegia, jaiotzako argia bera.

Zer eragozpen dago? Distantzia horietatik datorren argia ahulegia eta arinegia dela orango teleskopioz detektatzeko.

Teleskopio indartsuagoak behar dira. Hori da 1989.ean lortzeko asmoa dutena. Teleskopio espazial superindartsu bat jaurtiki. Oraingo onena baino hamar bider indartsuago izango da. Galaxia guztien sorrera berdina izan dela uste baita, laster munduaren jaiotza eta kreaioa bera ikusiko dugu.

317 IJITOAK BIDALI EZINIK

Lehen ere ba ziren eta orain ere ba dira ijitoak, etxe ondoan inork ikusi nahi ez baditu ere. Horiek dira herrietako agoazilen buruko minetariko bat.

—Zer egiten duzue hemen?

—Pasoan gaude.

—Pasa orduan azkar.

Eta hurrengo herrian berdin. Horrela heldu ziren Gernikara ere. Ijito familiak bertan gelditzea edo denboraldi bat pasatzea erabaki zuen. Laster hasi zen betiko ekina. Oraingoan gainera goardia zibilak.

—Herritik aldegin behar duzue.

—Zergatik? Ez dugu ezer egin.

—Egin ez dezazuen.

Ijitoek beren gurdiak zerbait arrastatzen zituzten, baina Gernikatik irten gabe. Goardia zibilen aldetik gero eta mehatxu gogorragoak zetozen.

—Bihar goizean aldeginak ez bazaudete, koartelera etorri beharko duzue. (Eta zer egin behar hauekin koartelean? —pentsatu zuen).

—Bueno, o se largan o les largamos.

—Zer egin dugu, ordea, guk? Zergatik joan behar dugu?

—Auzoek diote. Herri guztiak dio.

—Arraioa! Hori zen guztia? Zuengatik ere hori ari dira «que se vayan» esaten eta hemen zaudete oraindik.

318 ADULTEROEN OHOREA

Adulterioak hamaika zokondo eta hamabi zigor izan du eta ba du legean. Nola frogatu, ordea? Nola «in fraganti» edo saltsan bertan harrapatu?

Salatzaileak bere ezkontidea beste maitalearekin non biltzen zen jakitean, abokatuari parte eman zion. Abokatuak epaileari beharreko baimena eskatu eta abokatu, notarioa eta indar publikoa (gehienean hiru adardunak edo goardia zibilak) etxe inguruan jartzen ziren, zuhaitz artean edo ezkutuan behintzat.

Etxeko argiak itzaltzen zirenean, indar biziek aurrera jo, estrategiak hartu eta atea jotzen zuten. Atea irekitzean, bat batean logelan sartzen ziren hartarako «eskubidea» erakutsiz. Notarioa edo abokatu ohera hurbiltzen zen. Gehienez emakume gaixoak izuaren izuz ohe barruan zirauen. Ohea ukitu eta handioski testifikatzen zuten:

—Epel epel dago.

Froga bueltagabea zen hura. Hain trantze beltzean, hona gizon batek zer duintasunez erantzun zuen:

—Jaunak, ohore handia zait hainbeste indar publiko merezi izatea, baina ez dut uste merezi nuenik. Maitasuna egiten bakarrik ari nintzen.

319 URREA KAPITALISMOAREN LOTSAGARRI

Sorginkeria eta fetitxismoa nagusi. Nazioarteko monetal sisteman urrea nagusi da oraindik. Nola liteke hain bitarteko artifizial eta hutsari iraun eraztea? Arrazoi argi bat dago. Gaurko munduko urrea—64.000 tonelada—noren eskuetan dagoen ikustea besterik ez dago. 28.000 tonelada partikularren eskuetan zabaldu daude. Baina beste 38.000 tonelada horiek Mendebaldeko nazio handietako eta Errusiako banku zentraletan daude.

Erreserbarik garrantzitsuenak aipatzeko, 8.420 tonelada Estatu Batuetan daude, Fort-Knox-ko sotoetan. 3.160 tonelada Frantziako bankuan eta 3.700 tonelada Alemaniako bankuan. Horrela «urre azoka» guttiz sasiturik eta azpijanik dago, negoziatzeko moduko kopururik erdi baino gehiago gizon batzuren eskuan baitago.

Amerikak urrea baino dolarra nagusitzea nahiago du. Estatu Batuek ez dute urrerik kontrolatzen ez produkzioan ez trukean. Bai, ordea, dolarra eta hori ezarri nahi dute patroitzat. Urre gutxiko herriek beren zorrak balio errealez edo egiazkoz ordaindu beharrik dutenean, lantegiak, lurrak, makinak... entregatu edo hipotekatu behar dituzte. Urredunek, ordea, urrez ordain dezakete, urrea unibertsalki aitortua baita. Urregabeek ondasun egiazkoak eman behar eta urredunek gai konbentzional eta guttiz artifizial hori.

320 MILA PEZETAKOAREN KANBIOAK

Gizona gaupasa egina zen. Ez zen lehenengoa izango. Gerra ondotxoaren zen eta etxetik irteteko balorea behar zen. Baina behin irtenez gero, etxe hutsak itzultzeko ere animu gutxi ematen zuela esaten zuen.

—Etxe hutsa eta norbera kanpoan? —galdetu zioten eta erantzun zuen:

—Horrexegatik hain zuzen. Beterik balego bertan egongo nintzen ederki.

Biharamun goiza ere ba zihoan, eta etxerako gogorik ez zertorren.

—Eta herrian bazkalduko banu? Honez gero goizeko lanak joanak dira. Eguerdiko ondoan goiz joanez gero...

Arrazoi guztiak alde zeuden, dirua izan ezik. Badaezpadan poltsikoak arakatu zituen, baina mirakuluak aintzina bukatuak ziren. Gogoaren ordea, probisionalki behintzat, ahalguztiduna baita, laster biribildu zuen plana. Joxeparenera joango

zen, mila pezetakoa aipatuko zion, hark kanbiorik ez zeukala esango zuen eta bapoa. Garai hartan mila pezetakoaren kanbioak kontatzen jakitea ere ez zen gutxi. Ederki eta kontulari bazkaldu zuen. Ordaintzeko ordua heldu zen eta:

—Aizu, Josepa. Ba duzu mila pezetakoaren kanbiorik?

—Bai. Sarritan ez, baina gaur bai.

—Ni baino hobeki zaude orduan, nik ez baitut zentimorik ere.

321 TRUKE LIBREA LAPURRETA LIBREA

Truke librea edo desarroiloaren ideologia hemeretzigarren mendetik gora datorrena da. Zer da hori? Horixe: truke librea, merkatu librea, nazioen arteko salerosi librea. Hitz ederrak dira horiek, baina mamia deabruzkoa. Zergatik? Truke librean indartsuak eta dirutsuak nahi duena egiteko modua du. Otsoak eta ardiak zelai berean truke librean jartzen badituzu, ba dakizu han zer gertatuko den.

Herri kapitalistetako industria, XIX. mendean bezala bere dinamismoaren zatirik ederrenetarikoa Hirugarren Munduan egiten dituen kontratu fabulosetatik ateratzen ari da gaur ere. Kontratu horiekin herri aurreratuetako ikerketa (inbestigazioa) eta produktibitatea finantzatzen dute. Hitz batez, aurrera egiteko bultzada kanpotik ekartzen dute.

Kontratu horiek, herri aurreratuekiko truke libreak, herri atzeratuei gauzak eta ondasunak ematen dizkie. Baina ez aurrerapenik, ez independentzia teknologikorik. Horretarako ekonomia epe luzeagora planifikatu behar da. Ikerketa indartu behar da. Honek ez du berehalako fruturik ematen: horretarako gizonak eskolatu behar dira, herriko errekurtuak eta baliabideak desarroilatu behar dira eta hori luzeagoa da, eskolakuntza ere osorik aldatu behar baita. Baina herri aberatsengandiko morrontza noizbait hausteko bide bakarra. Truke librea, beraz, lapurreta librea esatea bezala da.

322 HIPNOSIAREN MISTERIOAK

Protopopov irakaslearen ustez, hipnosia ez da berez loa, baina bai kontzientziaren goragoko maila bat. Hala ere, loaren antzekoa da kanpotik behintzat. Gehienez gainera, lotan bukatzen da, eta berez itzartzen. Hipnosiean ba da sail bat berraragipena edo errenkarnazioa. Zer da hori? Beste baten haragia edo izatea hartu, beste baten kontzientzia bihurtu.

Hipnosi sakonean honelako esperientziak ba dira. Ba dira kasuak hipnotizatua hipnotistari agintzen hasten dena ere. Sujetu bat Ingalaterrako erregina «bihurtu» zen. Inguruko guztiak berari dantza bat eskaintzea nahi zuen eta horretarako hipnotista bera bidali zuen dantzaldia prestatzera.

Mundu misteriotsu hau pedagogian sartzea gauza zaila da. Atera litekeen zer bakarra oraindik hauxe da, alegia, giza-kiak erabiltzen ez dituzten, egundoko erreserba kreatiboak dituztela beren baitan eta teknika horien bidez martxan jartzekoak direla, beharbada. Moskuko Unibertsitateko neska ikasle bat, aurretik sekula artearen grinarik izan gabea, hamabost hipnosialdiren ondoren harrigarriro marrazten hasi zen, zenbait pintore famatu berraragituz. Honen antzeko kasuak ugari dira. Zer da? Sorginkeria? Ez. Giza organismoak ahalmen ezkutu mugagabeak ditu eta zientzizigonek oraindik asko arakatu beharra dute.

Mundu ezkutua eta misteriotsua oraindik, baina benetako noski. Negoziantek sartzen ez diren bitartean.

Morey Berstein amerikar negozio gizon bat hipnosis jolasak edo jokoak egiten hasi zen. Jolasa baino joko gehiago. Behin Ruth Simon zelako emakume bat hipnotizatu zuen. Eta hain itzulera edo regresio efikaza eragin zion, emakume hark sabel barneko bizitzaz oroitu ez ezik, mende eta erdi aurreragoko irlandesa bat izan zela aurkitu zuen.

Berstein jaunak, negoziogile ona bera, laster somatu zuen kasu hura diru iturri ederra gerta zitekeela, liburu «zientifiko» batetan egoki eta apain jarritz gero. Eta beste gabe inprimategira. Ez beste gabe noski. Lehen botaldian 175.000 ala

joan ziren. Sakel edizioan berriz 800.000tik gora. Eta horra berraragipena egia zela frogatzen «zientifikoa».

Ruth Simonek bere mende eta erdi aurreko bizimodua zehazki kontatzen du: etxea, lurrak, herria, lekuak, laguna... liburu horrek halako erotasun kolektiboa sortu zuen. Bata joan zen mendean indioa izan zela, bestea Lepanton soldadu ibili zela, gazte batek bere burua hil heriotzaz handik zer da goen iksuteko, etab. Bersteinen liburuak milaka lagun dantzan jarri zuen hipnosiaren inguruan. Kontuz negozianteekin.

323 GATZAREN MIRAKULUA

Gerra ondoren apez gazte bat Gorbea azpiko herritxo batetara bidali zuten, pare bat urte egin eta gero destino hoberik izatekotan. Urteak pasatu ziren, hartaz ez zen inor gogoratzen eta gizona bere egoera miserableaz kezkatzen hasi zen, ez omen baitzuen goserik kentzeko ere biltzen.

—Ikasi, ikasi—erantzuten zion apezpikuak—. Ikasten bazu, herri hoberik izango duzu.

Liburuak ikastea alferrik zela ikusirik, beste irtenbide bat asmatu zuen. Herriko zelairik ederrenean gatza zabaldu zuen gauzez, erdi erdian batez ere. Belar gazi samarra abereek maitago baitute, herriko behi guztiek zelai hartara jotzen zuten ahal zuten guztian. Kendu eta berriro bertara. Herritarrak harriturik zeuden zer zitekeen antzeman ezinik. Apezak igandeko sermoian esan zuen.

—Kristau bihotzekoak: zelai horretan bada zerbaite miragarri. Abereek ere antzeman diote. Zelai horretan Jainkoaren deia datza. Azter dezagun eta ikus Jainkoak zer gorderik digun.

Meza ondoren behiak biltzen ziren, unea haitzurtu zuten eta gurutze bat agertu zen. Herri guztia belaunikatu zen «mirakulua» esanez. Gurutzea apezak sartua zen, gatza bota aurretik. Mirakulua egina zen, eliza bat bertan jaso zuten, jendea erruz etortzen hasi zen eta hala berdindu zituen apez gazteak gerra ondoko gose guztiak.

324 NOBLEAK ETA URREAK

Margaret Thatcher Londresko Gobernu Buruak gabon sari gozoa agindu zien politikoei, alegia, noble tituluen ematea berriro martxan jarriko zela, hala herentziazkoak, nola merituzkoak, nola edonolakoak. Ohitura hau laboristen gobernuak kendua zen. Honela, lehen gutxi baziren, lordak eta misterrak ugari izango dira Ingalaterran.

Titulu hauen jatorria, sarritan, pirateria, harrapaketa edo ganadu lapurreta izan zen. Emakumeen goragarri, berriz, noble horien bizitza gozatzea zen. Erregeek hamaika negozio egiten zuten tituluekin. Jacobo Lehenengoak, esate baterako, baronet tituluarengatik hamar mila libera kobratzen zituen. Dozena bat titulu banaturik ere, begira nolako eskukada garai hartan. Margaretek lehenera jo nahi du. Nahi duzue titulurik?

325 UZKERRAREN DAMUAK

Negu hotza eta beltza zen. Etxe inguruan beste zeregin handirik ere ez eta etxajaunak basa behiak ikustera joatea pentsatu zuen.

Makila eskuan eta txapela buruan, ba zihoan mendian gora. Haizeak gorago eta zorrotzago jotzen zuen. Hotzari frente emateko modurik onena atzea ematea pentsatu zuen. Gaztaina erreka eta taloa eta esnea jan berri eta aldasgoran gainera, haren atzeak ba zuen bai hotzari frente emateko modurik.

—Tarrat —bota zuen bat eta esan zuen:

—Errentarik ordaintzen ez duena kanpora.

Hamaika errentarik ordaindu gabeko joan zen elkarren atzean.

Gailurrera orduko azken errebueltan sprinta jo zuen eta dozenerdi tarratada errezkan joan ziren, bonbardeoa irudi, eta hots egin zuen:

—Mutilak, hauen denen errentak kobratu behar bagenitu... errege!

Gora heltzean, bideko sesioak ahaztu zitzaizkion. Ibilera leunean hainbeste premiarik ere ez. Behiak non ote ziren ikusteko edo zintzarri hotsa entzuteko, geldi-geldi jarri zen gaintxo batetan. Pentsamenturik ere ez zuela, uzker eder bat atera zitzaion eta esan zuen:

—Arraioa! Damutuko haiz. Halako hotza egiten dik kanpoan.

326 MIHILUAREN DOHAINAK

Belarrek halako ondorio miragarriak dituztela edo ez dituztela, hamaika tradizio eta esaera heldu da gureganaino, Mende honetan aintzinatik datozkigun sineskerak baztertzen hasiak gaude, baina batzutan, zientziak tradizio zaharrei arrazoia eman behar.

Mihilua belar bat da, lurrintsua eta janariak ontzekoa. Beditanik mihilua gaztetasunaren ezaugarri da. Plinio idazleak aintzina idatzi zuen:

«Sugeak gaztetzeko dohain miragarriak badu, mihilua jaten duelako da hain zuzen».

Koroteyev doktoreak, Leningradoko sobietar biologoak, mihiluaren dohain hori egiaztatu du eta orain ez dago belar-zaleen fantasiatzen hartzen segitzetik. Izan ere, mihiluak dituen zenbait elementuk zelulen aldakuntza azeleratzen du eta organismoa gaztetzen. Korateyevk tiroidearen ehuntan esperimenduak egin ditu eta orain arte ondo ezagutzen ez ziren landare honen elementuek ehun horiei mesede egiten dietela ikusi du. Eta esan du:

—Hilezkortasunaren lehengo elixir guztiak mihilua zera-
maten eta ez agian arrazoi zientifikorik gabe.

327

NOR DAGO HEMEN ERO?

Mundu guztian judizio ireki bat zabaltzen ari da. Auziak
hauxe dio:

—«Khomeiny Ayatollah ero dago eta munduko bakea
arriskuan jartzen du».

Bien bitartean Europako Parlamentuko politiko zentzudu-
nek «Pershing-2» eta «Cruise» misil nuklearren instalapena
onesten ari dira. Misil horiek Mendebal European jarriko di-
tuzte, Errusiako puntu estrategikoei begira. Honek ez bide
du munduko bakerik arriskuperatzen.

Khomeiny eroturik dagoela esan dutenek berek eutsi zio-
ten luzaro Shari eta gaur ere honen antzekoei—Videla, Pino-
chet eta abarri— eusten ari dira. Ipar Amerikako enpresa
bati Khomeinyren erotasuna bapo etorri zaio. Gabon au-
rrean jostailu bitxi bat iragarri zuen: «Gomazko Khomeiny
bat berezko tamainukoa». Propagandak zioen:

«Ayatollah panpina salgai duzu. Gaurtik errepresaliarik
nahi dutenen eskuan. Egizu zeure gatibu. Eta agudo. Soka,
arantze eta beste torturagailu guztiak martxan».

Eta bai saldu ere.

Sikologo batek dio:

«Egunkarietan egunero agertzen zaizkizu Vaticanoren,
Aita Santuaren eta Apezpikuen deklarazioak moral sexuala-
ri buruz. Eliz dignatari horiengan edozein sikologo erdi ika-
sik soma lezake halako obsesio sexual nabarmena. Anor-
maltzat jo beharrean, ordea, estatu batzuk munduko gidari
izpiritualtzat hartzen dituzte».

Khomeiny sano egotea zaila da, baina nor dago hemen
eroen?

328

TXERRIAREN PREZIOA

Beste herrietan ez dakigu, baina Euskal Herrian tratu kon-
tuek ba dute halako sekretu girorik. Behi, txahal, zaldi nahiz
edozer saltzean edo erostean, nekez jakingo duzu gauza gar-
birik prezioari buruz. Horregatik askok aparteko abilidadea
dute zeharki galdetzen. Baina zeharkiago erantzuten ere ez
gutxiago beste batzuk.

Honela behin Gabiriako Txintxurretak txerria erosi zion
Karlosi. Herritar batek saltzaileari ekin zion:

—Txerria saldu omen duzu. Zenbatean?

—Zenbatean zer?

—Txerriaren prezioa esan nahi dut.

—Preziosa ez baldin bada zertarako esango dut, bada? —
moztu zuen saltzaileak hitz jokoz.—

Saltzailearengandik ezer atera ez zuenean, gizonak eros-
learengana jo zuen, Txintxurrearengana alegia. Bideko gel-
diune batetan galdetu zion:

—Aizu! txerria erosi omen diozu Karlosi. Zenbatean?

—Ni pixa egiten ari naiz —erantzun zuen Txintxurretak—.

Gabiriako beste baserritar batek idi pareta perratzerara era-
man zuen. Han agertu zen perratokian munduko berri guz-
tiak jakitea gustatzen zitzaionen bat eta itzainari galdetu
zion:

Hireak dituk idi horiek?

Baita uztarria, larrua eta soka ere.

329

HAURREN SEXUALITATE BEREZIA

Etxekoen artean eskurik esku eta altzorik altzo dabilen
haurrak normalean beti bat bera bustitzen du, hautaera mis-
terioitsu baten ondoren. Zer dago hor? Galizian bada herri

esaera bat, dioena: «amaren altzora txiza egiten duen haurrak, amarengandik harturiko ditia halaxe ordaintzen du». Gertatzen dena gurasoek ez dutela erregalu hori haurraren maitasunaren agerpenzat hartzen.

Haurra harro egon ohi da bere eginaz. Bere zati garrantzitsu bat utzi duela sentitzen du. Horregatik haurren artean normalak dira honelako leihaketak: «zeinek mokordo handiagoa egin», «zeinek gorago edo urrunago txiza egin». Adituen ustez gauza bat dago argi: ez haurrei ezar medikuntzan «esfinkterren kontrola» deritzonik, eta gutxiago derrigorean, lotsa senti eraziz, agiraka eginez edo zigortuz.

Haurrek basa edo lupetza asko dute jolasteko. Adin batean, txikiak direnean, haur guztiek dute beren kakaz jolasteko joera. Gero basara edo hondarrezko etxeetara jotzen dute. Honetan ez dago inolako anormalkeriarik. Atsegin edo joera horri luzaroei eusteak eboluzioko etapa hori ez zela ondo gauditua izan esan nahi du. Eta horren erruduna ez da haurra bera. Berezko okerren bat izango da edo oker hezi dutelako.

330 NEANDERTALA ETA GU

Neandertala aintzinako gizaki bati deritzo. Gizaki honen hezurak Alemaniako Neander haranean aurkitu zituzten lehenengoz eta horregatik esaten zaio Neandertala. Gizaki edo hominido hau Europatik Asia erdiraino bizi zen duela ehun mila urtetik duela berrogei mila urte ingururarte. Gizaki handia eta indartsua zen, gorputz handi eta sendokoa.

Eta hemen dago gakoa. Hainbeste mila urtetan erdi berdina izan ondoren, nola gizaki hau hain agudo eboluzionatu zen, oraingo gizonaren antzekoa bilakatuz? Klimaren gora-behera ala ekologia?

Gizaki zaharrak eta berriak, ordea, piztia berdinak ehizatzen zituen eta segur asko landare gaiak ere berdinak biltzen zituzten.

Aurrerapen kulturala? Hipotesi honen alde daude zientziz gizonik gehienak.

Begira zer gauza kurioa gertatu zen. Gizaki neandertalak, hirurogei mila urtetan zehar, harrizko tresna berdintsuak eta oso elementalak zituen. Heldu zen une bat harrizko tresnak asko hobetu zituela. Iraultza industrialia esaten den bezala, iraultza harrizkoa edo horrelako zerbait. Teknika haiek hala hobetzean, lehenengo gorputz handi indartsu hura erdi alferrik eta sobra zegoen. Oraingo ehizan indar kontua baino gehiago trebetasun kontua zen.

331 SANTIAGOREN SERMOIA

Ba zen apez bat Santiagoren sermoirako mairuen gerrarako bezala preparatzen zena. Kulpituak jipoi ederrik hartu behar zuen egunetarikoa zen gaurkoa. Urte batez honela hasi zen:

«Ene entzule bihotzekoak. Gaur badakizue zer egun den. Egun handia handirik bada, Santiago baitugu apostolurik handiena. Eta apostolu gabe, Jesukristo ere alferrik zen. Santiago gurea, Iberian errespetua sartu zuen bakarra, Santiago handia...».

Gero eta beroago zihoan predikaria. Ba zeraman ordu laurden eta heldu zen mairuen garbiketara.

«Gerra, bai gerra. Mairuak ala kristautasuna. Ikustekoa zen nolakoa ezpata hotsa zerabilen gure apostoluak. Ikustekoa zen nolako sua zeraman gerra santura. Ikustekoa zen nolako erremanguz saltatzen zuen zaldi gainera...»

Predikaria goren puntuan zegoen eta hanka bat blaust kulpitu gainera jaso zuen, zaldira igoteko bezala. Zapata erori zitzaion eta azpiko atso bat buruan jo zuen. Apeza kulpitu ostean ezkutatu zen makur-makur. Arnasaratu zenean, atsoari galdetu zion:

—Zeri egiten diozu negar, andrea?

—Berorren zapata santuak buruan jo nau, jauna.

—Zapata diozu, zapata? Ez duzu nire barrabletakorik hartu.

332 TXIZA ASPIRINEN ORDEZ

Txinoen artean akupuntura bada, Indian txiza duzu. Norbere txiza edo gernua. Horrekin sendatzen dizue mintxo batetatik minbiziraino. Euskal Herrian ere ohitura errotua zen, oraindik oraintsu, ebakirik egitean berehalaxe txiza erretzea. Indian, ordea txiza edan egiten dute. Indiako lehen ministrari anderea harro dago bere etxean Mendebaldeko medikamendu bakarrik ere sartzen ez delako. Txizaren aldeko amorratua da.

Segun zer eritasun hainbeste txiza edan behar da. Egunean goilarekadatxo bat beste gabe ere ona omen da lasaigarria. Eritasun txikientzat egunean katilukada bat aski da. Eritasun gogorra bada, eguneko txiza guztia birziklatu edo zikloa berri eragin behar zaio. Hitz batez, eguneko txiza guztia edan.

Mendebaldeko medikuei txiza txurruta mingotsa zaie bai ahorako, bai bururako. Gainera gustu kontua bakarrik ez dela diote, baizik ez dagoela gorputzeko txiza hondakinez sendatzerik. Mediku hinduak ez dira eritzi horretakoak. Haientzat txiza sendagai da eta gainera txizak eritasun askoren sendagarri diren garbitzaile eta antitoxiko indartsuak dituela uste dute, eta azkenez ingelesak beren aspirinak eta antibiotikoak saltzeko azoka zabaldu nahirik dabilzala sinetsirik daude. Pentsa seirehun milioi hinduri saldu ahal izatea zer negozio litzatekeen.

333 ASMATZEN ETA ASMATZEN

Robert Truax missilen ingeniaria enplegu gabe zegoen. Zer egin? Esperientzia bitxi bat iragarri zuen. Emozio gogorren zale direnei hegaldi espazial baterako gonbita egin zien, korapiloz eta alferreko piezaz eginiko missil batetan. Egilearen kalkuluetan kohetea laurogei kilometro igongo litzateke eta gero jausgailuan Ozeano Barera erori, han hartarako batel batek jasoko lukeelarik.

Tramankulua tripulante bakarrarentzat asmatu dago. Abentura hori probatu nahi dutenak ehun mila dolar ordaindu beharko ditu. Ba dira dagoeneko bi eskari. Baina ez zioten antizipo bat besterik aurreratu. Gure negozio gizona kexa da «dirua baino bizia arriskatzea nahiago baitute».

Estatu Batuetan beste esperimentu bat egin berri da, alegia, automobila zuretik ateratako gasez erabiltzea. Egileek diotenez, Ekialdeko itsasertzetik Mendebalekora zortzi eguneko bidea zurezko enbor handi batez egin zuten. Asmakari berri honek ba liteke gasolina arazoa konpontzea. Baina hainbeste milioi autozale horretan hasten badira, laster da mundua ez zuhaitz ez oihan.

334 HUTSA BETERIK DAGOELA

Hutsa gure irudimenean horixe da: ezer ere ez, ausentzia osoa. Ba da ordea, toki edo espazio hutsik? Ba da hulgune totalik? Begira. Toki edo une bat hutsik badago eta han partikula bat sartzen bada, energia totala partikula haren masaren proportzioan gehituko da. Energia eta masa korrelatiboak dira. Nahiz eta zientzia askorik jakin ez, honek bistakoa dirudi. Toki huts batetan harkosko bat jartzen bada, hango masa totala eta energia totala harkosko horixe izango da. Hori ulertzeko ez da listoegia izan beharrik.

Hona, ordea, azken ikerketa teorikoen arabera, hipotesi hain bistakoa hori ez dela beti horrela. Batzutan partikula masadun bat hulgune edo espazio hutsean sartu eta energia totala gutxitu egiten da. (Kontuan eduki hemen atomoen mundu txiki eta mikroskopikoan ari garela). Energia gutxitze hori handi samarra bada, elektroi bat eta positroi bat sortzen dira. Hitz batez materia sortzen da. Horrela esan genezake hutsa desintegratu eta materia kreatzen dela.

Hutsa desintegratzeko arlo elektriko indartsua behar da. Desintegratzea energia gutxitzea da. Orduan zer gertatu zaio falta den energiari? Masa edo materia bilakatu dela eta materia hori detektatzekoa da. Atomo superastunen nukleo ingu-

ruan gertatzen da gauza miragarri hau. Hitz batez eta ulertze-ko moduan esanda, hutsa beterik dagoela. Handiagorik entzun behar dugu.

335

BONBIKAL ETA ARRAULTZEAK

Tabernaria begibakarra zen, gerran galdu baitzuen bestea. Urteak joan ziren, gerrako merituak ahaztu ziren eta «Begibakar» deitzen zioten herrian, berari zuzen esaten ez bazioten ere.

Behin gizon bat sartu zen Begibakarrenean eta txikito bat eskatu zuen. Tabernaria bere mostradorean atzera eta aurre-ra zebilen zerbaiten bila. Hala ibiltzen omen zen beti zerbait eskatuz gero. Lehen kolpean ez omen zuen sekula ezer aurkitzen. Eta sarritan bigarren kolperako ahaztu. Txikitoa eskatu zuena aspertu zen eta esan zion:

—Aizu, atera ezazu txikitoa edo bigarren bonbila fundituko dizut.

Begibakarrek mostradorea irentsi beharrean ihardetsi zion:

—Eta ematen duen txinpartadaz zuri bigarren arraultzea frijituko dizut.

Besteari ere gaitzen bat jo zion, antza, eta han ziren istiluak. Norbaitek argia itzali zuen eta mostradorea bitarteko zela, deskalabru handirik gabe apartatu zen gau hartan herria.

AURKIBIDEA

Zenbakiak	Tituluak	Orrialdeak	Zenbakiak	Tituluak	Orrialdeak
215	Adimena heredagarria da?	154	110	Arta garaua zelakoan	82
318	Adulteroen ohorea	235	261	Asmakari ikusgarriak	188
266	Afaritik epailearengana ..	192	333	Asmatzen eta asmatzen ..	246
75	Afrika erdibitzen	56	283	Astoa hiririk handienaren fundatzaile	205
83	Afrika motorez	62	263	Astoa saldu astoa erosi ...	190
42	Ahurreko marrak eta izerdia	33	199	Astoaren maleziak	143
144	Aientzat debekaturik	105	16	Asuina otsoaren medikamentua	16
267	Airezko bainua	193	5	Atomo aroa eta zerebroa .	5
157	Aita-alabak zein baino zein hobeak	115	311	Atomoak banaka kontatzen	230
41	Alarma etengabea soinean	32	305	Atzerapena eta gosea	225
163	Amerikano filme berriak .	118	213	Auto stopzale berria	153
227	Amerikanoa konfesatzera .	163	304	Azukrea noizdanik eta nondik	224
254	Amona azkenetan	183			
193	Animaliak galtzen	139			
155	Animaliak torturatu	110	38	B ₁ Bitaminaren berri	30
226	Animalien barruan imana?	163	292	Bakea gerrilaz betea	215
120	Apaiza ahari trukean	88	65	Bakteria salbatzaileak	49
162	Apeza tranbian	117	255	Balearen arrantza Euskalherrian	184
186	Apeza zelakoan monjekin .	134	268	Bartzelonako «Aste Beltza	194
197	Apeza zoroetxera	142	133	Basajaun eta basandere ..	97
147	Apoak eta igelak	107	1	Beatle baten nostalgikak ..	7
49	Aralar guztia goilarkada batean	38	112	Begien itxi-irekiak	83
264	Argaltzeko akupuntura ..	191	269	Behar diren hostiak	195
136	Argia ere pasatu	99	56	Behatz izorratua	43
238	Argia eta bizitza	172	287	Behia untzien hondoratzaile	210
240	«Arkakuso» bat bularreta koan	173	28	Belargintza kondentaturik	24
10	Arraultzean arnasa	13	82	Berlinen azkena	61

Zenba-kiak	Tituluak	Orrial-deak	Zenba-kiak	Tituluak	Orrial-deak
234	Beroaren aurka ebapora-zioa	169	290	Ebla, zibilizazio aurkiberria	213
33	Berotik aserrera	27	60	Edanago eta merkeago ...	46
270	Bertsolariak Saharan	196	109	Ederki kostatako ezkontza	81
283	Beste munduko senarrarentzat	206	157	Edukazio ederra	114
291	Beturrekoak probatzen ..	214	278	Ehizatik nekazaritzara ...	203
57	Bide ertzean hilak	44	236	Ehortzalea eta ehortzia ..	170
250	Bihar hidrogenoa	180	14	Ehun urte ezkondu zirela .	15
29	Bihotza eguzkiaren erri-tmoan	24	95	Einsteinen tragedia	71
257	Bihotzaren kolpeak	186	293	1.200-eko maiatza Parisen .	215
310	Bikarbonatoaren komediak	229	94	Elefantea, gizonaren lagu-nik onena	70
154	Bilbora haginak ateratzea .	112	280	Elizakoekin hiltegiara	204
11	Birjintasuna zaintzeko alua josi	13	183	Emaidazu hankatxoa	131
125	Bizia luzatzerik ez dago ..	91	24	Emakumeak gogor Suitzan	22
67	Bizidunen adina atera liteke	50	181	Emozioa ere ezkertia da .	130
15	Bizkarreko mina plaga be-rrria	16	48	Enbor ibiltaria	37
98	Bonbila jalea	73	246	Energia uraren hidrogeno-tik	178
335	Bonbilak eta arraultzeak	248	203	Entzuteko tresna deabruz-koak	146
299	Bularra eman eta minbizit-ik ez	220	114	Errege tripaundiari galtzak lehertu	84
122	Burbuila misteriosoa	90	223	Errespetuzko bizargina ..	161
36	Burezurren salerosia	29	138	Erretzaileen kalamitateak .	100
251	Burrika umeando	181	87	Errinozeroen alderdia	69
192	Burua bota ala gorde	138	40	Errotaria eta hiru semeak .	31
			32	Esku konputagailua	26
			222	Eskuindarren negozioa ar-salmenta	160
			237	Esne bidea ala hauts bidea?	171
			296	Espazioan, denbora azka-rragoa	218
167	Dantza, jolas eta eromen .	120	116	ETA, adimenaren bizkor-gailu	86
177	Dantza lotuko giltza	127	39	Euli beltzen azkena	31
284	Deabruaren monarkia	208	21	Eunukoak emakumeen zaintzaile	20
77	Deabruzko deabrutegia ..	57	309	Euri azidoa	228
68	Denbora baino lehen zahartu	51	289	Euria goitik eta ura burutik	212
260	Diagnostikoa konputagai-luen bidez	188	241	«EVE» berebilkume biri-bila	174
194	Dindak, Sudango abeltzai-nak	140	187	Ez drogarik, ez ezer	135
25	Diktadore ehiztaria	22	219	Ez dute ezergatik hil nahi .	158
220	Don Baldomeroren ardu-rak	159	274	Ez jornalik, ez besterik ...	199
13	Drogazaleak komentuan sendatu	15	141	Ez non gauden, ez norantz goazen	102

Zenba-kiak	Tituluak	Orrial-deak	Zenba-kiak	Tituluak	Orrial-deak
179	Ez pekaturik, ez Jesusik .	129	173	Haragi kontaminatua jaten	125
232	Ez txorizorik, ez arraultze-rik	167	169	Haurrak jaiotzean aitak gaizki	122
131	Ezkontzaren oinarria gana-dua	96	329	Haurren sexualitate berei-zia	243
			72	Haurren sexualitatea	53
			20	Hegan eta lo	19
23	Filmatu eta hil	21	66	Hegazkinak eta portahe-gazkinak	50
37	Finlandiako sauna	30	35	Herri prehistoriko bat bizi-rik	28
208	Fosilen adina eta Karbonoa	227	207	Hezkuntza fusilpean	149
46	Francoren lehen elkarriz-ke-ta atzeritarrei	36	184	Hezurauslearen maleziak .	132
			69	Hilen burezurra jan	52
70	Gabon zuhaitza noizdanik .	52	322	Hipnosiaren misterioak ..	238
170	Gaitza bera baino okerrago	118	104	Hiri igerilariak	77
239	Gaizki esan edo gaizki uler-tu	172	113	Hiru «Ai» pezeta batetan .	84
316	Galaxien jaiotza ikusi	233	76	Historia 1000 orrialdetan .	56
313	Galizia ez zen hain Franco-zale	231	205	Hontzak eta mozoloak ..	147
187	Galtzada bat ohostu	136	115	Hura zen zekorra hura! ..	85
306	Galtzak galdurik etxera ..	225	334	Hutsa beterik dagoela	247
97	Gariaren zabalkunde xe-lebrea	72	44	Idaz makina itzegilea	34
323	Gatzaren mirakulua	239	229	Idiliotik tragediara	165
17	Gaurko Hess ez da beneta-ko Hess	17	317	Ijitoak bidali ezinik	234
168	Gay gau amorratua	121	80	Ilargia eta haurren sexua .	59
165	Gaztainak tiroka biltzen .	119	135	Ile ugariaren sekretua	98
143	Gereako otargin apeza ..	103	216	Ilunetan argazkiak atera .	156
93	Gitarrajole modernoak ...	69	244	Indioak lehen pelotariak .	176
156	Giza larruzko oinetakoak .	113	55	Indioen sikoanalisia	42
4	Gizateria azkenetan	9	90	Ingeles barregarriak	67
153	Gizurdeen inteligentzia ..	111	233	Inspirazioaren eragile uste-gabeak	168
12	Gomazko kaminoak Erru-sian	14	149	Ipazterreko sermoia	108
30	Gomazko segamakina ..	25	132	«Irratbegia», bai begia ...	96
71	Gora txerria	53	128	Itsuentzako egunkariak ..	94
34	Gorputzaren erlaxapena .	28	158	Itsasoa askoz harago ze-goen	114
53	Gorpuzkera klimaren mende	40	247	Izar harrigarri bat	178
307	Gosearen aurka alferrik ..	226	209	Izarrak eskuetan	150
134	Gure asaben hezurrak	98	235	Jainko aina arrain	170
150	Gure ilargiaren misterioak	109	182	Jan bezala lan	131
111	Gurutzea eta zuhaitza	82	188	Jeremiasen kalamitateak .	135

Zenba-kiak	Tituluak	Orrialdeak	Zenba-kiak	Tituluak	Orrialdeak
211	Kafea galtzerdian	151	303	Marino preso	223
265	Kafea on, tabakoa txar ...	191	259	Marmota, loditasunaren erremedioa	217
301	Kafearen zazpi zorionak ..	222	139	Masoien internazionala ..	101
8	Kakarraldoaren ideiak ...	11	294	Materiaren misterioa argituz	216
302	Kalixto euskaldunen aurka	222	243	Mayak, txiklearen asma-tzaileak	175
99	Kanposantuan denak airean	74	221	Mediterraneoko azken pirata	159
2	Kantaria ikusteko diskoa ..	7	253	Medizina magnetikoa	182
231	Karibetarrentzat europar lotsagarriak	167	50	Medusa elektrikoak	38
123	Karrerako astoak	90	22	Mende erdi aurdun	20
185	Karrerarenbat ote zen	133	106	Mendexako satorraren sententzia	79
27	Kastitateko aseguruia	23	88	Mezadun eta lapikodun apaizak	65
129	Kilometrotako makinak ..	94	326	Mihiluaren dohainak	241
89	Kissingarren ebanjelioa ..	66	320	Mila pezetakoaren kanbioak	236
314	Kohete-autoa	232	85	Milioiak milioien bueltan ..	63
180	Kontinenteak mugitzen ari dira	129	297	Minbiziaren aurka sukarra	219
62	Kontrarioak lagun	47	63	Misterio akustikoak	48
58	Kontuz, kotxe lapurrak ..	45	142	Mozart, masoién musikalaria	103
107	Landareak adimendun ...	79	206	Mozkorrak bolantean	148
118	Langileak ala oiloak	87	175	Mundua K.O. gartzelan ..	126
172	Lantegiak espazioan	124	258	Musika terapiatzat	186
298	Laster, denok bakteriak jaten	219	51	Mussoliniren alaba Hitle-rrekin	39
195	Lau ordu lehenago meze-tara	140	286	Mutiko morroigarria	209
140	Lazkao txiki Arnedon	102	312	Nanotasuna sendaturik	230
171	Lehen balearrantzaleak ..	123	121	Napoliko «virus» hiltzailea	89
79	Lehenbizi igeri, gero oinez	58	61	Naturismoa ala negoziua? ..	47
6	Logabetasuna botikatatzat ..	10	330	Neandertala eta gu	244
45	L.S.D. droga dekadentea ..	35	3	Nekazariak telebistan	8
161	Lurrikaren kontra eztitua ..	117	200	Nekazaritza goitik espiatua	144
225	Luzio Arrola	162	81	Neonaziak atakera	61
272	Machu-Picchuko misterioa	198	146	Neutroi bonba noranahi heltzekoa	106
145	Mahatsa Euskalherrian ..	105	324	Nobleak eta urreak	240
52	Mahatsa medikamentutzat	40	281	Noizko arraultzeak	205
198	Maneiu genetikoén aurre- rapenak	142	327	Nor dago hemen ero?	242
196	Mantxako Kanalea bizikletan	141	224	Nostradamus igarle ospe-tua	161
101	Maputxeak hondamendi le-galean	75			
78	Marihuanaren gerrileroak ..	58			

Zenba-kiak	Tituluak	Orrialdeak	Zenba-kiak	Tituluak	Orrialdeak
230	Oilarra erloju	166	155	Tarzan delakoan	113
271	Okilaren gonbita	197	7	Tentsioak ikasmena urritzen	11
100	Olak eta olagizonak	74	9	Tentsioaren misterioa argiturik	12
102	Oñatiko araoztar lehoina-barra	76	103	Trafiko seinaleen antzeko hizkuntza	77
214	Ordua eta kanpaiak	154	300	Tratularia eta baserritarra ..	221
170	Orozkotarra etxeratu ezinik	123	321	Truke libre, lapurreta libre ..	237
119	Otxandioko artzainaren zoriona	88	117	Tunguskako meteorito misterio-totsua	86
256	Pausuaren prezioa	185	19	Tupa-katari, indioen mugimendua	18
59	Petrolio zikina	45	74	Txakurra eta gizona aintzina	55
252	Polizi saguak	182	47	Txakurren tamainuko zaldiak	36
218	Prezioen terrorismoa kostaldean	157	228	Txamulen erligio harrigarrria	164
76	Robinson Crusoeren irla ..	201	245	Txanponak erre kara	177
202	Sagu bedekatuak	145	328	Txerriaren prezioa	243
331	Santiagoren sermoia	245	64	Txerriak eta gripea	48
285	Sateliteak komunikabide bildurgarriak	209	242	Txikia baina bizkorra	175
174	Senar jipoilaria	125	43	Tximiño jakintsuak	34
248	Seme alabak karreran	179	124	Txinpantzeak eskolara	91
262	Separaziorik onena	189	330	Txiza aspirinen orde z	246
277	Sermoiaren prezioa	202	152	Txuleta jokoa	110
96	Sha eta Hassan	71	275	Unibertitate euskara huts- sean	200
160	Sinesgarritasuna hankaz gora	116	26	Ur termalak energiatzat ..	23
208	Soldadutzatik libre	149	92	Ur-zaldiak zutik	68
31	Soldata txapelean	26	105	Uranioa zerutik	78
191	Sorgiñak bizirik	137	127	Urdaila sakelean	93
210	Stressak inpotentzia dakar	151	259	Urrea eta bazkaria	187
86	Su gainetik erre gabe	64	319	Urrea kapitalismoaren lotsagarri	235
201	Suge pozointzuekin kalabo- zoan	144	84	Urrezko jantzi miragarria ..	63
91	Suizidioen arrazoiak	67	315	Urteko gizona	232
212	Susto gogoagarria	152	325	Uzkerraren damuak	240
73	Tabakoaren ispilua	54	178	Venusera joanetorria	128
273	Tarantula dantza	198			

Zenba-kiak	Tituluak	Orrialdeak	Zenba-kiak	Tituluak	Orrialdeak
54	Xingu ibaiko indioak	41	279	Zer ikusi, hura ikasi	203
			18	Zerebroan irratia	18
			148	Zergatik zutitu zen gizona	107
288	Zaldien jaiak	211	204	Zerua trastez beterik	146
190	Zeanuriko kokoak	137	217	Zikina eta zikinagoa	156
166	Zeberiotarra hagina ateratzera	120	176	Zikina urre	127
249	Zehaztasun munizioak	180	108	Zintzarriak eta zintzarrialdiak	80
137	Zentzerradak penintsulan zehar	99	130	Ziriari eztena	95
			126	Zoroerriko sanoa	92